

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak

Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca

Travaux eta actes de l'Académie de la Langue Basque

Work and Proceedings of the Royal Academy of the Basque Language



EUSKERA



2016
61,1
1-230
BILBO
ISSN 0210-1564



EUSKALTZAINDIA

EUSKERA AGERKARIA

Plaza Barria, 15. 48005 BILBO

Telefona: 94415 81 55 • Faxe: 94 415 81 44

posta elek.: info@euskaltzaindia.eus • [webgunea: www.euskaltzaindia.eus](http://webgunea:www.euskaltzaindia.eus)

Aldizkari hau beste agerkariekin trukutzen da

Esta revista admite el intercambio con otras publicaciones

Cette revue s' échange avec d' autres publications

This journal can be exchanged for others by agreement

Testuen hizkuntza orrazketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia (HIZBEA)

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburu hau osorik edo zatika kopiazea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo copyrigharen jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

ISSN 0210-1564

Lege Gordailua: BI-1244-58

Diseinua: www.ikeder.es

Maketazioa: Euskaltzaindiko Argitalpen zerbitzua

EUSKERA AGERKARIA

Euskera Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala da eta 1920. urtetik aurrera argitaratzen da. Urteko lehen zenbakiak (buletinak) Euskaltzaindiaren lana eta bizitza akademikoa biltzen ditu, eta bigarrenak Akademiaren lan esparruetako ikerketa-artikulu originalak, liburu-aipamenak eta antzekoak jasotzen ditu. Zenbakiak urtea bukatu eta hurrengo sei hilabeteetan argitaratzen dira. Ikerketa artikuluak argitaratzeko, Idazketa kontseiluak, anonimotasuna bermatuz, kanpo ebaluatzaileen iritzia jasoko du.

Euskera agerkaria honako aurkibide, zerrenda eta datu-baseetan dago:

- Azkue Bibliotekaren katalogoan
- Euskaltzaindiko webgunean
- Latindex Katalogoan
- Emerging Sources Citation Index-en (ESCI)
- Inguma datu-basean
- ISOC datu-basean
- Linguistic Bibliography datu-basean

Kalitate adierazleak:

CIRC (2015): C maila

MIAR (2016): 8.0 (ICDS)

La revista *Euskera* es el órgano oficial de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia y se publica desde 1920. El primer número del año (el boletín) recoge los trabajos y actos académicos de Euskaltzaindia mientras que el segundo se dedica a publicar artículos de investigación originales, reseñas de libros y similares. Los números se publican dentro del semestre posterior a finalizar el año. Para publicar artículos de investigación, el Consejo de redacción, garantizando el anonimato, recurre a expertos externos.

La revista *Euskera* está disponible en los siguientes catálogos y bases de datos:

- Catálogo de la Biblioteca Azkue
- Página web de Euskaltzaindia
- Catálogo Latindex
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)
- Base de datos Inguma
- Base de datos ISOC
- Base de datos Linguistic Bibliography

Indicadores de calidad:

CIRC (2015): Categoría C

MIAR (2016): 8.0 (ICDS)

La revue *Euskera* est l'organe officiel de l'Académie de la Langue Basque / Euskaltzaindia ; sa publication a démarré en 1920. Le premier numéro de l'année (le bulletin) présente les travaux et la vie de l'Académie ; le second quant à lui publie des articles concernant des travaux de recherche, des comptes rendus de livres, ou autres sujets similaires. Les numéros sont publiés au cours du semestre qui suit la fin de l'année. En ce qui concerne la publication d'articles de recherche, le Comité de rédaction s'entoure d'experts extérieurs à qui il garantit l'anonymat.

La revue *Euskera* est présente sur les catalogues et bases de données suivants :

- Catalogue de la Bibliothèque Azkue
- Page web d'Euskaltzaindia
- Catalogue Latindex
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)
- Base de données Inguma
- Base de données ISOC
- Base de données Linguistic Bibliography

Indicateurs de qualité :

CIRC (2015): Catégorie C

MIAR (2016): 8.0 (ICDS)

Euskera is the official journal of Euskaltzaindia and has been published since 1920. The first number or bulletin published each year reflects the Academy's work and academic activities, while the second one contains original research articles, book reviews and the like. Issues are published in the six month period following the end of the year in question. For the publication of research articles the editorial board seeks the opinions of external evaluators, while preserving their anonymity.

The *Euskera* journal appears in the following indexes, lists and databases :

- Catalogue of the Azkue Library
- Website of Euskaltzaindia
- Latindex catalogue
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)
- Inguma database
- ISOC database
- Linguistic Bibliography database

Quality indicators :

CIRC (2015): Group C

MIAR (2016): 8.0 (ICDS)

EUSKALTZAINDIA

EUSKERA AGERKARIA



IDAZKETA KONTSEILUA

Zuzendaria: ANDRES URRUTIA, Euskaltzaindia. Bilbo
Idazkari akademikoa: ANA TOLEDO, Euskaltzaindia. Bilbo
Teknikaria: JON ARTZA, Euskaltzaindia. Bilbo

Kideak

ADOLFO AREJITA <i>Deustuko Unibertsitatea. Bilbo</i>	ANDONI SAGARNA <i>Euskaltzaindia. Donostia</i>
JEAN-BAPTISTE COYOS <i>Iker (C.N.R.S., Bordele 3, UPPA). Baiona</i>	PATXI SALABERRI <i>Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea</i>
JOSEBA ANDONI LAKARRA <i>Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz</i>	MIKEL ZALBIDE <i>Euskaltzaindia. Donostia</i>

Aholkulariak: JOSEBA ZABALETA eta ERRAMUN OSA (*Euskaltzaindia. Bilbo*).

AHOLKU BATZORDEA

MIXEL AURNAGUE <i>CNRS, J. Jaurès Unibertsitatea Tolosa, Okzitania</i>	XABIER ITZAINA <i>CNRS, Centre Emile Durkheim Sciences por Bordeaux. Bordele</i>
MIREN AZKARATE <i>Euskaltzaindia. Donostia</i>	JOSEBA INTXAUSTI <i>Euskaltzaindia. Donostia</i>
JOXE AZURMENDI <i>Euskal Herriko Unibertsitatea. Donostia</i>	IÑAKI IRAZABALBEITIA <i>Elhuyar Fundazioa. Usurbil</i>
MARTINE BERTHELOT <i>Perpignango Unibertsitatea. Perpignan</i>	JACINTO ITURBE <i>Euskal Herriko Unibertsitatea. Leioa</i>
CHARLES BIDEGAIN <i>Paueko eta Aturiko herrialdeetako Unibertsitatea. Baiona</i>	JABIER KALTZAKORTA <i>Deustuko Unibertsitatea. Bilbo</i>
JOSU K. BIJUESCA <i>Deustuko Unibertsitatea. Bilbo</i>	JON LANDABURU <i>CNRS, Paris. Kolonbiako Kultura Ministerioa</i>
GIDOR BILBAO <i>Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz</i>	ALBERTO LOIZATE <i>Basurtoko Ospitalea. Bilbo</i>
IÑAKI CAMINO <i>Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz</i>	JUAN MADARIAGA <i>Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea</i>
ANA ETXAIDE <i>Nafarroako Unibertsitatea. Iruñea</i>	JOAN MARTÍ <i>Institut d'Estudis Catalans. Secció Filològica. Bartzelona</i>
JOSE RAMON ETXEBARRIA <i>Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo</i>	ENEKO OREGI <i>Eusko Jaurlaritz. IZOko burua. Gasteiz</i>
MAITE ETXENIKE <i>Universitat de València. Valentzia</i>	JON ORTIZ DE URBINA <i>Deustuko Unibertsitatea. Bilbo</i>
PATXI GOENAGA <i>Euskaltzaindia. Gasteiz</i>	ROSA MIREN PAGOLA <i>Deustuko Unibertsitatea. Bilbo</i>
RICARDO GÓMEZ <i>Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz</i>	JOSE ANTONIO PASCUAL <i>Real Academia Española. Madril</i>
MANUEL GONZALEZ <i>Euskaltzaindia. Donostia</i>	TXOMIN PEILLEN <i>Euskaltzaindia. Baiona</i>
MARTIN HAASE <i>Bambergo Unibertsitatea. Bamberg</i>	IBON SARASOLA <i>Euskaltzaindia. Donostia</i>
JOSE IGNAZIO HUALDE <i>Illinoiseko Unibertsitatea. Illinois</i>	JOAN MARI TORREALDAI <i>Euskaltzaindia. Donostia</i>
ITZIAR IDIAZABAL <i>Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz</i>	MIRIAM URKIA <i>Euskaltzaindia. Donostia</i>
	JUAN JOSE ZUBIRI <i>Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea</i>

E U S K E R A

AURKIBIDEA

EKITALDIAK:

- **Miguel Javier Urmenetaren jaiotza-mendeurrena**

[12] *Kronika*

[13 - 25] *Miguel Javier Urmeneta Ajarnaute (1915-1988)*

ZABALETA, Patxi

JARDUNALDIAK:

- **Euskararen biziberritzen jarraitzeko erronkak**

[28 - 29] *Kronika*

[30 - 41] *Berrikasi eta berrikusi. Euskaltzaleok batzen gaituena garrantzitsuagoa delako*

AMONARRIZ, Kike; MENDIZABAL, Jasone

[42 - 44] *Euskara eta Internet: zortzigarren lurraldea konkistatzen*

WALIÑO, Josu

- **Jose Antonio Loidi Bizkarrondoren jaiotza-mendeurrena**

[46 - 48] *Sarrera*

TOLEDO, Ana

Euskera. 2016, 61, 1. 6-9. Bilbo

ISSN 0210-1564

[49 - 67] *Jose Antonio Loidi Bizkarrondo eta Irunen utzi digun ondarea: LUKT*
GARRIDO YEROBI, *Iñaki*

[68 - 86] *Bederatzi kopla, hamahiru, Hamabost egun Urgainen*
ELUSTONDO, *Miel A.*

- **XXI. Jagon jardunaldia: "Ipar Euskal Herriko Elkargoaren sorrera eta euskararen etorkizuna.**

[87 - 88] *Kronika*

AGIRIAK:

- **Euskaltzaindia. Batzar-agiriak**

[91 - 96] *Osoko bilkura*
Donostian, 2016ko urtarrilaren 29an

[97 - 103] *Ageriko bilkura*
Donostian, 2016ko urtarrilaren 29an

[104 - 109] *Osoko bilkura*
Loiun, 2016ko otsailaren 26an

[110 - 118] *Osoko bilkura*
Iruñean, 2016ko apirilaren 29an

[119 - 121] *Ageriko bilkura*
Iruñean, 2016ko apirilaren 29an

[122 - 129] *Osoko bilkura*
Gernikan, 2016ko maiatzaren 27an

- [130 - 138] *Osoko bilkura*
Baionan, 2016ko ekainaren 24an
- [139 - 146] *Osoko bilkura*
Gasteizen, 2016ko uztailaren 22an
- [147 - 154] *Osoko bilkura*
Iruñean, Nafarroako Parlamentuan, 2016ko irailaren 30ean
- [155 - 159] *Barrengo bilkura berezia*
Bilbon, 2016ko urriaren 28an
- [160 - 165] *Osoko bilkura*
Bilbon, 2016ko urriaren 28an
- [166 - 172] *Osoko bilkura*
Donostian, 2016ko azaroaren 25ean
- [173 - 181] *Osoko bilkura*
Bilbon, 2016ko abenduaren 16an

- **Euskaltzaindiren Arauak**

- [182 - 183] *Euskaltzaindiaren Araugintza 2016an*

IRIZPENAK ETA TXOSTENAK

- **Onomastika**

- [185 - 198] *Caicedo Yuso arabar herrian dagoen lakuaren izenaz*
GONZÁLEZ DE VIÑASPRE, Roberto

ADIERAZPENAK ETA HITZARMENAK

[200 - 209] *"Euskal Herria izena" 139. arauaren gainean*

[210 - 211] *Euskaltzaindiak eta Euskal Konfederazioak adierazpen bateratua*

[212 - 216] *Euskaltzaindiak 2016. urtean sinatutako hitzarmenak*

BERRIAK

[218 - 224] *2016ko albisteen kronika*

OMENALDIAK

[226 - 230] *2016an omenduak izan diren Euskaltzaindiko kideak*

Ekitaldiak

Miguel Javier Urmenetaren jaiotza-mendeurrena

Iruñeko Udalean, 2016ko apirilaren 29an

Kronika

2016ko apirilaren 29an, Iruñeko Kondestablearen jauregian, Miguel Javier Urmeneta euskaltzain urgazlearen jaiotzaren mendeurrena dela eta, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin zuen.

M. J. Urmeneta (Iruñea, 1915-1988) militar eta politikari nafarra izan zen. Besteak beste, 1957tik 1964ra Iruñeko alkate, eta 1964tik 1971ra Nafarroako foru diputatu ere izan zen. Zuzenbidea ikasi zuen Salamancan. Euskal nazionalista bazen ere, Espainiako Gerra Zibilean frankisten alde jarri zen, eta boluntario joan zen gerrara erreketekin. Ondoren, Dibisio Urdinean sartu eta Errusian borrokatu zen. Akademian karrera militarra ikasi zuen.

Euskara bigarren hizkuntza gisa ikasi zuen. 1950eko hamarkadan euskararen aldeko politika duina eskatu zion orduko Nafarroako Foru Diputazioko presidenteari. Bere ahaleginari esker, Diputazioaren Vianako Printzea Erakundearen barnean, Euskararen Aldeko saila sortu zen. Era berean, Iruñeko Euskalerria Irratiaren sortzaileetako, UEUren sustatzaileetako eta AEK-k antolatzen duen Korrikaren laguntzaileetako bat ere izan zen. Euskaltzaindiak, euskararen alde eginiko ahaleginak aitortuz, euskaltzain urgazle izendatu zuen 1966an.

Patxi Zabaleta euskaltzain osoak, eman duen hitzaldian, Miguel Javier Urmene-taren bizitzaren zenbait pasarte eta jakingarri landu ditu. Hitzaldi hori hurrengo orrialdeetan irakurtzeko aukera dago.

Ondoren, Asisko Urmeneta komikilari eta ilustratzaileak, Miguel Javier Urmene-taren semeak, hartu du hitza. Honek, familiaren izenean, Euskaltzaindiari eskerrak eman dizkio bere aita gogora ekartzeagatik. Gauzak horrela, diapositibak lagun dituela, gogora ekarri ditu bere aitak sasoi desberdinetan idatzitako testuak, eginiko irudiak, bai eta haren gogoetak. Amaitzeko, ekitaldira hurreratu diren guztiei ere eskerrak eman dizkie.

Miguel Javier Urmeneta Ajarnaute (1915-1988)

ZABALETA, Patxi
Euskaltzain osoa

1.- Zertzelada pertsonalak.

Miguel Javier Urmeneta Ajarnaute Iruñean jaio zen 1915-XI-26an eta Iruñean bertan hil zen 72 urterekin, 1988-VI-12an. Familia abertzale, euskaltzale eta ekonomikoki ongi kokatutako batean sortua zen, bere aita, Ataúlfo Urmeneta Cidriain, EAJko kide eta *La Voz de Navarra* egunkari abertzaleko bultzatzailea ez ezik, Iruñeko Aurrezki Kutxa Munizipaleko zuzendaria izan baitzen urte askoz.

Miguel Javier Urmeneta dohain eta kontraesan sakonetako pertsonaia izan zen; aldi batetik hurbila, konplexua eta ulertzeko zaila, maitagarria egiten zena, eta askoren aldetik oso maitatuta; baina aldi berean beste hainbesteren aldetik oso gorrotatua gertatu zena. Euskaltzale eta abertzale bezala azalduta ere, Espainiako gudarosteko militar profesionala izan zen, legelaria eta abokatua, eleaniztuna, frankismo garaiko politikaria, Iruñeko Aurrezki Kutxako zuzendaria bere aita hil ondoren eta erretreta hartu arte, idazlea, margolaria...

Esan bezala, familia abertzalekoa zen eta bere guraso, senide eta ahaide gehienak abertzaletzat ezagutuak izan ziren, baina Miguel Javierri berari pertsonalki estuegiak bezala zitzaizkion alderdi eta mugimendu abertzaleak. Esanguratsuak dirudite halere, gaztaroan eta adinez heldua zelarik izandako hurrengo jokabide batzuk. Bat: 1936a baino lehenago *Amayur* izeneko aldizkari abertzalean argitaratu ematen zituela bere marrazkiak. Bi: 1976an, Adolfo Suarezren gobernuaren garaian eta Gutierrez Mellado teniente jeneralaren bitartez, Hegoaldeko lau herrialdeetako Gobernu Ordezkaria edo “Supergobernadorea” izateko eskaintza egin ziotenean, baldintza bezala, preso politikoei amnistia ematea jarri zuen, indar politikoek hala eskatuta, eta baldintza horrekiko ezetza jaso ondoren, uko egin zion kargu hari. Gutierrez Mellado teniente jeneralak 1976an aditzera eman zuen “aldi berean bi aldeetako den norbait beharko genuke; –zuen eta gurea den norbait alegia–, eta holakorik Urmeneta besterik ezin izan liteke.” Hiru: Miguel Javier Ur-

menetak bere burua “kanpioniano” bezala aitortu ohi zuen, inork galdetuz gero. Arturo Campión zalea zela ez dago zalantzarik eta Nafarroaren izaera, historia eta ezaugarri guztiak, euskara barne, sakonki maite zituela ere ez dago duda izpirik. Eta lau: aitzitik ordea, ez zuen inoiz alderdi abertzale bateko kide izateko urratsik eman (gaztetan Eusko Gaztedirekin izandako harremana ez bada) eta erabaki edo asmo hori azaltzen du bere memorietaiko idatzietan ere.

Euskaltzale bezala ordea, eta, zehazkiago esatearren, euskaren laguntzaile bezala, Miguel Javier Urmenetak egindako, bultzatutako eta lagundutako eginkizun eta saioak oso anitzak, ezberdinak eta pertsona, talde, herri eta erakunde askori eragiten zietenak izan ziren. Euskararen aldeko lan horiek aipatzea, sailkatzea eta aztertzea da ehungarren urteurrena gogoratzeko ekitaldi honen aukera eta xedea.

1936ko gerratearen eztanda ikaragarriak Salamancan harrapatu zuen Miguel Javier Urmeneta, hiri hartako unibertsitatean ari baitzen zuzenbide ikasketak egiten. Ez zitzaion jada, irakasgai bakar bat baizik gelditzen, merkataritza-zuzenbidea hain zuzen ere, karrera 21 urterekin bukatzeko eta hiru urte beranduago amaitu zuen. Baina gudu hura hasi zelarik, Miguel Javier Urmeneta karlisten gudarosteko “Erregearen Tertzioa”n sartu zen bolondres edo boluntario moduan, hainbeste eta hainbesteren harriidurarako familia eta giro abertzalekoa zenez gero. Kapitain graduarekin bukatu zuen gerratea, eta ondoren, Espainiako gudarostean txertaturik, “División Azul” delakoan sartuta boluntario berriro ere, Errusiako guduan jardun zuen Alemaniako gudarostearekin. Ondoren, ikasketa militarrek burutu zituen Espainiako eta AEBko Fort Cleveland-go akademia militarretan eta komandante graduarekin Espainiako gudarosteko Estatu Nagusian jardun zuen Muñoz Grandes jeneralarekin eta beste. 1954an ordea, aita hil eta hark zeukan Iruñeko Aurrezki Kutxa Munizipaleko zuzendaritza eskaini ziotenean, karrera militarra utzi zuen teniente koronelaren maila zeukalarik, eta Iruñera itzuli zen eta Aurrezki Kutxa horren zuzendaritza kudeatu zuen, erretreta hartu arte 1982an, 67 urterekin.

1954an Aurrezki Kutxako zuzendaritza hartuta, Iruñera itzuli zenetik, garaiko politikarekin harremanak izan zituen, nahiz ez zen inoiz zeharo politikan murgildu. Garai hartako giroan eta orduko baldintzekin izan zituen karguetatik azpimarratzekoak dira, lehenik, Iruñeko alkatetza sei urtez (1958-1964), eta gero foru diputatu kargua beste zortzi urtez (1964-1971). Ondoren, berriro aurkeztu zen Iruñeko zinegotzi izateko eta horrela berriro foru diputatu izateko, baina helegitea ipini zioten, eta nahiz eta zazpi urte beranduago (1976) auzia irabazi, bi urte beranduago (1978) dimititu eta kargua utzi egin zuen, besteak beste, foru diputatu

izateko aukera kendua ziotelako.

Kargu politiko hauetan, batez ere Iruñeko alkatetza kudeatu zuenean, izugarrizko atxikimendu herrikoiak jaso zituen eta, orduan ohikoa ez zen bezala, onarpen handiko politikaria izan zen. Baina arerio edo etsai politiko amorratuak ere agertu zitzaizkion, eta horren adibidea da 1971n foru diputatu bezala jarraitu ahal izateko bidea itxi egin ziotela, horretarako beharrezkoa zen Iruñeko zinegotzi kargua eskuratzeko bidezkoak ez ziren oztopoak ipiniz. Agian, dagoeneko beren lanak egiten ari ziren “isilpeko zerbitzuak”, pentsatzekoa baita oso ezberdina izanen zela Nafarroako Diputazioaren bilakaera Urmeneta barruan egon izan balitz.

2.- Miguel Javier Urmenetaren garaia eta inguruabarrak. Erantzunik gabeko galdera

Nafarroako abertzale edo euskaltzale askorentzat ez ezik, bestelako jende aurretakoi eta mota anitzekoentzat ere ulergaitzak izan ziren beti Miguel Javierren erabakiak eta bere jardun politikoa. Nola ulertu edo onartu Nafarroan hainbesteko sarraskia eta hilketak egiten ari ziren karlistekin gudarostean boluntario sartzea?

Miguel Javier Urmenetak berak ez zion galdera horri erantzun zehatzik eta zuzenik eman nahi izan. Memoria liburu bat idatzi zuen, bi zatitan argitaratuta dago, eta liburu horretan ere ez zaio galdera zail eta lakatz horri erantzun argirik ematen; ihes egin zion beti.

Nafarroako abertzale batzuen artean eta, are gehiago, Miguel Javier Urmenetaren aldeko sutsuen artean, beti bilatu nahi izan zaio galdera gogor horri aitzakia kutsua darion ihardespena; zera alegia, etxekoei kalte handiagoak ekiditeko joan zela boluntario, bai lehenik Espainiako gerratera karlista moduan, nola gero División Azul delakoan Errusiako frontera Alemaniako Hitlerren gudarostearekin. Egia da urmenetatarrei ez zitzaizela zapalketarik edo mendekurik egin beren ideia eta jarrera abertzaleengatik. Horren guztiaren adibiderik nabarmenena zera izan zen: Ataulfo Urmeneta Cidrián, Miguel Javierren aita alegia, nahiz abertzale eza-guna izan, Iruñeko Aurrezki Kutxako zuzendari bezala mantendua gertatu zela hil arte. Ondoren gainera, lehen aipatu bezala, aita hil ondoren, Miguel Javierrek berak eskuratuko baitzuen Aurrezki Kutxa Munizipaleko zuzendari kargua.

Roldán Jimenok egindako Urmenetaren biografian, behin baino gehiagotan azaltzen da galdera lakatz eta garrantzitsu hori. Biografia honetan aipatutako erantzun barkatzailea onikusten da edo iradokitzen da, nahiz eta zehazki oinarritu

edo argudiatu gabe. Izan ere, agerikoa baita beste abertzale, errepublikazale edo soilik demokrata ziren askok eta askok, bai Nafarroan nola Nafarroatik kanpo, ez zutela etxeko onuren alde jokatu, nahiz eta horregatik zapalduak gertatu.

Urmeneta pertsonalki ezagutu genuenok uste dugu agian galdera lakatz horren erantzunik ez zuela sekula izan. Damututa ote zegoen? Agian, ez bai, ez ez. Bere izaera pertsonala ere kontraesanez betea zen, eta alde batetik gizaseme tinko sendo eta ziurra bazirudien ere, beste aldetik gizaki beratza eta apala zen. Nafarroako hiztegi orokorrean “pentsakera abertzaleko pertsona” zela esaten da ezaugarri orokor bezala; agian bere pentsaeran ere beste guztiak ulertu nahi eta denei tokia egin nahiak hutsaldu egiten zituen bere izaerako ezaugarriak.

3.- Urmenetak euskarari eta euskal kulturari emandako laguntzak

Frankismoaren bukaerako hamarkadetan euskararen alde Nafarroan zer edo zer egin nahian mugitzen ginenok toki eta arazo guztietan topo egiten genuen Miguel Javier Urmenetarekin. Laguntza eskatuz gero, beti prest azaltzen zen eskua botatzeko; eta inoiz ekimen edota iradokizunen bat ere bultzatu zuen arlo hauetan.

3.1.- Ikastolen hasiera eta egituraketak guztiz arazotsuak izan ziren Nafarroan, eta maiz ezinbestekoa izan zen gobernadore zibilariei bat eginen ziona edo Hezkuntzako Ministerioko ordezkariarekin mintzatuko zena edo larritasun bat gainditzeko diru pixka bat emanen zuena bilatzea, eta askotan horietarako guztietarako Urmenetarengana jotzen genuen. Bere anaia Ramon Urmeneta San Fermin ikastolako lehen presidentea izan zen, Iruñeko ikastola bitan zatituta Paz de Ziganda eta San Fermin ikastolak sortu zirenean. Urmenetak laguntza eman zuen kinka larri hartan, nahiz bera ez zen ikastolako gurasoa, ez baitzituen seme-alabak ikastolara bidali.

3.2.- Helduentzako euskara ikasketak eratzeko garaian, Iruñean Arturo Kanpion akademia deitutako ikastetxea izan zen aurrenekoa, bertan bildu baitziren ordura arte gau-eskolak izenarekin sakabanatuak zeuden ekimen ezberdinetako ikasgelak, eta hartan ere bere babesa eman izan zuen unerik zailenetan.

3.3.- Euskal literaturaren arloan Iruñeko Aurrezki Kutzak, artearen munduko beste ekimen batzuez gainera, hiru sari sortu zituen eta horietako bat, Xalbador izeneko, soilik euskarazko idazlanei zuzendua, alajaina. Eragin sakona izan zuen Xalbador sariak Nafarroako euskaldungoan; besteak beste, argitaratu egiten zituelako idazlan sarituak. *Arga* izeneko olerki aldizkaria sortu zen Iruñeko Aurrezki

Kutxaren babesean eta bertan euskaraz egindako literaturari tokia eman zitzaion.

Iruñeko Aurrezki Kutxak, gainera, Nafarroan ezohikoa zen garaietan, erdaraz eta euskaraz oihartzun handiko komikiak argitaratu zituen: *Amaia* eta *Nafarroako kondaira*.

Bestalde, gainera, komikiak egitea eta itzultzea xedetzat zeukan ETORKIZUNA S.A. izeneko merkataritza elkartearen partaide eta lehendakari izan zen Urmeneta. *Hansel eta Gretel* eta beste zenbait komiki argitaratu zituen elkarte horrek euskaraz, zeren eta ezin ahaztu haur komikiren bat edo beste euskaraz azaltzeak zeukan eragina, guztiak erdaraz izaten ziren garai haietan.

Nafarroan azken lau hamarkadetan euskal literaturak izan duen aldaketa funtsezkoak oinarri anitzak baldin badauzka ere, ezin ahaztu hemen aipatutakoak. Juan Mari Torrealdai 1977an idatzitako *Euskal idazleak gaur* liburu mardulean soilik bi idazle nafar daude aipatuta, Jose Luis Lizundia eta Patxi Zabaleta, baina 2016an nafar idazleek euskaraz argitaratutako liburu kopurua oso adierazgarria da; eta batzuk behintzat aintzat hartzekoak dirudite, Jose Miguel Bidadorrek ziurtatuko lukeen bezala gure artean balego.

Egia esan, euskal literaturaren arloan Nafarroan azken lau hamarkadotan emandako aldaketa sakonak iraultza ttipi bat dirudi. Euskararen ezagutza irakas-kuntzaren bitartez hedatu izanak eta, batez ere, Iruñeko inguruan suspertzeak eragin du aldaketa honetan neurri handi batean, baina hemen aipatutako ekimen xume guztiak eta beste arrazoi batzuk ez zaizkio arrotzak. Aldaketa honen azpian gizarte osoaren protagonismoa dago eta gaur egun eztabaida sozialetan edo intelektualetan euskara presente dagoela Nafarroako gizartean ezin da ukatu.

Nafarroan azken lau hamarkadetan euskal literaturak eman dituen urrats eta aldaketa funtsezkoak oinarri anitzak dauzka, zalantzarik gabe: alde batetik, ikastola eta euskarazko ikaskuntza; beste aldetik, euskalduntze eta alfabetatzea; hirugarrenik, ezin daitezke ahaztu euskararen aldeko mugimendu eta talde eta erakunde guztiak, baina aipatu beharrekoak dira baita ere aldizkariak, irratiak, literatura sariak eta abar, gogoan izaten badugu euskararen ospea, izen ona eta batez ere baliagarri izatea direla baserritar elebarraren *beldurra* eta *lotsa* gainditzeko modua.

3.4.- Lau irrati ttipi martxan jartzeko ahaleginak egin ziren frankismoko azken garaietan Nafarroan. Laurak apaiz euskaldunek eginak ziren, eta lauren historia

arakatzean, denetan aurkitzen da Urmenetaren laguntza edo babes. Lehena, “Beruete Irratia”, Jose Manuel Lasarte euskaltzain urgazleak 1958tik 1964ra martxan eduki zuen eta historiatuta dago Lasarteren 2007ko hilberri txostenean. Bigarrena, “Arantza Irratia”, Esteban Irigoien eta Javier Arburua apaizek garatu zuten eta 1962tik 1967ra iraun zuen. Hirugarrena, “Iruñita Irratia”, Jaime Andonegi apaizak martxan edukitakoa 1962tik 1965era. Azkenik, Jose Manuel Lasarte bera saiatu zen “Leitza Irratia” martxan jartzen, 1965ean, baina debekatu egin zioten. Izan ere, irrati xume horietako bi (Arantzakoa eta Leitzakoa) guardia zibilak klauratu eta inkautatuak izan ziren.

3.5.- Euskalerria Irratia sortzeko asmoz, “Iruñeko komunikabideak SA” izeneko merkataritza elkarte sortu zen, eta Miguel Javier Urmeneta elkarte buru izendatu zen, eta halaxe izan zen urte luzez. Agerikoa da ez zuela izendapen horrek irratiaren baimentzea azkartu, ezin baita ahaztu irrati honentzat baimena lortzea hogeita sei urte kosta dela, azkenean 2015ean eskuratu zuelarik, nahiz eta Iruñerrian soilik euskaraz egiten duen bertako irrati bakarra izan.

3.6.- Bertsolaritza txapelketa eta arialdietarako laguntza askotan eman zuen, bere miresmena adieraziz. Iruñeko Aurrezki Kutxako zuzendaritzako erretiroa hartzeko zenean, 1982an alegia, omenaldi apal bat egin nahi zitzaioela eta, Urmenetak bertsolariak nahi zituela esan zuen Kontseiluko gehien harridurarako. Lasarte eta Xanpun bertsolariekin halako ekitaldi xume bezain atsegina burutu zen.

3.7.- *Cuadernos de Etnografía y Etnología* eta *Fontes Linguae Vasconum* aldizkariak foru diputatu bezala eman zituen zortzi urteetan sortu ziren.

Foru diputatu izandako urteak izan ziren emankorrenak edo esanguratsuenak euskararen laguntzari dagokionez. Ez bakarrik egin eta burutu ziren lorpenengatik, baizik agian gehiago, ordura arteko jokabidea aldatu egin zelako.

Garai hartan sortu eta jarri ziren abian herriz herri egindako haur euskaldunen sariketak eta *Príncipe de Viana* aldizkariaren Euskarazko Gehigarria. Orduan bultzatu nahi izan zen baita ere, euskararen erabilera ofiziala irakaskuntzan, baina paragrafo honetako hiru ahalegin horiek xehetasun gehiagorekin aztertuko ditugu José Mari Satrustegik 1989-XII-29an emandako hitzaldiaren haritik.

3.8.- Nafarroako Unibertsitate pribatua Iruñean jarria izan zedin orduan Urmeneta erabakigarria izan zen; ziur aski giltzarrietako bat. Gainera bertako euskarazko katedra sortzeko eta Jose Basterretxea, *Oskilaso*, jaunaren esku uzteko orduan ere,

eragina izan zuen. Basterretxearen ondoren Ana Etxaidek hartu zuen ardura. Unibertsitate pribatua Iruñean jartzeari dagokionez betiere, argi eta garbi azaltzen du memorietaiko liburuan bere atsegin osoa; ez zegoen egindakoaz damaturik, baizik harro. Beraz, ez dago unibertsitatearen arloan lehenagoko galdera lakatzeari bezalako zalantzarik.

3.9.- Margolanen esposizioak eta liburuaren argitalpenak bere azken urteetan egin zituen Miguel Javier Urmenetak. Liburuak Iruñeko sanferminez eta Erraldoi edo Kilikiez idatzi zituen. Beranduago bere memoriak idatzi zituen, baina bukatu gabe gelditu zitzaizkion, Roldán Jimenok egindako biografiaren eranskin moduan argitaratuak izan dira, Asiskok euskaratuta.

3.10.- Euskaltzaindiko urgazle izendatua izan zen. Urmeneta eleaniztuna zen, baina euskaraz mintzatzeko erraztasunik ez zuen lortu, (hainbeste miresten zuen Arturo Campiónen antzera).

Hirurogei eta hamar urte beteta zituelarik mintzapraktika egitera joaten zen artzapezpikutzaren jauregiko gela batera adiskide zituen Jose Maria Jimeno Jurio historialari, Jorge Kortez Izal Nafarroako ikastoletako sortzaile nagusi eta Pedro Maria Zabalza kanonigoarekin.

4.- Jose Mari Satrustegiren lekukotasun berezia

1989-XII-29an, Euskaltzaindiak Nafarroako Jauregian egindako ekitaldia aztertzeak ikuspegi esanguratsua ematen dio Urmenetaren irudia, eginkizunak eta izaera aztertzeari. Ekitaldi hura Jose Agerre Santesteban eta Miguel Javier Urmeneta Ajarnauteri omenaldi xumea eskaintzeko izan zedin antolatua izan zen. Bertan, garai hartako Nafarroako Gobernuako Lehendakaritzako kontseilari Aladino Colin jaunak hartu zuen hitza eta egin zion Euskaltzaindiari ongietorria eta huraxe izan zen Euskaltzaindiak 2016. urtea arte Nafarroako Jauregian egindako azkeneko bilera.

Jean Haritschelhar euskaltzainburu jaunak hartu zuen hitza lehenik eta Jose M^a Satrustegi jaunari eman zion sarbidea, hain zuzen ere, Miguel Javier Urmenetaz mintza zedin. Ondoren Kontxita Otxoak, Urmenetaren alargunak, bere esker ona azaldu zuen, eta Patxi Zabaleta euskaltzainak Jose Agerreri buruzko mintzaldia egin zuen.

Jean Haritschelhar euskaltzainburuak aipatu zuenez, 1962an ezagutu omen zuen Migel Javier Urmeneta orduan Iruñeko alkate zelarik, eta bera berriz, Ha-

ritschelhar jauna alegia, Baionako Erakustoki edo Museoko zuzendari. Elkartze haren xedea zera omen zen: Iruñean urte hartan ospatzekoa zen munduko pilota txapelketa zela eta, bertan pilotari buruzko erakusketa antolatzea.

Jose M^a Satrustegik hitzaldi hartan lekukotasun adierazgarria ematen du erabilitako gaiez hogeita zazpi urte beranduagoko perspektibatik. Satrustegik bere hitzaldiko sarrera Agerre eta Urmeneta aipatuz egiten du eta ondoren hitzez hitz egiten du hurrengo baieztapena: “Biekin parte hartu nuen gerra ostean euskararen alde Nafarroan egindako lanetan”.

Zein dira ordea, Satrustegik aipatutako lan horiek? Hitzaldi hartan hiru lan edo eginkizuneko zerrenda apala agertzen du Arruazuko euskaltzain adoretuak. Hona lan horiek zein diren hitzaldi hartako hurrenkeran: “Haur euskaldunen saristatzea”, *Príncipe de Viana* egunkariaren gehigarri euskalduna martxan jarri eta hainbat urtez iraunaraztea eta, hirugarrena, irakaskuntzak euskararen ofizialtasuna txertatzeko saioa.

4.1.- Satrustegik Urmenetarekin garatutako lehenengo lan edo eginkizuna haur euskaldunak saritzeko herriz herri antolatutako ateraldiak egitea izan zen. “Haur euskaldunen saristatze famatua”, esaten du Satrustegik. Zertarako ordea? Zein zuen eginkizun horrek helburua edo xede zehatza? Satrustegik berak erantzuten du hitzaldi hartako hitz gogorrekin, oraindik ere eta hainbeste urteren burura bada ere, zirrara eragiten duen arrazoia emanez: “Euskaldunari bere hizkuntzarengatik sortutako beldurra eta lotsa gainditzea”. Bene-benetan azpimarratzekoa da hor azaltzen den argudioa eta, malkoak aterarazi ahal baditu ere, arrunt eta arras egia; euskarak eragindako lotsa eta beldurra gainditzea baitzen euskaldun askorentzat zailena eta gogorrena garai haietan.

Gaur egun euskaldun elebakar gutxi gelditzen denean gogoratu beharra dago, euskaldun elebakarra eta, batez ere, euskaraz besterik ez zekien elebakarra, maiz mesprextatua, iraindua eta baztertua izaten zela. Gazteleraz ez jakitea, ezjakinaren edo tuntunaren sinonimoa izan da mende eta mendeetan. Nafarroako mendialdeko baserrietan, nekazaria, etxeoandrea, artzaina eta basolaria barregarri utzi nahi izaten ziren askotan, eta hori zapalketa garratza bezain jasanezina zen itxuraz leuna bazirudien ere.

Oraindik ere, bi hizkuntza ofizialak ez daude berdintasunean, baina egoera aldatzen ari da. Izan ere, ofizialtasuna beharrezkoa da gaur egungo bizimoduan hizkuntza inposaketak ekiditeko eta ondorioz hizkuntza askatasuna bermatua izan

dadin; eta horretarako oraindik asko falta zaigu Nafarroan 2017an.

Urmenetaren eta Satrustegiren garaian betiere, euskarak eragindako beldurra eta lotsa ziren kezka nagusiak eta horren guztiaren lekukotasuna emateak bazeukan lehen mailako garrantzia.

Izan ere, euskarak Nafarroan –edo beste euskal lurraldeetan– atzera egin zezan erabilitako bitartekoak ez dira soilik bortxazkoak izan, baizik batzuetan itxura leun edo ikusezinekoak. Ez ziren soilik debekuak, legez kanporatzeak edo aintzat ez hartzeak, baizik eta baita ere euskararen baliagarritasuna ukatzea, barregarri uztea edo atzean gelditzea. Horixe zen Satrustegik aipatzen duen “euskaldunari bere hizkuntzarengatik sortutako beldurra eta lotsa”; horixe zen gure arbaso, guraso, ahaide eta herritarrek hainbestetan nozitu zutena. Garai hartako adibide garrantz bat ipintzearren, konta nezake Leitzako gizaseme batek, –Kortabordako Martin Oronoz jaunak– 1936ko gerran hiru urte luze igaro eta itzulitakoan esana: “Ti-roak, goseak, hotzak, bustiak eta inon diren miseria guztiak ikusiak gaituk, baina erdaraz ez jakiteagatik sufritu geniana ez nitek nire seme-alabek nozitzerik nahi!”.

Haur euskaldunak saritzeko ekitaldia igande eta jai egunetan egiten zen batez ere. Joaten ziren herriz herri eta meza ondoren edo jai giroko une eta tokiren batean euskaraz zekiten haurrei halako azterketa xume bana egin eta Iruñeko Aurrezki Kutxako kartillak banatzen zizkieten diru pixka batekin.

4.2.- Jose M^a Satrustegik 1989ko hitzaldi hartan aipatutako bigarren lana Nafarroan euskarazko aldizkari bat argitaratzea izan zen. Zer xede ipini zioten ahalegin horri? Satrustegik Urmenetaren hitzak direla adieraziz komatxo artean esaten duenez: “... mendialdeko sukalde txoko guztietan euskarak sarrera ofiziala izan dezan”. Aldizkari euskaldun hura *Príncipe de Vianaren* Euskarazko Gehigarria izan zen. Lehendabiziko asmoa *Roncesvalles* izena jartzea izan omen zuten baina azkenean, esandako izenarekin gelditu zen. *Príncipe de Vianaren* Euskarazko Gehigarria doan banatzen zen eta 7.000 ale izatera iritsi zen. Satrustegik dioenez, “dozena bat idazle euskaldun elkartzen ginen Nafarroan Euskarazko Printzipe de Viana aldizkariaren inguruan.” Egia esan, bagara euskal idazle nafar batzuk geure euskarazko idazlanak lehen aldiz aldizkari hartan argitaratu genituenak. *Príncipe de Viana*-ren Euskarazko Gehigarriaren zuzendaria Pedro Diez de Ulzurrun sendagilea eta Satrustegi eta Urmenetaren lagun mina izan zen luzaroan. Diez de Ulzurrunek biltzen zituen idazlanak, berak bultzatzen zituen kolaborazioak eta berak maketatzen eta egiten zuen zortzi edo hamabi orrialdeko aldizkari hura.

Príncipe de Viana-ren Euskarazko Gehigarria jazarpen politiko baten ondorioz deuseztatu eta itxi zuten. Lehenik, Pedro Diez de Ulzurrun zuzendaria bota eta haren ordezkari Marcelino Garde apaiza arduradun izendatu zuten 1973an; Marcelino Gardek ordeza ez zuen aldezkaria garaiz ateratzen, sakabanatu egin zitzaizkion lehenagoko idazleak eta ez zuen idazle edo kolaboratzaile berririk lortu. Gainera, Marcelino Gardek euskara batuaren kontrako kanpainarekin bat egin zuen eta horrek zeharo ahuldu zuen aldezkaria, itxi egin behar izateraino 1976an. Jazarpen politiko hartan *El Pensamiento Navarro* egunkariak esku zuzena hartu zuen. “Arnas Berri” izeneko orrialdean maitasun librearen defendatzen omen zelako argudioa erabili zuen, iragarria baldin badirudi ere. *El Pensamiento Navarro* protagonizatu-tako eraso politikoaren lehen erreportaiak izenburu hauxe zeukan: “El akelarre de Larraitz, Ez Dok Hamairu y Príncipe de Viana.” Gaur egun sinestezina badirudi ere, eskuin muturreko egunkari haren arrazoinamendua honako hauxe izan zen: Larraitz mendiko gaupasa batean larrua jotzera iritsi omen dira, eta han omen zebiltzan Ez Dok Hamairukoak kantari, eta horra non *Príncipe de Viana*-ren Euskarazko Gehigarriak goraipatu egin duen Ez Dok Hamairu taldea. Ondorioz, *Príncipe de Viana*-ren Euskarazko Gehigarriak maitasun askea defendatzen du!

Bitxikeria badirudi ere, 1989ko Euskaltzaindiaren ekitaldi hartan *Príncipe de Viana*-ren Euskarazko Gehigarriaren sorrerari buruzko bi bertsio edo ikuspegi eman ziren. Zalantzarik gabe, bi bertsioak osagarri bezala ulertu behar dira. Ikuspegi edo bertsio bat, Satrustegik deskribatzen duena da. Satrustegik dioenez, Iruñeko Aurrezki Kutxa Munizipaleko zuzendariaren bulegoan egindako bileran hartu zen erabakia. Bilera hartan Urmenetak bere asmoaren berri eman zien eta Pedro Diez de Ulzurrun medikuak ardura hartu zuen. Beste bertsioa berriz, Kontxita Otxoak emandakoa izan zen eta Miguel Javier Urmenetarena berarena bezala eman zuen; nahiz eta Urmenetaren alargunak erdaraz irakurri, orain testu hura dirudiena euskaraz argitaratuta dago Roldán Jimenok egindako biografiaren eranskin moduan, Urmenetaren bukatu gabeko memoria liburuen kapitulu bat delarik.

Memorietako kapitulu horrek “Agerre eta Euskara” dauka izenburutzat. Bere laburrean euskarari buruzko hiru gogoeta garatzen ditu: bat, José Agerre, akademiaren hastapenetako Iruñeko euskaltzainari buruzkoa; bigarrena, *Príncipe de Viana*-ren Euskarazko Gehigarria izandako aldezkaritari buruzkoa; eta hirugarrena, Nafarroako euskararen (edo Vasconicearen) legerari buruzkoa.

Miguel Javier Urmeneta oso harro agertzen da *Príncipe de Viana*-ren Euskarazko Gehigarri delakoari dagokionez. Hona hemen Miguel Javier Urmenetak dioena,

bere seme Asiskok euskaraturik:

Nafarroan eta garai hartan, Euskarari ez zioten tirokatzen erailtzera, baina hil zedintzera, aisa makurrago baita. Erronkarin ez ziren geratzen Ximona, Ubaldo eta Maria Ezker besterik. Zaraitzuko hainbat herritan hilabete batzuren kontua zen. Eta Ezkabagibelean, negu honetako gripe arruntak eraman dezake udal oso bateko euskara, 4000 urtez geroztik. Lotsaemangarri.

Migel Gortarik, Diputazioko presidenteak, Euskara Saila arrapiztu zuen Biako Printzean, lotura eginez gerra aurreko Euskeraren Adiskideak ohoragarri harekin. Baina ni tematua nengoen beste zerbait eraginkorrangoan. Nik ikusi egin nahi nuen Foru-Diputazioa aurpegi ematen ofizialki eta konspirazioa osatu nuen zortzi edo bederatzi abaderekin, euskarazko kazeta bat ateratzeko, forala eta ofiziala. Unerik egokiena zen, ostiraleko batzarraldia larunbatera luzatzen zer hartan, orduan etortzen ziren herrietako komisioak diputatuen ikustera, eta batzuetan ez ziren bileran gelditzen presidentea eta besteren bat baizik. Presidenteak bakarrik eta lo, betaurrekoak sudur puntan zituela, ene premiazko galdeari beha egon zen... eta onartu egin zen.

Migel Jabier, dolu diat arbasoen mintzairaz ez jakinik.

So egik, Jn. Felix, hi jaiotzean, Garesen mintzo zen engoitik; funtsak dauzkaan herrian berean.

Kia!

Baietz, 1869an Bonaparte printzeak bildu zuen hiru gazteren kantua horko dialektoan: Iguzki t' ilargia zeruko izarrak, etab. Markok mozioaren alde egin zuen oso, beti bezala, eta Korporazioko ezein kidek ez zuen trabarik eman. Jaso berria dut 148. Zenbakia, eta XVI. urtea. Agerre kontent legoke.

Zalantzarik gabe Urmenetak zortzi edo bederatzi abaderekin egindako konspiraziotzat daukana, Satrustegik Iruñeko Aurrezki Kutxa Munizipaleko zuzendariaren bulegoan egindako bilera berbera izan zen. Ai ene, nolako itxura zuten garai hartako konspiratzaile haiek!

4.3.- Berrir 1989ko Euskaltzaindiaren ekitaldira itzuliz, Jose Mari Satrustegik Agerre eta Urmenetarekin egindako hirugarren lana edo ahalegina aipatuko dugu;

zera alegia, Irakaskuntza Ofizialean euskararen presentzia aldarrikatzea eta bultzatzea. Satrustegik berak dioenez, ez zen asmo edo desio bat baino askoz gehiagorik izan. Urmenetak bere kezka eta desioa aitortzen zituen euskara Irakaskuntza Ofizialean sartu ahal zedin, eta aldi berean aldarrikatzen zuen horretarako irakasleria prestatzeko edo trebatzeko premia.

Euskararen ofizialtasunaz bere kezka idatzita utzi zuen Urmenetak bukatu gabeko memorietan dagoen hurrengo gogoeta laburrean: “Egun, euskara hizkuntza ofiziala da Nafarroako ibar zenbaitzutan, Amejoramientoaren arabera. Baina haren bizirik irauteko ahalegina oraindik egiteko dago. Azken batean, boterearen estamentuetatik segitzen diote torikatzen zentzera. Ez zaie axolik. Nik ere aldarrikatzen dut soluzioak behar direla zentzuzkoak, errealistak, adimentsuak, liberalak. Baina denbora eskasten ari zaigu.”

Azken esaldi horretan irudi lezake Urmeneta ezkorra zela euskararen etorkizunari buruz; edo beldurra ziola euskararen arerioen eraginari. Jose M^a Satrustegik saminki salatzen dituen beldurra eta lotsa hezurretaraino barneratuak zeuzkaten belaunaldikoa izaki.

Izan ere, euskaldun berrien fenomenoaren ondoreko gizaldian gorpuztu zen, berari ezagutzea egokitu bazitzaion ere. Izan ere, euskaldun berrien fenomenoak ez dio soilik mintzatzaile edo hiztunen kopurua ugaritu euskaldungoari, baizik eta agian garrantzitsuagoa den beste zerbait eman dio, eta emaitza hori da Satrustegik salatzen zuen “euskarak eragindako beldurra eta lotsa” uxatzeko adorea eta kementa.

5.- Gerra ondoreko belaunaldiaren gaitzespena

Egoki baino egokiago datorkio Miguel Javier Urmenetari Añamendi entziklopediak egiten dion kalifikazioa: poliedrikoa eta entziklopedikoa. Egia esan, balio, kontraesan perspektiba eta alde anitzeko pertsonaia baitzen. Adibidez, ez zegoen ikastolen mugimenduaren barruan, baina lagundu egin zien ikastolei; ez zen ekimen euskaltzale guztietan sartzen, baina euskararen aldeko ekimenek zeukaten laguntzailerik eraginkorrena izaten zen, maiz kanpotik ari zela bazirudien ere.

Hasieran ezan bezala, Urmenetak bazituen aldeko sutsuak edo zale amorratuak, eta baita ere, aldi berean, arerio edo etsai porrokatuak, pertsona konplexu eta kontraesanez betetako bati gertatu ohi zaion bezala. Aldekotasun sutsu horren

lekuko peto-petoa zen Jose Mari Satrustegi euskaltzaina eta horren adibide dira 1989ko hitzaldia bukatzeko erabili zituen hitzak. Hona hemen nola bukatzen den hitzaldi hura hitzez hitz: “Ohore handia da Euskaltzaindiarentzat Nafarroak azken gizaldian ukan duen gizaseme ospetsuena euskaltzain urgazleen zerrendan sartu izana”.

Urmenetaren adiskideak eta arerioak bazeuden nola eskuinean, hala ezkerrean, nola abertzaleen artean, hala abertzale ez zirenen artean. Ukaezina da betiere, nor-tasun handiko gizasemea zela, dohainez eta kontraesanez betea.

Iruñeko Aurrezki Kutxako zuzendaritza utzitakoan egindako omenaldi apal hartan Xanpun eta Lasarte bertsolariei galdera sorta luzea egin zien bertsolaritzari buruz. Bere jakin-mina aseezina baitzen arlo guztietan. Euskaltzaindiak urgazle 1966an izendatu zuen, beraz, foru diputatu eta Iruñeko Aurrezki Kutxako zuzendaria zelarik, eta Iruñeko alkate izan ondoren.

Jardunaldiak

Euskara biziberritzen jarraitzeko erronkak

Bilboko egoitzan, 2016ko otsailaren 12an

Kronika

Bidegurutzean ezker edo eskuin jo? Hau ez da bidegurutze soila, hau bideko biribilgune horietako bat dugu. Biribilguneak onak dira hartu beharreko bideaz oso ziur ez gaudenean, bira osoa egin eta nondik joan argitzeko. Biribilgunean itzuli-mitzuli ibiltzeko arriskua ere badugu, ordea, erabaki ezinik, ibilian geldirik.

Biribilguneako bide guztiek gure helmugara garamatzatela-eta edozein bide har genezake; hobe, zuzenagoa, zabalagoa eta motzagoa zein den begiratu gabe. Aurrera egin, ibili. Zalantza-dantza aski izaten du oztopoz betetako bideetan barna ibili beharra duenak.

Biribilgunearen irudia baliagarria da euskararen biziberritzea zer egoeratan dagoen zehazteko. Ahots ugari ziklo baten amaieraz mintzo dira eta, horretan behintzat, adostasuna badago ere, ez da hain argi ikusten bide berriek nora eramango gaitzaketen. Euskaltzaindiak zalantza aro honetan bere ekarpena egin nahi izan du eta horretarako propio, 2016ko otsailaren 12an, “Euskara biziberritzen jarraitzeko erronkak” jardunaldia antolatu du.

Euskera agerkariko lehen zenbaki honetan jardunaldi hartan irakurri ziren bi txosten argitaratuko dira; alegia:

Kike Amonarriz eta Jasone Mendizabalek, Euskararen Topaguneko ordezkariak, euskara sustatzeko elkarteen inguruko hainbat eragilek egindako hausnarketaren emaitzak.

Josu Waliñok euskararen sustapena eta Internet harremanean jarritz landu duen txostena.

Irakurri ziren beste txosten batzuk *Euskera* agerkariko 2016-2 ikerketa zenbakian argitaratuko dira. Zehatz-mehatz honako lan hauek izango dira:

Patxi Saez soziolinguistak “Elefantearen Paradigma” euskararen biziberritzeak bizi duen egoeraz garatu duen diagnosia aurkeztu zuen. Esandakoa “Beharra da giltza” artikuluan bildu du.

Patxi Juaristik, Euskal Herriko hiztun-komunitateak aztertu ditu eta, beraien arteko harremanetan, balio etikoetan oinarrituriko diskurtso baten beharra aldarrikatu du. Hori guztia “Hizkuntza komunitateak harremanetan Euskal Herrian” artikuluan jaso du.

Bittor Hidalgo filologoak bizi dugun errealitatea ezagutzeko hainbat gako eskaini dizkigu “Irabazteko gidalerro bila” artikuluan.

Olatz Altunak eta Maialen Iñarrak euskararen erabilerak ageri dituen argi-ilunez mintzo ziren. Bertan esandakoak, gerora argitaratu diren azken kale-neurketen emaitzekin uztartu dituzte eta “Euskararen ahozko kale-erabilera: erronkak” artikuluan idatzi.

Berrikasi eta berrikusi. Euskaltzaleok batzen gaituena garrantzitsuagoa delako

AMONARRIZ, Kike; MENDIZABAL, Jasone
TOPALABEA taldearen ordezkariak

Sarrera

Lehenik eta behin, argitu behar dugu, dokumentu hau orain dela urtebete edo amaitu genuela eta maiatzean argitaratu genuela. Irailetik hona, berriz, aurkezpen publikoak eta pribatuak egin ditugu.

Txostena idatzi duen Topalabea taldea honakook osatu dugu: Julen Arexolaleibak, Xabier Erizek, Mikel Irizarrek, Elena Lakak, Iker Martinez de Lagosek, Iñaki Martinez de Lunak, Jon Sarasuak, Jasone Mendizabalek eta Kike Amonarrizek. Gerora, Ibon Usarralde eta Xan Aire gehitu dira taldera.

Taldearen lehen helburua Euskara Elkartearen Topagunearen barne-hausnarketan eta estrategia bideratzen laguntzea zen, baina, 2013ko urtarrilean lanean hasi bezain laster, Topagunearen beraren esparrua gaingitu eta euskalgintza osoari begirako hausnarketa lehenetsi genuen. Eta hausnarketa horren lehen emaitza publiko duzue, hain zuzen ere, txosten hau.

Aurkeztuko dugun txostenaren edukia bere testuinguru egokian kokatzeko, iruditzen zaigu garrantzitsua dela argitzea, gure taldea, lanorduetatik kanpo biltzen dela, gutxienez hilean behin, ostiral arratsalde. Baldintza horiek direla eta, gure dedikazioa mugatua da eta hori txostenean ere islatzen da. Taldekideok garbi geneukan eta daukagu, txostena osatuagoa eta landuagoa izan zitekeela, baina, osatzea baino, kaleratzea eta eztabaidara ekartzea lehenetsi genuen.

Txostena irekia da, ez dago itxita. Hilabete hauetan egin ditugun aurkezpenean ekarpen asko jaso ditugu eta, gaur egun, badira beste era batera idatziko genituzkeen hausnarketa eta ideia batzuk. Baina, orokorrean, bere horretan mantentzen

dugu, noski. Esparru komunak sendotzea eta zabaltzea da gure asmoa, batzen gaituena garrantzitsuagoa dela uste dugulako, eta hizkuntza normalizazioan aurrera egitea denon arteko lankidetzarekin soilik lortuko dugula pentsatzen dugulako.

Eta, sarrera hau amaitzeko, nabarmendu nahi dugu txosten hau proposamen bat dela, behar bat azaleratu eta gizarteratu nahi duen dei bat. Zehaztapenak, beraz, ondoren etorriko dira.

Egindako bidearen ibilbide kritikoa

Dokumentu hau euskaltzaletasunaren azken hamarkaden irakurketa kritiko bat da, asmo eraikitzailearekin egindakoa. Bere helburu nagusiak bi hauek lirategi: alde batetik, ondo egindakotik ikastea, eta, bestetik, identifikatutako okerrak ez errepikatzea.

50 urte hauetako ibilbidea ezin liteke, ordea, minutu batzuetan laburbildu eta azpimarra batzuk ekarri nahi izan ditugu. Ondoren, beraz, ibilbide horretako argi eta ilun garrantzitsuenak aipatuko ditugu.

Batetik, esan behar da, argiak izugarriak direla, euskararen egoerak nabarmen egin baitu hobera:

Euskara batua, hezkuntza arloan lortutakoa, helduen euskalduntze alfabetatzea, kulturgintzaren loraldiak, euskarazko hedabideen hedapena..., horiek guztiak egin ditugu, eta handia da lortutakoa.

Herri ekimenetik sortu dira ekimen hauek guztiak, eta arrakasta izan dute instituzioen bultzada gehitu zaienean. Horixe arrakastaren gakoetako bat.

Bigarren gakoa ere aipatuko dugu: diktadura osteko gizarte zabalaren etorkizun hobe baten BISIOA euskalduna zen. Euskara ilusio bide partekatua izan zen belaunaldi oso batentzat.

Baina ibilbide honek baditu bere ilunak: espero genuena ez dugu lortu eta frustrazioa sumatzen da emaitzekin.

Aurrez aipatutako BISIO partekatu hori galdu dugu.

Alderdikierien eraginez, euskara lubakiaren erdian gelditu da, ez da gehiago gizarte zabalaren ilusio bide partekatua.

Euskalgintzan (zentzurik zabalenean) ez dugu jakin izan aurrera begirako helburu eta estrategia partekatu orokorrak adosten, eremu mikroan espezializatu gara, eta hori ez da nahikoa.

Abiapuntua

Ziklo aldaketa batean gaudela sentitzen dugu. Sentimendu hau oso zabalduta dago eta ideia hori hainbat metaforarekin irudikatu da azken boladan gure literatura soziolinguistikoa: bidegurutzea, biribilgunea, blokeoa....

Sentsazio gazi-gozo hori, orokorra da. Esaldi batean laburbiltzekotan honelaxe formulatuko genuke: **asko egin da, baina ez gaude osasuntsu:**

Horregatik gaude hemen, euskaraz eta -ez dezagun ahaztu- euskaratik bizi garen horrenbeste jende, gehienak teknikariak.

Bitasun konplexuak bizi gaitu: Botila erdi hutsa ala erdi betea? Ondo goaz ala atzera egiten ari gara?

Genituen **aurreikuspenak ez dira bete:** euskaraz ikasten zutenek euskaraz egingo zutela sinisten genuen edo euskarazko telebistaren, hedabideen eta kulturaren kontsumoa igo egingo zela. Eta garbi dago usteak erdi ustel gertatu zaizkigula.

Ez ditugu izan esperotako emaitzak eta, gainera, ez dakigu azken urteotan aurreratzen ari ote garen.

Erabilerak ez du gora egin, ez behintzat ezagutzaren hobekuntzaren eta aurreko urteetako erritmo berean.

Hazkunde ezak ondorio latzak izan ditu kultur esparruan eta hedabideetan.

Ikastetxeetan “alarma” orokorra piztuta dago ezagutzan oraindik hutsuneak daudelako, erabileran aurrera egin ezinik dabilzalako, marjinazio poltsak sortu direlako etorkinekin...

Etxeko erabileran eta arnasguneetan atzeraka egin da edo ez da aurrerapenik izan.

Administrazioan, orokorrean, ez da hautsi erdararen inertzia.

Txostenak, bere laburrean, **beharrak** eta erronkak seinlatu nahi izan ditu batez ere. Txosten kritikoa da, aldaketak eragin nahi ditu eta, horregatik, gehiago

begiratu diegu ilunei argiei baino. Horregatik nabarmentzen dugu horrenbeste asko dela lortutakoa, baina **egoera honek ez gaituela asebetetzen**.

Eta hemendik aurrera azalduko ditugun ideiak 4 aditzetan laburbiltzekotan, hauexek aukeratuko genituzke:

ELKARTU – AKTIBATU – AURRERATU – IRABAZI

Euskararen alde gauden pertsonak eta erakundeak elkartu, ditugun indar eta aukera guztiak aktibatu, gauden egoeratik aurrera egin ahalik eta eremu eta esparru gehienetan, eta irabazi: hiztunak irabazi, funtzioak irabazi eta eremuak irabazi.

Hausnarketa euskalgintzan

Hausnarketa prozesu ugari gertatu berri dira edo ari dira garatzen euskalgintzan: Euskaltzaindian burutzen ari garen gaurko saioa bera, HPSren “Eta hemendik aurrera zer” txostena, Kontseiluaren barruko hausnarketa prozesua, Euskaltzaleen Topaguneak berak burututakoa, eta Topalabea taldea egiten ari dena...

Inflexio edo “impassé” egoeraren zantzuak bizi ditugu. Euskalgintzan sumatzen da etapa bat amaitzen eta beste bat zabaltzen ari dela. Besteak beste, belaunaldi aldaketa ari delako gertatzen:

D ere duan masiboki ikasi duen lehen belaunaldia kaleratzen ari da, lan-munduan integratzen ari da eta familiak osatzen. Bere portaera giltzarria izango da hizkuntza normalizazio prozesuari begira.

Lehen aldiz gure historian gertatutako aldaketa asko bildu da belaunaldi berri honetan:

- Ez dago euskaldun elebakarrik.
- EAEn ia gazte guztiek ulertzen dute euskara eta euskaldun gazte guztiak alfabetatuta daude.
- Euskaldunen artean gero eta gehiago dira jatorriz erdaldunak. Tipologia honetakoak gehiengo dira gazteen artean.
- Euskaldun gehienak ingurune erdaldunetan eta hirietan bizi dira.
- Euskara batua dugu komunean eta euskaldun askok ez dute euskalkirik.
- Euskaldun gehienak erdaraz euskaraz baino hobeto moldatzen dira eta ge-

hiago darabilte erdara.

- Euskaraz erdaraz baino hobeto dakien multzo unibertsitario esanguratsua dugu jada.
- Euskararen ezagutza eta erabilera zabaldu egin dira, baina trinkotasuna galdu da.
- Haur eta gazteen erabilera indizeak hobetu egin dira, baina ezagutzatik erabilerara jauzi handia dago.
- 5.000 biztanletik gorako herri gutxitan da euskara nagusi.
- Gizartearen gehiengoak jarrera baikorra du euskararekiko, baina balio simbolikoa lehenesten da.

Bestalde, bilakaera eta aldaketa soziolinguistikoaz gain:

- Gure panorama soziopolitikoan sakoneko aldaketak gertatu dira.
- Globalizazioaren eraginez, ingelesa ere gero eta “gureagoa” da.
- Krisi ekonomikoak gazteen emigrazioa eta atzerritarren immigrazioa eragin ditu, eta baita hizkuntzekiko ikuspegi soziala aldatzea ere.
- Digitalizazioak eta iraultza teknologikoak irauli egin dituzte gure bizimoduak eta komunikatzeko erak.

Horregatik diogu, **inertziak** astintzeko unea dela.

- Guztiok astindu behar ditugu inertziak: administrazioak eta euskalgintzak.
- Jauzi kuantitatibo-kualitatiboak emateko beharra eta aukera dugu.
- Baina bestelako emaitzak lortu nahi baditugu, bestelako bideak ere urratu eta jorratu behar ditugu. Eta hori, neurri handi batean, gure esku dago, baita hemen gaudenon esku ere.

Eraldatu beharreko lau ardatzak

Topalabe taldean jauzi esanguratsu hori eman dadin eraldatu beharreko lau ardatz identifikatu ditugu.

KOMUNITATEA. Euskararen gizarte-mugimendu anitzak ez du asmatu diskurtso-praktika beregaina osatzen edonolako herritarrak eta eragile politiko-instituzionalak bere tesietara biltzeko.

IDEOLOGIA. Hizkuntz ideologia sendo baten faltan, ideologia politikoekin uztartu da euskalgintza, nagusiki abertzaleekin. Baina **abertzaletasunak ez du elikatu aliantza euskaltzalea**; aitzitik, lehia abertzalea gatazka eragile izan da euskalgintzan eta, aldi berean, **uxatu egin ditu herritar ez abertzaleak**.

JARDUERA. Profesionalizatuta ere, euskara normalizatzeko bidean **arrakasta erlatiboak lortu dira** kulturgintzan, ezagutzan, egintza kolektiboan eta mobilizazioan; **apenas egon da beste hizkuntzekin lehian nagusitzeko moduko arrakasta erabatekorik**.

HEGEMONIA. “Euskalgintzak galdu egin du erdigunea” dio txostenak, baina esan beharko genuke ez duela hegemoniarik irabazi bizitza publikoan izan beharreko tokiaren lehia. Ondorioz, **hegemoniko diren erdaren arauak, logikak eta aukerak sendotu dira, euskararen kaltetan**.

Ondorioak aurrera begira

Iraganetik berrikasi nahi izan dugu etorkizuna berrikusteko. Ariketa hori egin da eta aurrera begira jarrita, ondoko zutabeak ikusten dizkiogu beharrezko euskararen garapen sozialari, normalizazioaren bidean.

1.- Hiztun komunitate emantzipatua

Euskaltzalearen ezaugarria da hizkuntzarekiko konpromisoa. Konpromiso hori, ordea, ez da soilik bakarkakoa; neurri handi batean, partekatua da gainontzeko euskaltzaleekin.

Zoru komunaren ideia bolo-bolo dabil azken boladan. Baina, zeri deitzen diogu “zoru komuna”? izaera anitzeko euskaltzaleek maila kolektiboan partekatzen dugun konpromiso-esparruari. Horixe da, gure ustez, euskaltzaletasunaren zoru komuna: euskaltzaleentzat eremu partekatu eta eroso bat eskainiko diguna, elkarrekin lan egiteko, eta etorkizun proiektu bat partekatzeko.

Sinistuta gaude zoru komun hori zenbat eta indartsuago izan, orduan eta auke-

ra gehiago izango dugula komunitate gisa aurrera egiteko. Orain arte, ez gara gai izan euskararen etorkizuneko BISIO partekaturik formulatzeko, eta gainera, euskararen berreskurapen dinamikak, gizartean, alboko gaia izaten jarraitzen du.

Euskararen inguruan ikuspegi ezberdinez eztabaidatzea zilegi ez ezik, beharrezkoa dugu, baina foro publikoetan eztabaida hauek galbahe gabe gizarteratzeak kalte besterik ez digu egiten. Zoritxarrez, gehientsuenetan eztabaida hauek ideologia politiko batzuen edo besteen mesedetan kapitalizatzen dira, eta ez komunitatearen mesedetan. Eztabaidarako bestelako sukaldeak behar ditugu: euskarari bultzada berria emango dioten sukalde partekatuak.

Euskararen normalizazioak behar du hiztun komunitate emantzipatu bat, euskaltzaletasuna jarriko duena bestelako interesen gaintik; horrela eragingo luke hizkuntzaren inguruko ezberdintasunak integra daitezen eta lankidetzan indartu dadin.

Komunitatearen muinean zoru komuna barneratu eta blindatu beharra dugu, euskararekiko interes komuna hedatuko bada.

2.- Epe luzeko plangintza eta hizkuntza politika

Nagusi den edo biziberritzen ari den eremu geografiko eta funtzionaletan euskarari laguntzeko, eremu geografiko nahiz funtzio sozial berriak aurkitzeko, eta euskaltzaletasunaren zoru komuna sendotzeko, ezinbestekoa da ikuspegiak adosten joatea, eta hor zientziak laguntasun handia eman lezake. Duela 50 urte ez bezala, gaur egun zientziaren adar ugaritatik ekar daitezke metodoak eta tresnak hizkuntza normalizaziora. Eta normalizazio prozesua zenbat eta teknikoagoa izan, orduan eta adostuagoa izan daiteke.

Normalizazioaren hurrengo zikloak, gatazka murriztuko duen eta mugatuko duen plangintza teknikoa behar du. Uste dugu, testuingurua adostuta, egon daitezkeela aldeak nork gobernatzen duen, baina ez epe luzeko plangintzan jartzen den zoruaren azpitik.

Adostasuna errazagoa izango da belaunaldi baten ikusmirako plangintza zehatz baten testuinguruko helburu zehatzetan, maila filosofikoko epe luzeegiko helburu orokor eta finalistetan baino.

3.- Lege babes, baliabideak eta erreferentziak

Normalizazioak bi hanka ditu, biak ezinbestekoak: borondatea eta bitartekoak. Egia da borondatearekin bakarrik lortu izan duela euskarak irautea bitartekoak bere aurka jarri direnean, duela 50 urteko berpizkundeak erakusten duen bezala. Eta jakina da bitartekoak ez direla aski hizkuntza bat berpizteko komunitatearen borondaterik ez dagoenean; eta horren adibideak ere, badira.

Herri honek izan du gaitasuna borondatearekin bakarrik euskara iraunarazteko, bitartekoak aurka egonda ere. Baina bihotzak bakarrik ezin du: beharrezkoak ditu bitartekoak, legezkoak eta ekonomikoak. Babesa bermatu beharra dago.

Lege eta baliabideetan ere zoru bat adostu behar da, txandatze politikoak edo zurrumbilo ekonomikoek ez dezaten epe luzeko prozesua aldiro baldintzatu.

Bestalde, gizartearentzat erreferentzia indartsuagoak behar ditugula azpimarraztu nahiko genuke. Euskarak inguruan dituen hizkuntzak hiztun askokoak dira eta beraien alde dute inertzia. Estatu makineria eta baliabide guztiak beraien aldeko hizkuntza politiken alde daude aktibatuta. Euskarak berariaz egin behar du lan hori, beste hizkuntzetan erreferente badirenak euskarara ekarri eta euskaraz ari direnak erreferente bihurtu.

Euskarak “azpikategoria” gisa esleitutako baliabideekin egin du orain arteko bidea eta, erdigunean kokatu beharra dauka, unibertso gisa kontsideratua izateko premian dago.

Eta lan honetan ezinbestekoa da indar- eta itzal-posizioetan dauden inplikazioa. Gure OPIak edo Oso Pertsona Inportanteak euskararen aldeko olatura ekarri behar ditugu eta lidergo hori baliatu.

4.- Egitura eta autoritatea

Gizarteko euskalgintza egituratuta dago. Gehiegi ere bai, agian, nondik begiratzen den. Erakunde asko dago eta profesionalizazio maila handia da, baina zailtasunak ditu dispersioa gainditu eta norabide berean koordinatuta lan egiteko eta, aldi berean, dependentzia handia du aurrekontu publikoekiko.

Bestalde, euskalgintza sozialak ez du lortu, oro har, hiztun komunitate emantzipatua indartzerik eta hura ordezkatzuz erabakigune instituzionaletan behar adina eragiterik. Beste horrenbeste esan daiteke euskalgintza instituzionalaz, zuze-

nean bere eraginpeko esparruetara mugatu da, eta bere eragina txikia da gizarte mugimenduan, diru-laguntza eta ika-miketarik harago.

Eta behar da. Behar da gizartean euskaltzaleen egituratze ireki bat, edozein euskaltzale eroso egoteko modukoa, baita instituzioetan daudenak ere. Behar da eragile ezberdinen arteko funtzio banaketa argia, sinergiak baliatu eta osagarritasunak indartze aldera. Behar dira langune eta erabakigune partekatuak euskalgintza sozialaren eta instituzionalaren artean, ondo uztartzeko erakundeen ahalmena eta gizartearen kemena, optimizaziora bidean. Eta behar da denek onartutako erreferentzia zientifiko bat, politikak eta plangintzak eraginkorrako bihurtzeko tresna lagungarria izango dena, Euskaltzaindia corpusaren arloan den bezalakoa, baina estatusaren arloan.

Aurrera begira hiru erpineko eskema bat irudikatu dugu:

1. Alderdi politikoak eta administrazioa, alde batetik.
2. Gizarte eragileak eta euskalgintza oro har, beste alde batetik.
3. Erreferentzia zientifikoa: denek onartutako erreferentzia bat ebatziko duena noiz, zer eta nola, adostutako plangintzaren arabera.

Hiru erpin hauen arteko lidergo partekatu eta adostua irudikatzen dugu, beraz.

- Erreferentzia zientifikoa beste bi erpinen arteko elkarlanerako lagungarria litzateke.
- Ez litzateke “autoritate erantzunezina” izango, erreferentzia lagungarria baizik (klimarekin, itsas-ekosistemekin egon daitezkeenak bezalakoa...)

Euskararen normalizazioak autoritate bat behar duela esaten da txostenean. Hitzak berak eta kontzeptuak mesfidantza eta irakurketa ugari eragin dituzte. Aipatu nahi genuena, erreferentzia zientifikoaren beharra zen. Eta guk geuk ez dugu zehaztu nahi izan nork bete beharko lukeen funtzio hori, beharra nabarmendu baizik. Planteamendu zientifikoaren eskutik, euskararen defentsak eta plangintzak, gizartearen aldetik, harrera ez estigmatizatua eta onarpen handiagoa izan dezakeela uste baitugu.

Erreferentzia zientifikoa eratzeke dago, egin behar den zerbait da. Eta errefe-

rentzialtasuna landu eta irabazi egin behar da. Horretarako, garrantzitsua izango da zubi lanak eta eraikuntza prozesua ondo egitea erakunde publiko, gizarte eragile, unibertsitate, erakunde zientifiko eta Euskaltzaindiaren artean.

5.- Diskurtso multzo koherentea

Bere hizkuntza normaldu nahi duela azaltzeko hiztun komunitateak diskurtsoa eraikitzen du eta diskurtso horren kalitateak eragin zuzena du –aldekoa edo kontrakoa– normalizazio prozesuan. Gai honen inguruan ekarpen mamitsua izan da gure taldekide Iñaki Martínez de Lunaren lana Euskararen *framing* berriaz, BAT soziolinguistika aldizkariaren 86. alean (2013).

Urte honetan, bestalde, gizartean dauden euskararen gaineko diskurtsoez datu gehiago lortu ditugu, EGOD ikerketari esker. Ikerketa horren ondorioen arabera, badago euskararen aldeko diskurtso zabal eta partekaturako oinarri sendoa. Erregistro diskurtsibo batzuek adostasun zabala dute sentsibilitate ezberdinetako herritarren artean, eta euskararen aldeko jarrera eta babes argia adierazten dute.

Hala ere, kontuan izanik diskurtso horren hartzailerak diren herritar multzo eta azpimultzo guztiak, diskurtso bakarraz baino, diskurtso multzo batez hitz egin behar genuke, edo gutxienez erregistro ezberdinak izango lituzkeen diskurtso zabal batez.

Erregistro batzuk aipa genitzake:

- **Bizikidetzarena.** Denetan zabalena da, nork ez du bizikidetzara desio?
- **Identitatearena.** Euskara da euskaldun egiten gaituena.
- **Berdintasunarena.** Hainbat hiztun mota, eskubide berak.
- **Aniztasunarena.** Hizkuntzen osasunak adierazten du gizartearena.
- **Erantzukizunarena.** Denoi dagokigu jaso duguna ondorengoei ere transmitzea.
- **Justiziarena.** Kendu egin ziguten, bidezkoa da orain itzultzea.
- **Errespetuarena.** Inork ez inor zapaldu, bakoitzak berea.

Oso garrantzitsua litzateke erregistro hauetako bakoitza ondo garatzea, euskaltzale bakoitzak barneratzea, eta egoera bakoitzean eta solaskide bakoitzarekin ondoen

egokitzen zaiona erabiltzea, modu malguan eta eraginkorrean.

Erregistro horien guztien oinarrian hizkuntza demokrazian sakontzeko ideia dago. Gizarte demokratikoago batek eskatzen du hizkuntzen eta hiztunen arteko harremanetan demokraziaren printzipioak aplikatzea.

6.- Arnasgune politikoa alderdien aldetik

Hauxe da aro historiko honetarako alderdiei eskatzen diegun ariketa politiko sakona: blinda dezagun euskararen prozesua. Atera dezagun interes elektoral eta estrategia-diseinu alderdikoietatik. Bazter dezagun tentazio logikoa: euskararen aldeotasuna erabiltzea ‘indarrak metatzeko’, ‘diferentzialitatea markatzeko’, norbere nitxo elektorala elikatzeko, ‘bestea desgastatzeko’, azken finean, estrategia politiko-elektoralerako.

Alderdi politikoei arnasgune politikoa eskatu diegu. Garrantzi handia eman diogu alderdien arteko akordio honi, hurrengo urteetan bidegurutzea gainditu eta jauzi kuantitatiboak eta kualitatiboak emate aldera. Azken hilabeteotan asko izan dira euskararen inguruko politikak adostasunean eta elkarlanean bideratzeko eskaerak, alderdien barruan oso kualifikatuak diren ahotsetatik iritsi zaizkigularik.

Joseba Sarrionandiak ere, *Lapur banden etika ala politika* liburuan hauxe idatzi du: "Euskal komunitateak, alderdien arteko zeingehiagoken mende egon gabe, subjektu gisa antolatu behar du bere burua, ezinikusi ideologiko eta oztopo politiko ginetik batez ere euskaraz eguneroko bizimodua egitea posible izan dadin."

Txostenak, berriz, honela dio hitzez hitz:

Uste dugu euskararen eremuan ‘zoru komuna’ zabaldu eta eraiki daitekeela, bai gizarte mailan eta bai maila politikoan, non urte hauetako guztietako desberdintasunak eta diferentziak beste maila batera eraman eta beste era batera eztabaidatu daitezkeen. Egingarritzat eta ezinbestekotzat jotzen dugu, gainera, euskara alderdi zentral batzuen artean, beren arteko gatazka politiko publikotik aterako duten oinarritzko adostasunetara heltzea.

‘Zoru komun’ horrek hainbat oinarri beharko ditu: elkarrekiko aitortza abiapuntutzat hartzea, alderdien artekoa, hala nola, gizarte eragile eta erakundeena; euskalgintza ez etiketatzea eta ez instrumentalizatzea; botere-kontrabotere enfrontamendu dinamika gainditu eta elkarlan instituzional-sozialaren parametroetara pasatzea; hizkuntza mailako gizarte-borondatearekin batera pauso estrategiko kementsuak ematea.

Guzti horrek, ordea, aurretiko pauso klabe bat eskatzen du: familia politikoetako buruzagien arteko akordio sakona, gai hau blindatzeko.

Aipatu berri dugun hau, hizkuntza normalizazio prozesuan aurreratzeko oinarrizko baldintza dela uste dugu. Fase historiko-politiko-soziolinguistiko berria bizi dugu eta honako hau, une erabakigarria da euskararentzat: aurrera egin eta normalizatuta dauden hizkuntzen estatuserako bidea hartu behar dugu, edo bestela, atzera egingo dugu, eta denok dugu presente Irlandaren kasua.

Akordio horren oinarrian daude euskarari lehentasuna ematea agenda soziopolitikoan eta hizkuntza normalizazioaren aurrerabiderako oinarriak adostea hurrengo belaunaldiari begira. Eta, ahal bada, ez alderdi abertzaleen artean bakarrik. Funtsezkoa da abertzaleak ez diren indarrak ere biltzea era honetako akordio batera. Eta uste dugu kontsentsu hori diskurtsoetan eta neurri zehatzetan errazago lortuko dela.

Planteamendua Euskal Herri osorako bada ere, kontziente gara taldekideak, batez ere, EAEn ari garela lanean, nahiz eta Nafarroan jada dinamika honekin bat egingo duen talde bat martxan hasia den.

7.- Motibazioa eta bizi-indarra

Esandako guztiak garrantzitsuak izanik, zazpigarren hau litzateke egosi nahi den ogiaren legamia: hiztun komunitatearen motibazioa, hizkuntzari bizi-indarra emango diona. Egin diren urrats asko ezin dira ulertu zutabe hau kontuan hartu gabe, bereziki beste faktore gehienak aurka izan direnean.

Euskaltzaleon bizi-indarra indartu ezean parean ditugun sabai asko apurtzeko gai ez gara izango.

Gure ustez, aurreko beste sei zutabeetan euskaltzaleok batera jokatzeko bidea hartuko bagenu, eta, diskurtsoaren eta jardunaren arteko koherentzia erakutsiko bagenu, hizkuntz jokabide eredugarriak hedatuz zazpigarren honetan sekulako jauzia egingo litzateke. Batzen gaituena gehiago delako, sinetsita gaude euskaltzaleok lankidetzan aritzeak ilusio eta energia eztanda handi bat ekarriko duela; eta erregai hori behar dugula txanpa indartsu eta luze bati ekiteko, euskararen mesedetan.

Euskara eta Internet: zortzigarren lurraldea konkistatzen

WALIÑO, Josu
PuntuEUS Fundazioa

Euskara biziberritzeko erronka berrien inguruko hausnarketa abiatzean, ezin Internet eta komunikazio digitalak alde batera utzi. András Kornai hizkuntzalaria 2013an argitaratutako “Digital language death” ikerketaren arabera munduko hizkuntzen %5 baino ez da erabiltzen Interneten, eta horrek gainerako %95a heriotzara kondenatuko du.

XXI. mendeko komunikazioak sarea du ardatz, eta hizkuntza bat bertan egotea ez da nahikoa bere desagertpen digitala ekiditeko. Sarea komunikazioa da, hizkuntzen erabilera aktiboa bultzatzen duten sare sozial eta komunikazio digitalek gidatutako komunitate erraldoiaren jarduna.



Komunitate horretan euskarak osasun ona duela esan izan dugu askotan, komunitate digital aktiboa duela, hizkuntza nagusien menpe dagoen sarean ongi

kokatzen dela, baina hori baieztatzeko ditugun datuak oso gutxi izan dira. Hori dela eta, PuntuEUS Behatokia jarri genuen abian 2015. urtean, euskarak Interneten duen egoera aztertu eta biziberritzeko behar diren estrategia eta politikak definitzeko tresna euskal gizarteari eskaini asmoz.

PuntuEUS Behatokiak 2015. urtean egindako neurketaren arabera, %17koa da euskararen erabilera Interneten. Edo, zehatzago esanda, Interneteko domeinu nagusietan (.eus, .com, .es, .org...) dauden webguneen %17k erabiltzen du euskara, batez beste. Klean baino zerbait gehiago, baina ez asko: euskararen kale erabilera %13,3koa da, azken neurketaren arabera. Klean euskararentzat biziberritze prozesuak aktibatzen diren moduan aktibatu behar ditugu Interneten ere.

Anjel Lertxundik esan zuen Internetek izan behar duela euskararen zortzigarren probintzia. “Hor ez bagaude, gureak egin du”, zioen, “Joanak dira familiak, kaleak eta elizak hizkuntza baten transmisioa guztiz ziurtatzen zituzten garaiak”. Hamar urte pasa dira hitz hauek argitaratu zituenetik, eta diagnostikoa ez da aldatu: iritsi da zortzigarren lurraldea konkistatzeko garaia.

Anjelen planteamenduan, ordea, bazegoen akats bat: Internet euskararen zortzigarren probintzia izango balitz, bertako biztanleak beste batzuk lirateke, euskal hiztun digitalek soilik osatutako lurraldea genuke, erreserba digitala. Internetek, aldiz, gure gizarte osoaren ispilu digitala izan behar du, baina horrekin ere ez genuke ekidingo euskararen heriotza digitala, ez baita nahikoa kaleko erabileran dugun errealitatea Interneten islatzea. Komunikazio digitalen garaian, ispilua okertu behar dugu, euskararen irudia handiago isla dadin.

Anjelek proposatutako zortzigarren lurraldea ez dute euskal biztanle digital soilik osatu behar: gure komunitate osoaren bertsio digitalak osatu behar du, eta komunitate horrek euskararen inguruan bildu behar du bere burua. Hizkuntza gutxi dira Interneten ordezkatzeko dituen bilgune propioa dutenak, zer esanik ez hizkuntza txikien kasuan. Guk badugu gurea: .EUS domeinuak euskal hizkuntza eta kultura Interneten babestu eta sustatzea du helburu, eta hori ikusgai gelditzen da Behatokiak emandako datuetan: .EUS erabiltzen duten webguneen % 88k euskarazko edukia dute; gainerakoetan, aldiz, % 20ren azpitik, gehienetan.

Zorionez, euskarak komunitate digital aktiboa du, eta komunitate horrek ahalbidetu du euskara digitalki osasuntsu egotea orain arte. Baina komunitate hori tamaina txikikoa da, eta .EUS domeinuak aukera bat ematen digu komunitate hori zabaltzeko. Gure komunitatera erakarri behar ditugu euskaraz

komunikatu nahi duten webgune eta erabiltzaileak.

Zortzigarren lurraldea konkista dezakegu, euskal biztanleriaren euskarazko bertsio digitala garatuz. Euskararen erabilera digitalak ez du, halaber, ezagutza ezinbesteko bihurtzen, edukien itzulpena, argitalpena, moldaketa, nahikoa baitira euskararen presentzia Interneten indartu eta aktibo dagoen euskal komunitate digitala handitzeko. Euskararekiko konpromiso digitala zabaltzea ezinbestekoa da gaur egun dugun %17ko erabilera tasa gainditu eta euskararen presentzia sarean indartzeko.

Euskal komunitate digital aktibo batek lortuko du Interneteko eragile handiek gure hizkuntza kontuan har dezaten, eta, sarean bizirik dauden hizkuntzen % 5 horretan, euskara ikusgai mantentzain, bere erabilera globalizatuz. Komunitate honetako erabiltzaileak izango dira gure zortzigarren lurraldeko kolono digitalak.

PuntuEUS Fundazioa prest dago euskararentzat ezinbestekoa den erronka honi heldu eta lankidetzarako indarrak biltzeko, Euskaltzaindiarekin eta lan honetan aritzeko prest dauden gainerako eragileekin. Guztion ardura da Interneten euskal komunitate digital bizi eta aktiboa izatea, eta .EUS domeinua da komunitate horren bilgunea. Interneten euskaraz, .EUS.

Jose Antonio Loidi Bizkarrondoren jaiotza- mendeurrena

Irunen, 2016ko ekainaren 17an.

Sarrera

TOLEDO LEZETA, Ana M.

Euskaltzaindiko Literatura Ikerketako batzordeburua

Aurten ehun urte beteko zituen aitzakiaz, Jose Antonio Loidi gogoratzeko bildu gara. Oroitzeko, bai; izan ere, Jose Saramagok esan bezala, “Somos la memoria que tenemos y la responsabilidad que asumimos, sin memoria no existimos” (*Cuadernos de Lanzarote*) edo, gertukoagoa dugun Joseba Sarrionandiak zioenez, “Denbora pasatua ez da denbora galdua,/ memoria afektiboaren bidez gogoratzen da./ Atzo, bihar, gaur ere: ihesi doan kea zara,/ baina baduzu gero bat gaurdanik”. (*Kantuz 1965-2015*)

Loidiren denbora ere ez da denbora galdua, ezta ihesi doan kea ere. Gaur memoria afektiboaren bidez gogoratzera etorri gara. Memoria afektibo horren eraginpean zabaldu genuen gaurko batzarrerako deia, egon bazegoelako zer gogoratu, herrigintzan hartutako zereginetatik beraietatik hasita.

Herrigintzan egindako ekarriez jarduteko ezinbesteko genuen Luis de Uranzu Kultur Taldearekin harremanetan jartzea. Hain lotura estua izan zuten! Bete-be-tean errotu baitzen Bidasoaldean errenteriarra! Lankidetzan sortu zuen Loidiren kume bat dugu Uranzu Kultur Taldea, zalantzarik gabe.

Eskerrik beroenak, beraz, Uranzu Kultur Taldeari eta Irungo Udalari Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa Batzordearekin batera gaurko jardunaldia antolatzeagatik. Eta, beren-beregi, eskerrak Iñaki Garrido historialariari. Uranzu Kultur Taldeko kide, aparteko hizlaria izan dugu “Jose Antonio Loidi Bizkarrondo eta Irunen utzi digun ondarea” gaia lantzeko.

Honela bada, Loidik herrigintzan ereindako haziak bizirik dirauela ondorioztatu behar. Gero bat izan du: batetik, beste irundar batzuekin batera munduraturutako kumeak, Uranzu Kultur Taldeak, lanean jarraitzen du; bestetik, Garrido historialariak, Irunen utzi zuen ondareari buruzko xehetasunak azaldu dizkigu. Ondarea, betiere, sortu eta besterenganatzen den zerbait da. Transmititzen denak, jakina,

iragana gainditzen du.

Bidasoaldeari lotuta dauden kume hauez gain, Bidasoaldearen mugetatik kanpo ere, hainbat aldizkarik jaso zituzten Loidik jorratutako testu-mota desberdinak. Han-hemenka lankide fina izateaz gainera, fikzioari lekua irekiz, kontakizun bat osatu zuen. Kume berri berria, euskarazko idazketak ordu arte erabili gabeko moldekoa. *Amabost egun Urgaiñen* (1955) euskaraz ondutako lehen polizia eleberria da. Txomin, Urgaingo “zulogilea”, lurperatzailea, Erriburu jaunaren etxera abiatzen da ezustean aurkitu duenaren berri ematera: duela urte batzuk hildako Egurmendiko gaztearen emazteak tiro baten koska dauka kopetan. Etxekoandreak, Maritxuk, herriko sendagilea jakinaren gainean jarri eta, zer egin dezaketen galdetzean, “Poliziai salatu” (1968, 26) erantzuna jasotzen du.

Aurreko mendeko berrogeita hamar urteetan, diktadura frankista indar bete-betean, arazoaren konponketa poliziaren esku uztea ez zatekeen oso sinesgarri euskarazko kontakizun batean. Errepresiopean bizi, giza eskubideak zapalduta izan eta etxeko hizkuntza duten euskara erabiltzea debekatuta daukaten Urgain bezalako herrixka bateko bizilagunak poliziarengana jo, zertarako eta, kopetan tiro baten aztarna duen bati gertatutakoa argitzea polizia arrotz horri eskatzeko?

Egoera soziologiko horretan, sinesgarriago zen irtenbidea nagusitzen da. Maritxuk, senarraren adiskide zen “lapur ta eraille billa jarduten” den bat aukeratzen du, ikerlari bat, detektibe bat: Martin Garaidi.

Detektibeez hornitzen diren kontakizunen zale eta azterlari den Javi Cillero doktoreak “Martin Garaidiren fitxa: euskal detektibeen aitonaren atzetik” izenburuzat duen hitzaldia bidali digu. Izenburuan bertan aitonatzat hartu badu, ondorengoak izan dituen seinale. Dirudienez, hazi emankorra erein zuen Loidik Martin Garaidirekin. Bere oraina gaindituz, geroa ere izatea lortu zuen kumea.

Etortzerik izan ez duen Cillero jaunari eskertu behar diogu Martin Garaidiren fitxa hau igorri izana, baita LIBeko idazkari dugun Iratxe Retolaza andreari ere, gu guztioi helarazi izana.

Polizia eleberriaren barrutia oso zabala da. Polizia eleberrietako detektibeak ere ez dira denak tankera berekoak. *Amabost egun Urgaiñ*’eneko honela aurkezten digute:

Sartu zana gizon gazte bat zan. Or hogeitaz hamabost urte edo zituena. Ondo jantzia, sendoa, arpegi-zabal, alaia. Beti irriparrez; alde guzietan alai-tasun-jario zebillena... Bere lanetan berriz, gauzarik naspillatuenak ere argitzen zekiena. Azkarra benetan! (30)

Polizia nobeletan aditua den Miel Anjel Elustondo jaunari eskerrik beroenak, “Bederatzi kopla, hamahiru, *Hamabost egun Urgainen* (Jose Antonio Loidiren lehen polizia nobela beltzaren ekarriaren gainean)” izenburupera bildu duen hitzaldia-rekin, heterogeneoa den polizia eleberriaren erresuman kokatzeagatik Loidirena.

Eta, azkenik, eskerrak zuei ere, gure deialdiari erantzunez ekitaldi honetara etortzeagatik. Izan, oroimenari esker gara. Oroimenak batu gaitu gaurko jardunaldian: Jose Antonio Loidi eta honen kumeak oroimenean gordetzeak. Guztiok memoria afektiboaren bidez gogoratzeak bildu gaitu. Iragana ez da desagertu ihesi doan kean. Loidi eta bere kumeak oroitu ditugu, denbora pasatua denbora galdu bihurtzeari hesiak jarritz. Gaurtik aurrera ere, gero bat izaten jarrai dezaten. Hala izan bedi.

Jose Antonio Loidi Bizkarrondo eta Irunen utzi digun ondarea: LUKT

GARRIDO YEROBI, Iñaki

Historiagilea eta Luis de Urantz Kultur Taldeko kidea

Aurtengo urtea berezia da Irunentzat. Ospakizun eta ekitaldiz beterik dago 2016. urtea; izan ere, aukera izango dugu gure hiriaren historian izandako zenbait une gogoangarri gogora ekartzeko: 250 urte igaro dira Hondarribiaren jurisdikzio-independentsia lortu zenetik, 260 urte udaletxe berriko lehen harria jarri zenetik, 100 urte tren Txikito abian jarri zenetik eta 50 urte desagertu zenetik (1953. urteko uholde handien ondoren), 100 urte halaber Santiagoko Nazioarteko Zubia inauguratu zenetik, 80 urte hiria erre zenetik azken Gerra Zibileko lehen hilabeteetan, 50 urte Santiagotarrak arraun kluba sortu zenetik eta abar, horiek guztiak landu dira nolabait ere “Irun hiriaren desanexioaren eta sorreraren 250. urteurrena”ri buruz ad hoc sortutako batzordean.

Gaur ez gatoz, ordea, urteurren horiek guztiak ospatzera, beste bat baizik, oso garrantzitsua hau ere, José Antonio Loidi Bizkarrondo (1916/8/22-1999/7/9) jakintsu, filologo, euskara ikertzaile eta ikertzailearen jaiotzaren lehen mendeurrena, hain zuzen. Lanbidez botikaria eta euskaraz lehen polizia nobela, *Hamabost egun Urgainen* (1955), idatzi zuena (ikus *I. Eranskina*). Irungo Udalak, Loidiri omenaldia egiteko eta euskarazko ikerlana bultzatzeko, haren izena daraman udal ikerketa beka sortzea erabaki zuen 2000. urtean, bere bizitzan zehar ukitu zituen ikerketa arloen inguruan, hau da, antropologia, filologia, toponimia, literatura, osasun publikoa, hidrologia eta botanikaren inguruan. Beka horrek –gaur egun bi urtean behingoa denak– bere 7. deialdia egingo du aurten. Era berean, hiriko kaleetako bati haren izena jarri zitzaion, eta azkenaldi honetan, udal liburutegi berria zabaltu denean, haren izena jarri zaio bertako geletako bati.

Halabeharrez, Loidik ere aurten du bere urteurren biribila! Bere jaiotzaren lehen mendeurrena!



‘Loidi Bizkarrondo’ bekaren logotipoa

Aurkezpen honen denbora aurrera doa, ordea, eta, horrexegatik, ez gara hasiko euskal filologo ospetsu honen bizia, familia, berri laburrak eta obra azaltzen¹ Bai aldiz, hitzaldi honen izenburuan adierazten den bezala, gaingiroki bada ere, Luis de Urantz Kultur Taldea (LUKT²) elkartearen sorreraren eta garapenaren bidez gure hirian utzi duen kultur ondarea azaltzen –elkarte horrekin loturik egon baitzen hasieratik hil zen arte, lehendakari gisa, Jaime Rodríguez Salisek ordezkaturak gero-. Era berean, ekarpen handia egin zuen gure hiriko egungo kale izendegia normalizatzeko, aurkezpen honetan aipatu beharreko beste hainbat kontuez gainera.

Luis de Urantz Kultur Taldea 1980ko uztailaren 28an sortu zen (ikus *II. Eranskina*). 36 urteko historia du, horrenbestez, eta bere *Bidasako Ikaskuntzen Aldizkariaren* 28 zenbaki, eta 15, Ikerlanak bildumak. Ondare bikaina, inolaz ere, José Antonio ospetsuaren mailakoa!

1 Horretarako, nahitaez kontsultatu beharrekoak dira, esate baterako, lan hauek: Mikel ZABALETA, “De los Olaciregui a los Loidi: una familia de Rentería entre dos exilios: 1834 y 1936”, *Bilduma*, 26. zkia. (2014), 55-180 orr.; edo-eta Juan San Martín, “Jose Antonio Loidi-ren oroitzaz”, *LUKT*, 20. alea (2000, abendua), 7-14 or..

2 Elkarte berriaren 1982ko bilera batean aukeratu zen izen hori, Irungo hiriko historialari, idazle eta kronikagile Luis Rodríguez Galek erabiltzen zuen izengoitia omentzeko eta ospatzeko.



1998ko uztailaren 14an LUKTko Lehen Zuzendaritza-Batzordearen argazkia Irungo Beraun etxean egina
(argazkiaren jabetza: LAMIA argazki denda)



IUA. Fototeka, erref. zk. 1436 (1982)

Elkarte berriko lehen Zuzendaritza Batzordeak, Loidi Bizkarrondo presidente zela, orduan zuen asmoa zen “gure herriaren alde lan egitea”, hiri kosmopolita lortzeko, baina inolaz ere ahanzi gabe jatorrizko euskal sustraiak³. Eta harantzago ere bazihoan, bere estatutuen 2. artikulua esaten baitzuen elkarte berria (ofizialki halakotzat hartua 1982ko irailaren 10ean) “Bidasoako lurraldearekin loturiko ekintzen eta dokumentu historikoen azterketa eta ikerketa sustatzeko, bultzatzeko eta garatzeko helburuarekin sortutako elkarte delá”, haren asmoak eta proiektuak, oro har, “Grupo Dr. Camino de Historia Donostiarra” taldearenen antzekoak izanik. Hala bada, Loidi Bizkarrondok, kultur erakunde irundar berri hau sortu zen lehen urtetik bultzatu nahi izan zuen honako ideia hau:

Kultura bidasotarrarekin loturiko gaietan lan egiten duten azterlari eta ikertzaile guztiak elkartzea, planteaturiko aztergaiei buruz lan zehatz eta sakonak egin ahal izateko.

Ikertzaile horiek beren kultur lanak egiteko beharrezko liburuak eta materialak eskura izatea.

Eta nola ez, haien lanen fruituak ezagutzera ematea, argitalpen moduan, Irun eta Hondarribia maite dituen edonork bere lurra hobeto ezagutu dezan.

Kultur talde honek Udalaren beraren babesean hasi zuen bere jarduera, eta urtez urte argitaratu zituen lanek, historia bidasotarra ez ezik, beste hainbat gai ere jorratu zituzten, hauxe da, folklorea, hizkuntza, soziologia kontuak, ohiturak eta abar. Horrenbestez, bertako historialarien eta Bidasoa lurraldearen historia maite dutenen era askotako ikerketa lanei eman zien argia Luis de Urantz Kultur Taldearen aldizkariak, horrekin galdu gabe aurkeztutako lanen kalitatea, eta lan horiek guztiak nolabait ere osatzen joan dira 1999. urtean sortutako “Serapio Mugica” beka irabazi duten lanen sorrera eta argitalpenarekin.



LUKTren bineta eta logotipoa, José Luis Noain Cendoyak asmatua

3 Jose Antonio LOIDI BIZCARRONDO, “Gure asmoak”, LUKT, 1go alea (1984, azaroa), 8-9 orr.

Proiektu bidasotar berri hau abian jarri zenetik eta 1999. urtean hil zen arte, elkarteko presidente izan zen 17 urteetan, ikerketa artikulua edo/eta lan ugari argitaratu zituen Loidi Bizkarrondok, hamaika, zehatz esateko. Hainbat gairi buruzko azterketak garatu zituzten ikerketa artikulua horiek: toponimia/etimologia, osasun publikoa, euskara, hidrografia, botanika eta antropologia. Honako hauek izan ziren (lehen aipaturiko “Gure asmoak” horrez gainera):

- “Uranzu – Iranzu - Aranzu”, *LUKT*, 1go alea (1984, azaroa), 23-37 or.
- “El cólera morbo en Irún (Análisis médico-farmacéutico), 2. zk. (1985, abendua), 93-131. or.
- “Euskararen egoera Irunen 1936a ondoren”, *LUKT*, 3. alea (1986, abendua), 221-243. or.
- “El agua del río Bidasoa. Historia de una proyectada captación”, *LUKT*, 7. alea (1990, abendua), 67-92. or.
- “El botánico Lacoizqueta. Las etimologías y otras curiosidades en su obra”, *LUKT*, 9. alea (1991, abendua), 167-188. or.
- “El nombre de Irún: su origen, su significado”, *LUKT*, 10. alea (1992, abendua), 187-205. or.
- “Divagaciones sobre la grafía en la documentación irunesa”, *LUKT*, 9. alea (1994, ekaina), 77-104. or.
- “Hondarribia – Fuenterrabía – Fontarabie. Origen y significado de estos nombres”, *LUKT*, 13. alea (1996, apirila), 185-231 or.
- “Euskara «El Bidasoa» aldizkarian”, *LUKT*, 12. alea (1995, ekaina), 119-166. or.
- “Presentación pública del grabado practicado en el dintel de la puerta principal de la casa *Beraun* en memoria de Luis Rodríguez Gal, *Luis de Uranzu*”, *LUKT*, 15. Alea (1997, azaroa), 7-16. or.
- “Alarde de San Marcial. Participación de las mujeres”, *LUKT*, 15. alea (1997, abendua), 17-34. or.




*LUKTeke lan batzuen aurkezpenak
(12. eta 15. aleak, 1995. eta 1997. urtean)*

Horietan, gure euskal ikastunak, adopzioz irundar zenak, hitz-erdika aipatzen du bere zientzia ezagutza, batik bat euskarari (hiru artikulurekin, horietako bi hizkuntza horretan) eta osasun publikoari (bere prestakuntzatik ezin berezizkoa, hartan oinarrituta argitaratu baitzen aldizkari berean, handik urte batzuetara, 1991. urtean, Juan José Martínez Rodríguezen “Historia médica de Irún”) egiten dien ekarpenean.

Oso pertsona ezaguna, gizon ona, jakintsua, langile eta ikertzaile nekaezina, “curriculum” zabalekoa. Luis de Urantz Kultur Taldea elkarteko kide askok go-

goan dute oraindik ere, eta praktikan jartzen dituzte haren aholku eta ikasgai ez gutxi, beren bihotzetan gorderik harekiko adiskidetasun handia⁴. Era berean, esan dezakegu jakin-nahi handia zuela kultura mailan eta oso konprometitua zela euskalduna zen guztiarekin, barne bizitza handiko pertsona, oso zuhurra. Bere alderdi antropologiko eta humanistan, euskal kultura, folklorea eta ohiturak zabaltzeko egin zuen lan, eta baita memoria historikoa berreskuratzeko ere, frankismoaren garaitik indarrean zeuden kaleen izenak aldatzeko proposamena eginez⁵. Alor horretan, toki mailan, argitalpen askotan egin zuen ekarpena, batik bat *El Bidasoa* aldizkarian, eta baita *Euskal Jaiak – Fiestas Euskaras* liburuaren argitalpenean ere⁶. Era berean, erabateko laguntza eskaini zuen kaleen izenen kontuan (aholkuak emanaz, eta baita proposamenak eginez ere) 1991ko Hiriko Planoaren eta Kale izendegiaren edizioko okerrak zuzendu ahal izateko⁷.



Euskal Jaiak – Fiestas Euskaras, Irun, Udaletxea, 1983.

Azken kasu horretan, hil zen arte etenik gabe hartu zuen parte, eta gure hiriko kale izendegiko egungo izenetako asko, edo haien euskal izenak ere, Luis de Urantz Kultur Taldearen sortze estatutuak 80etako Irun aldakorraren errealitatera

⁴ Jaime Rodríguez Salisek esandako hitzak Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen zenbakiko adiskide gisa sartu zenean 2001eko martxoaren 23an, LUKTren artxiboa, “RSBAM. Correspondencia. Lección de ingreso de la Asociación en la RSBAP” kaxa, 3. zk.


⁵ Esate baterako “Coronel Ortega”ren ordezkari “Juan de la Cruz” (1988).

⁶ Irungo 1903ko Euskal Jai ospetsuak gogora ekartzeko egin zen lan hori eta haiek berreskuratu zituen Irungo Udalak demokrazia iritsi zenean.

⁷ “Hiriko izen zaharrak Udalbatzak onartu berri dituenekin bategiteko lanen ondorio gisa” (“Como consecuencia de los trabajos de refundación de las antiguas denominaciones urbanas con las recientemente aprobadas por la Corporación” jatorrizko testuan), Enrique Noain Cendoya LUKTko kidearen 1985eko idatziaren arabera. LUKTren artxiboa, “Nominación nuevas calles en Irun. Toponimia. Callejeros” kaxa, 1. zk.

egokitzeo izan zuen kemenari eta interesari zor dizkiugu⁸.

Zehatz esateko, 1992. urtean eta orduan Kultura zinegotzi zen Ramón Eguiazabali erantzuteko, Juana de Bengoechearen bitartekotzarekin (alkatearen Prentsa Departamentuko arduraduna garai hartan), Udalak Loidi Bizkarrondori proposatu zion beste aukera batzuk aurkezteko edo/eta “oker ortografikoren bat bazegoen esateko” kale izendegi horretako izenetan zuzendu ahal izateko. Hori zela-eta, euskal grafiarekin eguneratu ziren lehenagoko garaietan erdaldundutako tokiko toponimiako izen asko, esate baterako, Ogeillurreta Azpiko, Semeronea, Urdanibia, Oiartzun, Gebara, Letxunborro, Altzubide, Txantxotenea, Txenperenea, Altxukaiz, eta abar, eta baita lanbideekin loturiko kaleen izenak ere, esate baterako, Meatzari, Balezale, Argamile, Olagizon, Gudari, Marinel, Soroxarta eta beste⁹.



Baina euskal grafiaren arabera eguneratzeko Loidiren garbizaletasunak, honako hauen antzeko kontuak planteatzera eramán zuen:

- Jabetza pribatuko baserrien izenak aldatzeko proposamena egitea ortografia arrazoiengatik, ustelkeria fonetikoagatik edo denboran zehar sortutako kontraesanengatik (udalak ez zuen halakorik onartu, noizbait horren inguruan erreklamazio bat egin zutenen kasuan izan ezik, eraikin pribatuak zirenez, haien jabe bakoitzak nahi zuen izena jarri baitzezakeen, kontuan

⁸ LUKTren artxiboa, “Muy interesantes documentos relacionados con la denominación de calles de Irún” kaxa, 1bis.

⁹ Horri dagokionez, nahitaez kontsultatu beharrekoa da José MONJE GARCÍAren, “Irungo kaleen izenak (1859-1995)” lana, LUKT, 14. alea (1996, abendua), hantxe baitago bilduta kaleen izenen aldaketan historia XIX. mendetik XX. mendera. Izan ere, Loidi adiskidearen oinordeko gisa, kaleak izendatzeko “udal batzordeko” kide garrantzitsuenetako bat da gaur egun ere LUKT.

izanik gainera Udalak auzoen arabera jarritako zenbakiez (zegokion Osoko bilkuran onarturikoez) identifikatzen dituela eraikin horiek.

- Errekaren bateko zati batzuei beste izen bat jartzea, urei igarotzen ziren lurren izena jartzeko ohiturari jarraiki. Horrenbestez, ibilgu batek eta berak hainbat izen izango zituen bere ibilbidean, kontuan harturik izen horiek jabe bakoitzak ura erabiltzeko zuen eskubideari erantzuten zietela (kontu hori, une horretan ez bazen ontzat hartu ere, handik urte batzuetara onartu egin zen eta eragina izan zuen, esate baterako, San Antonetik Urdanibiara doazen erreketan, honako izen hauek baititutze zatiek –Uruneko errostatik abiatuta, zeina *Urdinegi*, *Uruneko erreka* eta *Malkorra Erreka*-ren elkargunea baiten–: *Epeleko erreka* (Olakineta eta Altxubide arte), *Altxubideko erreka* (leku horretatik Ugarte errota bitarte), *Ugaldeko erreka* (leku horretatik Jaitzubia bitarte) eta *Jaitzubiako erreka* (Bidasoa ibaiaren bokaleraino jada).¹⁰

Hala ere, Loidik ez zuen inoiz bere irizpidea inposatzen. Fuenterrabía/Hondarribia kalearen izena aldatzeko proposamena zela-eta, Eguiazabal zinegotziari 1994. urtean bidalitako gutuna, horren erakusgarri. Idatzi hartan, onartzen zuen Luis de Uranzu Kultur Taldeko kideek irizpide desberdinak zituztela horren inguruan eta gaia mahai gainean geratu zela inolako konponbiderik gabe, eta "presidente kargua badut ere, ezin dizut erantzun bat eman elkarteko nire kideen onarpenik gabe" (ikus *III. Eranskina*).


Handik urte batzuetara (1996¹¹), eta Tolerantzia eta Hirugarren Munduko arduradun berri San Martín Gubía jauna zela, José Antonio Loidiri eskatu zitzaion txosten bat egiteko, kontuan izanik "gai honi dagokionean haren lana guztiz estimatzen dela etxe honetan", esanez udal barrutian kale berrien izendapenak proposatzeko LUKTk zein irizpide erabiltzen dituen.

Horrenbestez, gaur omentzen dugunak, Luis de Uranzu Kultur Taldeko presidente gisa, kale eta plaza berrientzat hamasei izen proposatu zituen honako eremu hauetan: Urdanibia, Puiana, Larreaundi, César Figuerido, Zaisa eta Iparragirre kalea¹².

10 Lauren ETXEPARE IGINIZ, Iñaki GARRIDO YEROBI, Josu LAGUARDIA IGINIZ, Jesús LAGUARDIA ZUBIA, *Infraestructuras hidráulicas en la desembocadura del Bidasoa. La subcuenca hidrográfica de Jaitzubia (siglos XVI-XVIII)*, Udaletxea, Irun, 2014.

11 Eskaera apirilaren 22koa da, eta ondoren beste bat ere egin zitzaion urte bereko maiatzaren 22an, azken hori Román Rico del Amo behin-behineko alkateak bidalia. Haren bidez, elkarteari eskatu zitzaion kale batzuentzako izen proposamenak egiteko, herritarrei jakinarazi ahal izateko beharreko ondorioetarako.

12 Honako hauek, zehatz esateko: Eihera, Ugoiberrota, Itsasaundi, Aldaparo, Haizeola, Zeharrola



Nolanahi ere, eta hiriko “Plano eta Kale izendegi” berria argitaratu behar zirela jakinik, kontuan izanik aurreko plano-kale izendegietan nahiz “Bidasoia Eskualdeko Gida” batzuetan hainbat akats zeudela, kultur elkarteak eskatuta, 1997ko apirillean, behin betiko inprimatu aurretik probak goitik behera berrikusteko eskaera egin zuen. Udalak berehala erantzun zion eskariari eta gainera adierazi zuen irizpideak homogeneizatu behar zirela “Plano eta Kale izendegi” berrirako, kalea/karrika, plaza/plazatxoa, hiribidea, ibilbidea eta beste hainbat kontutan.

Gure kale izendegiarekin loturik egin zuen etengabeko lanaz gainera, beste ekimen batzuetan ere hartu zuen parte José Antonio Loidik Luis de Uránzu Kultur Taldeko presidente gisa. Horien artean aipatzekoak dira, ordena kronologikoaren arabera, ez garrantziaren arabera, honako hauek:


- Moderatzaile lana Irungo Amaia KZn San Joan plaza enblematikoa birmoldatzeko proiektuari buruz planteatutako eztabaidan (1992).
- Urdanibia jauregiak eta haren burdinolak osaturiko multzoaren babesaren, erabileraren eta azterketa historikoaren inguruan aurkeztutako dosierra (1994), hainbat marrazki, plano eta argazkirekin.
- Omenaldia Luis Rodríguez Gali, eta Beraun etxeko ate nagusiko buruan inskripzioa jartzea (1997).

eta Bolueta (Urdanibia aldean); Garaia (Puianan); San José Obrero, Txikilo, Primero Mayo (gaur Maiatzaren Lehena) eta Ribera (Larreandin), Artigako Haritza (César Figuerido), Komet (Zaisa, gero “Komet sarea” deitu zitzaiona HB taldeak eskatuta) eta Antoine d’Abadie (grafia horrekin, aurreko udal talde politikoak egindako eskaerari jarraiki) eta Julio Caro Baroja (Iparragirre kalean).


- Aipaturikoaren alargunak, Dolores Salisek, elkarteari emandako koadroa, “Domingo de Ramos” izenekoa, zaharberritzea (1998).
- Eta Txingudi badiako bidearen proiektuari eta Irungo jaiei buruzko hainbat txosten, hitzaldiak José María Olaizolaren omenez edo 98ko belaunaldiari buruz (Juan Pablo Fusi eta Jon Juaristirekin) eta abar.



“Luis de Urantzuren” omenez Beraun etxeko ate nagusiko buran LUKTn ekimenaz egindako inskripzioaren aurkezpen publikoa (1997/08/13).



Beste proposamen batzuk ere egin zituen Loidik: esate baterako, Bidasoa eskualdearen ikerketa “bultzatzeko” beka proposamena, *Beca de Estudios del Bidasoa* deitu zitekeena, LUKTk antolatua eta Irungo Udal Txit Gorenak babestua. Proposamen hori 1993ko ekainaren 3an aurkeztu zen elkarteko Zuzendaritza Batzordean lehen onarpena emateko, eta haren zirriborroa Ramón Eguiazábal Kultura



ordezkariari bidali zitzaion hurrengo ekainaren 10ean¹³.

Loidik egindako proposamenak –hasiera batean 50.000 pezetako kopuruarekin eta proiektu irabazlea gauzatzeko sei hilabeteko epearekin–, batik bat historia bidasotarra izango zuen oinarri ikergai gisa, baina beste gai batzuk ere uki zitezkeen, esate baterako, folklorea, hizkuntza, soziologia kontuak, ohiturak, arteen inguruko hainbat eratako ikerketa lanak eta Bidasoa lurraldearekin loturiko beste edozein gai.


Bizi zela izan ez bazen ere, Bidasoa lurraldeko historiaren ikerketa diruz bultzatzeko Loidiren ideia hori onartu egin zen azkenean eta beharreko deialdia egin zen (200.000 pezetako diru kopuruarekin, gaur egun 1.202,024 € euro izango lirartekeenak) 2000. urtean “Luis de Urquiza Saria” izenarekin¹⁴. Sari hori erdibana eman zuten LUKTk eta Jaime Rodríguez Salisek; eta gero Carlos Aguirretxe ere gehitu zitzaion, eta beste babesleen antzeko kopurua jarri zuen hark ere. Horrenbestez, 1.800 eurora iritsi zen saria. Azkenik, deialdia egiteari utzi zitzaion ez zelako lanik aurkezten.

Baina gizakia ere bazen José Antonio Loidi Bizkarrondo, komunikatzaile bikaina, eta gogoko zituen gaien inguruan luze eta zabal mintzatzea gustatzen zitzaiona, baina pertsona isila eta lotsati itxurakoa ere bazen. Oso bizia zen eta teknologia berriei zegokienez ere ez zuen atzean gelditu nahi izan, eta ez zuen zalantzarik izan informatikan saiatzeko edo Interneten nabigatzeko. Era berean, gutako askok far-

13 4. zkia, “Luis de Urquiza” saria. Bidasoa lurraldearen ikerketa bultzatzea. Urte horretan Ormaiztegi Zuzendaritza Museoa eman zuen “historiaren ikerketa bultzatzeko laguntza” zelakoan oinarritu ziren bekaren oinarriak finkatzeko erreferente gisa.

14 Horrekin loturik lau deialdi egin ziren, 2003. urtean desagertu zen arte: 2000, 2001, 2002 eta 2003. urteetan.

mazia munduko “hiri legenda” asko ezagutu ditugu haren ahotik... baina euskal kulturaren jakitun eta zale porrokatua zen batik bat.



Arbola genealogikoa egiten
(1938ko abenduaren 23a)




Jaime Rodríguez Salís, Bernardino Bienabe Artia eta Gaspar Montes Iturriozekin "El Diario Vasco"-ren 50. urtemugaren inguruan Irunen antolatoriko omenaldian (1985/11/23)



1987. Irun Hiriko literatura sariaren epai-mahaia

Haren gazte denborako eguneroko interesgarria ere kontserbatu da, argitaratu gabea, 1936ko irailaren eta 1940ko martxoaren arteko data izan lezakeena. Haren alaba Lourdes Loidi eguneroko hori aztertzen ari da eta esan digunaren arabera, Loidik hizkuntza enkriptatua erabiltzen zuen batzuetan, bere sorterri Errenteriako egiazko pertsonaiak aipatzen zituenean batik bat.

Urte horietako eguneroko bat gustura asko argitaratuko luke Luis de Uranzu Kultur Taldeak bere aldizkarietako batean. Bizi izandako urte haien inguruan Loidik eskaintzen dizkigun egoera ugarien artean, egunkari horretatik jakin dezakegu, gibel solas gisa, osasun ahulekoa zela, eta ezkortasun, malenkonia eta tristura handia zuela gerraurreko eta gerra garaiko urteetatik etorritako sufrimenduaren ondorioz. Hauxe idatzi zuen bere egunerakoan (1940ko otsailaren 5a):



Euskera. 2016, 61, 1. 49-67. Bilbo
ISSN 0210-1564

creo que estoy enfadado conmigo mismo (...). Pienso que soy bastante bobo. O es que siempre soy así o estos días, como otras veces me ha sucedido, me pasa algo. Apenas puedo estudiar, llevo una carta para la madre en el bolsillo porque se me olvida echarla hace 5 días, ando siempre como si estuviera enfadado, la música me pone triste, y el ver a uno contento me enfurece. Y sobre todo los recuerdos me entristecen. Casi todos son de por sí bien tristes y si alguno evoca un momento feliz lo comparo con el presente ... y también me entristezco. Mi familia, mi casa, don Gervasio, Rentería, los amigos, mi vida entera ... todo es triste. Y sin embargo, igual paso todo el día cantando y de buen humor. Debo pensar menos y ser más expansivo, ¿Es qué estoy enamorado? Y ¿de quién? (...). Me hace falta un amigo como antes. Tendré que volver a ser lo que fui con Elustondo (...). Soy muy exclusivista. Cuando uno es amigo lo debe ser en todo y todo sin mezclas de otra cosa (...). ¡Necesito un amigo! Pero un amigo como el que yo me imagino, que él me ayude en mis dudas como yo estoy dispuesto a ayudarle, moralmente como es natural, que en cuestión de pesetas ando mal, y como estoy decidido a encontrarlo, ¡lo encontraré! (...). ¡Son muchos los proyectos fraguados en 8 años!

Eta haren bizi ezkortasuna sakondu egin zen Madrilen egon zen bitartean; izan ere, bere egunerokoan idatzita utzi zuen bezala (1940ko martxoaren 25ean), itsasoaren aurrean eseri eta ertzetik idazteak “pilak” kargatzen zizkion:

esto es poder vivir y Madrid ... un antro. Estoy viendo que cuando sea viejo, que es cuando se dan consejos a los niños, tendré que decir a mis nietos, si es que tengo, o a cualquier otro niño, que creo que para entonces llegarán a gustarme: no vayas a Madrid, cuando yo era joven fui una vez y allí me ‘disipé’.

Haren bat-bateko heriotzak, 1999ko uztailaren 9an, atsekabe eta tristura handia eragin zuen garai hartako Irungo kultur munduan. LUKTren Zuzendaritza Batzordeak urte hartako abuztuaren 6an doluminak emateko Loidi-Fernández de Trocóniz familiari zuzendutako gutunak zioen bezala: joan egin da.

Haren heriotzaren albistea eman zuten prentsan, irratian eta telebistan¹⁵. Hauxe izan zen argitaratu zituzten ugarietako bat¹⁶:

15 Txingudi Telebistaren kasuan, albistegian erreportaje bat eman zuen berri labur gisa.

16 *Diario Vasco* (1999ko uztailaren 10a), 66. or.

ERANSKINAK

Jose Antonio Loidiren heriotzaren berri eta beste irudi batzuk.

EL SEÑOR
† D. JOSE ANTONIO LOIDI BIZKARRONDO
 (Presidente de "LUIS DE URANZU KULTUR TALDEA")
 - R. I. P. -

O HAIZE EPELA,
 AIREAN DABIL HORBELA...

OH, EL TIBIO VIENTO;
 UNA HOJA SECA VUELA POR EL
 AIRE...

La Asociación cultural "L.U.K.T."
 Irún, 10 de julio de 1999

El escritor y farmacéutico José Antonio Loidi falleció ayer en Irún

Fue el autor de la primera novela policiaca escrita en euskera

DI. EUN
 El escritor y farmacéutico José Antonio Loidi falleció ayer en Irún a los 82 años de edad. Académico de número de la Real Academia de la Lengua Vasca, este errenteriarra afincado en el Bidasoa desde el año 1942 publicó poco después la primera nove-

la policiaca en euskera: *Amabost egun Urgain'en*. José Antonio Loidi es definido por sus compañeros iruneses de Luis de Urantz Kultur Taldea, colectivo que preside, como «una persona muy activa». Hay que destacar además su sensibilidad con la creación en euskera y la defensa de este idioma.

La farmacia y la literatura han sido los dos puntos de referencia en la vida de José Antonio Loidi, un hombre que sólo en los últimos meses ha desaparecido de la vida pública por causa de una enfermedad. Hasta entonces no dejó de escribir artículos diversos, uno de los últimos analizando las características del euskera en la comarca del Bidasoa.

Sin embargo, la creación más importante de «este errenteriarra» de nacimiento, pero bidasoarra de corazón, data de 1955 y se trata de la primera novela policiaca en euskera. Su lenguaje ágil y claro fue valorado a la hora de concederle la mención honorífica de Euskaltzaindia por este libro. *Amabost egun Urgain'en* se tradujo posteriormente al catalán, francés y castellano.

De su currículo se puede citar también el premio Ciudad de Irún por su obra *Irún bere aurrezalearen* o la realización del libro *Euskal Jaiak-Fiestas Euskaras*. Su preocupación por la cultura vasca fue una constante.

Loidi colaboró con numerosas publicaciones y periódicos, con




José Antonio Loidi fue reconocido por su euskera ágil y claro.


textos que abordaban desde la hidrología hasta la toponimia. En sus últimos años firmó varios artículos en el boletín de estudios de Luis de Urantz Kultur Taldea, colectivo irunés del que era presidente. Precisamente uno de sus compañeros, Ricardo Berroa, comentó que «destacaba por ser siempre un hombre muy activo. Jamás quería

quedarse rezagado en relación a las nuevas tecnologías y no dudó en adentrarse en la informática o incluso navegar en Internet».

Los funerales por José Antonio Loidi se celebrarán hoy, a las siete de la tarde, en la parroquia de la Sagrada Familia de Irún. El entierro tendrá lugar por la mañana, a las 10.30 horas, en el cementerio de Errenteria.



Jose Antonio Loidi 1998an








Jose Antonio Loidi bere farmazian 1943an.




Jose Antonio Loidi bere farmazian 1973an.


Lehenengo argitalpena (1955ean), eta beste hizkuntzetan argitaratutako bertsioak (katalanez, 1961ean eta ingelesez, 2014an).



LUKT elkartearen konstituzio akta.



Fuenterrabía / Hondarribia kalearen inguruko eztabaida LUKTn 1994an.



ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA

Irungo Udal Artxiboa (IUA).

LAMIA Argazkintza (Irun).

Loidi Fernández de Trocóniz familiaren artxiboa

Luis de Urantz Kultur Taldearen artxiboa (LUKT).

Etxepare Igiñiz, L., Garrido Yerobi, I., Laguardia Igiñiz, J., Laguardia Zubia, J., *Infraestructuras hidráulicas en la desembocadura del Bidasoa. La subcuenca hidrográfica de Jaitzubia (siglos XVI-XVIII)*, Udaletxea, Irun, 2014.

Loidi Bizcarrondo, *Euskal Jaiak – Fiestas Euskaras*, Irun, Udaletxea, 1983.

Loidi Bizcarrondo, J.A., « Gure asmoak », *LUKT*, 1 (1984, azaroa), 8-9.

Loidi, L., *Diarios de José Antonio Loidi. 1936-1940* (argitaragabea).

Monje García, J. « Irungo kaleen izenak (1859-1995) », *LUKT*, 14 (1996, abendua).

Zabaleta, M., « De los Olaciregui a los Loidi: una familia de Rentería entre dos exilios: 1834 y 1936 », *Bilduma*, 26 (2014), 55-180.

San Martín, J., « Jose Antonio Loidi-ren oroitzaz », *LUKT*, 20 (2000, abendua), 7-14.

Bederatzi kopla, hamahiru, "Hamabost egun Urgainen" (Jose Antonio Loidiren polizi nobelaren ekarriaren gainean)

ELUSTONDO, Miel A.
Idazlea eta kazetaria

Euskalerriaren Yakintza-n Azkuek jaso zuenez, kantu kateatuak edo ipuinak *San Martinen estutasuna* du izena. Hasi, honela hasten da: «San Martin errementaria zen. Behin, kolpe txarren bat jo, nonbait, eta dioska hasi zen, Jainkoaren kontra, deabruari hoska. Eta, ohi denez, deabrua etorri gure San Martin infernu zolara eramateko asmotan, eta, ohi denez, San Martin damutu! Eta hasi omen da San Martin, aitzakia beti merke bila. Ernegatuta zegoelako ekin omen zion Jainkoaren kontra. Ez zela benetan ari. Deabruak, orduan, gaizki esanen ordainetan, kristautasunaren misterioak esateko agindu omen zion».

Eta igarri diozue honezkero zer datorren ondoren. Eta igarri ez badiozue, hemen non nagoen ni zuei kontatzeko.

Deabruak: «Errak bat!»; eta santu guztiz deboto naizen honek, lehenengo misterioa esan zion. Esanda dago, hortaz. Bai, dena esanda dago, baina gure greziar zaharrek ondo asko esaten zuten bezala, dena esanda dago, baina jendeak ez du kasurik egiten, eta esan beharra dago berriz.

Eta deabruak: «Errak bat!».

Ilunabarra zen... Negu gorriko ilunabar bat... Urgaingo kaleetan ez zen inor ageri. Eta, egia esan, ez zen harritzekoa... Hango euri zaparradak! Hango haize zurrunbiloak! Hango hotza! (...)

Hala ere, ilusentzi hartan, inor ageri ez zen halako batean, kalez kale eta tipi-tapa, gizonezko bat azaldu zen. (...)

Burutik zintzilik, bizkarra estaltzen ziola, zaku zahar bat zeraman; egin-dakoan zer kolore zuten inork igarri ezin zezakeen petatxo betetako galtzak; buztinez zikindutako abarka handi batzuk; aitzur bat eskuetan... (...)

Arin-arin, laster iritsi zen, blai-blai hezurretaraino bustita, kale erdi ilun batera. Han, iltze dotorez jantzitako ate handi bat zuen etxe baten aurrean geratu zen. Eta kalean gora eta behera begiratu ondoren, ate-ezkilaren burdinazko katetxoari geldidageldi eragin zion.

Irakurri eran berehalaxe jakingo dugunez, Txomin dela kalez kale euripean dabilen morroia, Urganingo zulozile apala. Herriburutar aberatsen etxean da ate joka. Ireki dio atea neskameak eta Txominek esan dio etxeko nagusiarekin hitz egin nahi duela. Gizona ez baitago, etxeko andreak hartuko du gure Txomin.

—Gabon, Txomin!

—Gabon...

—Ederki busti zara!

—Bai, pixka bat...

—Eta... zer diozu garai honetan? Norbait etxean minez?

—Ez, ez. Guziok ondo gara...

—Ezbeharren bat?... Eseri zaitez, behintzat...

Txominek zer egiten zuen ere ez zekien. Lurrera begira zeharo mutututa, nondik hasi ez zekiela, aulki baten ertzean eseri zen. Herribururen emazteak berehala nabaritu zuen haren izua eta, zer ote zekarren jakin nahian, begira-begira geratu zitzaion.

—Zure senarrarekin hitz egiteko asmotan etorri naiz... (...)

—Esango zizun Joxepak, noski, senarra Bilbon dela...

—Bai, bai, baina nik...

—Egun gutxi barru etortzekoa da. Orduan etorri nahiko bazenu... (...)

—Ez, ez! Gaur egin behar dugu zerbait!

—Zer gertatzen da, ba?

—Jakin al duzu Egurmendi jauna hil dela? (...)

—Jakin dut, bai. Gizajoa.

—Ba... (...) bihar lurperatu behar dutela eta... joan naiz gaur hilobia antolatzeke asmotan eta... gauza ikaragarri bat ikusi dut.

Arnasa bukatu zitzaion. Maritxu, Herribururen emaztea, berriz, begiak gainetik kendu gabe, dena begi-belarri zen eta:

—Zer? (...)

—Jakingo zenuen, noski (...), oraindik urte asko ez direla, Egurmendi gaztearen emaztea hil zela? Ba, haren gorputza ikusi dut eta... kopetan tiro baten hoska dauka!¹

Kopetan tiro baten hoska dauka.

Eta deabruak: «Errak bi!».

1955. Jon Etxaidek *Joanak joan* nobela historikoa argitaratu zuen. Pierre Bordazarre *Etxahun-lrurik Matalaz* pastorala idatzi zuen. Gurutz Ansolak *Euskal Herriko ekonomiaz* liburua. Joan Garmendia Kortadi *Zeletak Euskararen iraupena eta Euskal literaturaren aurrerapena* saiakera.

Antonio Maria Labaienek *Elizanburu* biografia. Antonio Karmelo Urrestarazu "Umandi" *k Bizkaiko aditz-erak eta Gramática vasca* liburuak. Jose Antonio Loidik *Amabost egun Urgain'en* idatzi zuen, euskarazko lehen polizi nobela.²

Eta deabruak: «Errak hirul!».

1955ean berrogei urtetsuko gizona zen Jose Antonio Loidi Bizkarrondo farmazialaria. Urteak geroago, honelaxe oroituko zuen garai hura:

1 *Hamabost egun Urgainen* / Jose Antonio Loidi / Erein, 1997.

2 *Gure mendea, ehun urte euskal kulturaren*, Argia, 1999.

Hogeita hamar urte inguru nituela, lotsatzen hasi nintzen, euskaraz hitz egiten bai, baina ez irakurtzen eta, are gutxiago, idazten, nekielako. Garai hartan oso gauza gutxi zegoen euskaraz irakurtzeko, eta nik irakurriak nituenak ziren, soilik, *Pernando Amezketarra*, *Garoa*, eta besteren bat. Orduan, garaiko liburuak erosi eta alfabetatzen hasi nintzen: Azkueren *Morfología Vasca*, Sebero Altuberen *Erderismos*, [Jose] Zabalaren *Gramática [Vasca*, 1930], Isaac Lopez Mendizabalaren hiztegia [*Diccionario vasco-castellano*, 1916]. Halakoren batzuk. Horiekin hasi nintzen irakurtzen eta idazten ikasten. Ikasteko bidean, pentsatu nuen era ona izango zela itzulpen bat egitea. Agatha Christie, Simenon, Conan Doyle eta horrelako batzuk ezagutzen nituen, askorik ere ez. Azkenean, Simenonen nobela bat aukeratu nuen itzultzen hasteko. Baina, hasi orduko, oso pasarte zailak aurkitu nituen: “El brigadier se presenta en la comisaría con unos botines de botones de nácar”.³

Eta zerutik jakina denez, 1955ean, euskaraz bere modura, autodidakta trebatu den, trebatzen ari den, farmazialariak ezin asmatu du. Eskueran dituen hiztegieta ez da ageri ez *brigadier*, ez *se presenta*, ez *comisaría*, ez *botín*, ez *nácar*. Ezin esan guk gaur egun segidan eta bi aldiz pentsatu gabe kasik automatikoki esango genukeena: «Brigadiera polizi-etxean azaldu da nakar-botoizko botinak jantzita».

Etsi du Jose Antoniok, ezin buruturik dabil itzulpen hura. Besterik behar du: «Simenon utzi eta nobela bat idazten hasi nintzen, neure kasa. Eta pixkana-pixkana *Hamabost egun Urgainen* hori sortu nuen. Euskaltzaindiaren lehiaketara aurkeztu nuen 1954an, eta aipamen berezia eman zidaten. Lehen saria, Jon Etxaideren *Joanak joan* lanari eman zioten».

«Errak lau!».

Liburuaren lehenengo argitalpenaren hitzaurrea jo dut begiz. Aingeru Irigarai da egile. Eta dio euskaltzainak:

Libururik ez da orain kasik argitaratzen bere aurre-itza edo aitzin solasa gabe. Novela unen egileak ere eskatu dit bat, eta adiskidegoa lekuko sartzen baldin bada tartean (eta bere aita maitearen adiskidegoaz gainera), nola ukatu doaia eta gaitasuna horretarako eskas izanik ere batek?

3 (1992) “Familian bederatzi botikario gara” in *Habe*. 211. 124-129 or.

Erakuspen eta irakaspen ederra ematen digu J. A. Loidi jaunak *Amabost egun Urgain'en* bere liburuño polita argitaratuz. Ezta itzulikatua, bere burutik ateraia baizik, eta Euskaltzaindiak eraginikako konkurtsoan aipamen berezi bat irabazi duena.

Gai (euskal-liburuetan beinere jo ez dan polizi-gaia) bizia eta intresduna derabilla, euskera arront eta erritar batean izkiribatua. Ezta iztegi bearrik novela au irakurtzeko, eta euskal liburu batez au esatea ezta gauza ttipia zinez. Novela gutti ditugu euskaldunek oraikotz; aipagarrienak, Elizanburu'ren *Piarres Adame*; Agirre'ren *Kresala* eta *Garoa*; *Peru Abarka*, Mogelena; Irazustaren *Joanixio* eta *Bizia garratza da*, eta bakar batzu geiago. (...)

Eskuetan duzun liburu unen orrialdetan barrena abiatzen bezain laister sumatuko duzu, irakurlea, gorapilloa nola desegiten den ikusteko gutizia, eta lenbiziko liburua egiten duen norbaitendako ezta gauza apurra. Zorionak, Loidi jauna, eta segi aurrera.⁴

Horraino Irigarairen hitzak, eta, gisa denez, hiru ohar hartu nahiko nizkioke mailegu, adierazgarrien zaizkidanak.

Lehena: Ez da hiztegi beharrik nobela hau irakurtzeko, eta euskal liburu batez hau esatea ez da gauza ttipia, zinez.

Bigarrena: Nobela guti ditugu euskaldunek oraingoz.

Hirugarrena, irakurleari egiten dion oharra dut: liburu honen orrialdeetan barrena abiatutik, laster sumatuko duzu korapiloa nola desegiten den ikusteko gutizia, eta lehenbiziko liburua egiten duen norbaitendako, hori ez da gauza apurra, ezdeusa.

«Errak bost!».

Jose Antonio Loidiren ahotsa berreskuratu nahiko nuke, oraingoan Iñaki Camino orduan gazteak *Argia* aldizkarian egindako elkarrizketaren bidez⁵.

⁴ *Hamabost egun Urgainen* / Jose Antonio Loidi / Erein, 1997.

⁵ CAMINO, Iñaki (1985): "J. A. Loidi: "Liburu gehiago idatzi eta irakurtzen da gaur egun"" (J. A. Loidi elkarrizketa) in *Argia* 1071. Sarean: [http://www.argia.com/argia-astekaria/1071/jaloidi-liburu-gehiago-idatzi-eta-irakurtzen-da-gaur-egun_\[kontsulta: 2011-04-10\]](http://www.argia.com/argia-astekaria/1071/jaloidi-liburu-gehiago-idatzi-eta-irakurtzen-da-gaur-egun_[kontsulta: 2011-04-10]).

Ez nuen gauza zaila nahi. Konturatu nintzen Espainian garai hartan gehien irakurtzen zena nobela zela, eta honen barruan polizi nobela. Bi aldiz pentsatu gabe idatzi nuen, modu errazean; gauza atsegin bat egin nahi nuen. Eta halakoa atera zen. Gaur egingo banu, ez nuke halakoa egingo. Gustatuko litzaidake, gainera, batuz agertzea, ikastola batzuetan irakurketa testutzat darabiltela jakin baitut.

Horraino Iñaki Caminoren elkarrizketan Loidiri gogoan hartu dizkiodanak. Kontrapuntu eginez, *Hamabost egun Urgainen* argitaratu zen urte bereko iruzkin kritikoa dugu *Egan* aldizkarian, Luis Mitxelenak sinaturik⁶. Handixe ari natzaizue:

Uste ez bezalako aldakuntzak dakartzate berekin urteek. Loidi, aspaldiko ezaguna dut. Haurretandik ez gara elkarrengandik urruti ibili Erreterian.

Orain 25 bat urte, Loidi, nekienez behintzat, mutil zintzo eta saiatsu horietakoa zen. Liburuak maite zituen, bai, baina Kimika, Botanika eta antzekoak. Egingo nuen nik, ez zuela denbora-paxako huskeriekin asti askorik galtzen... (...)

Ez nuen oso gogo onez hartu Euskaltzaindiko sariketarako aztertu behar izan nuenean. Nahitaez irakurri beharrekoa izan ez banu, hasiko ote nintzen irakurtzen ere? Artean ezer argitara eman ez zuen autore baten lehen lana, eta polizi nobela, alafede. (...)

Nere ustekabeko poza inori azaldu beharrik ez dut: euskaldun askok, neurri berean ez bada ere, nabaitu baitute bere barrenean. Hona non sortu zaigun, bat-batean, idazle trebea ez ezik, askozaz gehiago behar duguna: nobelista bat. Ez du saiaketa luzeetan aritu beharrik izan. Badakizki, inon ikasi gabe, nobelagile batek jakin behar dituen gauzarik nagusienak. Pertsonak ederki ikusten ditu, bai barrendik eta bai kanpotik; nor bere bizia du, berez ari dira eta berez mintzatzen, inork behartu gabe. Badaki gertakariak bat besteari josten eta, hori aski ez dela, ederki, arin, zorrotz eta biziro, ematen dizkigu aditzera.

6 *Hamabost egun Urgainen* / Jose Antonio Loidi / Erein, 1997.

Ezin dezakegu gehiago esan. Lehen urratsetan erakutsi digu Loidik, argi eta garbi, baduela nobelarako dohain berezia, horretarako jaioa dela. Inon ikasi ez duena badakiela esan dugu, eta gehiago ere esango genuke: inon ikasi ez duena eta inon ikas ez zezakeena. Etorri hori berezkoa baita, ez baitaiteke inon aurki.

Ez dut, ordea, horrenbestez esan nahi bertan goxo gelditi litekeenik.

Mitxelena ez du esan beharrik ere, errementariaren mailua hartu eta buruan joko baitu iltzea:

Liburu honen akatsak aipatu beharrik ez dago: hain daude axalean. Gaia ahula du: ustekabeen sortua izanik, ez guretzat bakarrik, baita egilearentzat ere, ustekabeko sortze horren ezaugarriak agerian daramatza. Lehen lana delako, ohiturarik eza ere nabari zaio, lanbidearen berri ongi ez dakien langilearen ohiturarik eza. Hutsune horiek, ordea, esan bezala, aise bete ditzake lanak.

Lan hori, orain, euskarari berari zor dio. Bidea hain ederki dakienak ez du, noski, gidari beharrik. Hauxe esatera ausartuko nintzaioke halaz ere: gai egokia, bere gogo-betekoa eta bere indarren neurrikoa, aukera bezala. Oraingoa, sariketa baterako zerbait behar eta, itsumustuan begiz joa izan da: ez bedi horrelakorik gerta hurrengorako (...)

Bi hitz, bukatzeko, hizkerari buruz. Jatorra da liburu honetakoa: arina, erraza, edozeinentzakoa, Irigarai jaunak hitzaurrean dioen bezala. Eta erraztasun hori makulurik gabe erdietsi da, orrialde azpiko makulurik gabe, alegia. Baditu, bai, zenbait huts, baina ahalegin gogorrik gabe bazterrera ditzakeenak beste batean.

Gauza gehiago esaten dizkio Mitxelena Loidiri, ohar gehiago egiten, gogoeta gehiago ere badarabiltza, baina gu, hemen eta orain, deabruaren aginduari lotu behar gatzazkio. Misterioak esaten segitu behar dugu guk, infernuko zuloan betiko suan kiskali nahi ez badugu.

Eta deabruak: «Errak sei!».

Arrakasta handia izan zuen nobelak. Dela lehenengo polizi nobela izan zelako, dela euskara guztiz eskuragarri bat zuelako... dena delakoagatik, *Hamabost egun Urgainen* eleberriak arrakasta. Argitaratu eta hiru urtera, 1958an, bigarren argitalpena dugu, Irunen bertan gauzatua. Emilio Mas da eragile, Juan Ramon Jimenezen *Platero y yo*-ren erdika bat euskarara ekarri zuena. Bigarren argitalpenaren hitzaurrean Irunen sustraitutako Emilio Masek idatzia da:⁷

He leído con extraordinario interés este libro que se nos presenta con la inapreciable garantía de una Mención Honorífica de la Academia de la Lengua Vasca. A primera vista una novela policiaca en vascuence parece una incongruencia. Esta antigua lengua se nos antoja apropiada para describirnos la vida sencilla de los pescadores y campesinos con sus rústicos y primitivos problemas, apta quizás para las expansiones líricas de gentes sencillas o para la enseñanza religiosa, pero incapaz de expresar la movilidad de la vida moderna, con sus continuas inquietudes, alarmas y sobresaltos (...)

Orduan ere, oraingo moda-moduan, bizimodu modernoa amets jendeak, eta Emilio Masek: "Nada más lejos de la verdad. Basta leer la tensa y emocionante novela de Loidi para convencerse de ello (...)"». Eta Mitxelenak emandako arrazoiak berrituko ditu Masek ondoren. Azkenean, honela bukatuko du:

Entre las obras literarias vascas, perfectas por su forma muchas de ellas, pero carentes de movimiento en su mayoría, destaca por su interés y emoción, que mantiene en tensión continua al lector, esta novela policiaca de José Antonio Loidi Bizkarrondo "Quince días en Urgain". Considerándola muy apropiada para el público irunés por su tema moderno y por la sencillez de su lenguaje, he decidido publicarla en "El Bidasoa" (...).

Herriko aldizkarian, hortaz, nobelaren bigarren argitalpena. Hirugarrena,

⁷ *Hamabost egun Urgainen* / Jose Antonio Loidi / Erein, 1997.

“Quince dies a Urgain” és una obra de caràcter policíac, amb un argument del tot original en el gènere. Novel·la plena d'acció, tots els crítics bascs han coincidit a subratllar l'interès que desperta desde les primeres pàgines. (...)

Aquesta traducció és possiblement –i així ho assenyalen algunes publicacions basques que ja n'han donat notícia–, la primera versió integral d'un llibre literari basc a un altre idioma. Aquesta tradició col·loca així el català en lloc d'honor dins una literatura que de sempre ha merescut totes les simpaties dels llegidors catalans. Aquesta simpatia podrà concretar-se per primera vegada en una coneixença directa; coneixença que, a part dels mèrits intrínsecs de l'obra, constitueix un factor d'interès ben positiu per a aquesta versió, per tal com ens posa en desitjat contacte amb un món literari totalment desconegut del nostre públic.

1961ekoa, katalanez etorri zen. Jose Antonio Loidiren hitzak ditugu, Iñaki Caminori *Argian* esanak: «Bai, katalanera itzuli zuten, baina ez ziguten baimenik eman argitaratzeko, pentsa ezazu. Euskarazko gauza bat itzuli, zein hizkuntzatara eta katalanera, ezta pentsatu ere halakorik (...)». Baimenarekin edo gabe, nortara edo hartara, argitaratu zuten katalanez. Eta dio Loidik: «Bost mila ale saldu omen ziren, ahitu egin zen. Nik, dena dela, ez nuen xoxik jaso. Agindu bai, baina badakizu nolakoak diren katalanak. Frantsesera ere itzuli zen, baina ez zen argitaratu. Gaztelaniazkoa gauza bera. Euskarazkoaren zazpigarren argitarapena-edo kaleratzekotan direla uste dut». Elkarriketa 1985ekoa da, eta Loidik zazpi argitalpen kontatu dizkio bere nobelari.

Eta orduan kazetari zen Iñaki Caminoren galdera:

Arrakasta handia, beraz?, eta Loidiren erantzuna, gogoan hartzekoa: «Bai. Kontuan hartu urte hartan bi nobela besterik ez zirela atera, nirea eta Jon Etxaideren *Joanak joan*. Giro hartan ezer gutxi zegoen euskaraz irakurtzeko, eta jendeak irakurri egin zituen. Honi dagokiola, nik badut zalantza bat: literaturako historia batzuetan gerra aurreko euskal idazleetan azkena jartzen naute, eta, beste batzuetan, gerra ondoko belaunaldiko aurrena omen naiz. Gu, badakizu, katakonbetako generazio horretakoak gara.

«Errak zazpi!».

Katalanezko itzulpena, Bartzelonan, 1961ean. J. Alberti da hitzaurregile.⁸

“Quince dies a Urgain” és una obra de caràcter policíac, amb un argument del tot original en el gènere. Novel·la plena d'acció, tots els crítics bascs han coincidit a subratllar l'interès que desperta desde les primeres pàgines. (...)

Aqueste traducció és possiblement –i així ho assenyalen algunes publicacions basques que ja n'han donat notícia–, la primera versió íntegra de'un llibre literari basc a un altre idioma. Aqueste tradició col·loca així el català en lloc d'honor dins una literatura que de sempre ha merescut totes les simpaties dels llegidors catalans. Aquesta simpatia podrà concretar-se per primera vegada en una coneixença directa; coneixença que, a part dels mèrits intrínsecs de l'obra, constitueix un factor d'interès ben positiu per a aquesta versió, per tal com ens posa en desitjat contacte amb un món literari totalment desconegut del nostre públic.

«Errak zortzi!».

Usoak dira igaro, eta urteak ere bai. Liburua kaleratu eta gutxira, 1957an, euskaltzain urgazle izendatu zuten Jose Antonio Loidi. Herriko Plazara aldizkarian 1991ko alean kontatu zuenez dakit⁹.

Euskaltzaíndian sartu nintzenean gutxi ginen, eta gaztea, gainontzeko gehienak zaharrak baitziren: Etxaide, Lojendio eta abar. Nik lana egin nuen, eta gero, pixkana-pixkana, jende berria sartzen joan zen, eta ni atzeratzen.

⁸ *Hamabost egun Urgainen* / Jose Antonio Loidi / Erein, 1997.

⁹ PLAZARA aldizkaria (1991): “Jose Antonio Loidi: nobela botikarik onena denean” (J. A. Loidiri egindako elkarrizketa) in *Plazara* 17, 1991. Sarean: <http://andima.armiarma.com/plaz/plaz1609.htm> [kontsulta: 2011-04-14].

Batuaren horretan, beraz, bai, Baionako batzarrean izan nintzen, eta nire iritzia idatziz aurkeztu ere bai. Hurrengoan ere izan nintzen, Arantzazukoan, eta parte pixka bat hartu nuen. Gero, handik hamar urtera, Bergaran izan zen, eta hartan Irigarai eta biok aurkeztu genuen zerbait, idatziz. Ni hasiera-hasieran hatxearen aurkakoa nintzen, aurkakoa, ez nuen ikusten horren beharra, eta beti ibili nintzen aurka. Gero, pixkanaka, ikusten nuen Mitxelena, esate baterako, oso aldekoa zela -eta nik uste dut berari esker jarri zela hatxe hori-, eta Villasante bera ere bai, eta jende asko -hatxearen aldekoa-, ni baino jakintsuagoak, eta amore ematen hasi nintzen. Orduan, talde bat bildu ginen, Inza, Lojendio, Arrue, Zabala, Irigarai eta beste batzuk, erdibide bat hartu nahian, zeren ikusten baikenuen bazirela erabat aldekoak -hatxea alde guztietan sartu nahi zutenak-, eta besteak, hatxe bat bakarra ere nahi ez zutenak. Gu erdibidean geunden, esanez hatxea ahal zen toki gutxienetan sartzeko. (...) Haserre franko izan genuen. Ni oso baketsua naiz, ez naiz askorik haserretzen, baina Bergarako batzar hartan ia jo nuen fraide bat, Joseba Intxausti, oso gogor egin zidalako... Tarteko sartu ginen, eta batetik eta bestetik eman ziguten muturrekoa, eta orduan alde egin nuen. Geroztik ia ez dut ezer egin Euskaltzaindian (...)

Euskara batuaren borroka lehertu baino lehen -1968ko urriaren 3, 4 eta 5koa da Arantzazuko batzarra, eta harrezkerokoak ekaitz eta trumoi gogorrenak-, urte bereko epailean, martxoan, kaleratu zuten *Hamabost egun Urgainen* obraren laugarren edizioa. Manuel Lekuona da kasu honetan hitzaurregile gozo. Tartean, euskarak problema asko dituela dio, eta konponbideetako bat dela irakurtzea; sendo bizi izateko irakurleak eta irakurgaiak behar dituela euskarak. Hitzez hitz:

(...) Urte auetan ari zaigu gure Euskera alderdi ortatik poliki ornitzen eta jazen. Ba'degu olerki "modernorik", ba'degu olerki "sozialik"; badegu, baita "nobela poliziakarik" ere (...) Loidi Jaunak [Amabost egun Urgain'en] irakurgai onekin autsi zuan bidea, orain urte batzuk. Eskerrak zor dizkiogu. (...) irakurleak egin dion arrera ona izan da; iru argitaltze agortuta, gaurkoarekin lau ditu; eta lauetan bat katalaneraz... (...) Ondo etorria izan dedilla laugarren argitaltze au.

«Errak bederatzi!».

1968an laugarren edizioa zuenak, zazpigarrena du 1991n, hau da, Irungo *Plazara* aldizkarian Joxean Elosegik eta Jorge Gimenez Bochek –bietako batek, edo biek elkarlanean–, elkarrizketa egin diotenean. Bertan, Loidik esaten zuen “*Hamabost egun Urgainen* hori” idatzi zuenean, Lopez Mendizabalen eta Zabalaren gramatikak baliatu zituela. Garai hartan, euskararik politena Tolosakoa zela esaten zenez, eta hango formak erabiltzera jo zuela.

Horrela atera zen lehendabiziko edizioa. Eta bigarren eta hirugarrena ere horrela atera ziren. Laugarrenean, berriz, batuaren kontuak hasiak zirenez, aldatu egin nuen (...) Azkenekoa, zazpigarrena –Erein argitaletxeak atera duena–, batuan egin dugu, eta horretarako zera egin behar izan da, hatxeak jarri –bat bakarrik ere ez zegoelako–, (...) eta forma batzuk aldatu, baina ez asko.

1991koak ditugu haren hitzak, eta liburuaren azkeneko edizioaz ari da, Ereinek ateratakoaz. Zazpigarrena duela dio. Itxaropena inprimategiko Pello Unzurrunzagak herenegun aitzinean zehatz adierazi digunez, Ereinen edizio hark 8. argitalpena bete zuen 2004ko urtarrilean. Eskuetan dudan hauxe da, Gasteizko Ibaiondo gizarte-etxeko liburutegian inguratu didatena. Barkatu neurea ez ekarri izana, baina hor ere bada aski historia-istorio. Edizio zuzendu eta eguneratu honek –halaxe baitio–, 1990ekoa du lehen argitalpena, eta, harrezkero, kasik urte biz behin izan zuen berrargitalpena: 1992, 93, 94, 97, 99, 2001 eta 2004 urteetan berrargitaratu zen.

Edizio zuzendu eta eguneratua, eta horrek ere badu aski historia-istorio. Jose Antonio Loidiren paperek hitz egingo ahal dute!

«Errak hamar!».

Eta, dakienak daki, irakasleari joan natzai o informazio oso bila. Lourdes Otaegiren artikulua bat dut *Hamabost egun Urgainen* gaitzat hartua duena. Alabaina, ez alferrik hartu ditut hasmentan greziarrak hizpide: dena esanda dago, baina jendeak ez du kasurik egiten, eta esan beharra dago berriz. Bada, esan dezadan berriz, oraingoan Otaegiren hitzak nire eginez¹⁰.

¹⁰ OTAEGI, Lourdes. *Hamabost egun Urgain'en* (1955) Sarean: <http://www.ehu.eus/ehg/literatura/idazleak/?p=655>

Euskaraz idatziriko polizia-nobelen historia 1955ean hasi zen J.A. Loidi Bizkarrondok *Hamabost egun Urgainen* (Zarautz, Kulixka) nobela argitaratu zuenean. Euskaltzaindiaren literatur lehiaketa batean aurkeztu zuen eta aipamen berezia jaso zuen. Harrezkero hainbat argitalpen izan ditu (...) eta Euskadi Irratiaren *Antzoki iluna* saiorako bertsio bat ere egin zen 1992an [Joxe Ramon Zubimendi, egokitzaile] Kritikoen oniritzia jaso zuen, beraz, lehena izateaz gain, gerora ere, ongi taxuturiko argudioa duela iritzi baitio-te (...) Liburuaren egitura soila da, 30 ataletan kontatzen da detektibearen ikerketa-lana, eta lehen kapituluan sorturiko misterioa amaieran askatzen du, bi kapitulutan krimen ustekoa argitzeko hogeitau urte lehenago gertaturiko jazoerak ekartzeko analepsi azkar baten bidez. Ustekabeko amaiera du, hortaz, eta gertakariak argitzeko eleberrian zehar eskaini gabeko zenbait datu aurkezten ditu».

Otaegik Mitxelenaren iruzkin hura biltzen du bere artikuluan, 1955ekoa, eta Ibon Sarasolaren iritzi kritikoa, 1976koa, eta *Xaguxarra* aldizkarian 1980an publikatutako sinadurarik gabekoa, eta Mikel Hernandez Abaituak 1982an plazaratutako iritzi; bide batez, Hernandez Abaituak, esaterako, benetako krimenik ez duela egotziko dio nobelari. Otaegik biltzen ditu, berebat, Ana Toledok 1989an Loidiren nobelaz idatzia, eta Gotzon Garatek 2000. urtean esandakoa; Garatek eleberriaren egiantza eta sinesgarritasuna azpimarratzen dituela diosku Otaegik. Javi Cilleroren 2000. urteko doktore tesian jasotako azterketa eta Marijose Olaziregik 2002an idatzia ere jasotzen ditu... Finean, esan nahi dut, oraindik orain arte, bostetan baino gehiagotan hartu dutela hizpide Jose Antonio Loidiren obra gure irakasle adituek.

1998, liburu bat Elkar etxearena: *Euskal literaturaren antologia*, Koldo Izagirre eta Xabier Mendiguren Elizegi dira egile.

Jose Antonio Loidi Bizkarrondo Erreterian jaio zen 1916an. Botikaria da ikasketaz eta ogibidez eta jakintza-gai horri buruzko hainbat lanen egilea. Literaturaren historiara, ordea, beste lan bati esker igaro da: *Amabost egun Urgain'en* izeneko nobela kaleratu zuen 1955ean.

Eleberri poliziakoa da Loidirena, generoaren legeak egoki betetzen ditue-na: delitua, honen inguruko misterioa, hau argitu nahi duen ikerlaria, de-tek-tibe honen gorabeherak eta arazoak... Hori guztia, euskara erraz, esapide jator ugariz edertuan, idatzia.

Liburu txukuna da, bai kontaketa-teknikaz bai hizkera narratiboz ere, eta alde horretatik mesede handia egin zuen bere garaian, euskara zapaldurik, arbuiaurik eta ia debekuean zegoen hartan, Europa osoan bezalako lanak egin zitezkeela erakutsi baitzuen.

(...) Hauxe da gure lehen polizi eleberria, eta urte asko igaroko ziren honen mailako besterik sortu arte.

Herenegun aitzinean Elkar etxeko editore Xabier Mendiguren Elizegik berak esana, aspaldi agortua eta deskatalogatua dagoela liburua, zoritxarrez. DBHko ikasleei zuzenduriko liburua zen, nahiz eta bestelako erabilerarik ere bazuen.

«Errak hamabi!».

Hamabost egun Urgainen idatzi nuenean, irakurterraza egiten saiatu nintzen. Klean eta baserrietan erabiltzen zen euskara erabili nuen; uste dut horregatik izan zuela hain arrakasta handia, berehala agortu baitzen lehen-dabiziko edizioa. Edizio hura nire kontura egin nuen: hura argitaratzeko traba besterik ez baitzen izan. Editorialik ere ez zegoen garai hartan. Bakarrik, Arrizabalaga [Unzurrunzaga behar du, zalantzarik gabe], Zarauzkoa. Baina hark ere ez zuen bere kontura egin nahi, eta neure kontura egin behar izan nuen: beraz, neu izan nintzen egile, argitaratzaile, banatzaile, propagandista eta gainontzeko dena. Berehala saldu zen dena, eta kitto geratu nintzen.¹¹

Farmazialariak badu, gainera, beste meritu bat. Arestian aipatu dudana Lourdes Otaegik dienez, 1977a arte euskaraz idatzitako polizi nobelarik irakurriena izan zen *Hamabost egun Urgainen*. Harekin batera aipatzen omen dira Txomin Peillenen *Gauaz ibiltzen dena* (Kulixka, 1967), eta *Gatu Beltza* (Gero, 1973), eta Mariano Ize-taren *Dirua galgarri* (Auspoa, 1962). Gerokoak dira Xabier Gereñoren eta Gotzon Garateren lanak. Otaegik esango duenez, «hutsune nabarmena zegoen garaia bete

11 CAMINO, Iñaki (1985): "J.A.Loidi: "Liburu gehiago idatzi eta irakurtzen da gaur egun"" (J. A. Loidiri elkarrizketa) in *Argia* 1071. Sarean: <http://www.argia.com/argia-astekaria/1071/jaloidi-liburu-gehiago-idatzi-eta-irakurtzen-da-gaur-egun> [kontsulta: 2011-04-10].

zuen Loidiren nobela honek». Eta, jarraian, hauxe dio Lourdes Otaegik: «Gero-ra eleberri idazle izango zirenak, 1970etik aurrerako belaunaldikoak, [Loidiren] irakurle izan ziren, noski». Eta Ibon Sarasola, Joxe Austin Arrieta eta Anjel Lertxundiren izenak ematen ditu.

1955ean hasitako bide hark katea ekarri du. Jose Antonio Loidiren *Hamabost egun Urgainek* halako bide handi bat egin du, orain arte eten ez dena. Ibilian lagun izan ditu irakurle eta kritikariak, argitaratzaile eta banatzaileak, sustatzaile eta eragileak.

100 urte Loidi jaio zela, eta bizirik irauten duela esan liteke. Ekitaldi hauxe, zeuek zarete lekuko. Eta Irungo udalaren Loidi beka, eta Jose Antonio Loidi kalea, eta Jose Antonio Loidi aretoa Carlos Blanco Aginaga zentroak, eta euskal telebistako literatura programan Beñat Sarasola literatur kritikaria Loidiren nobelaz jardutea, eta oraindik orain, urte hasmentan Baztanen egin ohi den "Hilbeltza beltza" jardunaldi beltzetan *Hamabost egun Urgainen* gogora ekartzea, Jose Antonio Loidi omentzea, haren arreba Anjelitarekin solastatuz...

Jose Antonio Loidi Bizkarrondo, 1916an sortua, 1999an hila. 100 urte, bizi da, eta biziko!

Eta deabruak: «Errak hamahiru!».

Eta San Martinek, santu deboto naizen honek, zuekin denokin batera: «Ez dok hamahiru!».

*Hamahirugarrenik ez dago
Oilarrak kantatzen du munduan
Aingeruak zeruan
Jesu Kristori ipintzen diogu
Gure arima eskuan.*

Arestiren bederatzi koplak, hamahiru, Hamabost egun Urgainen

*Bederatzi koplak ditut (bis)leitzea gaur da delitu
Hamabost egun Urgainen
Loidirena da meritu (bis).*

*Le(he)nen polizi nobela
kontua ez da epela
oraindik esaten dute
gustura leitzen dutela.*

*Urteak igaro dira
mundua jira eta bira
Loidiren arrakastarik
dutenak asko ez dira.*

*Idazle botikario
leitzea gaur da kario
Loiditarrei txapela ta
Iruni, aldiz, adio.*

*Hamalau bat edizio
botika ta farmazio
Hamabost egun Urgainek
badauka zenbait akzio.*

*Euskara ondo jatorra
Loidirena ez da elkorra
askok esana baitute
egia handia horra.*

*Berrogeita hamabostean
hala da noizik behinean
Loidik marka hautsi zuen
euskararen zeruertzean.*

*Garai bateko obra da
Loidik jo zigun aldaba
hainbeste urte bizirik
irauten erraz al da ba.*

*Famatu Martin Garaiddi
detektibe bat edo bi
gure letren historian
Jose Antoniyo Loidi.*

*Bide urratzaile zana
farmazia zuen lana
Hamabost egun Urgainek
(e)man zion Loidiri fama.*

*Obrak hamabost aipamen
Euskal Herrian han-hemen
bataren ohar kritiko
bestearen begiramen.*

*Loidiren mendeurrena
ospatu ere hurrena
haren nobela leitzea
omenaldirik onena.*

*Bederatzi kopla Arestik
merke-zurrean garesti
lau zuhur eta bost ero
bizi gaitezzen amesti.*

XXI. Jagon jardunaldia: “Ipar Euskal Herriko Elkargoaren sorrera eta euskararen etorkizuna”

Baionan, 2016ko azaroaren 19an

Kronika

2006an, Ipar Euskal Herrian egituratzen hasi zen politika publikoa. Halarik ere, euskal hiztunen kopurua eta euskararen erabilera ttipitzen ari dira; argi dago, beraz, orain arte eginikoa ez dela nahikoa. Beraz, etorkizunean egin beharrekoa da garrantzitsua, eta horri erreparatuko zion azaroaren 19an izan zen Jagon jardunaldiak. 2017ko urtarriletik goiti, Euskal Elkargoaren sortzearekin batera, hizkuntza politika berri hori garatzen hasteko garai egokia izango da, eta bide horretatik doa Euskaltzaindiaren eta Euskal Konfederazioaren gonbita: Jagon jardunaldi berriak hainbat gizarte eragile eta erakundetako kideak batu eta beraiei eman zien hitza, datozen urteak nola irudikatzen dituzten eta erronka berrien aurrean nola jokatu behar den ager zezaten.

Horretarako, programa zabala atondu zen. Goizean, egungo euskararen egoeran irakurketa proposatu zen. Jardunaldia, Battittu Coyos Jagon sailburuaren eta Maider Hegiren (Euskal Konfederazioa) sarrera-hitzaldiekin hasi zen. Ondoren, Argitxu Etxandik (Kontseilua) ‘Euskararen estatua. Legezko koadroa eta aukerak’ berbaldia eman zuen, eta 11:00etan hizkuntza politikaren erronkak aztertu ziren mahai-inguru batean. Arratsaldean jarraipena izan zuen goizeko mahai-inguruak, baina gonbidatu desberdinekin. Azkenik, erakunde publikoei zuzendutako aldarrikapen testua irakurri zuten Xarles Videgain euskaltzainak eta Euskal Konfederazioko Maider Hegik. Sortzen den mementotik beretik hasita, Elkargoaren estatutuetan euskararen hizkuntza eskumena jaso behar dela esan zuten erakunde biek, Korsikan, Britainian eta Ipar Katalunian egin bezala, Ipar Euskal Herrian ere euskarari “nolabaiteko izaera ofiziala” aitortu behar zaiola azpimarratuz. Horretarako, gogoratu zuten ezinbestekoa dela “baliabide aski paratzea eta hizkuntza politikarako aurrekontu propioa bideratzea”. Norabide berean, Ipar Euskal Herriko erakundeentzat Euskaltzaindia aholku emaile ofiziala eta hizkuntza kontuetan erreferentziazkoa izatea eskatu zieten Akademiak Garapen Kontseiluari eta Euskararen Erakunde Publikoari. Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan aholku emaile ofiziala da Euskaltzaindia, eta, ondorioz eta euskarari dagozkionetan, herri-erakundeek irizpenak, aholkuak eta txostenak eskatzen dizkiote.

Ipar Euskal Herriko hirigune elkargo bakarra sortzeko prozesua abiatu zenetik, edozenbat izen erabili dira egitura berria izendatzeko. Hori horrela, Euskaltzaindiak eta Euskal Konfederazioak *Euskal Elkargoa* hobetsi dute egituraren izen ofizial gisa.

Jende ugari hurbildu zen goizeko zein arratsalde parteko hitzaldietara, Euskal Museoko gela nagusia euskaltzalez gainezka agertu zelarik.

Agiriak

Euskaltzaindia. Batzar-agiriak

Osoko bilkura

Donostian, 2016ko urtarrilaren 29an.

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, buruordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Lakarra, Joseba,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Zabaleta, Patxi eta
Zalbide, Mikel.

Osa, Erramun,
Zabaleta, Joseba,
Gardner, Nikolas eta
Joly, Lionel
zegozkien gaietan.

Osoko bilkura Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiko Batzar aretoan hasi da, goizeko 10:00etan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta berorien ahalak irakurri ditu, eta quoruma badela egiaztatu ondoren, Euskaltzaindiaren urtarrileko Osoko batzarrari hasiera eman dio.

Hasi aurretik, idazkariordeak jakinarazi du deituta dagoen Ageriko bilkura Diputazioaren beste areto batean egingo dela, Osoko bilkura 12:00etan amaitu eta iaz zendu ziren euskaltzainen hilberri txostenak irakurtzeko.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa, Patxi Goenaga, Miren Lourdes Oñederra, Patxi Salaberri eta Joan Mari Torrealdai.

1. Aurreko Osoko bilkurako (2015-12-18) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.

A. Iñigok, A. Toledok, P. Zabaletak eta A. Urrutiak lapsus ortografiko batzuk zuzentzeko ohar batzuk egin dituzte, baina edukiari buruzkorik ez. Zuzenketa horiek ontzat eman dira eta horrela akta onetsi da.

2. Ageriko bilkuretake (2015-09-25 eta 2015-10-30) bilera-agiriak onartzea, hala erabakiko balitz.

A. Urrutiak, Elizondok, 2015eko irailaren 25ean eginiko Ageriko bilkuraren bilera-agirian Peio Jorajuria euskaltzain urgazlearen izena falta dela adierazi du.

Zuzenketa hori eginda, bilera-agiria onartu da.

Donostian, 2015eko urriaren 30ean eginiko Ageriko bilkurari dagokionez, oharrik egon ez denez, bilera-agiria bere horretan onartu da.

3. Exonomastika: Bizantziar inperioko pertsona-izenak. Aurkezturiko iruzkinak aztertu eta erabaki.

Ez da oharrik heldu. Nolanahi ere, A. Iñigok ohar bat egin du erabilitako irizpideei buruz. Izan ere, gentilizioak beti minuskulaz idatzi badira ere, aurkezturiko txostenean ohitura hori kasu batzuetan ez da errespetatu. Kasu guztietan berdin jotzeko, guztiak minuskulaz idaztea erabaki da.

4. aztergaian aurreikusiriko “Euskararen Historia Soziala lantzeko eredu metodologikoa. Aurkezpena” azken puntu gisa uztea erabaki da. Ondorioz, gainerako aztergaiak jorratu dira, aurreikusitako hurrenkeraren arabera.

5. Euskaltzaindiaren Hiztegia: bigarren itzulirako behar diren sarrera berriak aurkeztu.

A. Sagarna Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arduradunak gaia aurkeztu du. Euskaltzaindiak jada onarturiko hitzak definitzeko, hiztegian oraindik sartu ez diren berba batzuk gaineratu beharko direla azaldu du, kontraesanik gerta ez dadin. J. Lakarrak *Andredena* hitzaz galdetu du. Kintanak esan du *Andre Dona Maria* dela tradiziozko forma Euskaltzaindiak orokorki hobetsia, eta *Andredena Maria* Ipar Euskal Herrirako utzi zela.

Oharrak idatziz egiteko epea otsailaren 15era arte utzi da.

6. Euskal Herria izena. 139. araua. Aurkezturiko iruzkinak aztertu eta erabaki.

A. Iñigok, A. Toledok eta X. Videgainek aurkeztu dituzte oharrak. Euskaltzainek gaiaren jarraipena are hobeto egiteko, ekarpen guztiak testuan zehar, dagokien hurrenkeran eta egile bakoitzaren arabera koloreztaturik jaso ditu A. Iñigo euskaltzainak. Berriz gogorarazi du, 139. arauaren azalpen testua eguneratzearen arrazoi nagusia izan dela 2004an egindakoan ageri ziren aipamenak hurrenkera kronologikoan ongi paratzea eta aipamenen datak ahalik eta zehatzen ematea. Horrela, alde batetik, orduan (2004an) ezagutu berri zen Lazarragaren lana 1564. urtearen ingurukoa izaten ahal zela pentsatu zen eta hala jarri ere, baina hori egiaztatzerik izan ez denez gero, arabarraren aipua Leizarragarenaren ondotik jarri da. Beste aldetik, Azkueri buruzko aipamena (J. P. Ulibarrirenaren ondotik ageri zena) dagokion tokira pasatu da. Horietaz gain, testuan ageri diren J. Tartas, J. P. Ulibarri, F. Laphitz eta G. Adema "Zaldubi"ren lanen edizio urte zehatzak gehitu dira, bai eta huskeriaren bat edo beste zuzendu ere. Horiekin batera, M. Larramendiren aipu zehatz eta argia gehitzea onetsi da.

Osoko bilkurak 139. arauaren aurretik ageri den azalpenari eginiko ohar guztiak onetsi ditu. Era berean, oin-ohar batean arauaren azalpen testua noiz egokitu den jasotzea ere erabaki da. Idazkariordeak Euskaltzaindiaren webgunean 139. arauaren aurretik datorren azalpen testua eguneratuko dela eta *Plazaberrin* argibideak emango direla adierazi du.

Gai honi dagokionez, 139. arauaren zein haren aurretik datorren azalpen testuaren jatorrizko euskal testuaz gainera, elkarteen eta erakundeen eskabideari erantzun nahian, gaztelaniaz eta frantsesez ere argitara ematea aurreikusita dago (hori bai, jatorrizkoa euskarazko testua dela argi utziz). Gauzak horrela, A. Iñigori eskatu zaio gaztelaniazko testua prestatzea eta X. Videgaini frantsesezkoa. Bi itzulpen horiek Lauro Ikastolan otsailean egingo den Osoko bilkura baino lehenago bidaliko zaizkie euskaltzainei, oharrak aurkezteko aukera izan dezaten.

7. Esku artekoak.

7.1. Euskaltzaindiaren 2016. urteko aurrekontuei buruzko informazioa. Euskaltzaindiko diruzainak, Sagrario Alemanek, hartu du hitza eta orain arte jasoriko datuen arabera, 2016ko aurrekontua Euskaltzaindiak 2015ean izan zuenaren antzekoa izango dela adierazi du. Beraz, ez da aldaketa handirik egongo. Batzordee-

tako, lantaldeetako eta egitasmoetako planak prestatzen ari direnez, aurrekontuak zein planak batera aurkeztuko dira otsaileko Osoko bilkuran.

R. M. Azkue Literatura Sariak: epaimahaiko kideak. Literatura Ikerketa batzordeak gaia aztertu ondoren, datozen izenak proposatu zizkion Zuzendaritzari (2016ko urtarrilaren 14ko bilera-agiriaren arabera):

Epaimahaikideak (A – Maila):

Yolanda Arrieta Malaxetxebarria

Igone Etxebarria Zamalloa

Manu Lopez Gaseni

Epaimahaikideak (B – Maila):

Miren Billelabeitia

Amaia Jauregizar Ormaetxea

Jabier Rojo

Osoko bilkurak eginiko proposamena berretsi du.

7.3. Hurrengo bilkurak

7.3.1. Otsailaren 12an. Euskara Biziberritzen Jarraitzeko Erronkak goiburupean jardunaldia egingo da Euskaltzaindiaren egoitzan, Bilbon, 09:30etik aurrera. Sustapen batzordeko buruak, Sagrario Alemanek, egitarauaren berri eman du. Patxi Saez jaunak Euskaltzaindiari eginiko eskaria kontuan hartuz, Euskaltzaindiak jardunaldia antolatzea erabaki du. Proposamenak egiteko epea oraindik irekia da eta batzuk jada heldu dira. E. Osak kalean dauden iritzi ezberdinak aipatu ditu, Euskaltzaindiaren zeregina eztabaidatuz.

P. Zabaletak azpimarratu du lege aldetik oraindik dauden hutsuneak ere azpimarratu behar liratekeela. Nolanahi ere, ez da halako gairik jorratzeko inolako ekarpenik jaso. Edonola ere, jardunaldi honen xedea eztabaidari hasiera ematea da, beraz, aurrerantzean segida izango du.

7.3.2. Otsailaren 19an, Euskara Foru Aldundien ibilbidean izenburupean jardunaldia egingo da Sabino Arana Fundazioaren egoitzan. Honen berri, halaber, Sustapen batzordeko idazkariak eman du. Jardunaldia Sabino Arana Fundazioak, Zuzenbidearen Euskal Akademiak eta Euskaltzaindiak lankidetzan antolatu dute. Jardunaldi honen egitaraua banatu da Osoko bilkuran.

7.3.3. Osoko bilkura, otsailaren 26an, Loiuko Lauro ikastolan. Lauro ikastolak, Bizkaian legeztaturik ireki zen lehenbizikoak, aurtan 50 urte bete ditu. Hasieran R. M^a Azkue ikastola izena izan zuen, eta Julia Berrojalbiz, Alfontso Irigoien, Xabier Peña eta beste euskaltzain eta euskaltzale batzuen laguntzaz sortu zen, eta harrezkero hainbeste gurasoren ahaleginei esker aurrera atera da. Efemeride hori ospatzeko, otsailaren 26an, Euskaltzaindiak, Lauro ikastolan, goizeko 10:00etatik aurrera bere hileroko Osoko batzarra egingo du, eta ondoren jendaurreko bilkura ere bai. Bertan egingo diren ospakizunak oraindik zehazkizun daude.

8. Azken ordukoak.

Ez da egon.

Horrela, aztergaietan jasotako **4. puntua, "Euskararen Historia Soziala lantzeko eredu metodologikoa. Aurkezpena"** egin da. Aurkezpenean, Mikel Zalbide Euskararen Historia Soziala egitasmoaren zuzendariak eta Lionel Joly eta Nikolas Gardner Euskararen Historia Soziala egitasmoaren teknikariek parte hartu dute. *Euskararen Historia Soziala lantzeko eredu metodologikoa* Euskaltzaindiaren "Etxeberri" bilduman argitaratu da, eta, Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean aurkeztuko da, 2016ko otsailaren 9an.

2007. urtean abiatu zen Euskararen Historia Soziala (EHS) edo Joanes Etxeberri egitasmoa. Berariazko txostena aurkeztu zuen Joseba Intxausti ohorezko euskaltzainak, eta egitasmoa aurrera eramatea erabaki zuen Euskaltzaindiak, Joseba Intxausti bera proiektuaren zuzendari izendatuz. Gaur egun Mikel Zalbide euskaltzaina da proiektuaren zuzendari.

Eredu metodologikoa, azken 50 urteotan, komunitate zientifikoak onartuak dituen kontzeptu garrantzitsu eta esanguratsuenak modelo teoriko bakar batera biltzeko saiakera da, lehenaldia ez ezik, orainaldia aztertzeko orduan ere baliagarri izan daitekeena. Kontaktuan dauden hizkuntza biren edo gehiagoren egoera soziolinguistikoa ahalik eta modu egituratuenean deskribatzeko balio dezake. Inguruabar horretan, egitasmoaren zuzendariak azaldu duenez, Hizkuntzen Historia Sozialaren ikerlerroa gorako bidean dator azken urteotan. Hala ere, tresna teoriko eta metodologiko mugatuak sortu eta erabili dituzte han-hemengo ikertzaileek, orain arte. Zenbait motibo direla medio, ez dago oraindik aho batez onarturiko jardueramolde oinarritzorik, hots, ez dago metodologiarik edo modelo zabal onarturik aldiari aldiko ikerketak modu egituratuan eta partekatuan burutzeko. Era berean,

Mikel Zalbidek sei azterbide eta bost dimentsio dituen 30 gelaxkako koadroaren xehetasunak azaldu ditu.

Ondoren, liburua nazioarteko ikerkuntzaren testuinguruan kokatu du Lionel Jolyk eta proiektuan lan egiteko hautatu den modua azaldu du. Horren ostean, Mikel Zalbidek berriro hartu du hitza, eredu teoriko-metodologikoaren bizkarrezurra azaltzeko, zenbait adibide eskainiz. Bestalde, Nikolas Gardnerrek proiekturako berariaz osatu den aplikazio informatikoa aurkeztu du. Lan hauosatzen duten kapituluak azaldu dira gero.

Denbora ezagatik azalpena eten behar izan da, euskaltzain hilen omenez, jendaurreko ekitaldira joateko. Euskaltzainburuak hiru partaideei eskerrak eman dizkie eta otsailaren 9an, asteartean, liburua Donostiako Luis Villasante Euskararen Iker-gunean aurkeztuko dela jakinarazi du.

Eta beste aztergairik ez dela, 12:00ak direnean Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
Euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
Idazkaria

Ageriko bilkura

Donostian, 2016ko urtarrilaren 29an.

Juan Garmendia Larrañaga, Joshua A. Fishman, Joseph Camino, Suzuko Tamura eta Jan Braun ohorezko euskaltzainen eta Emile Larre euskaltzain emerituaren hilberri txostenak irakurtzeko.

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian, 12:00etan, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin du, aurreko urtean hil ziren Juan Garmendia Larrañaga, Joshua A. Fishman, Joseph Camino, Suzuko Tamura eta Jan Braun ohorezko euskaltzainen eta Emile Larre euskaltzain emerituaren hilberri txostenak irakurtzeko.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xarles Videgain buruordea, Xabier Kintana idazkaria, Sagrario Aleman diruzaina, Adolfo Arejita Iker sailburua, Jean-Baptiste Battittu Coyos Jagon sailburua, Miren Azkarate, Andres Iñigo, Jabier Kaltzakorta, Txomin Peillen, Andoni Sagarna, Ana Toledo, Patxi Uribarren, Patxi Zabaleta eta Mikel Zalbide.

Euskaltzain ohorezkoak: Xipri Arbelbide, Koldo Artola, Erramun Baxok, Antonio Campos, Janbattitt Dirassar, Maite Idirin eta Mixel Itzaina.

Euskaltzain urgazleak: Xabier Mendiguren eta Jose Mari Velez de Mendizabal.

Erramun Osa euskaltzain urgazlea eta idazkariordea eta Joseba Zabaleta kudeatzailerak.

Euskaltzaindikoko langileak: Maixa Goikoetxea eta Amaia Okariz.

Gaur omenduriko euskaltzainen hainbat senide eta lagun.

Ekitaldia Joxan Goikoetxea eta Amaia Azkue musikarien pieza batekin hasi da. Ondoren, A. Urrutia euskaltzainburuak etorririkoak agurtu eta ekitaldiaren non-

dik norakoak azaldu ditu. Gauzak horrela, Euskaltzaindiak, urteko lehenbiziko Osoko bilkuraren ondoren, aurreko urtean hil diren euskaltzainak gogora ekartzeko ekitaldia ohikoa dela gogora ekarri du. Halaber, joandako euskaltzainek, bakoitzak bere eremuan, une zailetan, baliabide eta aukera urriagoak zeudenean, euskararen eta euskal kulturaren alde egin duten ekarpena azpimarratu du. Segidan, Juan Garmendia Larrañaga (1926-2015) ohorezko euskaltzainaren hilberri txostena irakurtzeko, Jose Mari Velez de Mendizabal euskaltzain urgazleari hitza eman dio.

J. M. Velez de Mendizabalek J. Garmendia Larrañaga "eskuzabal, bihotz on, adiskideen adiskide, hitztun neurtu eta jori, ikertzaile aspergaitz, idazle trebe, irakurle nekaezin, txantxa (eta txantxo) zale, eszeptiko samarra, isekari eta batzuetan ironiko samarra, erromantikoa..." bezala deskribatu du. Jose Marik adierazitakoaren arabera, euskal kulturako inork gutxik lortu duen maila erdietsi zuen eta sentimenduz eta jakitez biribildutako lan mardul eta aberatsa utzi zigun. Era berean, J. Garmendia Larrañagak zituen hainbat ezaugarri azpimarratu du: "Juan hiritarra, Juan etnologoa, Juan dibulgatzailea, Juan euskalduna, Juan euskaltzalea".

Merkataritzako ikasketak egin ostean, familiak zuen negozioan, etnografian eta historian murgiltzeko aukera izan zuela gogoan izan du Velez de Mendizabalek, eta ondo aprobetxatu zuela. Ikerketa lan zabal eta sakonak bata bestearen atzean etorri ziren. Eta zientziaren soroko urrats sendoak lagun, goi ikasketetara hurbildu zen, eta 1984an doktoregoa lortu zuen Euskal Herriko Unibertsitatean, bere Euskal lexiko etnografikoarekin. "Bikain cum laude" atera zuen. Epaimahaiburua Koldo Mitxelena zen eta tesiaren zuzendaria, berriz, Julio Caro Baroja. Euskararekiko zeukan jarrera ere aipatu du: "Euskara bizia nahi zuen, kalean ikusi gura zuen, ume eta nagusien arteko kohesioa ahalbidetuz".

Mintzaldiaren ostean, Joshua A. Fishman (1926-2015) ohorezko euskaltzainaren hilberri txostena irakurtzeko, Mikel Zalbide euskaltzain osoak hartu du hitza.

M. Zalbideren esanetan, J. Fishmanek euskararen gizarte-dimentsioaz eta egun-egoera onbideratzeko aukerabide posibleez gutxik bezalako ezagutza teorikoa metaturik zuen. Gogora ekarri du Fishman hizkuntza-soziologiaren sortzaile eta bide-urratzaile nagusien artean kokatu ohi dela maiz. Ondoren, bere ekarpen nagusiei buruz mintzatu da. Batetik, hainbat gairen inguruan egin zituenak: besteak beste, hizkuntza-soziologia, hizkuntzaren eta hartaz baliatzen den gizataldearen arteko lotura moldeak, hizkuntzen corpus- eta estatus-plangintza, eta hezkuntza elebiduna. Bestetik, J. Fishmanek berak zuzendurik, berrogei bat urtez etengabe

kaleratu den *International Journal of the Sociology of Language* (IJSL) aldizkaria.

Bestalde, hiztun-elkarte txiki bateko kide izanik, ahuldutako hizkuntzen gainbehera eta bizirik irauteko nekea argiro ulertzen saiatu izan da J. Fishman. Bere arbasoen hizkuntza, jiddisha, gaztetatik saiatu zen babesten eta, lagungarri teorikoz zein oinarri enpirikoz, indartzen. Helduarora iritsi ahala, berariazko ikergai bihurtu zuen jiddisharen alorreko hezkuntza elebiduna, soziologia eta historia soziala. Geroxeago, etxekoaz gainera, han-hemengo hiztun-herri txikiak ere aztergai izan zituen. Euskal Herria eta euskara ere berariaz aztertu zituen. Euskal Herriarekin eta euskararekin izandako harremanak aipatu ditu Zalbidek eta horrek isla izan zuela hainbat liburutan, bereziki *Reversing Language Shift* liburuan, non friserari eta euskarari kapitulu osoa eskainia zien.

Mikelek esan duenez, "aparteko ekarpenak eginik zituen euskararen oraingo egoera sozialaz eta, belaez belauneko transmisio-jarraipena ardatz izanik, berau indarberritzeko aurrerabide posiblez". Amaitzeko, J. Fishmanen ekarpena "erraldoia" dela esan du. "Erraldoia da kopuruz, lehenik eta behin: ehun liburu inguru eta mila artikulutik gora kontabilizatu dizkiote berrikitan. Erraldoia dugu, bestalde, landu dituen esparruen ugariagatik eta, oso bereziki, esparru bakoitzean utzi duen arrasto sakonagatik. Hizkuntza-soziologiaren oinarri teorikoak eta, aplikazio-alorrean, ele biko hezkuntza, hizkuntza-plangintza, hizkuntza eta abertzaletasuna, hizkuntza eta erlijioa edota beste hainbat alor nekez landu litezke gaur bere azalpen zehatzak, paradigma nagusiak eta aurkikuntza jakingarriak alde batera utziz. Ezinbesteko erreferentzia dira horiek, mundu zabalean".

Segidan, Emile Larreren (1926-2015) ibilbidea gogoan izan du Janbattitt Dirassarrek. Hala, oinarritzko ikasketak Baigorri egin ondoren, Uztaritzeko Seminario Txikian eta Baionako Seminario Handian ikasi zuela aipatu du. Uztaritzen "berehala kausitu zituen euskara gero eta gehiago maitarazi nahiz ari ziren irakasle batzuk. Besteak beste, Etienne Salaberry heletarra eta, oroz gainetik, Piarres Lafitte denbora hartan ez zena oraino *Herria* astekariaren zuzendari baina ezagutua ordukotz euskalgintzan alde bat lan eta lan plantatua zelakoz... Piarresekin Emile azkarki berotu zen euskaldungoaren alde".

Baionan apaiztu zen 1951ko ekainaren 29an. Ondoren, hainbat herritan izan zen: Hazparnen, Donibane Garazin, Urruñan. Azken honetan, Dirassarren hitzetan, "lan ederrik akuilatu zuen. Euskal antzerkiaren sustatzeari ere azkarki lotu. Gero eta kar gehiago agertuz ere bertsogintzaren sail guztiz balios horretan. Eta bai, luzaz

eta luzaz Emile izana da bertsozale guztiz suharra. Saio frankotan partzuer, edo gai-emaile, edo epaimahaian berdin... Dela Nafarroako Txapelketan, hamar bat urtez, dela Euskal Herriko Txapelgo Nagusian, lau aldiz, azkenik 1982an".

Urruñatik Hazparnera, zazpi urtez, misiolari lanak egitera. Eta gero erretore izan zen Aiherran, 11 urtez. Bertan euskal liturgian eta eliz testuen itzulpenean lan handia egin zuen. Ondoren, Irisarrin eta Suhuskunen izan zen (1980-1995) eta berriro Donibane Garazira. Azkenean, ahultzen ari zela eta, Kanboko Arditeia zahar-etxera joan zen bizitzera. Eta honela amaitu du Janbattitt Dirassarrek: "Bere apez-lan guzien artetik, bertsolaritza ere sustatuz, ja erran dudan bezala, pilotazale erne eta kartsu agertuz bestalde -bera ere hein bat gazte zeno pilotan ari izana arras poliki- Emile ez genuen segur aireari so egoten diren horietarik baina alde bat lan eta lan aritzen diren xinaurri baten parekoa. Idazle fina, biziki fina. Lan batzuk argitaratuak *Gure Herria* aldizkarian bai eta Iker sailean. Batzuetan Sokorri ize-nordea baliatuz. Sari asko ukanak. Pilotarien Biltzarrak omendua, Euskal-Herriko Idazleen Elkartek ere bai. Besteak beste. Eta nola ez gain-gainetik gorets *Herria* astekariaren zuzendari bezala eraman duen saila. Handi eta iraunkor izan da zinez Emileren eragina. *Herriaren* zuzendaritzan bai eta aipatu ditugun sail askotan. Bai, Emile izan da maisu eta eredu".

Joxan Goikoetxea eta Amaia Azkue musikariek beste bi pieza abestu ostean, Joseph Camino (1927-2015) ohorezko euskaltzainaren hilberri txostena irakurtzeko hitza Xipri Arbelbide ohorezko euskaltzainak hartu du.

Xipri Arbelbidek gogora ekarri du Joseph Caminok Arnegiko, Hazparneko, Uztaritzeko eta Baionako seminarioetan burutu zituela ikasketak eta 1951n apaiztu zela. 1953. urtean, Ipar Euskal Herriko umeen eta gazteen aholkulari jardun zuen. "Elizaren zerbitzuko, Elizaren ibilbide bera egin du Joseph Caminok. Eliza gorenean ezagutu du 400 gazte bildu zituelarik Parisko Saint Honoré elizan aste batez, Euskal Herriko 300 gaztek oinez egin zutelarik Lurderateko beilan azken eguna edo 4.000 gazte bildu zirelarik Hazparnen Euskaldun Gazteriaren urteko bestan, 1953an". Piarres Lafitterekin Euskal Herri bat bazela ikasi zuen. Bestalde, Seminario Handian predikatu behar zen, euskaraz ere. Xarriton, Hiriart Urruti eta beste zenbaitekin ikasi zuen bere Arnegiko euskara hura behar bezala idazten, hitzen erdiak jan gabe.

Gogorarazi duenez, *Pan Pin* hilabetekaria sortu zuen 1960an. Haurrentzako komiki aldizkaria zen eta *Zeruko Argia* aldizkariak argitaratu zuen, 1960tik 1970era

bitartean: Lau koloretan atera zituzten zortzi orrialde Valverde inprimategian, Espainiako Gobernuaren baimena erdietsirik baldintza batekin: "dar preferencia a personas y hechos españoles". Ondoren *Gazte* hilabetekaria sortu zuten. Baina 70eko hamarkadan "Tinira heldu eta Elizak, ala euskarak, elkarrekin hasi zuten beherapena. *Gazte* eta *Pan Pin*, biak isildu ziren irakurle eskasez eta Euskaldun Xoriak, gero eta gehiago "erdaldun" bilakatu. X. Arbelbidek honela amaitu du: "Tinia hartarik mende erdi bat berantago, iduri luke euskara bizi berri bat hasten ari dela ikastola, gau eskola, irrati eta gaineratekoekin. Elizan lehen pindarrak agertzen ari ote zaizkigu?".

Suzuko Ainhoa Tamura (1934-2015) ohorezko euskaltzainaren hilberri txostena Sho Hagio euskaltzale japoniarrak paratu du. Berak hurreratzeko modurik izan ez duenez, bere ordezkari Aizpea Goenaga idazle, antzerki zuzendari eta Etxepare Institutuko zuzendariak irakurri du.

Sho Hagioren ustez, S. Tamurak toki berezia du hizkuntzalari deskribatzaile japoniar bezala akademikoen artean: "S. Tamurari hizkuntza eranskariak interesatu zitzaizkion, besteak beste, japoniera, ainuera, inuitera, euskara, etab. Euskararekiko interesa bere bizitzaren azken erdian etorri zitzaion arren, euskal munduarekiko bihotzezko atxikimendua mantendu zuen bizitza osoan". S. Tamurak hasieratik erakutsi zuen ainuera hizkuntzarekiko interesa. S. Hagiok idatzi eta Aizpea Gonegak irakurri duenez, 1973. urtean lehenengo "Kindaichi saria" eman zioten, aurreko urteetan egin zuen ainuerari buruzko ikerketa-segidagatik. 1967an utzi zuen Waseda Unibertsitateko Hizkuntzen Irakaskuntzarako Institutura itzuli zen, 1974an. Bertan "bere ikerketa sakontzeaz gain, bere ikuspegiak zabaltzeko aukera izan zuen. Hitzen ordena ikertzen aurrera segituz, hain zuzen, Kanadako inuiten hizkuntza ikasten hasi zen. Eta 1977an hitzaldi publikoak ematera Tokiora etorri zen Jacques Allières euskalari frantsesa ezagutu zuen eta, ondorioz, euskararekiko interesa ere piztu zitzaion".

J. Allièresen eraginez, Euskal Herrira etorri eta euskara ikasteari ekin zion. 1980an Euskaltzaindiak antolatutako Euskalarien Nazioarteko Jardunaldietan parte hartu zuen. Gero, Jean Haritschelhar eta Jose Mari Satrustegirekin harreman luzeak izan zituen. "Haritschelharrek aholkatuta, euskal sintaxiari buruzko lanak argitaratu zituen 1983an".

Ikertzaile zorrotza izateaz gain, "hizkuntzalariaren gizarte-erantzukizunaren kontzientzia sakona izan zuen. Aitortzen zuen bere alhadura -hots, ainuera ba-

besteko ezer egin ez zuten hizkuntzalarien akatsa-. Hizkuntza bat bizi-bizirik izan dadin, ikerketa bera egiteaz gain zer gehiago egin lezaketen hizkuntzalariek pentsatzen zuen beti". S. Tamurak euskararekiko zuen atxikimenduaz, azkenik: "Saio batzuetan adoratzen zuen euskara defendatzeko eta zabaltzeko euskaldunen etengabeko erronka. Zalantzarik gabe -amaitu du- Tamura da euskal ikerketa edo ikasketen oinarri sendo eta iraunkorra Japonian jarri zuena".

Aizpea Goenagaren irakurraldiaren ondoren, Jan Braun (1926-2015) ohorezko euskaltzainaren hilberri txostena irakurtzeko hitza Xabier Kintana euskaltzain osoak hartu du. J. Braunen alde profesionala eta pertsonala uztartu ditu X. Kintanak. Euskararekin izan zuen lehendabiziko harremanaz mintzatu da: "1976an Tbilisiko Unibertsitatean euskal ikastaro bat eman zuen eta ondorioz Euskal hizkuntzarako sarrera liburua argitaratu zuen, georgieraz. Ikastaldi horren eraginez, Georgiako Estatu-Unibertsitateko talde bat animatu zen euskara ikasten. Era berean, Varsoviako Iberistikako Katedran oinarritzko euskal ikastaroak eman zituen, urte askotan. Bere bigarren tesia 1991n aurkeztu zuen, Euscaro-Caucasica izenburupean".

Kintanak XX. mendeko 70eko hamarkadan ezagutu zuen: "Ezustekoa izan zen niretzat halako batean poloniar euskalari bat gure Akademian agertzea, euskaraz interesaturik. Elkarrekin mintzatzen hasi eta, gainera, horixe ere kasualitatea, Kaukasoko hizkuntzetan ere ondo aditua zela jakin genuen. Ni ere garai hartan hasi berria nintzen Kaukasoko hizkuntzak ikasten. Georgiera bereziki. Urte batzuk geroago, 1981ean antolaturiko Euskalarien Jardunaldietan bera ere egon zen, euskarako eta kartveliar hitz batzuen arteko antz eta kideetasunak erakutsiz. Izaeraz pertsona isila eta lasaia zen Jan, gutxi hitz egitekoa, baina beti galdera zorrotz eta interesgarriak egiten zekiena".

J. Braunek ahal zuenean Euskal Herrira etorri eta ibilaldiak egiten zituen bere ustez euskalki ezberdinetako hitz eta esaldi jatorrak aurki zitzakeen leketan. Amaitzeko, X. Kintanak, Jan Braunen lekukoa beste batzuek hartu dutela azpimarratu du: "Bere Herrian J. Braunek hasitako euskal eskolek aurrera segitu dute, eta Poloniatik zenbait ikasle etorri dira azken urteotan guregana, euskal arloan sakondu nahirik. Horretariko batek, gainera, Dorota Krajevskia andreak, Etxepareren poesia lanak polonierara itzuli ditu eta iaz, Done Frantzisko Xabierkoaren egunean Gasteizko Eusko Legebiltzarrean aurkeztu ziren, era berean, Jan Braunen ikasle izandako Salome Gabuniak eta Natela Sturua georgiarrek esku hartu zuten liburu horretan errusierazko eta georgierako itzulpenak egiteko".

Hilberri txostenak irakurri ostean, Joxan Goikoetxeak eta Amaia Azkuek beste pieza bi jo dituzte, 13:45 direnean, Ageriko bilkura bukatutzat emanez.

Andres Urrutia Badiola,
Euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
Idazkaria

Osoko bilkura

Loiun, Lauro Ikastolan, 2016ko otsailaren 26an.

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Arkotxa, Aurelia
Iñigo, Andres,
Oñederra, Miren Lourdes,
Sagarna, Andoni, eta
Uribarren, Patxi,

Osa, Erramun,
eta Mujika, Alfontso
zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Miren Azkarate, Jose Irazu “B. Atxaga”, Jabier Kaltzakorta, Joseba Lakarra, Txomin Peillen, Patxi Salaberri, Ana Toledo, Joan Mari Torrealdai, Xarles Videgain, Patxi Zabaleta eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Jose Irazu “B. Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari; Joseba Lakarrak ahala Miren Lourdes Oñederrari; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Joan Mari Torrealdaik ahala Andoni Sagarnari; Xarles Videgainek ahala Jean-Baptiste “Battittu” Coyosi;

Patxi Zabaletak ahala Andres Iñigori eta Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Lauro Ikastolaren 50. urteurrena dela eta, Osoko bilkura Loiun, Lauro Ikastolako Behekosoloa eraikinean, egin da, goizeko 10:30ean. Bilkura hasi aurretik, Lauro Ikastolako ikasleek euskaltzainei harrera egin diete, DBHko eraikinean, besteak beste zenbait kanta kantatuz eta haiek prestaturiko zenbait testu irakurritz. Ondoren, bilkura hasi da, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta berorien ahalak irakurri ditu, eta quoruma badela egiaztatu ondoren, Euskaltzaindiaren otsaileko Osoko batzarri hasiera eman dio.

Idazkariordeak jakinarazi du 13:00etan Osoko bilkura amaitzea eta, Batxilergoko eraikinean, ikasleek antolatutako ekintzetan parte hartzea aurreikusita dagoela.

1. Aurreko Osoko bilkurako (2016-01-29) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.

Ahalen artean, M. L. Oñederrak Joseba Lakarrari emaniko ahala jasotzea falta da. Zuzenketa hori egin ondoren, bestelako oharrik egin ez denez, urtarileko Osoko bilkurako bilera-agiria onartu da.

2. Euskal Herria izena. 139. araua. Itzulpenak (gaztelaniaz eta frantsesez). Aurkezturiko iruzkinak aztertu eta erabaki.

A. Toledo eta A. Iñigo euskaltzain osoek oharrak aurkeztu dituzte. A. Iñigok guztiak batu, eta testu bateratu batean zuzendu edo ordezkatu beharrekoak jaso ditu. Ohar ia guztiak onartu dira Osoko bilkuran. 5. orrialdean “En referencia San Francisco...” dioen tokian, “En referencia a San Francisco...” eta, 8. orrialdean, “sustituir dicha s por la z” “escribirla con z” beharrean jaso dira. Honenbestez, 139. arauaren gaztelaniazko itzulpena onartu da.

Gaurko Osoko bilkurara X. Videgain euskaltzainak etortzerik izan ez duenez, frantsesezko itzulpena hurrengo Osoko bilkuran aurkeztuko da.

3. Euskaltzaindiaren Hiztegia: bigarren itzulirako behar diren sarrera berriak. Aurkezturiko iruzkinak aztertu eta erabaki.

Urtarileko Osoko bilkuran aurkezturiko zerrendari oharrak A. Arejita eta P. Uriarren euskaltzain osoek egin dizkiote. A. Sagarna Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arduradunak, eginiko oharrak kontuan hartuz, proposamenak aurkeztu ditu. Eginiko proposamen guztiak onartu dira.

Ondoren, A. Sagarnak Euskaltzaindiaren Hiztegian, definitzeko garaian, arazoak sortzen dituzten sarrera batzuei buruzko proposamena aurkeztu du (*afin*, *asper* egin da, *asper* eginik, *asper-asper* egin, *betonatu*, *bilakatzaille*, *bihurtzaille*, *birjabetasun*, *esklusio*, *espresu*, *norma*, *orekagailu*, *píamater*, *prosoma*, *satsitu*, *satsi*, *satsitzen*, *zainpe*, *almez*, *martxukaondo* / *martxukondo*, *mistik*, *mutik*, *tuntik*, *txintik*, *moropildu*, *moropil*, *moropiltzen*, *nontzebarri*/berri, *karotida*, *lepo-zain*/jugular kasu bakoitzean onarturiko irtenbidea azalduz. Horiek horrela, martxoaren 14a bitartean iruzkinak egiteko aldia ireki da.

4. Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, 2015eko azaroaren 27an eginiko Osoko bilkurak Exonomastika batzordeari eskaturiko txostena aurkeztu: Erdal hitzak eta izen berezien baliokide diren adierazpenak deklinatzeko jarraibideak.

A. Mujika Exonomastika batzordearen idazkariak aurkeztu du txostena, eta euskaltzainen artean banatu. Euskaltzaindiak 1979an erabaki zituen hitzen deklinabidearen paradigmak, eta, izen bereziei dagokienez, pertsona-izenen saila eta leku-izenen saila bereizi zituen. Hala ere, badira zenbait izen(dapen) berezi leku-izen eta pertsona-izen ez direnak, hala nola erakunde, elkarte eta enpresa askoren izenak. Halakoak nola deklinatu jakiteko orain dagoen arau-hutsunea konpontzeko, deklinabide-taulan beste azpisail bat zabaltzea proposatzen du Exonomastika batzordeak, izen berezien gisako izendapenak nola deklinatu adierazteko. Hala, bide batez, adieraziko litzateke badirela, leku-izen eta pertsona-izenez gainera, beste era bateko izen bereziak ere. Proposamena “Adierazpen izendatzaileen deklinabidea” izeneko araua jaso da.

Araugaiak, izen berezien baliokide diren adierazpen izendatzaileak zer diren eta zer ezaugarri dituzten azaldu ondoren, era horretako adierazpenak deklinatzeko irizpide orokorra zehazten du kasu (kontsonantez bukatuak, bokalez bukatuak) eta azpikasuko bakoitzean (“a” artikulua bukatuak, “a” bokalez bukatuak). Horretaz gainera, izena eta izana bat ez datozenean nola jokatu eta zer aukera dauden ere zehazten du arauak. Azkenik, izen-sintagma ez diren adierazpen izendatzaileen deklinabidearen puntua ere zehazten du.

Bigarren araua bat ere aurkeztu du Exonomastika batzordeak: “Erdal hitzen deklinabidea”. Euskal testuetan agertzen diren erdal hitzak nola deklinatu zehazten du. Idazkera eta ahoskera bat ez datozen kasuan, deklinatzeko orduan ahozkoan nola jokatu eta idatzizkoan nola jokatu adierazten da. Azkenik, “h”, “y” edo “w” letraz amaitutako erdal hitzen deklinabidea ere zehazten du.

Euskaltzainek eskerrak eman dizkiote Exonomastika batzordeari eginiko lanagatik, eta martxoaren 14a bitarteko epea ireki da iruzkinak egiteko.

5. Euskaltzain urgazleak izendatzeko deialdia egin: Nafarroa.

A. Urrutia euskaltzainburuak jakinarazi duenez, euskaltzain urgazleak izendatzeko Osoko bilkurak ezarritako prozedura kontuan hartuz, Zuzendaritzaren ekimez, Nafarroan bizi diren euskaltzain osoekin eta, Barne-erregelen arabera (4.2 ar-

tikulua), Nafarroa ordezkatzan duten euskaltzain osoekin bilkura egin da Iruñeko ordezkaritzan, 2016ko otsailaren 9an. E. Osa idazkariordeak jasotako bilera-agiria irakurri du. Horiek horrela, Nafarroan bizi diren euskaltzainek segidan datozen sei pertsona hauek urgazle izateko proposatzea adostu dute:

	IZENA	ABIZENAK	AURKEZPEN LABURRA
1	AMAIA	APALAUZA OLLO	Iruñea (1979). Euskal Filologian doktorea. Nafarroako hizkerez eta ahozko tradizioez hainbat azterlanen egilea. Dialektologian aditua. Itzultzailea eta EIZIEko zuzendaritzako kidea. Nafarroako Unibertsitateko Euskara Katedrako irakasle laguntzailea.
2	XABIER	ERIZE ETXEGARAI	Iruñea (1955). Euskal Filologian doktorea. Soziolinguistikan hainbat ikerlan egin eta argitaratu ditu. HIZNETeko irakaslea da eta hizkuntza garapenaren sortzaile eta arduraduna izan da Nafarroako Kutxan. Sustapen batzordeko aholkularia da. Soziolinguista.
3	MAITE	LAKAR IRAIZOZ	Elizondo (1978). Euskal Filologian lizentziaduna. Baztango, Malerreka eta Bortzirietako ahozko tradizioaren eta beste hainbat azterlanen egilea. Irakasle funtzionarioa Bigarren Hezkuntzan. Hizkerai buruzko hainbat azterlan.
4	PATXI	PETRIRENA	Sunbilla (1963). Psikologia ikasketak EHUn. Euskara itzultzaile eta zuzentzaile lanetan hainbat argitalpenen egilea, bai eta estilo liburuena ere <i>Euskaldunon Egunkarian</i> eta EIMAn. 2008az geroztik, Elhuyar Fundazioan ari da. Itzultzaile-zuzentzailea.
5	ROSA	RAMOS ALFARO	Iruñea (1966). Euskal Filologian lizentziaduna. Soziolinguistika arloan aditua eta hainbat lanen egilea. Udaletako euskara teknikaria urte luzez, azkeneko 17etan Berriozarko Udalean. Soziolinguistikan aditua.
6	CASTILLO	SUAREZ GARCIA	Altsasu (1976). Euskal Filologian lizentziaduna. Idazlea. Arlo horretan zenbait sari jasotzeaz gain, hainbat liburu eta idazlan ere argitaratu ditu. Lanbidez euskara teknikaria da, azkeneko 10 urteetan Sakanako Mankomunitatean.

Nafarroan bizi diren euskaltzain osoen adostasuna duela, zerrenda Zuzendaritzako kideek gaur aurkeztu dute, Arautegiaren 3., 38. eta Barne-erregelen 6. artikuluetan jasorikoa kontuan hartuz. Ondorioz, bozketa hurrengo Osoko bilkuran, apirilean, egingo da. Halaber, beste norbait proposatu nahi izanez gero, gutxienez bi euskaltzain osoren adostasuna ezinbestekoa dela gogorarazi da.

6. Esku artekoak.

6.1. Gotzon Lobera Hiztegi Parlamentarioa biltzeko eta bateratzeko lantaldeko koordinatzaileak zehar-galdera / zehargaldera dela eta, Hiztegi Batua eta 115. arauaren artean dagoen kontraesanaz bidaliriko oharra. Jaso den azalpenean esaten denaren arabera, Hiztegi Batuko lantaldeak 2002. urtean aztertu eta proposatu zuen marrarekin idaztea eta 2010eko argitalpenak halaxe jaso zuen, Osoko bilkurak onartu ondoren. *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* ere, lehen argitalpenean, adibide gisa jaso zuen *zehar-galdera* forma.

Hori ikusita, bidezkoa dirudi erabilera bakarrera ekartzea, Euskaltzaindiak berak araututako formak arauen idazkeran ere aplikatzen direla ziurtatuz. Horrela, 115. arauaren izenburuan zuzentzea eta *zehar-galdera* jasotzea erabaki da Osoko bilkuran.

6.2. Euskaltzaindiaren 2016. urteko aurrekontuei buruzko informazioa. S. Aleman diruzainak adierazi duenez, eginiko kudeaketa kontuan hartuz, Euskaltzaindiak 2015. urtean izan zuen aurrekontuaren antzekoa izango du 2016. urtean ere. Horrela, batzordeetako, lantaldeetako eta egitasmoetako planak prestatzen ari dira. Aurrekontuak apirilko Osoko bilkuran aurkeztuko dira.

6.3. Euskadi Literatura Saria, euskarazko literatura itzulpena modalitatean, Euskaltzaindiaren ordezkaria. Zuzendaritzak Juan Luis Goikoetxea euskaltzain urgazlea proposatzen du, 2016ko otsailaren 24ko bilkuran hitz egindakoaren arabera. Osoko bilkurak eginiko proposamena berretsi du.

6.4. Gaur banatuko diren argitalpenak.

Ondoko hauek:

Patxi Salaberriren *Araba / Álava los nombres de nuestros pueblos*. Izenak bilduma, 5. zenbakia; eta

Mikel Zalbidek, Lionel Jolyk eta Nikolas Gardnerrek paraturiko *Euskararen Historia Soziala lantzeko eredu metodologikoa*. Etxeberri bilduma, 6. zenbakia.

6.5. Hurrengo bilkurak. Ondoren zehazten diren bilkurak iragarri dira:

Martxoaren 10ean, ostegunean, Gasteizen, 11:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean, *Gasteizko Toponimia V* liburuaren aurkezpena egingo da.

Martxoaren 12an, larunbatean, Andoainen, Martin Ugalde Kultura Parkean, 12:00etan, Joan Mari Torrealdairi Manuel Lekuona saria emateko ekitaldia egingo da.

Martxoaren 17an, Donostian, 11:30ean, Luis Villasante Euskararen Ikergunean, Fisika, Matematika eta Astronomia alorrerako euskarazko oinarritzko lexikoak aurkeztuko dira.

Apirilaren 29an, ostiralean, Osoko bilkura, Iruñeko Udaletxean.

7. Azken ordukoak.

7.1. Joakin Gorrotxategi euskaltzain urgazlea Espainiako Errege Akademiako urgazle. Gaur jakitera eman denez, 2015. urtearen amaieran, Joakin Gorrotxategi EHUKo katedradun eta euskaltzain urgazlea Espainiako Errege Akademiako urgazle izendatu zuten. Osoko bilkurak zorionak ematea erabaki du.

7.2. Santa Teresa Jesusenaren "idazlan guztiak" itzuli ditu Luis Baraiazarra karmeldar eta euskaltzain ohorezkoak. Patxi Uribarrenek Santa Teresa Jesusenaren obra guztiak ekarri ditu euskaraz argitaratuak, Luis Baraiazarra euskaltzain ohorezkoak itzuliak. Euskaltzainburuak eskerrak eman dizkio.

Eta beste aztergairik ez dela, 13:10 direnean Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
Euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
Idazkaria

Osoko bilkura

Iruñeko Udaletxean, 2016ko apirilaren 29an.

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, buruordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Lakarra, Joseba,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Salaberri, Patxi,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi eta
Zabaleta, Patxi.

Gurrutxaga, Antton,
Lobera, Gotzon,
Mujika, Alfontso,
Osa, Erramun,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Joseba
zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa, Miren Azkarate, Patxi Goenaga, Jose Irazu “B. Atxaga”, Mi-

ren Lourdes Oñederra, Joan Mari Torreal dai eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Jean-Baptiste “Battittu” Coyosi; Patxi Goenagak ahala Joseba Lakarrari; Jose Irazu “B. Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Miren Lourdes Oñederrak ahala Joseba Lakarrari; Joan Mari Torreal daik ahala Andoni Sagarnari eta Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Osoko bilkura hasi aurretik, Iruñeko Udaleko korporazioak euskaltzainei ongi etorri egin die, Udaletxearen Harrera aretoan. Hitza hartzen lehena Joseba Asiron Iruñeko alkatea izan da. Alkateak, euskaltzainak agurtu, Euskaltzaindiaren orain arteko lana goraiatu, eta korporazioak erakunde bien arteko lankidetzat indartzeko borondatea duela azpimarratu du. Euskaltzaindiaren izenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak eskerrak eman eta alkateak adieraziriko borondatearekin Akademiak bat egiten duela adierazi du. Agur hitzen ondoren, alkateak eta euskaltzainburuak opariak trukatu dituzte. Harrerekin amaitzeko, korporazioak eta hurreraturiko euskaltzainek taldeko argazkia egin dute.

Aztergaiei ekin aurretik, euskaltzainburuak hitza hartu du eta adierazi Jean Haritschelhar euskaltzainburua izan zenaren emaztea, Colette Haritschelhar, apirilaren 7an, 93 urterekin zendu dela. Senide eta hurbilekoei doluminak adieraztea erabaki da Osoko bilkuran.

Ondoren, Osoko bilkurako aztergaiak aztertu dira.

1. Aurreko Osoko Bilkurako (2016-02-26) akta onartzea, hala erabakiko balitz.

A. Iñigo euskaltzainak ortografiaren aldetiko zuzenketa txiki batzuk egin ditu. Horiek gehitu ondoren, bestelako oharrak egon ez denez, otsaileko Osoko bilkurako bilera-agiria ontzat eman da.

2. Euskaltzain urgazleak (Nafarroa) izendatzea.

A. Urrutia euskaltzainburuak Lauro Ikastolan eginiko Osoko bilkuran jakinarazi zuenez, euskaltzain urgazleak izendatzeko Osoko bilkurak ezarritako prozedura kontuan hartuz, Zuzendaritzaren ekimenez, Nafarroan bizi diren euskaltzain osoekin eta, Barne-erregelen arabera (4.2 artikulua), Nafarroa ordezkatzeko duten euskaltzain osoekin bilkura egin zen Iruñeko ordezkartzan, 2016ko otsailaren 9an. Bilera horretan adostu zen, aho batez, hautagaien kopurua sei izatea, bai eta izen zerrenda ere. Adosturiko izenak Lauro Ikastolan eginiko Osoko bilkuran aurkeztu ziren. Ondoren, hautagai guztiei euskaltzain urgazle izateko prest ote dauden galdetu zaie eta baiezkota izan da guztien aldetik idatziz jaso den erantzuna. Harrezkero, bestelako proposamenik ez da jaso.

A. Urrutiak bestelako proposamenik Osoko bilkuran aurkeztu nahi den galdetu du. Inork halakorik egiteko asmorik agertu ez duenez, segidan, euskaltzain urgazle-gaien zerrendako kideak banan-banan ala taldean bozkatzea nahi den galdetu du. Bozkatzekotan, talde gisa bozkatzea adostu dute euskaltzainek. Ondoren, zerrenda hori isilpeko eta idatzizko bozketa bidez ala atxikimenduz onartzea nahi den galdetu du. Inork ez du bozketarik eskatu, beraz, atxikimenduz onartu da euskaltzain urgazle-gaien proposamena.

Gauzak horrela, Iruñeko Udaletxean, 2016ko apirilaren 29an, eginiko Osoko bilkuran, ondoko pertsona hauek euskaltzain urgazle izendatu ditu Euskaltzaindiak:

	IZENA	ABIZENAK	AURKEZPEN LABURRA
1	AMAIA	APALAUZA OLLO	Iruñea (1979). Euskal Filologian doktorea. Nafarroako hizkerez eta ahozko tradizioez hainbat azterlanen egilea. Dialektologian aditua. Itzultzailea eta EIZIEko zuzendaritzako kidea. Nafarroako Unibertsitateko Euskara Katedrako irakasle laguntzailea.
2	XABIER	ERIZE ETXEGARAI	Iruñea (1955). Euskal Filologian doktorea. Soziolinguistikan hainbat ikerlan egin eta argitaratu ditu. HIZNETeko irakaslea da eta hizkuntza garapenaren sortzaile eta arduraduna izan da Nafarroako Kutxan. Sustapen batzordeko aholkularia da. Soziolinguista.
3	MAITE	LAKAR IRAIZOZ	Elizondo (1978). Euskal Filologian lizentziaduna. Baztango, Malerreka eta Bortzirietako ahozko tradizioaren eta beste hainbat azterlanen egilea. Irakasle funtzionarioa Bigarren Hezkuntzan. Hizkerari buruzko hainbat azterlan.
4	PATXI	PETRIRENA	Sunbilla (1963). Psikologia ikasketak EHUn. Euskara itzultzaile eta zuzentzaile lanetan hainbat argitalpenen egilea, bai eta estilo liburuena ere <i>Euskaldunon Egunkarian</i> eta EIMAn. 2008az geroztik, Elhuyar Fundazioan ari da. Itzultzaile-zuzentzailea.
5	ROSA	RAMOS ALFARO	Iruñea (1966). Euskal Filologian lizentziaduna. Soziolinguistika arloan aditua eta hainbat lanen egilea. Udaletako euskara teknikaria urte luzez, azkeneko 17etan Berriozarko Udalean. Soziolinguistikan aditua.
6	CASTILLO	SUAREZ GARCIA	Altsasu (1976). Euskal Filologian lizentziaduna. Idazlea. Arlo horretan zenbait sari jasotzeaz gain, hainbat liburu eta idazlan ere argitaratu ditu. Lanbidez euskara teknikaria da, azkeneko 10 urteetan Sakanako Mankomunitatean.

Idazkariordeak euskaltzainei jakinarazi die interesdunei eta hedabideei izendapenen berri gaur emango zaiela.

3. Euskal Herria izena: 139. araua. Frantsesezko itzulpena aurkeztea.

X. Videgainek aurkeztu eta azaldu du frantsesezko testua. A. Iñigok nabarmendu duenez, itzulpenean 139. arauaren azken bertsioa ez da kontuan hartu; besteak beste, X. Videgainek euskarazko testuari eginiko oharra ere falta da, beraz, zuzentzeko eta osatzeko aldia, maiatzaren 16an amaitzen dena, ireki da.

4. Euskaltzaindiaren Hiztegia: bigarren itzulirako behar diren sarrera berriak. Aurkezturiko iruzkinak aztertu eta erabaki.

A. Sagarna Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arduradunak, Euskaltzaindiaren Hiztegia definitzeko garaian arazoak sortzen dituzten sarrera batzuk konpontzeko otsailaren 26an aurkezturiko zerrendari inork oharrik ez diola egin jakinarazi du. Horrela, aurkezturiko proposamena onar dadin eskatu du. Inork kontrako iritzirik agertu ez duenez, otsailaren 26ko Osoko bilkuran aurkezturiko sarrera berrien zerrenda onartu da Osoko bilkuran.

5. Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, 2015eko azaroaren 27an eginiko Osoko bilkurak Exonomastika batzordeari eskatutako txostena (Erdal hitzak eta izen berezien baliokide diren adierazpenak deklinatzeko jarraibideak). Aurkezturiko iruzkinak aztertu eta erabaki.

A. Mujika Exonomastika batzordearen idazkariak jakitera eman du Osoko bilkurak 2015eko azaroan eskaturiko eta 2016ko otsailaren 26an aurkeztutako txosteari A. Sagarna eta M. L. Oñederra euskaltzainek oharrak egin dizkiotela. Era berean, gaur aurkeztutakoak Exonomastika batzordeak aztertzeko astirik ez duela izan aurreratu du. Nolanahi ere, oharrak eta erantzunak azaldu ditu xeheki eta, gaiak duen garrantzia ikusita, eginiko txostena aztertzeko denbora badagoela gaineratu du.

P. Salaberri Onomastika batzordearen buruak adierazi du batzorde batzuek aldizka berez beraiei ez legozkiekeen gai batzuk hartzen dituztela beren gain. X. Kintanak azaldu du ez dela Exonomastika batzordearen asmoa Onomastika batzordearen

zereginetan sartzea, baina kontraesan bat aurkitu dutela Europako Erresumetako errege-erreginen izen-zerrendak prestatzean, horien artean Euskal Herrikoak, Nafarroakoak hain zuzen, ezin erabakitzea, arlo hori Onomastika batzordearena delako. Horrexegatik ez dute beren gain hartu, eta Onomastikakoari eskaria zuzendu diote, ahalik eta lasterren aztertu eta erabaki ditzaten. P. Salaberrik erantzun du bere batzordea lanez gainezka dagoela, besteak beste, hainbat herri-erakundetatik geroz eta kontsulta gehiago iristen direlako eta denbora laburrean erantzun beharrean aurkitzen direlako. Horrela, beste batzorde batzuen eskariei erantzuteko baliabiderik, ez eta denborarik ere, ez dutela azpimarratu du.

Alde bateko eta besteko eskariak beharrezkoak diren aldetik, guztiei erantzuteko prozedura bat erabaki beharko litzatekeela uste dute A. Mujikak eta X. Kintanak. Eztabaida trenkatzeko, euskaltzainburuak esan du berak proposatuko duela hurrengo batean horretarako prozeduraren bat.

J. Lakarrak, aldiz, leku-izenen deklinabideaz, K. Mitxelenaren behialako oharra gogorarazi du izen arruntak izen propio bihurtzen direnean izaten duten deklinabide era ezberdinaz (adibidez *bazterreko/Bazterko*), eta hori ere gogoan izan beharko litzatekeela nabarmendu du.

P. Uribarrenek A. Mujikak aurkezturiko txostena, bere zabalean zehatza eta egokia bada ere, jende arruntari begira erraztea eta laburtzea eskatu du. Gauza bera proposatu du A. Arejitak berak ere. A. Sagarnak, aldiz, iturrietara jotzea proposatu du, testu idatzietara, horien lekukotasuna eskaintzeko.

Eztabaidaren ondoren, prozedura finkatzeko eta koordinazioa ziurtatzeko, euskaltzainburuak proposatu du Exonomastika batzordeak txostena gaurko oharrekin osatzea eta Zuzendaritzara igortzea. Hala egitea erabaki da Osoko bilkuran.

6. Kimikako oinarritzko lexikoaren aurkezpena.

Antton Gurrutxaga Zientzia eta Teknika Hiztegia biltzeko egitasmoa kidea eta Miriam Urkia Hiztegi Batuko lantaldeko burua batzar-aretoan sartu dira. X. Kintanak lanaren aurkezpen laburra egin du eta hitza A. Gurrutxagari eman dio. Bero- nek hitzak nola aurkezten diren azaldu du. Era berean, sailkatzeko metodologia ere azaldu du. Hitz eta esaera batzuk euskaraz esateko dauden bikoiztasun-kasu batzuk erakutsi ditu euskal/erdal erro ezberdinen arazoak azalduz. Bigarren txostenean, lan honetan jardungo duten pertsona adituen aurkezpena egin du eta Kimikako

oinarrizko lexikoaren proposamena ere banatu du, hitz bakoitzaren inguruko informazio zehatza emanez, hots, termino horiek frantsesez, espainieraz eta ingelesez dituzten ordainak, hitzaren estatusa, euskal hiztegietan kontzeptu hori esateko erabiltzen diren aldakiak, etab.

Horiek horrela, oharrak egiteko aldia ireki da; uztailaren 14an, ostegunarekin, bukatuko da.

7. Glosario Parlamentarioa (1) aurkeztu.

Batzar aretora Gotzon Lobera Hiztegi Juridiko eta Parlamentarioa bateratzeko lantaldeko koordinatzailea sartu da. Alboan, Miriam Urkia Hiztegi Batuko lantaldeko buru eta jasotako testuetako hitzak erauzten ibili den UZEIko ordezkaria egon da.

Eusko Legebiltzarreko, Nafarroako Parlamentuko eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako batzar nagusietako arautegietan oinarrituriko corpusa abiapuntutzat harturik, glosario parlamentarioa lantzeko proiektua da berau. G. Loberak lantaldea nola osatu den azaldu du. Lehen prestalana UZEIk egin du, arlo hauetan daukan esperientzia kontuan harturik, eta bi txosten ekarri dituzte. Lehenengoan, glosario hau osatzeko erabiliriko prestalana eta prozedura azaltzen da, datu-iturriak eta zerrendak eskainiz. Bigarrenean, lantaldean jada adosturiko 414 hitzen zerrenda ageri da. Euskaltzainek egindako galderak ere erantzun dituzte. Biei eskerrak eman zaizkie.

Euskaltzainei zerrenda aztertu eta beren oharrak maiatzaren 16rako bidaltzea eskatu zaie.

8. Esku artekoak

8.1. Espainiako Sari nazionalak. Espainiako Kultura Ministerioaren eskariari erantzunez, Euskaltzaindiko Zuzendaritzak, Literatura Ikerketa batzordearen proposamenak jaso ondoren, Espainiako Literatura Sari Nazionalak emateko epaimahaikidetzat ondokoak proposatzen ditu:

"Premio Nacional de las Letras Españolas": Adolfo Arejita eta Aizpea Goenaga, euskaltzain osoa eta Etxepare Institutuko zuzendaria, hurrenez hurren.

"Premio Nacional de Literatura (Poesía)": Josu K. Bijueska eta Arantza Urretabizkaia

euskaltzain urgazleak.

"Premio Nacional de Literatura (Poesía joven “Miguel Hernández”)": Jon Kortazar eta Katixa Agirre, euskaltzain urgazlea eta idazlea, hurrenez hurren.

"Premio Nacional de Literatura (Literatura Infantil y Juvenil)": Manu Lopez Gase-
ni eta Miren Billelabeitia, EHUKo irakaslea eta idazlea, hurrenez hurren.

"Premio Nacional de Literatura (Narrativa)": Ana Toledo eta Sebastian Gartzia,
euskaltzain osoa eta urgazlea, hurrenez hurren.

"Premio Nacional de Literatura (Ensayo)": Juan Luis Sudupe eta Idurre Alonso
idazleak.

"Premio Nacional de Literatura (Literatura Dramática)": Patri Urkizu eta Arantzazu
Fernandez, euskaltzain urgazlea eta idazlea, hurrenez hurren.

"Premio Nacional a la Mejor Traducción": Andres Urrutia eta Sagrario Aleman,
euskaltzain osoak.

"Premio Nacional a la Obra de un Traductor": Andres Urrutia eta Sagrario Ale-
man, euskaltzain osoak.

"Premio Nacional de Periodismo Cultural": Odile Krutzeta eta Iñaki Mendizabal,
euskaltzain urgazlea eta kazetaria, hurrenez hurren.

Osoko bilkurak Zuzendaritzaren proposamena berretsi du.

8.2. Premio Eusko Ikaskuntza - Laboral Kutxa Saria. 2016ko otsailaren 26ko
Osoko bilkuran, euskaltzainei deialdi honen berri eman zitzairen eta nahi zituzten
hautagaiak aurkezteko eskatu. Inork ez du proposamenik aurkeztu. Gauzak horre-
la, Euskaltzaindiko Zuzendaritzak Joseba Intxausti Errekondo ohorezko euskaltzaina
aurkeztea erabaki du, 2016ko apirilaren 14an harturiko erabakiaren arabera. Egi-
niko proposamena berretsi da Osoko bilkuran.

8.3. Euskaltzaindiko Ipar Euskal Herriko Lurralde Kontseilua. Ipar Euskal
Herriko ordezkariari laguntza eta aholkua emateko, Ipar Euskal Herriko Lurral-
de Kontseilua eratzeke proposamena aurkeztu du A. Urrutia euskaltzainburuak,
Zuzendaritzaren izenean.

Euskaltzainburuak gaiaren garrantzia azpimarratu du, kontuan hartuta Ipar Eus-
kal Herrian aldatze bidean dagoen egitura juridikoa eta administratiboa. Bestalde-
tik ere, Iparraldearen gizarte zibilaren aldakuntzek, bereziki euskalgintzaren alde-

tik, gomendagarri egiten dute aldian-aldian Iparraldeko ordezkaritzaren inguruan biltzea eta egoera berriei so egitea, bertan diren euskaltzainen zein euskalgintzaren ordezkarien aldetik, Euskaltzaindiaren zuzendaritzarekin batera jokatzuz.

Zuzendaritzak aurkezturiko idatziak Lurralde Kontseilua eratzeke lege oinarria, osaera, karguak, bileren maiztasuna, zereginak, iraupena eta koordinazioari buruzko xehetasunak jasotzen ditu. Lurralde Kontseilua eratzea Osoko bilkurak berretsi behar du, Barne-erregelen 39. artikulua arabera. Komenigarria dela iritzita, kontrako iritzirik egon ez denez, Osoko bilkurak Ipar Euskal Herriko Lurralde Kontseilua eratzea berretsi du.

8.4. 2015eko ekitaldiko Urteko Kontuak eta Auditoretza-txostena, eta 2016ko aurrekontua. Aurreko Osoko bilkuran emaniko informazioa osatzeko asmoz, S. Aleman diruzainak hitza hartu du 2015eko ekitaldiari buruz bi mezu emateko. Batetik, 2015eko ekitaldia orekatua izan dela; hots, gastuak sarrerak bezainbestekoak izan direla. Bestea, Urteko Kontuak ikuskatu direla eta emaitza ona izan dela.

2016. urteko aurrekontuari dagokionez, diruzainak adierazi du Euskaltzaindiaren 2016ko plangintza aurreko urteko jarraipena izanik, aurrekontua ere, oro har, 2015. urtearen oso antzekoa dela. Diru-sarrera garrantzitsuenak lotuta daude eta horrek lasaitasuna ematen dio Akademiari. Gastuei dagokienez, batzordeetatik, lantaldeetatik, egitasmoetatik eta zerbitzuetatik datozen eskariak aurrekontuan sartuta daudela baieztatu du. Segidan, J. Zabaleta kudeatzaileak diruzainak esan dituenak xehe-xehe azaldu dizkie euskaltzainei.

Azalpenak entzun ondoren, Zuzendaritzaren izenean, euskaltzainburuak 2016ko aurrekontuak onartzen diren galdetu du. Osoko bilkurak 2016ko aurrekontuak onartu ditu. Era berean, euskaltzain guztiei gogorarazi zaie aurkezturiko informazioari buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero, Diruzaintzan dagoela eta kudeatzaileari eskatzea besterik ez dutela.

8.5. Hurrengo bilkurak. Ondoren zehazten diren bilkurak iragarri dira:

Maiatzaren 3an, asteartean, arratsaldeko 19:00etan, Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren jendaurreko aurkezpena egingo da Bilbon, Zabalguneko eraikinean. Egun horretan, goizeko 11:00etan, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren VII.* liburua aurkeztuko da, hedabideen aurrean.

Maiatzaren 27an, ostiralean, goizeko 10:00etan, Gernikako Kultura Etxean Osoko bilkura egingo da. Egun berean, Gernikako Udalak euskaltzainei harrera

egingo die eta taldeko argazkia egingo da.

Maiatzaren 27an, ostiralean, 11:00etan, Paulo Agirrebaltzategi ohorezko euskaltzainak paraturiko Ignazio Ormaetxebarriaren lanei buruzko argitalpena aurkeztuko da Gernikako Elai Alai aretoan.

9. Azken ordukoak

Ez da egon.

Eta beste aztergairik ez dela, 14:00etan Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
Euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
Idazkaria

Ageriko bilkura

Iruñean, Kondestablearen Jauregian, 2016ko apirilaren 29an, Miguel Javier Urmeneta euskaltzain urgazlearen jaiotzaren mendeurrenean.

Iruñeko Kondestablearen Jauregian, 16:30ean, Miguel Javier Urmeneta euskaltzain urgazlearen jaiotzaren mendeurrena dela eta, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin du.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xabier Kintana idazkaria, Sagrario Aleman diruzaina, Andres Iñigo, Jabier Kaltzakorta, Joseba Lakarra, Andoni Sagarna, Patxi Salaberri, Patxi Uribarren eta Patxi Zabaleta.

Euskaltzain ohorezkoak: Antonio Campos eta Jose Angel Irigarai.

Euskaltzain urgazleak: Mikel Bujanda, Paskual Rekalde eta Juan Jose Zubiri.

Goizean, Iruñeko Udaletxean eginiko Osoko bilkuran izendaturiko euskaltzain urgazleak: Amaia Apalauza, Xabier Erize, Maite Lakar, Patxi Petrarena, Rosa Ramos eta Castillo Suarez.

Erramun Osa euskaltzain urgazle eta idazkariordea.

Euskaltzaindiko langileak: Gema Insausti.

Miguel Javier Urmenetaren seme-alabak eta lagunak.

Joseba Asiron Iruñeko alkatea.

A. Urrutia euskaltzainburuak Ageriko bilkurara hurbildu diren guztiak agurtu ditu, bereziki Miguel Javier Urmenetaren seme-alabak eta lagunak. Era berean, goizean, Iruñeko Udaletxean eginiko Osoko bilkuran izendatu diren euskaltzain urgazleei Euskararen Akademiara ongi etorri egin die, eta adierazi ohorea bainoago lan egiteko deia jaso dutela Euskaltzainditik, euskara presenteago ager dadin Nafarroako gizartean, lurralde honetako bazter guztietan. Halaber, ekitaldiaren harira, une zailetan, euskararen alde jarduteak arriskuak eta ezinikusiak sorrazten zituenean, Miguel Javier Urmenetak egin zuen ahalegina gogora ekarri du. Ondoren, hitza Patxi Zabaleta euskaltzainari eman dio.

P. Zabaletak “Miguel Javier Urmeneta euskararen laguntzailea Nafarroan” izenburua duen hitzaldia eman du. Azalpenean, M. J. Urmenetaren biografia laburra egin du, bai eta haren euskararen aldeko ahaleginak eta harturiko nekeak deskribatu ere.

M. J. Urmeneta (Iruñea, 1915-1988) militar eta politikari nafarra izan zen. Besteak beste, 1957tik 1964ra Iruñeko alkate, eta 1964tik 1971ra Nafarroako foru diputatu ere izan zen. Zuzenbidea ikasi zuen Salamancan. Euskal nazionalista bazen ere, Espainiako Gerra Zibilean frankisten alde jarri zen, eta boluntario joan zen gerrara erreketeeikin. Ondoren, Dibisio Urdinean sartu eta Errusian borrokatu zen. Akademian karrera militarra ikasi zuen.

Euskara bigarren hizkuntza gisa ikasi zuen. 1950eko hamarkadan euskararen aldeko politika duina eskatu zion orduko Nafarroako Foru Diputazioko presidenteari. Bere ahaleginari esker, Diputazioaren Vianako Printzea Erakundearen barnean, Euskararen Aldeko saila sortu zen. Era berean, Iruñeko Euskalerria Irratiaren sortzaileetako, UEUren sustatzaileetako eta AEK-k antolatzen duen Korrikaren laguntzaileetako bat ere izan zen. Euskaltzaindiak, euskararen alde eginiko ahaleginak aitortuz, euskaltzain urgazle izendatu zuen 1966an.

P. Zabaletak bizitzaren zenbait pasarte eta jakingarri ere azaldu ditu bere hitzaldian. Ondoren, Asisko Urmeneta komikilari eta ilustratzaileak, Miguel Javier Urmenetaren semeak, hitza hartu du.

Honek, familiaren izenean, Euskaltzaindiari eskerrak eman dizkio bere aita gogora ekartzeagatik. Gauzak horrela, diapositibak lagun dituela, gogora ekarri ditu bere aitak sasoi desberdinetan idatzitako testuak, eginiko irudiak, bai eta haren gogoetak. Amaitzeko, ekitaldira hurreratu diren guztiei ere eskerrak eman dizkie.

Ageriko bilkurarekin bukatzeko, A. Urrutia euskaltzainburuak mahaiburura hurbiltzeko eskatu die ekitaldian diren Miguel Javier Urmenetaren senideei, euskaltzain osoei, ohorezkoei eta urgazleei (bereziki gaur goizean Iruñeko Udaletxean izendatu direnei) eta Joseba Asiron Iruñeko alkateari, taldeko argazkia atera ahal izateko.

Hitzaldien eta argazkien ostean, arratsaldeko 17:30ean, Ageriko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
Euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
Idazkaria

Osoko bilkura

Gernika-Lumoko Kultur Etxean, 2016ko maiatzaren 27an.

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, buruordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Arkotxa, Aurelia,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Lakarra, Joseba,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi eta
Zabaleta, Patxi.

Lobera, Gotzon,
Mujika, Alfontso,
Osa, Erramun,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Joseba
zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Jose Irazu “B. Atxaga”, Andoni Sagarna, Patxi Salaberri, Joan Mari Torrealdei eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Jose Irazu “B. Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Andoni Sagarnak ahala Andres Urrutiari; Patxi Salaberri ahala Andres Urrutiari; Joan Mari Torrealdaik ahala Andres Urrutiari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Gernika-Lumoko Kultur Etxean hasi da goizeko 10:00etan, ezkerreko zutabea ageri diren euskaltzainak bertan direla. Hasieran, A. Urrutia euskaltzainburuak hurreraturiko euskaltzainak agurtu, eta etorririko zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Ondoren, quoruma badela egiaztatu eta gero, Euskaltzaindiaren maiatzeko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

Erramun Osa idazkariordeak eguneko egitekoak azaldu ditu. Osoko bilkura 11:20an etetea aurreikusi da. Ondoren, Kultur Etxearen ondoko Elai Alai aretoan, Paulo Agirrebaltzategi oho-rezko euskaltzainak paraturiko Ignazio Omaetxebarriaren *Euskara Barrutik. Estudios de lingüística vasca* liburuaren aurkezpena egingo da. Aurkezpenaren ondoren, Kultur Etxearen aurrealdean, I. Omaetxebarriaren familiakoekin eta Gernika-Lumoko korporazioarekin taldeko argakia egingo da. Horren segidan, Osoko bilkurari jarraipena eman go zaio.

1. Osoko Bilkurako (2016-04-29) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.

A. Urrutia euskaltzainburuak ohar batzuk egin ditu, hizkuntzaren aldetik. Horiek jaso ondoren, apirileko Osoko bilkurako bilera-agiria onartu da.

2. Euskal Herria izena, 139. araua. Frantsesezko itzulpena. Aurkezturiko iruzkinak aztertu eta erabaki.

Frantsesezko itzulpena dela eta, A. Iñigok ohartarazi du, frantsesera egindako itzulpena ez dagoela Euskaltzaindiak onarturiko azkeneko testutik egina, lehenagoko batetik baizik, eta, beraz, pasarte batzuk berrikusi beharko liratekeela, euskarazko, gaztelaniazko eta frantsesezko testuak zuzenak eta baliokideak izan daitezen.

X. Videgainek A. Iñigori eskerrak eman dizkio oharragatik. Horiek horrela, frantsesezko testuaren itzulpen berritua aurkeztu du. Ekainaren 13a arteko epea jarri da oharrak egiteko.

3. Glosategi Parlamentarioa (I). Aurkezturiko iruzkinak aztertu eta erabaki.

Aretora M. Urkia Hiztegi Batuko lantaldeko burua eta Gotzon Lobera Hiztegi Juridiko eta Parlamentarioa bateratzeko lantaldeko koordinatzailea sartu dira. Euskaltzainak agurtu ondoren, aurreko Osoko bilkuran aurkezturiko zerrendari oharrak egin dizkion A. Iñigoren iruzkinei erantzun diete.

“Glosario” hitza dela eta, ez da Hiztegi Batu argitaratuan ageri, baina Hiztegi Batuko lantaldeak proposatua du 3. itzulian, oraindik Osoko bilkuran aurkeztu ez bada ere. Horren ordez **glosategi** proposatu da bileran, nahiz lantaldeak adierazi duen hitz-osaeraren egokitasunari buruz zalantzak dituela, eta “glosario” nazioartekoa dela gainera. Azkenean, adostasunik ez denez egon, gaia botoetara eraman da. Emaita ondokoa izan da: **glosategi** hitza jasotzearen alde hamar boto, **glosario** hitzaren aldeko zazpi eta hiru boto zuri. Mementoz, beraz, erabakita laga da, nahiz eta hurrengo bilkuran birplanteatu daitekeen, lantaldeak datu gehigarriak ekartzen dituen neurrian.

Letra larrien eta xeheen erabileran baliatutako irizpideez egindako galderari lantaldeak erantzun dio lanaren bukaeran guztia berrikusteko asmoa duela, orain erabili beharreko formak proposatu nahi dituela aurrena eta, beraz, hustuketan etorri dena bere horretan utzi duela, azken emaitzaren gainean proposamena egiteko.

Hala ere, EIMaKo estilo-liburuetako irizpideak erabiltzeko asmoa duela gogorarazi du, nahiz eta bukaeran Euskaltzaindiak berak proposamen argi bat izan beharko duen, ohargileak berak dioen moduan, etxe barruan ere oraingoz ez baitago irizpide bateraturik.

Nominalizazioa erabiltzeko irizpidez galdetuta, lantaldeak berretsi du hustuketan (hau da, erabileran) oinarritu dela, horrela baitarabilte lantaldeko teknikariek (itzultzaileek), eta haiek adostua onartu dela. Hala ere, glosategia bukatzen denean guztia berrikusiko da, baita ondoko ohar batean aipatu den “datuak ezkutatze” ere.

Marratxoaren erabilera dela eta, lantaldeak argi dauka Hiztegi Batuaren sistema forma bikoiztea dela, eta hala egin behar dela hemen ere, baina lanerako bakarrik erabili du formatu hori, hainbat termino-gai daudenean zerrenda erabilezina delako batzuetan. Hala ere, lantalde honek, Zientzia eta Teknika Hiztegia biltzeko egitasmoak (ZTHB) egin duen moduan, termino horiek marratxoz bakarrik ematea proposatu dio Euskaltzaindiari, nahiz Hiztegi Batuan txertatzen direnean berriro bikoiztu egin beharko liratekeen. Horren arriskua aipatu da bileran eta polikiago aztertzea komeni dela esanda bukatu da eztabaida.

Gaztelaniazko ordainetan genero-bereizketa markatzen duen idazteko moduaz egindako oharra dela eta, Espainiako Errege Akademiaren Hiztegiarenarekin (DRAE) bat ez datorrelako, azalpenak eman dira. Hau ere hustuketarako erabilitako metodoa izan da, eta argitalpenean zein forma beharko duen ez da oraindik erabaki. Izan ere, DRAEk azken silaba errepikatzen du, baina Euskaltzaindiak badu azken letra bakarrik bikoizten duen aurrekaririk, ZTHBn egin den bezala. Euskaltzaindiak erabaki bat hartu arte, lantaldeak hustuketakoari eutsiko dio, bukaeran guztia moldatzeko. Hala ere, badirudi logikoena DRAEk bezala egitea dela, baina orduan ZTHBrekiko desberdintasuna nabarmena izango litzateke.

“Nafarroako Kontuen Ganbera” osatu da gaztelaniaz, “Cámara de Comptos”i “de Navarra” gehituz. Hala behar du, noski. Hiztegi honetan Nafarroarekiko desoreka aipatu da, baina lantaldeak berriro ekarri du gogora apirileko Osoko bilkuran azaldutako laneko prozedura, alegia: maiztasunaren araberako multzoak lantzen ditu, eta lehenengo zerrenda honetan bost erakundeek jasotakoak, Hiztegi Batuak onartua eta/edo Euskaltermek normalizatuak jaso dira. Gaur aurkeztu den zerrendan, berriz, erakundeen arteko desadostasunak edo erabilera urriagokoak jaso dira. Eta erakunde bakarrak erabilitakoak azken zerrendan jasoko dira. Beraz, orekarik ez da izango zerrenda guztiak bukatu arte.

“ez agertze”, “ez onartze” modukoek marratxoa ere behar dutela aipatu du ohargileak, eta hala da, nahiz hustuketan sintagma mailan geratu diren termino batzuk, guztiz nominalizatu gabe. Guztiak erabat nominalizatzea onartu da; “boz(-)eskubide” eta “hitz(-)eskubide” bikoiztu gabe zeuden. Hala ere, lantaldeak berak “boz(-)eskubide” isiltzea proposatu dio Osoko bilkurari, nahasgarria izan daitekeelako, eta onartu egin da; “batzordeko eztabaida” sarrera anbigua dela dio ohargileak, eta “deliberación en comisión” terminoa ote den galdetu du. Lantaldeak oharra onartu eta “batzordean eztabaidatze” proposatu du, eta hala onartu da. Izan ere, “deliberación en comisión” halaxe erabiltzen da, eta hala jasotzea komeni dela uste du.

“Ararteko” gaztelaniaz ere “Ararteko” ote den galderari erantzunez, bai, hala da izen ofiziala EAEn; ez ordea Nafarroan. Beraz, “defensor del pueblo: ararteko” sarrera ere sortzea proposatu du lantaldeak, izen arrunt gisa, eta hala onartu da; “akats” sarreraren ordaintzat “vicio” jasotzea ilun ikusten du ohargileak. Lantaldeak horri eustea proposatu du, “error” eta “incorrección” adierazteko “huts” eta “oker” proposatu baititu, eta bereizketa horiek beharrezkoak direlako lexiko parlamentarioa lantzean. Onartu egin da lantaldearen proposamena.

“antolaketa”-ren ordaintzat “organización” iluna dela adierazi du ohargileak, erdal formaren ordaina “antolakunde” ere izan daitekeelako. Lantaldeak oharra onartu eta “antolaketa” zerrendatik ezabatzea proposatu du. Gauza bera gertatzen da “interposición” adierazteko proposatu den “aurkezte” formarekin. Lantaldeak forma hori isiltzea proposatu du, eta hala onartu da. Gaztelaniazko “decoro”-ren euskal ordain gisa “izen on” erabiltzea iluna dela esan du ohargileak. Egia da hiztegiakako datuek ez dutela gehiegi laguntzen, baina bost erakundeetako (Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako, eta, Eusko Legebiltzareko eta Nafarroako Parlamentuko) ordezkariak hala darabiltenez, bere horretan mantentzea proposatu da, eta ontzat eman da; “Mahai” sarrera bere soilean beharrezkoa ote den galdetuta, lantaldeak forma ezabatzea proposatu du, eta onartu egin da; “prokuradore” eta “auzitegiakako prokuradore” hobeki zehazteko eskaerari erantzunez, lantaldeak “procurador: batzarkide” soilik jasotzea proposatu du, hala baitarabilte Araban eta Bizkaian (eta horietan bakarrik). Onartu egin da proposamena; azkenik, “izen-abizenaz deitze”-ren ordeaz, “izen-deiturez deitze” proposatu du ohargileak, Euskaltzaindiaren tradizioan (*Euskal deituren izendegia*, Euskaltzaindiaren webgunean, etab.) hala erabili delako. Lantaldeak azaldu du Hiztegi Batuan eta Euskaltzaindiaren Hiztegian maila berean onartu direla izen-abizen eta izen-deitu-

ra, eta ez duela aldatzea beharrezko ikusten. Are gehiago, Euskaltermek ere termino normalizatu gisa hori jaso duela. Baina Osoko bilkurak “izen-deiturez deitze” jasotzea onartu du.

4. Glosategi Parlamentarioa (II) aurkeztu.

Glosategi Parlamentarioa (I) zerrendari egindako oharra aztertu eta adostu ondoren, Glosategi Parlamentarioa (II) zerrenda berria aurkeztu dute lantaldeko ordezkariak. Aurrekoarekin alderatuta, erabilera eta bat-etortze urriagoko formak datoz hemen. 608 euskal forma berri jaso dira bigarren zerrenda honetan. Euskaltzainek aurreko zerrenda hemen tartekatzeko eskatu dute, orain arte landutakoaren ikuspegi osoagoa izateko, eta hala bidaliko zaiela agindu dute lantaldeko kideek. Ekainaren 17a arteko epea izango dute oharra egiteko.

Lantaldeak Hiztegi Batuan eta Euskaltzaindiaren Hiztegian hiru arau moldatzeko proposamena egin dio Osoko Bilkurari:

“erregelamendu” sarrerari adiera bat gehitzea: “**erregelamendu** 1 iz. h. **araudi**; **arautegi**. 2 iz. *Zuz.* ‘erregela-multzoa biltzen duen dokumentu juridikoa’: Hipoteka Erregelamendua. Osoko bilkurak Glosategi Parlamentarioan oharra gehitzea onartu du, baina Hiztegia ez da oraindik ukituko.

Hiztegi Batuak “**instituzio** iz. h. **erakunde**” jaso du, eta lantalde honek forma onartzea proposatzen du. Onartu egin da.

“foru” sarreran, “foru-erkidego edo foru erkidego” azpisarrerako “Nafarroako Foru Erkidegoa” adibidea ezabatzeko eskatu da, izen ofiziala “Nafarroako Foru Komunitatea” baita. Onartu egin da eta ezabatu egingo da adibidean bai Hiztegi Batuan, bai Euskaltzaindiaren Hiztegian.

Glosategi Parlamentarioa (II) aurkeztu ondoren, Jose Maria Gorroño Gernika-Lumoko alkateak, aretora etorruta, euskaltzainak agurtu, Akademiaren orain arteko lana goraiatu eta aurrerantzean erakunde bien arteko lankidetzan jarduteko asmoa berretsi du. Euskaltzaindiaren izenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak eskerrak eman eta alkateak adieraziriko helburuekin aurrera segitzeko gogoia berretsi du.

5. Esku artekoak

5.1. Goi Erdi Aroko pertsonaia-izenak (Europako mendebaldea) (Iberiar penintsulako musulmanak izan ezik). A. Urrutia euskaltzainburuak Exonomastika batzordeak araugai hori prestatu duela eta gaurko Osoko bilkuran aurkezteko arazorik dagoen galdetu du. Aurkezpena besterik ez denez gero, Osoko bilkuran aurkeztea onartu da.

Alfontso Mujika Exonomastika batzordeko idazkariak, aretora sartu, eta zerrenda azaldu du, hor bilduriko pertsonaiek testu-liburu, entziklopedia eta abarretan duten garrantzia azpimarratuz. Zerrendaren iturriak ere ekarri ditu. Gurutzadetako pertsonaiak ere aipatzen dira. Entziklopedietako tradizioa kontuan hartu da. Zerrendako zenbait izeni bitxi deritzo J. Lakarra euskaltzainak, ahozko jardunerako luzeegiak, gutxi entzunak eta erabiliak direlako. P. Uribarrenek arauak ematean, azalpen xehe eta zehatzez gainera, azkenean ohar sinpletu eta laburragoak eranstea eskatu du, erabiltzaile arrunten mesedetan. Ana Toledok kontakizunetako pertsonaiak ere sartu beharko liratekeela esan du, adibidez *Genobeba Bravantekoa* edo *Auñemendiko Lorea*.

Oharra ekainaren 27rako, astelehena, bidaltzea erabaki da.

5.2. Patrick Farrell euskaltzain urgazlearen heriotzaren berri. Patrick Farrell hizkuntzalari irlandarra joan den otsailaren 23an zendu bazen ere, duela gutxi arte ez dugu izan bere heriotzaren berri. 78 urte zituen eta Euskaltzaindiak 1966ko azaroaren 25ean izendatu zuen urgazle. Dublinen (Irlandan) jaioa zen 1938an. Hizkuntzalaria zen eta abokatu izatetik erretiroa harturik zegoen.

5.3. Ahoskera batzordearen *Ahoskerak axola du txostena* Euskaltzaindiaren webgunean, 2016ko maiatzaren 23tik. 2015eko urriaren 23an, Euskaltzaindiaren Ahoskera batzordeak antolaturik, Ahoskera Jardunaldia egin zen Donostiako Luis Villasante Euskararen Ikergunean. Bertan Ahoskera batzordeak prestatutako txostena, “Ahoskerak axola du” deritzona, aurkeztu zen. Harrezkero, txostena biribiltzeko urratsak egin dira, eta horien ondorioa maiatzaren 23an Euskaltzaindiaren webgunean argitaratu da.

5.4. Israelgo Hebrear Hizkuntzaren Akademiaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzahitzarmena. X. Kintana idazkariak iazko azaroan, Jerusalemen, Mordekhai Mixor israeldar akademikoarekin izandako elkarrizketen ondorioz, Hebrear Hizkuntzaren Akademiak (*Ha-akademia Lalaxon Ha-ivrit*) lankidetzahitzarmen bat egin du Euskaltzaindiarekin, erakunde bien arteko harremanak landu, elkarri in-

formazioa eman eta agerkariak beren artean trukatzeko helburuarekin.

Sinaturiko hitzarmenak bi akademien arteko lankidetzarako oinarriak eta tresnak ezarri nahi ditu, beren ardurapeko hizkuntzen gainean elkarrekiko azterketa eta proiektuak koordinatuki garatzeko. Besteren artean, elkarren intereseko argitalpenetan lankidetzat bilatuko da; kongresu, jardunaldi eta mintegiak elkarrekin antolatzeko aukera ere aurreikusten du hitzarmenak. Era berean, informazioa, liburuak, argitalpenak eta gainerako material interesgarriak trukatzeko dituzte elkarren artean.

5.5. Nafarroan ETBren emisioa eteteko Espainiak emandako agindua berrikus dezan eskatu dio Euskaltzaindiak Espainiako Gobernuko presidenteari. Nafarroan Euskal Telebistaren emisioa eteteko Industria Ministerioak emandako agindua "bertan behera uzteko" eskatu dio Euskaltzaindiak Mariano Rajoy Espainiako jarduneko Gobernuko presidenteari. A. Urrutia euskaltzainburuak sinatzen duen gutunak dioenez, "agindu horrek, hala nahi duten nafarrei galarazten die telebista Foru Komunitateko berezko bi hizkuntza ofizialetako batean hartzeko eskubidea". Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako lehendakariak ere gutun bana bidali die, honakoa eskatuz: "Zuen esku dagoen guztia egin dezazuen Euskal Telebistaren emisioak lehenbailehen berreskura daitezen Nafarroan".

5.6. Euskaltzaindiaren hurrengo bilkurak. Hurrengo bilkurak gogora ekarri dira.

- **Jose Antonio Loidi Bizkarrondo euskaltzain urgazlearen jaiotzaren mendeurrena.** Ekainaren 17an Jose Antonio Loidi Bizkarrondo euskaltzain urgazlearen mendeurrenean Jardunaldia egingo da Irunen, Kultur Etxean, 19:00etatik aurrera. A. Toledo Literatura Ikerketa batzordeko buruak egitaraua banatu eta azaldu du.
- **Euskaltzaindiaren Ipar Euskal Herriko Batzar Nagusia.** Urtero egin ohi denez, ekainaren 22an, asteazkena, arratsaldeko 16:30ean, Euskaltzaindiaren Ipar Euskal Herriko Batzar Nagusia egingen da Baionan, ordezkaritzan.

Ekaineko Osoko bilkura. Ekainaren 24an, ostiralean, goizeko 09:30ean Osoko bilkura egingo da Baionan, Herriko Etxean.

6.- Azken ordukoak.

Ez da izan.

Eta beste aztergairik ez dela, 13:40 direnean Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
Euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
Idazkaria

Osoko bilkura

Baionako Herriko Etxean, 2016ko ekainaren 24an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, buruordea,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Arkotxa, Aurelia,
Davant, Jean-Louis,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Lakarra, Joseba,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi eta
Zabaleta, Patxi.

Lobera, Gotzon,
Mujika, Alfontso,
Osa, Erramun,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Joseba
zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Sagrario Aleman, Jose Irazu "B. Atxaga", Xabier Kintana, Andoni Sagarna, Patxi Salaberri, Joan Mari Torrealda eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Sagrario Alemanek ahala Andres Iñigori; Jose Irazu "B. Atxaga" ahala Andres Urrutiari; Xabier Kintanak ahala Andres Urrutiari; Andoni

Sagarnak ahala Andres Urrutiari; Patxi Salaberri ahala Andres Urrutiari; Joan Mari Torrealda ahala Andres Urrutiari; Mikel Zalbide ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Baionako Herriko Etxeko udalbatzaren bilera-gelan hasi da goizeko 09:30ean, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla. Hasieran, Yves Ugalde Baionako auzapezaren alboko eta Kultura ordezkariak, A. Urrutia euskaltzainburuak eta X. Videgain buruordeak hurreraturiko euskaltzainak agurtu eta ongi etorria egin diete.

Ondoren, euskaltzainburuak etorrikoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Gauzak horrela, quoruma bade-la egiaztatu eta gero, Euskaltzaindiaren ekaineko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

Xabier Kintana idazkariak osasun arrazoienatik hurreratzeko modurik izan ez duenez, A. Urrutia euskaltzainburuak Arautegiko hogeita laugarren artikulua irakurri du: "Idazkaria falta denean, azkenengo izendatua izan den euskaltzain osoak egingo du haren lana". Jabier Kaltzakorta euskaltzain osoa izendatua izan den azkenengo euskaltzaina denez gero, gaurko Osoko bilkuran berak egingo du idazkariari dagokion zeregina.

Euskaltzainek Osoko bilkurara aspaldiko partez etorri den B. Oihartzabal euskaltzainari harrera egin diote. B. Oihartzabal bileran izan da ia bukatu arte eta atsegin handia hartu duela adierazi du.

1. Osoko bilkurako (2016-05-27) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.

A. Toledo euskaltzain osoak 5. orrialdean bi zuzenketa egin ditu. Batetik, "Literaturako autore eta..." idatzia "kontakizunetako" berbagatik ordezkatzeari eskatu du. Bestetik, *Genobeba Bravantekoa* edo *Auñamendiko Lorea* bilera agirian gaizki jasota dago *Auñemendi* da eta. Bi zuzenketak onartu egin dira Osoko bilkuran.

A. Urrutiak bestelako oharrik dagoen galdetu du. Ez da egon, beraz, A. Toledo euskaltzainak eginiko bi zuzenketak barruratu ostean, bilera-agiria onarturik geratu da.

2. Euskal Herria izena. 139. araua. Itzulpena (frantsesez). Aurkezturiko iruzkinak aztertu eta erabaki.

X. Videgainek Gernikako Kultur Etxean aurkeztutako testuari zuzenketak egin dizkio A. Iñigo euskaltzainak eta horiek guztiak jaso ditu X. Videgainek gaur aurkeztu duen azkeneko bertsioan. Horietaz gain, bilkuran A. Iñigok Joan Perez de Lazarragaren (2. orrialdea) poemaren orrialdeei buruzko aipamena frantsesez jar dadin proposatu du. Hala egitea erabaki da Osoko bilkuran.

Gauzak horrela, bestelako oharrik egon ez denez, itzulpena onartu da. Frantsesezko eta gaztelaniazko bi itzulpenak batera eskainiko dira Euskaltzaindiaren webgunean.

3. Oinarrizko hiztegi juridiko-parlamentarioa (II). Aurkezturiko iruzkinak aztertu eta erabaki.

Aretora M. Urkia Hiztegi Batuko lantaldeko burua eta Gotzon Lobera "Oinarrizko hiztegi juridiko-parlamentarioa" bateratzeko lantaldeko koordinatzailea sartu dira.

Maiatzeko Osoko bilkuran *glosario* / *glosategi* formei buruzko datuak bilduko zituela agindu zuen lantaldeak, eta hala egin du. Bileran aurkeztu dira erabilerak eta, eztabaidaren ondoren, erabakia 3. itzulirako uztea onartu da. Bide batez, lan-

taldeak berak proiektuaren izena aldatzea proposatua zuen, jatorrizkora bueltatuz, eta ontzat eman da: “Oinarrizko hiztegi juridiko-parlamentarioa”.

Gernika-Lumon, 2016ko apirilaren 29an, eginiko Osoko bilkuran aurkezturiko zerrendari A. Iñigo eta P. Uribarren euskaltzainek oharrak aurkeztu dizkiote. Gaurko bilkuran, A. Iñigok egindako oharrei banaka erantzun diete lantaldeko kideek.

‘acción de la Diputación Foral’-en euskal formak bikoiztea proposatzen zuen A. Iñigok, lehendik onartutako *foru(-)aldundi* eta *foru(-)diputazio*ren bidetik. Lantaldeak *foru(-)diputazio* soiltzea proposatu du, bakarra aski delakoan, baina Nafarroan hala bakarrik darabiltenez, eztabaidaren ondoren, *foru(-)aldundi* (EAE) eta *foru(-)diputazio* (Nafarroa) jasotzea onartu da. Eta, ondorioz, ondoko oharretan azaldu diren forma eratorri guztiak ere bikoiztu egingo dira.

‘acordar la inadmisión’ ez onartzea erabaki proposamenaren ordeztu *ez(-)onartzea* erabaki behar duela esan du A. Iñigok, nominalizazioaren bidetik, *ez(-)onartze* soilarekin simetria mantenduz, eta hala onartu du lantaldeak. Dena den, bukaeran nominalizazioa berrikusiko da eta orduan aurkeztuko da behin betiko proposamena; ‘actividad mercantil’-en ordain gisa *merkataritza(-)jarduera* eta *jarduera profesional* zeuden, eta lehenengo ordaina bakarrik uztea onartu da; ‘asesor/a del grupo parlamentario’ *legebiltzar(-)taldeko bozeramaile*, *parlamentu(-)taldeko bozeramaile* gisa zetorren, *aholkulari* beharrean, lantaldearen huts baten ondorioz. Zuzendu da eta horren berri eman da bilkuran; ‘asiento en la Mesa’ *Mahaiko eserleku* bakarrik ageri zen zerrendan, eta *Mahaiko jarleku* gehitzea falta zen. Hala onartu da; ‘Boletín Oficial de Navarra’: *Nafarroako Aldizkari Ofizial* falta dela jakinarazi du A. Iñigok. Lantaldeak azaldu du erakunde bakarrak erabilitako formak (eta hau kasu horietako bat da) oraindik ez dituela aurkeztu. Bide batez, aldizkari ofizial guztiak jasoko direla jakinarazi du lantaldeak; ‘Casa de Juntas de Gernika’ mugatua dator zerrendan, eta *Gernikako Batzar Etxe* izan beharko luke. Oharra onartu da; ‘Comisión de Reglamento y Gobierno Interior’ eta ‘Comisión de Reglamento, Instituciones y Gobierno’ formen euskal ordainen idazkeraz egin ditu oharrak A. Iñigok, elkarretan sistematikotasuna eskatuz. Lantaldeak, gaia aztertzean, ikusi du forma horiek ez direla zerrenda honetan nahitaez sartu beharrekoak eta, beraz, biak isiltzea proposatu du. Hala onartu du Osoko bilkurak.

Hutsa zegoen ‘constitución de las nuevas Juntas Generales’ sarreran, *eratze* beharrean *eratu* baitzeturten. Oharra onartu eta zuzendu duela esan du lantaldeak.

‘convocatoria’: *deialdi* proposatu du lantaldeak, eta *dei* gehitzea eskatu du ohar-

gileak, *atseden* eta *atsedenaldi* kasuan egin den bezala. Lantaldeak azaldu du *dei* ‘llamamiento’ adierazteko jaso dagoela eta, beraz, *deialdi* hutsa jasotzea berresten duela. Onartu egin da; ‘credencial de electo’ adierazteko *hautetsi(-)egiaztagutun* proposatu du lantaldeak, eta *egiaztagutun* Hiztegi Batuan falta dela ohartarazi du A. Iñigok. Arrazoi duela erantzun dio lantaldeko koordinatzaileak. Dena dela, badi-ra hainbat forma Hiztegi Batuan jaso ez direnak eta, P. Uribarren euskaltzainak egindako oharra kontuan hartuta, uztailleko bilkuran aurkeztuko ditu lantaldeak Hiztegi Batuan sartzeko eskatuko dituen forma berriak.

‘infracción’ en euskal ordaina *arau(-)hauste* gisa jaso du lantaldeak, eta ohargileak aipatu du Hiztegi Batuak *arau-hauste* jaso duela, marratxoaz lotuta. Lantaldeak argitu du Euskaltzaindiaren Hiztegiaren 2. itzulia lantzean forma hori aldatzea onartu zela, gaizki jaso dagoelako. Beraz, oraindik sarean eguneratua ikusten ez bada ere, euskal forma arautua *arau(-)hauste* da. Hala onartu da; ‘Mesa del Parlamento’ erdal formarentzat hiru euskal ordain jaso dira, erakundeak kontuan hartuz, baina *Batzar Nagusietako Mahai* kentzeko eskatu du ohargileak eta lantaldea bat etorri da proposamenarekin. Forma hori zerrendatik ezabatzea onartu da; ‘miembro de la Comisión’: *batzordeko kide* jaso du lantaldeak, eta Hiztegi Batuak *batzordekide* onartu duela aipatu du A. Iñigok. Bide beretik, *gobernuko kide* ere *gubernukide* egin beharko litzatekeela aipatu du, hau Hiztegi Batuan ageri ez bada ere. Lantaldeak aipatu du ez direla bakarrak, *ganberako kide* ere ageri baita zerrendan. Osoko Bilkurak onartu du *batzordekide* egitea, baina besteak, oraingoz behintzat, bere horretan uztea erabaki da; ‘norma reguladora de la Administración parlamentaria’: *administrazio parlamentarioaren arau* gisa jaso da, eta *erregulatzaile* falta dela aipatu du A. Iñigok. Pleonasma baten aurrean gaudela aipatu du lantaldeak. Hiztegi Batuak, gainera, “erregulatzaile h. arautzaile” jaso du eta, orduan, “arau arautzaile” aterako litzateke. Edozein kasutan, sarrera hori ken daitekeela aipatu du lantaldeak eta onartu egin du Osoko Bilkurak; ‘omisión’: *ez(-)egite* proposatu du lantaldeak eta ohargileak Hiztegi Batuan *ez-egiteko* jaso dela aipatu du. Euskaltzaindiaren Hiztegiak, hala ere, *ezegeteko* onartu du 2. itzuli honetan, beste adiera batean bada ere. Guztia bukatzean nominalizazioa berrikusiko denez, orduan proposatuko dira behin betiko formak; ‘Parlamentario/a Foral’ eta ‘Parlamentario/a Foral electo/a’ letra larriz daudela ohartarazi du ohargileak, beste batzuk letra xehez daudenean. Arrazoi duela aipatu dio lantaldeak, baina, Gernikako Osoko bilkuran onartu zenez, letra xehe-larrien auzia zerrenda osoa amaitzean berrikusiko dela gogorarazi du; ‘percepción’: *ordainsari* nahasgarria dela aipatu du ohargileak. Lantaldeak arrazoi duela aipatu du, gainera ‘retribución’ ere hala jaso da. ‘percepción’ *hartzeko* (iz.)

gisa jasotzea proposatu du, *Hiztegi Batuak* jasoia duena. Hala onartu da; ‘registro de documentos parlamentarios’: *agiri parlamentarioen erregistro* ageri da zerrendan, baina beste sarrera batzuetako prozedura aplikatuz, *dokumentu parlamentarioen erregistro* ere beharko lukeela ohartarazi du A. Iñigok. Bat etorri da lantaldea oharrarekin; ‘votar’: *bozkatu* proposamenari *boza eman* ere gehitzeko eskatu du ohargileak, Hiztegi Batuaren bidetik. Lantaldeak azaldu du Hiztegi Batuan egoteak ez duela nahitaez proiektu honetan aukera guztiak sartzeari eskatzen, bereziki Administrazioan *bozkatu* besterik ez badabil. Lantaldearen proposamena onartu da eta *bozkatu* bakarrik utzi da zerrendan.

Honekin A. Iñigoren oharrak aztertzea bukatutzat eman da. Patxi Uribarrenek egindakoak uztaileko Osoko bilkurarako uztea onartu da, forma berriekin lotuta baitaioz, eta lantaldeak zerrenda bukatzean aurkeztekoak dituelako.

4. Oinarrizko hiztegi juridiko-parlamentarioa (III). Aurkeztu.

Aurreko puntua jorratu ostean, hirugarren zerrenda aurkezteari ekin zaio. 252 erdal forma eta 266 euskal ordain biltzen ditu zerrenda berri honek.

B. Oihartzabal euskaltzainak ohar bat egin du lantaldeak Baionako Osoko bilkuran aurkeztutako zerrenda berriaren gainean. Euskaltzainburuak erantzun dio esanaz zerrenda hori Osoko bilkurari aurkeztu zaiola, euskaltzainek beren oharrak egin ditzaten, eta epea emango zaiela horretarako. Epea uztailaren 15ean amaituko da.

Betiere, Osoko bilkuraren aurreko bileretan esanikoa, batez ere Iruñeko Osoko Bilkurakoa, gogora ekarri du G. Loberak.

J. Lakarra euskaltzainak galdetu du ea zer itxaro duten botere legegileek Euskaltzaindiarengandik eta zein den haiei begira Euskaltzaindiak egin beharrekoa. G. Loberak erantzun du esanaz, Iruñeko Osoko bilkurari azaldu eta beronek onartutako irizpideei jarraituz, une honetan lantaldeak Baionan aurkeztutako zerrenda dela hasieran adostasunik txikiena zuena. Betiere, G. Loberak argitu du lantaldeak Euskaltzaindiaren Osoko bilkurari aurkezten dizkion zerrenda guztiek badutela lantaldeko kide guztien ahabatezko onarpena. Areago, lantaldeko kide guztien onarpena jaso ez duten sarrerrak isildu egin dira eta ez zaizkio Osoko bilkurari aurkeztu.

Beste alde batetik, lantaldeko koordinatzaileak azaldu du botere legegileek Euskaltzaindiaren babesa behar dutela, eurek erabiltzen dituzten euskal ordainen gainean. Hori ez ezik, G. Loberak nabarmendu du egoera ezin hobea dugula une

honetan, hogeita hamarka urte igaro eta gero, Hego Euskal Herriko bost botere legegileek darabilten hiztegi parlamentarioa bateratzeko. Horrek eragin on-ona izango du euskararako, hala estandarizazioaren ikuspegitik nola normalizazioaren aldetik. Erakunde bakar batek darabiltzan sarrerei dagokienez, berriz, sarrera horiek finkatzeak lagunduko du, bihar-etzi edonork erabili nahi baditu, orain finkatutako formatik abiatu ahal izango delako, eta horrek berealdiko garrantzia izango duelako batasunaren bidean.

G. Loberak amaitu du eskerrak emanaz euskaltzain guztiei, eta bereziki ohargile guztiei, lantaldeari eskainitako arretagatik.

11:15 direnean bilera eten eta kazetariei harrera egin zaie. Euskaltzainen familia-argazkia egin ondoren euskaltzainburuak Euskaltzaindiaren jarduna azaldu du euskaraz. Baionako alkatearen ordezkariak Baionak euskararekiko duen konpromisoa azpimarratu du frantsesez. X. Videgainek hizkuntza berean euskaltzainen eta Euskaltzaindiaren egitekoak adierazi ditu. Era berean, Euskaltzaindiak duen presentziaz edo ikusgarritasunaz eta, batez ere, Ipar Euskal Herriko euskaltzainen gainean hitz egin du. Bilerara etorri diren A. Arkotxa, T. Peillen, J.-L. Davant, J.-B. Battittu Coyos, B. Oihartzabal eta Udaletxetik hurbil bizi den euskaltzain zaharra den P. Xarriton aipatu ditu bereziki. Hitzaldi labur hauen ondoren euskaltzainek berriro ekin diote Osoko bilkurari.

5. Goi Erdi Aroko pertsona-izenak (Europako mendebaldea) (Iberiar penintsulako musulmanak izan ezik). Aurkezturiko iruzkinak aztertu eta erabaki.

Puntu honi dagokionez, E. Osa idazkariordeak argitu du oharra eta egiteko epea zabalik dagoela, datorren astelehenean, ekainaren 27an amaitzen baita. Ondorioz, puntu hau uztaileko Osoko bilkurarako laga da.

6. Erdal hitzak eta izen berezien baliokide diren adierazpenak deklinatzeko jarraibideak txostena aurkeztu.

Aretora A. Mujika Exonomastika batzordearen idazkaria sartu da. Honek, Exonomastika batzordeak paraturiko txostena, 2016ko apirilaren 29an aurkezturiko oharra eta eginiko iradokizunak kontuan hartzen dituenaz, azaldu du.

A. Mujikak azaldu duenez, Exonomastika batzordeak kontuan hartu ditu A. Sargarnak eta M. L. Oñederrak idatziz egindako oharra, eta ohar horien arabera egin ditu aldaketak testuan, hau da, proposatzen diren bi araugaietan. Dena dela, siglei buruzko oharrei dagokionez, batzordeak uste du ezin dela gaia behar bezala azaldu ohar gisa, gaia osorik azaldu behar baita ondo ulertuko bada. Horregatik, kendu egin ditu araugaien testuan agertzen ziren siglak, ez baitagozkio araugaien mamiari. Nolanahi ere, siglen deklinabidea zalantza sortzen dituen gaia denez, batzordeak uste du komeni dela gai hori berariaz lantzea eta Euskaltzaindiak irizpideak ematea. Horregatik, Osoko bilkurari gaiari heldzea eskatu dio eta prest agertu da, Osoko bilkurak egoki baleritzo, Exonomastika batzordeak aurrean bat egin eta Osoko bilkurari aurkezteko.

Araugaien testuari egindako aldaketak banan-banan azaldu dira, eta banatu den txostenean nabarmenduta agertzen dira zein diren aldaketak jatorrizko testuarekiko. Oharra kontuan hartuta egindako aldaketez gainera, apirileko Osoko bilkuran P. Uribarrenek ahoz egindako eskaera onartu du batzordeak, eta laburpen bana erantsi die bi araugaiei.

Gauzak horrela, gaur aurkezturiko txostenari ohar eta iruzkinak egiteko aldia ireki da. Epea uztailearen 15ean, ostiralean, amaitzen da. Aldaketa- edota gehitze-proposamenak idazkariordeari bidali beharko zaizkio.

7. Esku artekoak.

7.1. Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria 2016. Sari honetarako J.-L. Davant euskaltzain emeritua aurkeztea erabaki du Zuzendaritzak, 2016ko ekainaren 21ean harturiko erabakiaren arabera.

Bestelako proposamenik ez da egin. Ondorioz, Zuzendaritzak eginiko proposamena berretsi du Osoko bilkurak.

7.2. Hurrengo bilkurak. Uztailaren 22an, ostiralean, goizeko 10:00etan, Osoko bilkura egingo da Gasteizen, Arabako Foru Aldundiaren egoitzan. Osoko bilkura honetan, besteak beste J. Lakarrak Euskal Hiztegi Historiko Etimologikoan eginko aurrerapenak aurkeztuko ditu.

8. Azken ordukoak

A. Urrutia euskaltzainburuak gogora ekarri duenez, Euskaltzaindiko langileen ordezkariak euskaltzain oso guztiei idatzi bat bidali diete. Arautegiaren eta Barne-erregelen arabera langileekiko guztia Zuzendaritzari badagokio ere, argibideak eman behar direla iritzi dio. Horrela, Zuzendaritzak eman dituen urratsak azaldu ditu. Horretarako, P. Zabaleta euskaltzainak hitza hartu du (Euskaltzaindiaren eta langileen ordezkarien artean eraturiko batzorde Parekidean Akademiaren aholkularia da).

P. Zabaletak jakinarazi du Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak langileen ordezkariak berezko Lan-Hitzarmen baterako zirriborroa aurkeztu diela. Aurkezturiko hitzarmen zirriborroa ekarpenetara irekia dago eta langileen soldatetan inolako jaitsierarik ez du aurreikusten, azken hau legez kontrakoa litzatekeelako. Zirriborroak, etorkizunean egin daitezkeen igoerak erakundeak aldian-aldian dituen baliabideekin lotzea aurreikusten du bakar-bakarrik. Era berean, zirriborro horri langileen ordezkariak ez diotela inolako ohar edo zuzenketarik aurkeztu eta, esperotako ekarpenak beharrean, euskaltzainei igorritako mezua etorri dela esan du.

Bidaliriko idatzi horretan, duela bost urte arte indarrean egon zen Enpresa Akordioa oraindik indarrean dagoela adierazten da. Era berean, zenbait salaketa pertsonal ere egiten dira. Gauzak horrela, langileen ordezkariak, ELA sindikatua aholkulari dutela, gaia Laneko Gatazkak Ebazteko Borondatezko Prozedurei buruzko Lanbide Arteko Akordiora (GEP) eramatea erabaki dute. GEPe datorren astean, ekainaren 29an, asteazkenean, bi aldeak deitu ditu. Horren ondoren, Zuzendaritzak

zein urrats egin dezakeen aztertuko du.

Zuzendaritzak, langileek bidalitakoari erantzutea erabaki zuen, 2016ko ekainaren 21ean harturiko erabakiaren arabera. Idatzian, soldatak jaisteko inolako asmorik ez duela, inoiz ez duela halakorik adierazi, elkarrizketarako, adostasunera iristeko eta lan-hitzarmen propio bat hezurmamitzeko borondatea duela berresten du.

Eta beste aztergairik ez dela, 12:40 direnean Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
Euskaltzainburua

Jabier Kaltzakorta Elortza,
Aldian aldiko idazkaria

Osoko bilkura

Gasteizen, Arabako Foru Aldundian, 2016ko uztailaren 22an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain Xarles, buruordea,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Arkotxa, Aurelia,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Irazu, Jose "B. Atxaga",
Lakarra, Joseba,
Oñederra, Miren Lourdes,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi eta
Zabaleta, Patxi.

Lobera, Gotzon,
Manterola, Julen,
Osa, Erramun,
Seguroa, Iñaki,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Sagrario Aleman, Miren Azkarate, Jabier Kaltzakorta, Xabier Kintana, Beñat Oihartzabal, Txomin Peillen, Patxi Salaberri, Joan Mari Torrealdei eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Sagrario Alemanek ahala Andres Iñigori; Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari; Xabier Kintanak ahala Andres Urrutiari; Beñat Oihartzabalek ahala Joseba Lakarrari; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Joan Mari Torrealdaik ahala Andoni Sagarnari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Bilkura Gasteizen, Arabako Foru Aldundiaren "Jose Antonio Agirre lehendakaria" gelan, hasi da goizeko 10:00etan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla. Hasieran, Joseba Pérez de Heredia Arabako Foru Aldundiko Euskara saileko zuzendariak harrera egin die euskaltzainei. Ondoren, euskaltzainak eta Arabako Foru Aldundiaren ordezkaria Arabako Foru Aldundiaren aurrealdera hurreratu, taldeko argazkia atera eta J. Pérez de Heredia jaunak Lazarragaren eskuizkribuaren faksimilea opari egin dio Euskaltzaindiari. A. Urrutia euskaltzainburuak, berriz, Axularren *Guero* liburuaren pergaminozko edizioa eta Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiaeren* azken edizioa eman dizkio Arabako Foru Aldundiari, opari gisa. Horren segidan, euskaltzainak bilera-tokira sartu dira.

Euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, uztailleko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

Xabier Kintana idazkariak osasun arrazoiengatik hurreratzeko modurik izan ez duenez, A. Urrutia euskaltzainburuak Arautegiko hogeita laugarren artikulua gogora ekarri du: "Idazkaria falta denean, azkenengo izendatua izan den euskaltzain osoak egingo du haren lana". Nolanahi ere, Jabier Kaltzakorta izendatu izan den azken euskaltzain osoak bilerara etortzeko modurik izan ez duenez, Jean-Baptiste Coyos euskaltzain osoa, hots, izendatutako euskaltzainen artean azken-aurrekoa, idazkari aritu da.

Erramun Osa idazkariordeak eguneko egitekoak azaldu ditu. Hasierako harre-raren ondoren, ez da bestelako ekitaldirik aurreikusi. Ondorioz, Osoko bilkura 14:30ean amaitzea espero da.

1. Aurreko Osoko bilkurako (2016-06-24) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.

Bilera-agiri proposamenaren 2. orrialdeko lehenengo paragrafoan, A. Toledo euskaltzainak "...aspaldiko partez etorri gabe egon den B. Oihartzabal..." pasarte "..." aspaldiko partez etorri den B. Oihartzabal..." eran uztea proposatu du. X. Videgainek "...harrera gozoa..." esalditik "gozoa" ezaba dadin iradoki du. Bi zuzenketak onartu dira Osoko bilkuran.

A. Iñigo euskaltzainak "A. Iñigo euskaltzain osoak Gernikako Kultur Etxean aurkeztutako testuari zuzenketak egin dizkio eta horiek guztiak jaso ditu X. Videgainek aurkeztu duen azkeneko bertsioan" esaldia beste modu honetara idaztea proposatu du: "X. Videgainek Gernikako Kultur Etxean aurkeztutako testuari zuzenketak egin dizkio A. Iñigo euskaltzainak eta horiek guztiak jaso ditu X. Videgainek gaur aurkeztu duen azkeneko bertsioan". Zuzenketa onartu du Osoko bilkurak, idazketa argiagoa eginez.

6. orrialdean, A. Toledo euskaltzainak "eurek erabiltzen dituzten euskal ordainen gainean, betiere formaren eretzean" esaldiaren bigarren zatia ezabatzea proposatu du. X. Videgainek bi paragrafo beherago ageri den **engaiamendu** hitzaren ordezkia **konpromiso** jartzea eskatu du. Zuzenketa bi hauek ere onartu ditu Osoko bilkurak.

Honenbestez, A. Urrutia euskaltzainburuak bestelako oharrik dagoen galdetu du.

Ez da egon. Ondorioz, egin diren zuzenketa guztiak barruratu ondoren, 2016ko ekainaren 24ko Osoko bilkurako bilera-agiria onartu da.

2. Ageriko bilkuretake (2016-01-29 eta 2016-04-29) bilera-agiriak onartzea, hala erabakiko balitz.

Idazkariordeak argitu duenez, ez da inolako oharrik jaso. A. Urrutia euskaltzainburuak oharrik dagoen galdetuta inork halakorik dagoela adierazi ez duenez, bi bilera-agiri proposamenak onartu ditu Osoko bilkurak.

3 eta 4. puntuak. Oinarrizko hiztegi juridiko parlamentarioa (II eta III). Aurkezturiko iruzkinak aztertu eta erabaki.

Bilera-deiko 3. eta 4. puntuak direla eta, P. Uribarren euskaltzainak oharrak eta proposamenak aurkeztu dituenaz, A. Urrutia euskaltzainburuak bi aztergaiak batera azter daitezen proposatu du. Halaxe egitea erabaki du Osoko bilkurak.

Aztergaiak jorratu aurretik, batzar-aretoa M. Urkia Hiztegi Batuko lantaldeko burua eta Gotzon Lobera “Oinarrizko hiztegi juridiko-parlamentarioa” bateratzeko lantaldeko koordinatzailea sartu dira.

P. Uribarrenek maiatzeko Osoko bilkurarako egin zuen ohar orokorra aipatu da, forma berriak direla-eta, eta berak proposatutako —gehi lantaldeak osatutako— 67 forma berri aztertu dira banan-banan. Lantaldeak horietako forma gehienak Euskaltzaindiaren Hiztegian, hirugarren itzulian, sartzea proposatu du, gehientsuenak lehendik ere Hiztegi Batuak proposatuak zituenak. Hauek dira jasoko direnak: **ahobatezkotasun**; **alikuota** adj.: *zati alikuota*; **atxikitze**; **aurkaratu**, aurkara, aurkaratzen. *du ad. Zuz.*; **aurkaratze** iz. *Zuz.* (eta, ondorioz, lehendik gaizki jaso zegoen **aurkapen** ezabatu egingo da); **baliozkotasun**; **baliozkotu**, baliozko(tu), baliozkotzen. *du ad.*; **baliozkotze**; **banantze**; **bateraezin**; **bateraezintasun**; **bateragarri**; **bateragarritasun**; **baterako** adj. *Admin.*: baterako batzordea; **batzordeburuorde**; **berronespen** iz. *Zuz.*; **berronetsi**, berronets, berronesten. *du ad. Zuz.*; **bertaratze**; **bilkuraldi**; **birkalifikatu**, birkalifika, birkalifikatzen. *du ad.*; **desgaikuntza** iz. *Zuz.*, *Admin.*; **deskargu** iz. *Zuz.*; **digresio**; **egiaztagutun**; **errekerimendu** iz. *Zuz.*; errekeritu, errekeri, errekeritzen *du ad. Zuz.*; **erretiratze**; **erruztatu** 1, erruzta, erruztatzen. *du ad. Zuz.*; **erruztatu** 2 iz. eta adj. *Zuz.*; **eskuorde**; **eskuordeezin**; **eskuordetu**, eskuorde(tu), eskuordetzen. *du ad.*; **eskuordetza** iz.: *eskuordetza eman*; **exekuzio**; **ezgaitze**; **fiskalizazio**; **frogaldi** (eta **probaldi**, nahasterik ez sortzeko); **geldiarazpen**; **geldiarazte**; **hautaketa**; **inbestidura**; **informatibo** adj.; **inpartzialtasun**; **interpelazio** iz. *Zuz.*

interpelazioa egin; **interpelaziogile** iz. Zuz.; **interpelatu**, interpela, interpelatzen. *du ad. Zuz.* (**jabeldu** ere sartzeko eskaeran egin zen, baina lehendik arautua zuen Euskaltzaindiak); **isilbidez** adb. Zuz. [eta azpisarrera gisa; **isilbidezko**]; **konstituzio-kontrakotasun** iz. Zuz.; **lotesle** adj. Zuz., *Admin.*; **lotetsi**, lotets, lotesten. *du ad. Zuz., Admin.*; **mahaiburuorde**; **onartezintasun**; **promulgatu**, promulga, promulgatzen. *du ad. Zuz.*; promulgazio iz. Zuz. eta **proposatzaile**.

Badira oinarritzko hiztegi juridiko-parlamentario honetan jasotzeko onartu diren forma batzuk, baina Euskaltzaindiaren Hiztegian jasotzeko, oraingoz behintzat, teknikoegitza jo direnak: **dolozko delitu**, **duplika**, **izenezko**, **kongruentzia**, **ponentzia** eta **prerrogatiba**.

Lantaldeak berak lehendik proposatuak zituen bi forma aldatzea eskatu du, eta hala onartu da; "**berreste**"ren ordez **berronespen**, eta "**ezgaiketa**"ren ordez **ezgaitze**. Era berean, lantaldeak sartzeko eskatutako bi forma isiltzea erabaki da: "**pertsonatu**" eta "**pertsonatze**". Lexikotik kenduko ditu lantaldeak. Eta "**ordena gordetze**"ren ordez **ordena zaintze** proposatu du Osoko bilkurak. Lantaldea bat badator, aldatu egingo dira; bestela, zerrenda honetatik ezabatuko dira.

Azkenik, lantaldeak proposatutako "**bortxaezin**" eta "**bortxaezintasun**" formak gogorregiak (eta fisikoegiak) direla-eta, "**ukiezin**" eta "**ukiezintasun**" formen alde azaldu dira euskaltzain batzuk. Polikiago aztertuko du lantaldeak eta iraileko Osoko bilkurara eramango du proposamena. Honekin P. Uribarrenen oharrak bukatutzat eman dira. Beste oharrik jaso ez denez, hil honetako zerrenda berria aurkeztu dute lantaldeko kideek.

5. Oinarritzko hiztegi juridiko-parlamentarioa (IV). Aurkeztu.

Laugarrena eta azkena, erakunde bakarrak erabilitako formak biltzen dituen, 214 erdal forma eta 213 euskal ordain. Eta oharrak egiteko epea zabaldu da. Epea, irailaren 12an, astelehenean, amaituko da.

Ondoren, G. Loberak eta M. Urkiak nominalizazioari buruz egindako txostena aurkeztu dute eta lehendik onartutako 19 sarreratan egindako aldaketak azaldu dituzte, aldaketa horien arrazoiak argudiatuz. Txosten honetako aldaketei oharrak egiteko epea ere zabaldu da, 2016ko irailaren 12an amaituko dena.

Bukatzeko, oinarritzko hiztegi juridiko-parlamentario honetan jasoko diren erdal formen idazkerari buruzko erabakia hartzeko eskatu dio lantaldeak Osoko bilku-

rari, horretarako Espainiako Errege Akademiaren (RAE) eta Zientzia eta Teknika Hiztegiaren Batzordearen (ZTHB) ereduak aurkeztuz. Nolanahi ere, denbora faltaz ez da erabakirik hartu, ez eta marratxoaren erabilerari buruzkorik ere. Iraileko Osoko bilkurarako utzi dira.

Exonomastika batzordeak aurkezturiko 6. eta 7. puntuak iraileko Osoko bilkurarako utzi dira. Izan ere, X. Kintana Exonomastika batzordeko buruak ez du batzarreara hurbiltzeko modurik izan.

8. Euskal Hiztegi Historiko Etimologikoa. Aurkezpena.

Joseba Lakarra Euskal Hiztegi Historiko Etimologikoa (EHHE) egitasmoaren zuzendaria eta Julen Manterola eta Iñaki Segurola egitasmoaren teknikariak batzar-aretoa sartu dira. Aurkezpena jarraitu ahal izateko, bai eta egitasmoa zertan den eta zein izanen diren datoen urratsak argitzeko ere zazpi dokumentu banatu dizkiete euskaltzainei.

Euskaltzaindiak 2009ko irailean onartu zuen J. Lakarrak aurkeztutako Hiztegi Historiko eta Etimologikoaren egitasmoa, eta 2010ean abiatu zuen J. Manterola eta I. Segurolarekin osatutako taldeak. Bere lehen fasean (2010-2012) beste hainbat tradiziotako lan paraleloak ezagutu, lanabesak eskuratu (testu eta era guztietako bibliografiaz jabetuaz) eta EHHEren erdua garatu zuen lantaldeak. Orain amaitzen den bigarren fasean EHHE-2000 landu da eta urtea amaitu baino lehen argitaratuko da lan horren emaitza, 200 familia eta 2.000 sarreratakoa, hain zuzen; azken fase honetan Gabriel Frailek eta Koro Segurolak ere lagundu dute lantaldea EHHEren hainbat egitekotan.

EHHEk bere baitan bi ikergai biltzen ditu, oinarritzko hizkuntza baten lexikoaren eta hotsen nahiz gramatikaren historian. Nahiz eta etimologia eta hitzen historia zein bere aldetik azertu diren, behin baino gehiagotan —inguruko hizkuntzetan badira horren adibideak— elkarren osagarri dira, bata bestea gabe kamutsak dira, batez ere gurea bezalako hizkuntza genetikoki isolatu eta corpus urriko batean.

Hiztegi historiko-etimologiko batean unean uneko ezagutza filologiko eta diakroniko hoberena eta osoena biltzen saiatu ohi dira ikertzaileak: ez dira anekdota eta xelebrekerien biltegi, baizik eta hizkuntzaren egituraren eta bilakabidearen azterketarako oinarriak. Ikerketa tradizioak eta eskura litezkeen lanabesek erabat baldintzatzen dute era honetako lanen helburu eta egitura; euskararen kasuan,

harekin ustezko jatorriak bilatu nahian egindako saio hutsalek eta filologiaren garapen berantiarrak ez dute lagundu, noski.

Ezinbestean, EHHEk bere egiten ditu 1950etik aurrera izan diren era guztietako aurkikuntza filologiko, dialektologiko edo diakronikoak oro. Bestalde, aspalditik datorren eta euskalaritzan Koldo Mitxelenak hainbat garatu zuen barne-berreraiketara da EHHEren jardunaren ardatz; horri gehitu nahi izan zaizkio azken hamarkadetan metodo hori laguntzera eta osatzera etorri diren teknika eta gogoeta berriak, hala nola etimologia konparatua, erro eta morfemen forma kanonikoa, etimologia formala, gramatikalizazioa eta lexikalizazioa, etab.

Orotariko Euskal Hiztegia (1987-2005) alderdi historikorako ezinbesteko abiapuntu gertatu da, nahiz eta lan erraldoi horretan zer findu baden alderdi askotan, dela eratorri eta konposatuen balio-aldaketan, dela atzizkien historian, dela zenbait sarreratako analisisetan. Baina OEH eta gainerako euskal hiztegieta informazio historikoari buruzko EHHEren ekarpen aipagarriena protohistoriako (funtsean Erdi Aroko) lekukotasunetan datza; haiek sistematikoki erabiliak, ez bakarrik lehen agerraldi-data asko hainbat mende aurreratu, baizik eta hitzen forma, esanahia eta hedadura modu zehatz eta zabalagoan azter genezake, inoiz etimologia bera ere bide berrietarik eramanaz edo osatuaz.

Azterketa etimologikoan EHHEren ezaugarri nagusia hitzak familiaka antolatzea bide da. Antolamendu honek sakontasun diakroniko berezia lortzen du eta hitzak familien barnean aztertzeak bestela ezin ikus litezkeen lotura eta bilakabide formalak, antzemango ez genituzkeen adierak eta aldaketa fonologiko eta morfologikoak, zehatzago eta aberatsago deskribatzeko bideak eskaintzen ditu. Osatu den EHHEren lehen emanaldi honetan 200 familia garatu ditugu, 2.000 bat sarrera eta azpisarrerarekin. Inoiz azaleko itxuran urruti diren hitzak biltzen dira, hiztegi etimologikoetan ohi bezala birbidalketa ugariren bidez: *atsegin*, *ikus hats*, *ukan*, *ikus edun*, *irten*, *ikus gor*, eta abar. Era askotako aurkibideek ere (etimologiena, aldaarena, onomastikoa, kronologikoa, eta abar) aberasten dute EHHE.

200 familia hauen sarrera-buruak hainbat irizpideren arabera hautatu ziren bere garaian (lekukotasun zaharrak, hedadura dialektala, erabilera modernoa, haien inguruko bibliografia...) eta lexikoaren nahiz hizkuntzaren muinera egindako hurbiltzeta sendoa osa liteke haien gainean. Hurrengo urteetan —irizpide bertsuak jarraituaz— zerrenda zabalduko da, pausoka, 1.000 bat familiatara iritsiaz epe ertainean, lexikoaren historia eta hizkuntzaren bilakabidearen alderdi nagusiak aztertu ahal izateko.

Era honetako lanak, ezinbestean, oinarrizko ikerketari lotuak dira, ez eguneroko behar aldakorrei; alabaina, bere garaian Euskaltzaindiak ikusi zuen bezala, lagun dezakete erakundeak bere gain hartutako hizkuntza-eredu ezberdinak lantzen, hizkuntzaren historian eta tradizioan oinarritutako erabakiak oinarri seguruagoe-tan finkatzen eta horien kalitatea bermatzen.

Euskaltzainek J. Lakarraren, J. Manterolaren eta I. Seguiolaren aurkezpena eskertu dute. A. Arejita euskaltzain eta Iker sailburuak eginiko lanaren garrantzia azpimarratu eta halako lanak era eskuragarri eta didaktiko batean gizarteratzeak Euskaltzaindiarentzat duen garrantzia gogorarazi du.

9. Esku artekoak.

Hurrengo Osoko bilkura irailaren 30ean, ostiralean, 10:00etan, egingo da Iruñean, beharbada Nafarroako Parlamentuan. Idazkariordeak irailean xehetasunak jakinaraziko ditu. Ondorioz, Osoko bilkura ez da Lodosan egingen. Zuzendaritzako kideak eta Nafarroan bizi diren euskaltzainak hurreratuko dira Lodosara, irailaren hirugarren astean.

10. Azken ordukoak.

10.1. Amaia Okariz eta Iñaki Mendizabal.

Amaia Okarizek Euskaltzaindian izan duen lan-harremana eteteko nahia agertu dio Euskaltzaindiaren Zuzendaritzari ordain baten truke. Euskaltzaindiaren zuzendaritzak eskaria onartu dio. Horren ondorioz, A. Okarizek Euskaltzaindiko langile izateari utzi dio uztailaren erditik aurrera.

Bestalde, Komunikazioa eta Irudia zerbitzuaz arduratzeko, Zuzendaritzak Iñaki Mendizabal Elordi hartu du urtebeterako. I. Mendizabal ekainaren 29an hasi zen lanean Euskaltzaindian, Komunikazioa eta Irudia alorreko arduradun gisa. I. Mendizabalek 48 urte ditu, kazetaria da lanbidez eta ia 28 urte daramatza zeregin horretan. Horietako hogeitasei *Deia* egunkarian egin ditu, Noticias Taldeko 'Ortzadar' gehigarria ere zuzendu du eta kultur albiste ugari idatzi du. Bestelako komunikabideetan ere kolaboratu du, hala nola, Onda Vascan, Radio Euskadin, Euskadi Irratian edo ETBn. 2003an kazetaritza albo batera utzi eta Elea argitaletxea sortu zuen; guztira, 48 liburu kaleratu zituen Eleak, bost urtetan. Harrezkero, kazetaritzan buru-belarri murgildu da.

10.2. GEP.

Baionan eginiko Osoko bilkuran azaldu zenez, lan-hitzarmena dela eta, langileen ordezkariak, ELA sindikatua aholkulari dutela, Gatazkak Ebazteko Borondatezko Prozedurei buruzko Lanbide Arteko Akordioa (GEP) jo dute. Bilkura, ekainaren 29an, asteazkenean egin zen. Gauzak horrela, bilkura horrek emanikoa jasotzen duen bilera-agiria irakurri du J. Zabaleta kudeatzaileak.

Zuzendaritzak Laneko Gatazkak Ebazteko Borondatezko Prozedurei buruzko Lanbide Arteko Akordioaren (GEP) esku-sartzea onartu du, baldin emaitzak bi aldeentzat lotesleak badira, bestela denbora galtzea dakarrelako eta gatazka gainditzea ezinezkoa bihur daitekeelako. Langileen ordezkariak GEPen emaitza loteslea izatea onartuko ez balute, Zuzendaritzak idatziz berretsi du berariaz hitzarmen bat egiteko, elkarriketarako eta adostasunera iristeko duen borondate irmoa. Ondorioz, GEPer aurkezturiko idatzia irakurri du J. Zabaleta kudeatzaileak.

Euskaltzaindiaren eta langileen ordezkarien arteko hurrengo bilkura uztailaren 28an, ostegunarekin, egingo da, Bilbon, GEPen egoitzan. Bileran gertatutakoaren berri irailera Osoko bilkuran emango da.

Eta besterik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da, 14:30ean.

Andres Urrutia,
Euskaltzainburua

Jean-Baptiste Coyos,
Aldian aldiko idazkaria

Osoko bilkura

Iruñean, Nafarroako Parlamentuan, 2016ko irailaren 30ean

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Iñigo, Andres,
Irazu, Jose "B. Atxaga",
Kaltzakorta, Jabier,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Sagarna, Andoni,
Salaberri, Patxi,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi eta
Zabaleta, Patxi.

Gurrutxaga, Antton,
Mujika, Alfontso,
Lobera, Gotzon,
Osa, Erramun,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaitetan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa, Miren Azkarate, Joseba Lakarra, Joan Mari Torrealdai eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Sa-

grario Alemani; Joseba Lakarrak ahala Miren Lourdes Oñederrari; Joan Mari Torrealdaik ahala Andoni Sagarnari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutia-ri.

Batzarra Iruñean, 2016ko irailaren 30ean, ostiralean, egin da Nafarroako Parlamentuaren 2. batzorde gelan. Osoko bilkura hasi aurretik, Nafarroako Parlamentuaren Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kideek harrera egin diote Euskaltzaindiari, Nafarroako Parlamentuko Harrera gelan.

Unai Hualde Nafarroako Parlamentuko buruorde jaunak Euskaltzaindiari ongietorri egin dio, egiten duen lana azpimarratu, euskara nafarren hizkuntza ere badela gogorarazi eta erakunde biek lankidetasunean jarduteko hitzak adierazi ditu. Ondoren, A. Urrutia euskaltzainburuak Nafarroako Parlamentuak eginiko harrera eskertu du eta bi erakundeen artean lankidetzaren areagotzeko borondatea berretsi eta, besteak beste, Oinarritzko Hiztegi Juridiko-Parlamentarioa ontzeko Nafarroako Parlamentuarekin izenpeturiko lankidetzaren hitzarmena gogora ekarri du. Etorkizunean, bestelako egitasmoen bidez, lankidetzan sakontzeko aukerak baliatu behar direla ere esan du.

Ondoren, U. Hualde Nafarroako Parlamentuko lehen buruordeak Nafarroako Gorteetan baliatzen ziren hautetsontzietako baten erreprodukzioa opari egin dio Euskaltzaindiari. Euskaltzainburuak Euskaltzaindiaren egoitzako beirategia erreproduzitzen duen eskultura eman dio opari Nafarroako Parlamentuari.

Harreraren eta opari trukeen ondoren, euskaltzainak Osoko bilkura eginen den tokira hurreratu dira. Euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, iraileko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

E. Osa idazkariordeak eguneko egitekoak azaldu ditu. Hasierako harreraren ondoren, ez da bestelako ekitaldirik aurreikusi. Ondorioz, Osoko bilkura 14:00etan amaitzea espero da.

1. Aurreko Osoko bilkurako (2016-07-22) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.

M. L. Oñederrak 4. orrialdean, Euskal Hiztegi Historiko Etimologikoa aipatzean, EHHE akronimoa gehitzea proposatu du. Halaber, orrialde berean, bosgarren paragrafoan "...diakronikoak oro (Landuccioren hiztegia edo Lazarragaren testuak uste izan zutena, demagun)." esaldiaren parentesien artekoa kentzea proposatu du. Zuzenketa gutxi batzuk ere egin ditu, testua atontzen eta ulertzen errazten dutenak. Eginiko proposamen guztiak onartu dira Osoko bilkuran.

P. Zabaleta euskaltzainak bilera-agiri proposamenaren 5. orrialdeko lehen paragrafoa honako honengatik ordezkatzeko eskatu du: "Amaia Okarizek Euskaltzaindian izan duen lan-harremana eteteko nahia agertu dio Euskaltzaindiaren Zuzendaritzari ordain baten truke. Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak eskaria onartu dio. Horren ondorioz, A. Okarizek Euskaltzaindikoko langile izateari utzi dio uztailearen erditik aurrera". Eginiko proposamena onartu da Osoko bilkuran.

Honenbestez, A. Urrutia euskaltzainburuak bestelako oharrik dagoen galdetu du. Ez da egon. Ondorioz, egin diren zuzenketa guztiak barruratu ondoren, 2016ko uztailearen 22ko Osoko bilkurako bilera-agiria onartu da.

2. Oinarrizko Hiztegi Juridiko-Parlamentarioa (IV). Aurkezturiko iruzkinak aztertu eta erabaki.

Aztergaia jorratu aurretik, batzar-aretora M. Urkia Hiztegi Batuko lantaldeko burua eta G. Lobera “Oinarrizko Hiztegi Juridiko-Parlamentarioa” bateratzeko lantaldeko koordinatzailea sartu dira.

A. Iñigo euskaltzainak egindako oharrei erantzun diote lantaldeko ordezkariak:

- “esanbidez” forma isiltzea eskatu du, horren ordez “espres” eta “espresuki” proposatuz, “esanbide”ren adiera bestelakoa delako *Euskaltzaindiaren Hiztegia*. Lantaldeak 3. itzulirako adiera hori gehitzeko eskatu du, “esanbidez” beharrezkoa dela uste baitu: Kode Zibilaren, Zigor Kodearen eta beste hainbat lege-testuren itzulpenetan eta Zuzenbidean, oro har, hori besterik ez da erabiltzen. Onartu egin da.
- “interesdunaren eskaera” sarreran ‘arrazoitu’ gehitzea falta dela ohartarazi du A. Iñigok. Hala jasoko da. “Jaurlaritzaren agerraldi”ren erdal ordaina ez da zehatza, euskaraz (EAE) jaso baita, baina ez gaztelaniaz. (CAV) gehituko da sarreraren ondoan. Beste horrenbeste “Legebiltzarreko Idazkaritza Nagusiko Erregistro” sarreran ere, ez da zehatza. Euskaraz (EAE) eta gaztelaniaz (CAV) informazioa gehituko da.
- “Lehendakari (EJ)” sarrerari (EJ) kentzea proposatu du A. Iñigok, Nafarroako Gobernuak ere ‘lehendakaria’ delako. Lantaldeak argitu du arazoa gaztelaniako atalari dagokiola, EAEkoari gaztelaniaz ere ‘Lehendakari’ esaten baitzaio, Eusko Jaurlaritzako sorrera-dekretuan ageri denez. Nafarroakoa, aldiz, ‘Presidente, ta de Navarra’ da gaztelaniaz. Horrez gain, letra larriaren kontua dela-eta, organoa den neurrian behar du letra larria. Lantaldeak proposatua zuena uztea onartu da.
- “ohar egin” forma *Euskaltzaindiaren Hiztegia*n “g.er. ‘ohartarazi’” denez, “oharra egin” jasotzea proposatu du euskaltzainak ‘formular observación’ adierazteko. Lantaldeak forma hau isiltzea proposatu du, ez baitu halako pisurik hiztegi honetan. Ontzat eman da proposamena.

Azkenik, “taldearen laguntzaile”ren erdal ordainak ‘asistente, ta del grupo’ behar lukeela aipatu du A. Iñigok, baina lantaldeak ‘asistente’ bakarrik behar duela berretsi du, Espainiako Errege Akademiaren Hiztegia (DRAE) ‘asistente, ta’ sarrerako 4. adieran oinarrituta. Dagoen moduan uztea erabaki da.

Oharra bukatuta, lantaldeko kideek erabaki beharreko bi puntu aipatu dituzte. Batetik, aurretik ere planteatua zuten oinarritzko hiztegi honetan marratxoa aukeran duten formak marratxoz bakarrik idaztea, betiere sarreran gogoraraziz, marratxoaren erabilera dela eta, Euskaltzaindiak harturiko erabakia. Eztabaida luze baten ondoren onartu egin da lantaldearen proposamena. Bestetik, erdal formen idazkera dela-eta, lantaldeak DRAEren proposamena eraman du bilerara, eta horrela jasotzea onartu da. Gauzak horrela, bukatutzat eman dira Oinarritzko Hiztegi Juridiko-Parlamentarioa ontzeko begiz jotako lan guztiak.

3. Goi Erdi Aroko pertsona-izenak (Europako mendebaldean) (Iberiar penintsulako musulmanak izan ezik). Aurkezturiko iruzkinak aztertu eta erabaki.

Aztergaia jorratu aurretik, batzar-aretora A. Mujika Exonomastika batzordearen idazkaria sartu da. Honek argitu duenez, ohar bakarria iritsi da, Ana Toledo euskaltzainak egin, pertsona-izen horietako batzuk Txomin Agirreren zer obratan agertzen diren adierazten duena. Exonomastika batzordeak oharra aztertu eta ikusi du oharra ez dagokiola araugaiaren mamiari, baina ohar osagarri interesgarria dela araua argitaratzen denean sarreran aipatzeko, informazio gisa. Eta hala egitea proposatzen du: informazio hori arauaren sarreran ematea.

Bestalde, esan du Exonomastika batzordeak Osoko bilkurari aurkeztu zizkion hiru zalantzei buruzko oharrik ez dela jaso. Ondorioz, hiru zalantzak eztabaidatu eta ebatzi dira. Aldaera hauek onartu dira: *Joan Lurgabea*, *San Tomas Akinokoa* eta *Ginebra*.

Horiek horrela, beste aldaketarik gabe araugaia onartu da.

4. 178. arauan (Kanpoko leku-izenei dagozkien herritar-izenak eta jatorri-adjektiboak sortzeko irizpideak). Aurkezturiko iruzkinak aztertu eta erabaki.

Herritar-izenen arauan ohar osagarri bat sartzea proposatzen du Exonomastika batzordeak, A. Iñigo euskaltzainak *Bizantziar Inperioko pertsona-izenak* araua 2016ko urtarrilaren 29an egin zuen oharrari erantzuteko. Exonomastika batzordeak A. Iñigorekin alde aurretik adostu du oharraren testua. Oharra *Bizantziar Inperioko pertsona-izenak* araugaiari badagokio ere, azalpena emateko lekurik egokiena 178. araua da. Hala egitea onartu da Osoko bilkuran.

Hau da oharraren testua:

"Letra larrien erabilerari buruzko oharra:

Herritar-izenak izen arruntak dira, eta jatorri-adjektiboak adjektibo arruntak dira. Beraz, batzuk zein besteak letra xehez hasita idaztekoak dira. Adibidez: *Etorri dira mauletarrak. Non daude belgikarrak? Zoragarria da italiar arkitektura. Jatetxe txinatarrean afaldu zuten.*

Dena dela, baldin eta jatorri-adjektiboa pertsona baten izengoitia bada, letra larritz hasita idazten da, gainerako izengoitiak bezala (*Erik Gorria*). Adibidez: *Eszipion Afrikarra, Joan Damaskoarra, Basilio Mazedoniarra, Judas Galilearra*. Era berean, jatorri-adjektiboa leku-izen baten parte bada, letra larritz hasita idazten da, gainerako adjektiboetan gertatzen den bezala (*Ibai Horia*). Adibidez: *Kongo Belgikarra, Ekialdeko Afrika Britainiarra, Sudan Anglo-egiptoarra, Anglo-normandiar uharteak*".

5. Erdal hitzak eta izen berezien baliokide diren adierazpenak deklinatzeko jarraibideak araugia. Aurkezturiko iruzkinak aztertu eta erabaki.

Ekaineko Osoko bilkuran aurkeztu ziren *Erdal hitzak eta izen berezien baliokide diren adierazpenak deklinatzeko jarraibideen* araugaien bigarren bertsioak, M. L. Oñederra eta A. Sagarna euskaltzainek egindako oharrak eta araugaien laburpenak sartuta. Uztailaren 15a arteko epea jarri zen oharrak egiteko. M. L. Oñederrak ohar bat bidali zuen bi azpipunturekin, -h letraz amaitutako hitzak nola ahoskatu eta deklinatu gaiei buruz. M. L. Oñederraren oharra nola Exonomastika batzordearen proposamena banatu dira.

A. Mujikak batzordearen proposamena azaldu du. Lehen puntuan testua egokitzea proposatzen du batzordeak, hitz-amaierako h letraren ahoskera-kontuak zertan diren xeheago azaltzeko, M. L. Oñederrak iradoki bezala. Bigarren puntuan -h letraz amaituak kontsonantez amaitutzat hartzeko artamendatuz gero-, ohargileak proposamen zehatzik egin ez duenez, batzordeak lehengo iritzia eutsi dio, baina gogoeta batzuk egin ditu erakustearren zer arazo lituzketen beste aukera posibleek.

Azken puntu horren inguruan beren iritzia eman dute zenbait euskaltzainek, eta ez da lortu zalantza erabat argitzerik. Horiek horrela, Exonomastika batzordeak puntu hori berriro aztertuko du, eta aukerak ahal den xhekiek ekarriko ditu, hurrengo batean azken puntu hori ebatzi ahal izateko. Beraz, puntu hori gelditu da ebatzi gabe, baina araugaiaren gainerako puntuak onarturik gelditu dira.

6. Erdi Aroko pertsona-izen ez-kristauak, musulmanak, juduak eta turko-mongolak Aurkeztu.

A. Mujikak araugaiaren nondik norakoak azaldu ditu: zer sail diren, nola aukeratu diren pertsona-izen hautagaiak eta zergatik. Xeheago azaldu du *Mahoma/Mahomet/Muhammad* kasua, duen garrantziagatik eta duen tradizioagatik.

Urriaren 17ra arte, egun hori barne, oharrak egiteko aldia ireki da Osoko bilkuran.

7. Oinarrizko Kimika hiztegia. Aurkezturiko iruzkinak aztertu eta erabaki.

Aztergaia jorratu aurretik, batzar-aretora A. Gurrutxaga Zientzia eta Teknika Hiztegia Biltzeko lantaldeko kidea sartu da. Argitu duenez, apirilaren 29ko Osoko bilkuran aurkeztutakoari uztailaren hamalaura arte irekiriko tartean inork ez dio oharrik egin. Nolanahi ere, A. Sagarna Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arduradunak hitza hartu du eta Euskaltzaindiak berehala aurkeztuko duen hiztegiari arretaz begiratzeko eskatu dio, zerrenda bien artean kontraesanik ba ote den ikusteko.

Lantaldeak lan hori egingo du eta emaitzaren berri Osoko bilkurari emango dio.

8. Esku artekoak.

8.1. Anton Abadia 2016. Euskaltzaindiaren, Elhuyarren eta UZEIren proposamena. Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen duen sari honetara, Zuzendaritzak Andoni Sagarna Izagirre euskaltzain osoa aurkeztea erabaki du, 2016ko irailaren 8an hartutako erabakiaren arabera. Hautagaiaren izena gutxienez bi erakundek aurkeztu behar dutenez gero, A. Sagararen proposamena Euskaltzaindiak, UZEIk eta Elhuyarrek aurkeztu dute.

8.2. Patxi Salaberri Onomastika batzordeko buruak Onomastika batzordeko kide berri bat izendatzeko proposamena. Patxi Salaberri Onomastika batzordeko buruak, Onomastika batzordeak Olatzagutian, 2016ko irailaren 21ean eginiko bilkuran, adierazi zuen batzordekide berri baten premia duela batzordeak. Batzordekide hori Alfontso Mujika Etxeberria euskaltzain urgazle eta gaur egun Exonomastika batzordeko idazkari dena izatea proposatu zuen. Onomastika batzordeak proposamena onartzea erabaki zuen, irailaren 21ean. Horiek horrela, Zuzendaritzak, Barne-erregelek (14.7 xedapena) jasotakoa kontuan hartuz, Osoko bilkurak A. Mu-

jika Etxebarría Onomastika batzordeko kide izenda dezan proposatzea erabaki du Lodosako Udaletxean, 2016ko irailaren 23an eginiko bilkuran erabakitakoaren arabera. A. Mujikaren curriculumak halaxe eskatzen duen euskaltzainari eskuratuko dio Idazkaritzak.

Osoko bilkurak proposamena onartu du.

8.3. Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak bi urterik behin antolatzen dituzten Euskarazko Tesien Koldo Mitxelena Sariak. Erakunde biek bi urterik behin antolatzen dituzten sarien 5. deialdia da aurtengoa. Aldi berri honetan, bost jakintza-arlo nagusietan (Arteak eta Giza Zientziak, Gizarte eta Lege Zientziak, Osasun Zientziak, Zientziak, Ingeniaritza eta Arkitektura) sari bana esleitu da. Honela, EHUn 2014ko irailaren 1etik 2016ko uztailaren 31ra arteko tartean euskaraz idatzi eta defendaturiko doktorego-tesiak aurkeztu ahal izango dira deialdira. Europar tesi edo nazioarteko tesi gisa aurkezturiko tesiak ere onartuko dira, erabilitako hizkuntzetako bat euskara izan bada. Tesia aldeztu duen doktoreak berak aurkeztu behar du hautagaitza. Jarraibideak Euskaltzaindiaren eta EHUn webguneetan ageri dira.

8.4. "Euskaltzaindiaren Hiztegia"ren bigarren argitaraldia. Prest dago eta datozen egunetan aurkeztuko da. Aurkezpenari buruzko argibideak idazkariordeak emango ditu datorren astelehenean, urriaren 3an.

8.5. "Erlea" aldizkariaren 10. zenbakia. B. Atxaga euskaltzainak zuzentzen duen *Erlea* aldizkariaren 10. alea ia prest dago. Antzerkiari buruz izango da. Esku artean eduki bezain fite, aurkezpenari buruzko argibideak euskaltzainei emango zaizkie.

8.6. Hurrengo bilkurak.

Urriaren 28an, ostiralean, Osoko bilkura egingo da Bilbon, egoitzan, 2015eko azaroaren 27an Bilboko Udaletxean eginiko Osoko bilkuran erabakitako egutegiaren arabera. Egun horretan, Zuzendaritzak Euskaltzaindiaren 2017ko egutegi-proposamena aurkeztuko du.

A. Urrutia euskaltzainburuak gogorarazi du 2012ko urriaren 18an izendaturiko Zuzendaritzaren agintaldia 2016. urtearen bukaeran amaitzen dela. Ondorioz, Arautegiaren 32. artikulua dioena gogora ekarri du: "Zuzendaritzako lagunen hautatzea eta kargu hartzea urtearen azken laurdenean egingo dira". Horrexetarako, barrengo bilkura berezia deitu behar denez gero, deialdia noiz egin datozen asteetan erabakiko du Zuzendaritzak.

9. Azken ordukoak.

Uztaileko Osoko bilkuran azaldu zenez, lan-hitzarmena dela eta, ELA sindikatuak, langileen ordezkarien adostasunarekin, Gatazkak Ebazteko Borondatezko Prozedurei buruzko Lanbide Arteko Akordiora (GEP) jo zuen. Bilkura, ekainaren 29an, asteazkenean, egin zen. Elkarrizketarako prestasuna eta lan-hitzarmen propio bat adosteko borondatea zuela adieraziz idatzi bat igorri zuen Zuzendaritzak, 2016ko uztailaren 20an. Era berean, gatazkari behin betiko irtenbidea emateko asmoz, bitartekari bat izendatzea eta bitartekari horrek xedatutakoa bi aldeentzat loteslea izatea proposatu zuen.

Langileen ordezkariak, ordea, ez zuten onartu bitartekariak proposatutakoa bi aldeentzat loteslea izatea, beraz, Gatazkak Ebazteko Borondatezko Prozesuei buruzko Lanbide Arteko Akordioan (GEPen) irekitako prozedura adostasunik gabe amaitu zen. Ondoren, ELA sindikatuak, langileen ordezkarien adostasunarekin, Euskaltzaindiak Nafarroan langile bat duela baliatuta, auzia Madrilgo Bitartekaritza eta Arbitrajerako Konfederazio Arteko Zerbitzua (gaztelaniaz Servicio Interconfederal de Mediación y Arbitraje -SIMA Fundazioa-) erakundera jo du, adieraziz: bere garaian indarrean egon zen enpresa-hitzarmena indarrean dagoela, Euskaltzaindian soldaten eskala-bikoitza aplikatzen dela eta hori legez kontrakoa dela -argitu behar da, Euskaltzaindian ez dagoela soldata-eskala bikoitzik-. Bilkura Madrilen egin da, 2016ko irailaren 29an. Bilkuran Euskaltzaindia ordezkatu duen Joseba Zabaleta kudeatzaileak Euskaltzaindiak elkarrizketarako eta lan-hitzarmen propio baten inguruabarrean adostasunera iristeko daukan borondatea berretsi eta auziari behin betiko irtenbidea emateko gogoaz azaldu du. SIMA Fundazioko bitartekariak auzia arbitraje prozeduraren bidez ebazteko proposamenari baiezkoarekin erantzun dio Euskaltzaindiko ordezkariak. ELAko ordezkariak, aldiz, ez du proposamena onartu. Gauzak horrela, adostasunik gabe amaitu da prozedura.

Eta besterik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da, 14:15 direnean.

Andres Urrutia Badiola,
Euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
Idazkaria

Barrengo bilkura berezia

Bilbon, Egoitzan, 2016ko urriaren 28an

Aleman, Sagrario,
Arejita, Adolfo,
Azkarate, Miren,
Coyos, Jean-Baptiste,
Davant, Jean-Louis,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Irazu, Jose "B. Atxaga",
Kaltzakorta, Jabier,
Kintana, Xabier,
Lakarra, Joseba,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Urrutia, Andres,
Zabaleta, Patxi eta
Zalbide, Mikel.
Osa, Erramun eta
Zabaleta, Joseba.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa, Patxi Salaberri, Joan Mari Torrealdei eta Xarles Videgain.

Batzarra, 2016ko urriaren 28an, ostiralean, egin da Bilbon, egoitzan. Gai bakarra Euskaltzaindiaren Zuzendaritza hautatzeko bozketa izan da.

Barne-erregelen 66.3 xedapenak honakoa jasotzen du: "Bozketarako orduan, Euskaltzaindian izendatu zaharrena buru eta izendatu berriena idazkari izango dira mahaia osatzean". Gauzak horrela, Jean-Louis Davant buru eta Jabier Kaltzakorta idazkari izan dira.

Jean-Louis Davantek euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma baldela egiaztatu ondoren, urriko Barrengo bilkura bereziari hasiera eman zaio. Buruak karguen hautatzea Arautegia-
ren 5., 28., 29., 30., 31. eta 32. artikuluen eta Barne-erregelen 13., 65., 66., 67. eta 68. artikuluen arabera egingo dela gogorarazi du.

Miren Azkaratek hitza eskatu eta batzar egunera arte hautagaiak zeintzuk diren ez jakitea ohikoa ez dela iritzi dio. Era berean, Zuzendaritza hautatzeko prozedurari buruz gogoeta egin dadin proposatu du, Barne-erregeletan eguneratzeak edo aldaketak eginez. Duela hiru urte azaldu zuela arrangura bera Osoko bilkuran. Andres Urrutiak esan du duela hiru urte (2013ko apirilaren 26an) izaniko eztabaida bere osotasunean gogora ekartzea komeni dela. Horiek horrela, M. Azkaratek esanikoari hurrengoan erantzuteko eskubidea gordetzen duela adierazi du.

Andres Urrutiak Zuzendaritzako kide izan direnek beren buruak aurkezteko eta, Barrengo bilkura bereziaren konfiantza lortuz gero, segitzeko asmoa dutela aditzera eman du. Halaber, datorren urtean egin behar diren Barne jardunaldietan Barne-erregelak aldatzeko edo eguneratzeko aukera egongo dela adierazi du.

Patxi Goenagak euskaltzainek botoa emateko unean alde, kontra, zuri edo beste izen baten alde egin dezaketen galdetu du. Hala egitea hobetsi dute euskaltzainek.

Miren Lourdes Oñederrak gauzak nola diren galdetu du, ea berak bere izena aurkez dezakeen gaurko bilkuran, hain zuzen ere. Hala egin dezakeela adierazi zaio, Arautegiaren eta Barne-erregelen arabera.

Ondoren, J.-L. Davant bilkuraren buruak Jagon sailburua izateko euskaltzainen batek bere hautagaitza aurkezten duen galdetu du.

Jean-Baptiste Battittu Coyosek hitza eskatu eta aldi berrian Jagon sailburua izateko bere hautagaitza aurkezten duela jakinarazi du.

J.-L. Davantek besterik dagoen galdetu du. Halakorik egon ez denez, hautagaitza botoetara eraman da, emaitza ondorengo izanik: hautagaiaren alde 21 boto, 2 zuri eta ezezko bat. J.-L. Davantek zorionak eman dizkio J.-B. Coyosi.

J.-B. Battittu Coyosek hitza eskatu eta eskerrak eman dizkie euskaltzainei erakutsiriko konfiantzagatik.

Segidan, J.-L. Davantek Iker sailburua izateko euskaltzainen batek bere hautagaitza aurkezten duen galdetu du.

Adolfo Arejitak hitza eskatu eta aldi berrian Iker sailburua izateko bere hautagaitza aurkezten duela jakinarazi du.

J.-L. Davantek besterik dagoen galdetu du. Halakorik egon ez denez, hautagaitza botoetara eraman da, emaitza ondorengo izanik: hautagaiaren alde 19 boto, 4 zuri eta boto bat Andoni Sagarna euskaltzainaren alde. Emaitzen berri eman ostean, J.-L. Davantek zorionak eman dizkio A. Arejitari.

A. Arejitak hitza eskatu eta eskerrak eman dizkie euskaltzainei erakutsiriko babesagatik.

J.-L. Davantek Euskaltzaindiaren diruzaina izateko euskaltzainen batek bere hautagaitza aurkezten duen galdetu du.

Sagrario Alemanek hitza eskatu eta aldi berrian diruzain izateko bere hautagaitza aurkezten duela jakinarazi du.

J.-L. Davantek besterik dagoen galdetu du. Halakorik egon ez denez, hautagaitza botoetara eraman da, emaitza ondorengoa izanik: hautagaiaren alde 21 boto eta 3 zuri. Emaizten berri eman ostean, J.-L. Davantek zorionak eman dizkio S. Alemani. Azken honek hitza eskatu eta eskerrak eman ditu.

J.-L. Davantek Euskaltzaindiaren idazkari izateko euskaltzainen batek bere hautagaitza aurkezten duen galdetu du.

Xabier Kintanak hitza eskatu eta bere hautagaitza aurkeztu du.

J.-L. Davantek besterik dagoen galdetu du. Halakorik egon ez denez, hautagaitza botoetara eraman da, emaitza ondorengoa izanik: hautagaiaren alde 18 boto, 4 zuri eta 2 ezezko. Emaizak irakurri ostean, J.-L. Davantek zorionak eman dizkio X. Kintanari. Azken honek hitza eskatu eta bildutakoei eskerrak eman dizkie.

J.-L. Davantek Euskaltzaindiaren buruordea izateko euskaltzainen batek bere hautagaitza aurkezten duen galdetu du.

A. Urrutiak hitza eskatu eta adierazi du X. Videgain kanpoan dagoela, baina idatzi bat igorri duela, ondokoa esaten duena: "Ene burua aurkezten dut azken urte hauetan izan dudana kargua hemendik aurrera ere betetzeko, hots, Ipar Euskal Herriko arazoen arduradun izan eta euskaltzainburuorde izateko".

J.-L. Davantek besterik dagoen galdetu du. Halakorik egon ez denez, hautagaitza botoetara eraman da, emaitza ondorengoa izanik: hautagaiaren alde 17 boto eta 7 zuri. Emaizak irakurri ostean, J.-L. Davantek zorionak eman dizkio X. Videgaini.

J.-L. Davantek euskaltzainburua izateko euskaltzainen batek bere hautagaitza aurkezten duen galdetu du.

A. Urrutiak hitza eskatu eta bere hautagaitza aurkezten duela adierazi du.

J.-L. Davantek besterik dagoen galdetu du. Halakorik egon ez denez, hautagaitza botoetara eraman da, emaitza ondorengoa izanik: hautagaiaren alde 20 boto, 2 zuri, ezezko bat eta boto bat Miren Azkarateren alde. Emaizak iragarri ostean, J.-L. Davantek zorionak eman dizkio A. Urrutiari.

Azken honek, erakutsitako konfiantza eskertu eta Zuzendaritzak batzordeen, lantaldeen, egitasmoen eta zerbitzuen lana aurrera eramaten saiatuko dela adierazi du. Bereziki bi gai azpimarratu ditu: batetik, aldi berrian, Euskaltzaindiaren jardura

na gidatuko duen Plan Estrategikoa berritzeak daukan garrantzia; bestetik, Akademiaren mendeurreneko lanak eta ospakizunak, 2018-2019 tarte hartuko dutenak.

Eta besterik ez dela, goizeko 11:00etan Barrengo bilkura berezia bukatutzat emanda.

Jean-Louis Davant,
Barrengo bilkura bereziko burua

Jabier Kaltzakorta,
Barrengo bilkura bereziko idazkaria

Osoko bilkura

Bilbon, Egoitzan, 2016ko urriaren 28an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Davant, Jean-Louis,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Irazu, Jose "B. Atxaga",
Kaltzakorta, Jabier,
Lakarra, Joseba,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Zabaleta, Patxi eta
Zalbide, Mikel.

Osa, Erramun,
Mujika, Alfontso eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa, Patxi Salaberri, Joan Mari Torrealdai eta Xarles Videgain.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Sagrario Alemani; Patxi Salaberri ahala Andres Urrutiari; Joan Mari Torrealdai ahala Andoni Sagarnari; Xarles Videgainek ahala Jean-Baptiste Coyosi.

Batzarra, 2016ko urriaren 28an, ostiralean, 11:30ean hasita egin da Bilbon, egoitzan. Andres Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, urriko Osoko bilkurari hasiera eman zaio

1. Osoko bilkurako (2016-09-30) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.

Miren Lourdes Oñederrak bilera-agiriaren 2. orrialdean, lehenengo puntuan, "esaldiaren parentesien artekoa gehitzea..." dioen tokian, "esaldiaren parentesien artekoa kentzea..." behar duela adierazi du. Eginiko oharra onartu da Osoko bilkuran.

Euskaltzainburuak bestelako oharrik dagoen galdetuta, halakorik egon ez denez, 2016ko irailaren 30eko Osoko bilkurako bilera-agiria onartu da.

2. Erdi Aroko pertsona-izen ez-kristauak: musulmanak, juduak eta turko-mon-golak. Aurkezturiko iruzkinak aztertu eta erabaki.

Aztergaia jorratu aurretik, batzar-aretora A. Mujika Exonomastika batzordearen idazkaria sartu da. Honek argitu duenez, Patxi Zabaleta euskaltzainak egin ditu oharrak.

Gauzak horrela, Exonomastika batzordeak erantzuna eman die aurkeztutako oharrei. Horretarako, idazki bat aurkeztu da.

Azalpenaren ondoren, Osoko bilkurak hiru erabaki hartu ditu. Batetik, *Boabdil* pertsona-izena sartzea. Bestetik, *Musa* izeneko pertsona-izenetan, *Musa* ala *Muza* aukeran uztea. Azkenik, P. Zabaletak proposatutako beste zortzi banukasitar arau-gaia jasotzea.

Ondorioz, Exonomastika batzordeak aldaketak egin eta datorren hilean araugaia aurkeztuko du.

3. Pertsona-izenak. Atzerriko pertsona-izenen grafia egokitzea: noiz bai eta noiz ez. Irizpideak. Europako errege-erreginen izenak. Aurkezpena.

Exonomastika batzordeak irizpideen txostena aurkeztu du. Adibidez horniturik, azaldu da pertsona-izenen grafia egokitzeo ohitura Erdi Aroa amaitu ondoren eten zela eta, geroztik, salbuespenak Aita Santuak eta errege-erreginak baino ez dira. Eta erakutsi da, gaur egungo adibide ugarien laguntzaz, gaur egun errege-erreginen izenak egokitzeo ohitura jada ez dela orokorra, baina indartsu dirauela hizkuntza batzuetan. Xehe deskribatu da gaztelaniaren eta frantsesaren jokabidea, batetik, eta, bestetik, euskaran dauden joerak luze eta zabal zehaztu dira txostean. Azkenean, Exonomastika batzordeak, datu guztiak ikusirik, Osoko bilku-

rari eskatzen dio irizpidea zehaztea eta argitzea ea gaur egungo errege-erreginen izenen grafia egokitzen jarraitu behar den ala ez, eta, ezezkoan, adieraztea non jarri behar den muga. Garbi dago XX. mendeko *Alfontso XIII.a* gisakoak egokitzekoak direla, baina ez dago garbi geroztikoak ere, hala nola Espainiako *Juan Carlos* edo Erresuma Batuko *Elizabeth*, egokitzen jarraitu behar den ala ez. Bestalde, Europako Erdi Aroaz geroztiko errege-erregina nagusien zerrenda luzea aurkeztu da.

Mikel Zalbidek araugaiaren sarreran ageri den *lingua franca* kontzeptuari buruzko xehetasunak eman ditu, eta erakutsi du mezu orokorra ulertzen bada ere, azalpen zehatzagoa eta osoagoa behar dela.

Abenduaren 12ra arte, egun hori barne, oharrak egiteko aldia ireki da Osoko bilkuran.

4. Euskaltzaindiaren 2017. urteko egutegia aurkeztu.

Erramun Osa idazkariordeak Euskaltzaindiaren 2017. urteko egutegia aurkeztu du. Zuzendaritzak paratu duen proposamenen Osoko eta Ageriko bilkurak, XX. Barne jardunaldiak, bai eta batzordeek, lantaldeek eta egitasmoek, urteko plana prestatzean, kontuan har ditzaketen urteurrenen zerrenda ageri da.

M. L. Oñederrak hitza eskatu eta apirilaren 28a Gasteizen jaieguna dela gogorarazi du. Ondorioz, Gasteizen aurreikusiriko Osoko bilkura beste egunen batean egin beharko dela adierazi du.

Azaroaren 14ra arte, egun hori barne, oharrak egiteko aldia ireki da Osoko bilkuran.

5. Aran eskualdeko Okzitaniar Hizkuntza Akademiaren aurkezpena.

Aztergaia jorratu aurretik, *Acadèmia aranesa dera lingua occitanako* Jusèp Loïs Sans Socasau Akademiako presidentea, Jèp de Montoya e Parra Seccion Aranesa-koa, Ròsa Maria Salgueiro idazkaria, Miquèu Segalàs bozeramailea eta Lourdes España Akademiako kidea batzar-aretora sartu dira.

A. Urrutia euskaltzainburuak agurtu ditu eta hitza eman die. Jusèp Loïs Sans Socasau Akademiako presidenteak honako hau adierazi du: "Geure burua ezagutzea eman behar dugu eta mailarik altueneko harremanak eduki, batez ere beste akademia batzuekin. Estatu espainiarrean ez daude hainbeste, eta garrantzitsua da elkar ezagutu eta laguntzea".

Okzitaniera edo *oc* hizkuntza (*occitan, lenga d'òc*) Okzitania izeneko kultur eskualdeko hizkuntza erromanikoa da eta, Frantziako Estatuan, Loira ibaitik hegoaldera hitz egiten da, bai eta Italiako Alpeetako zenbait ibarretan eta Aranen (Katalunia) ere -hemengo aldaera "aranera" deitzen da-. Euskal Herriari dagokionez, garai batean Baiona, Biarritz eta Angelu aldean ere hitz egiten zen eta, orobat, Nafarroa Behereko iparraldeko herri batzuetan.

"Trobadoreen hizkuntza da okzitaniera -azaldu du Sans Socasauk-, beraiek prestigioa eman zioten eta Europako literaturan ospe izugarria izan zuen". Erdi Aroan agertzen den latin arruntaren hizkuntza da okzitaniera, 200.000 metro koadroko lurraldea hartzen duena (Frantziaren herena eta Kataluniako zati txiki bat). "Arango ibarra eta hango aldaera ordezkatzan dugu guk -adierazi zuen presidenteak-, hamar bat mila pertsonak hitz egiten dutena". Hala ere, kontzeptuak ondo zehaztu nahi izan ditu: "Guk okzitanieraren aldaera bat -ez du dialekto hitza entzun nahi- hitz egiten dugu, Arango okzitaniera, baina Arangoa esaten dugunean okzitaniera esaten ari gara. Gauza berdina da, baina gu geure aldaeraren defendatzaile sutsuak gara, arbasoek utzi zigutelako, gure lurraldean berba egiten dena delako. Hori bai, kohesio-planteamendu bat ere aldeztu dugu, eta okzitaniera da, ezinbestez, gure hizkuntza estandar edo erreferentziala". Aitortu zuen, baita ere, beraien aldaerak duen babes juridikoa: "Seguruenik, gurea da juridikoki aldaerarik babestuenena, baina hala ere zailtasun handiak ditugu, ordezkatzan duguna lurralde txikia delako. Edonola ere, eta neurri batean, pribilegiatuak gara: Katalunian 65.000 elkarte daude, 2.500 fundazio eta bakarrik 12 akademia. Gurea da gazteena, eta juridikoki Euskaltzaindiaren edo L'Institut d'Estudis Catalans-en maila berean dago. Gure aldaeran agintzen dugu guk, eta okzitaniera estandarrean ere aholkulariak eta autoritatea gara".

Kataluniako Gobernuak sortu zuen 2014an Okzitanieraren Arango Akademia, eta dagoeneko badituzte proiektu batzuk esku artean. "Juridikoki gauzatu, estatutuak idatzi, Akademia bera egituratzen egin genuen urtebete inguru, eta esan daiteke 2015eko urtarrilean hasi ginela funtzionatzen, ofizialki, 2015eko uztailaren 10ean osatu ginela". Mementoz, hamabost akademikok osatzen dute erakunde gaztea, eta bi ataletan banatuta dago: Arango aldaera eta okzitaniera estandarra. Akademiak aurtan aurkeztu ditu aurreneko argitalpen arauemaileak. "Arango aldaeraren oinarritzko gramatika argitaratu dugu -azaldu zuen presidenteak-. 1983an publikatu ziren arau ortografikoak, eta erabilera zabala izan dute. Inork ez zuen horrelakorik espero, baina ordutik ez da ezelako dokumentu arauemailerik pu-

blikatu. Aurrerapauso handiak egin dira azken urteotan, garai batean Arango aldaerak bazuelako babes berezi bat, baina hortik gora ezer gutxi. Dokumentu hori publikatu zen arte, erabakiak 'borondate onez' hartzen ziren, nolabait esateko, eta 83an hartu ziren erabaki asko guk arau bihurtu ditugu, gizarteratu direlako, hein handi batean".

Hezkuntzan ere lan zorrotza egiten ari dira, Akademiako kidea den Ròsa Maria Salgueiro idazkariak aitortu duen moduan: "Ikastetxeetan aranera da hizkuntza nagusia, behartuta ikasi behar da eta gaztetxoek murgiltzea erabatekoa da. Garai batean, ordubeteko saioak baino ez ziren egiten ikastetxeetan; beraz, aurrerapena izugarria da. 90eko hamarkadatik aurrera hasi zen erabateko murgiltze prozesua". Bitartean, herriak mantendu du bizirik aranera, Akademia berriko kideek dioteenez. "Kaleko jendeak eta irakasle batzuek mantendu zuten bizirik aranera. Gaur egun, irakasleek lau urteko formazioa daukate eta ezinbestekoa dute aranera jakitea ibarrean lan egin nahi badute". "Horretarako, funtsezkoak izan gara Lehen Hezkuntzako irakasleak -gehitu du Miquèu Segalàs Mir jaunak-, guk sortu baitugu material guztia, ikasle eta irakasleentzako liburuak".

Beste egoera batean dago okzitaniera Frantziako Estatuan, Sans Socasauk gogoratu duen moduan: "Han ez dago babestua eta Errepublikak euskararekin duen jokabide bera dauka okzitanierarekin: badira eskola elebidunak, baina ez dago inolako babes legezkorik. Han ere, herri elkarteek mantendu dute bizirik transmisioaren soka".

Okzitanieraren Arango Akademiak hiru argitalpen plazaratu ditu azken hilabeteotan: okzitaniera estandarraren ortografia bat; Jacme Taupiac-en lan interesgarri bat ('Per escriure l'occitan'); eta okzitaniera estandarraren eta Arango aldaeraren arteko erlazioa deskribatzen duen azken lan bat, "filosofia linguistikoa", Jusèpek argitzen duten moduan. Etorkizunerako, hiru dokumentu berri argitaratu nahi dituzte: J. Corominasen sintaxiaren egokitzapen bat; Josep Condó-ren hiztegia; eta Hiztegi Oinarrizko edo orokor bat. "Eta, jakina, dirua lortu nahi dugu gure proiektuak bideratzeko. Hasi baino ez gara egin, baina gogotsu gaude", agertu zuen presidentek.

Euskaltzainek emaniko azalpenak eskertu dituzte. Ondoren, opari-trukea egin da. *Acadèmia aranesa dera lingua occitana*-ko kideek Akademiaren argitalpenak eskuratu dizkiete euskaltzainei; euskaltzainburuak, berriz, *Pirinioetako Hizkuntzak. Lehena eta oraina* argitalpena.

6. Esku artekoak.

6.1. Jean-Louis Davant euskaltzain emerituak irabazi du aurtengo Manuel Lekuona saria, urtero Eusko Ikaskuntzak banatzen duena. Epaimahaiak nabarmendu du Davantek euskararen eta euskal kulturaren eremuan egin duen ahalegin handia, "goraipatzekoa dena". "Bat egiten du Manuel Lekuonak euskara eta euskal kultura indarberritzeko izan zituen kezkekin", esan dute, eta euskaltzaina belaunaldi oso baten erreferentea bilakatu dela gaineratu dute. Izan ere, "Zuberoako errealitatea argi islatzen du haren pertsonak eta bere lana Euskal Herri osoari eskaini izan dio beti, katea eten ez dadin lagunduz".

Osoko bilkurak zorionak eman dizkio. J.-L. Davantek Euskaltzaindiak bere izena aurkeztu izana eskertu du.

6.2. Nabarralde Fundazioak eta Iturralde Ikerketa eta Ekimen Elkarteak Koldo Artola Kortajarena hizkuntzalari, etnografo eta ohorezko euskaltzaina omendu dute, urriaren 21ean, Iruñeko Kondestablearen Jauregian. "Urte luzez euskararen berreskurapenean egindako lan aberatsagatik" egin diote gorazarrea donostiarri. Omenaldian, besteak beste, Patxi Salaberri euskaltzainak hitz egin du. Osoko bilkurak zorion-gutuna bidaltzea erabaki du.

6.3. Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak Resurreccion Maria Azkue Literatura Sarien deialdi berri bat zabaldu dute. Sari hauen xedea idazle gazteak literatura mundura erakartzea da, eta, jakina denez, bi genero saritzen dira: narrazioa eta poesia. Genero bakoitzak bi maila ditu: A maila (10 eta 13 urte bitarteko gazteentzat); eta B maila (14 eta 17 urte bitartekoentzat). Lanak aurkezteko epea 2016ko abenduaren 23an amaituko da, eta erabakiak 2017ko martxoaren 15a baino lehen iragarriko dira.

6.4. Gaur banatuko diren liburuak. *Euskaltzaindiaren Hiztegia* (2. argitaraldia) eta R. M. Azkue Literatura Sariak 2015.

6.5. Hurrengo bilkurak.

Azaroaren 19an, larunbatean, XXI. Jagon jardunaldia egingo da Baionan, Euskal Erakustokian, Sustapen batzordearen eta Euskal Konfederazioaren eskutik. Egitara J.-B. Battittu Coyos Jagon sailburuak eta S. Aleman Sustapen batzordeko

buruak aurkeztuko dute.

Azaroaren 25ean, ostiralean, Donostian Osoko bilkura egingo da. Tokiari buruzko argibideak aurrerago emanen ditu Idazkaritzak.

7. Azken ordukoak:

7.1. Langileekiko harremanak. Eginiko urratsen berri eman du Joseba Zabaleta kudeatzaileak eta azken gertaerak azaldu ditu. Ondoren azaldu du, 2016ko urriaren 27an bi aldeek “Euskaltzaindian lan-hitzarmen propioa izateko aurreakordioa” izenpetu dutela eta lan-hitzarmena ontzeko ahaleginetan lanean hasi direla.

7.2. Euskaltzaindiaren intraneta. M. L. Oñederrak galdetu du ea zertan den intranetarena. Euskaltzainburuak erantzun dio ari direla horretan.

Eta beste aztergairik ez dela, 14:00etan Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
Euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
Idazkaria

Osoko bilkura

Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean, 2016ko azaroaren 25ean

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, euskaltzainburuordea,

Kintana, Xabier, idazkaria,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Arkotxa, Aurelia,
Iñigo, Andres,
Lakarra, Joseba,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Salaberri, Patxi,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi eta
Zabaleta, Patxi.

Gurrutxaga, Antton,
Osa, Erramun eta
Mujika, Alfontso,
zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Miren Azkarate, Jose Irazu "B. Atxaga", Jabier Kaltzakorta, Joan Mari Torrealдай eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Sagrario Alemanek ahala Andres Iñigori; Adolfo Arejitak ahala Xabier Kintanari (iritsi bitartean); Miren Azkaratek ahala Miren Lourdes Oñederrari; Jose Irazu "B. Atxaga"k ahala Andres Urrutiari; Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari (13:00etatik aurrera); Joan Mari Torrealдайk ahala Andoni Sagarnari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra, 2016ko azaroaren 25ean, ostiralean, 10:00etan egin da Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean.

Andres Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorrikoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, azaroko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

1. Barrengo bilkura bereziko (2016-10-28) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.

Miren Lourdes Oñederrak eskatu du, lehenengo orrialdean, "Barne-erregeletan eguneratzeak edo aldaketak eginez" esaldiaren ondoren, Miren Azkaratek adierazitako "Duela hiru urte azaldu zuela arrangura bera Osoko bilkuran" esaldia jaso dadila.

Andres Urrutia euskaltzainak 2016ko urriaren 28ko Osoko bilkuran, M. Azkaratek esanikoak osatzeko gordetako eskubidea erabiliz, Donostian, 2013ko apirilaren 26an eginiko Osoko bilkuran esan eta jaso zirenak gogora ekarri ditu: "Barne-erregelen egokitzapenak" atala dela eta, XVIII. Barne Jardunaldietan M. Azkaratek, P. Goenagak eta A. Urrutiak eginiko proposamenei J. L. Lizundiaren eta A. Urrutiaren iruzkinak eta oharrak jaso dira Idazkaritzan. Horiek horrela, Zuzendaritzaren osaera dela eta, M. Azkaratek gehitzeko proposatzen duen puntua (13.3) azaldu du (onartuz gero, orain arteko puntuen hurrenkera berridatzi behar da). Hona zer dioen: "Bi hilabeteko aurretiaz iragarriko da Osoko bilkuran hautaketa noiz izango den. Iragarri eta hurrengo hilabeteen jakingo da nor diren hautagaiak eta zein programa duten hurrengo lau urteetarako. Euskaltzainburu izateko hautagai bat baino gehiago balego, bakoitzak adierazi beharko du nor diren Zuzendaritza osatzeko proposatzen dituen euskaltzainak".

M. Azkarateren proposamena oinarritzat harturik, J. L. Lizundiak bi zuzenke- ta egin ditu; batetik, Arautegiak 30. artikuluan dioena eta M. Azkaratek eginiko proposamena uztartzen saiatu da, karguak berritzeko ezarritako epeei dagokienez; bestetik, Zuzendaritza osatzeko bozketa dela eta, karguak banan-banan ez, taldean, bozkatzea jaso dadin eskatu du. A. Urrutiak esan du M. Azkaratek eginiko proposamenak ez direla bateragarriak goragoko maila duen Arautegiaren 28., 29., 30., 31. eta 32. xedapenekin. Era berean, sistema horren bitartez, hautagai guzti-guztiak lurralde jakin batekoak izatea litekeena dela esan du. Horiek horrela, halako aldaketak adostasun zabalez egin behar direla azpimarratu du. Halaber, gogora ekarri du, iaz halako prozesu bati ekiteko eginiko proposamena.

Horiek horrela, hurrengo batean Zuzendaritzak gaia aztertzea eta Osoko bilkura- ra ekartzea hobetsi da, euskaltzainekin iritzi-truke zabala egin ondoren.

Puntu honi buruzko erabakia hurrengo Osoko bilkurarako uztea erabaki da.

Miren Lourdes Oñederrak bilera-agiriaren 2. orrialdean, bigarren paragrafoan, "...berak..." dioen tokian, "...adibidez..." jartzea proposatu du. Era berean, "...aurkez dezakeen..." "...aurkez lezakeen..." izan dadin iradoki du. Bi zuzenketak onartu dira Osoko bilkuran.

Gainerako testuan ez da inolako oharrik egin; beraz, bilera-agirian jasotakoa onarturik gelditu da.

2. Osoko bilkurako (2016-10-28) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.

M. L. Oñederrak bilera-agiriaren 2. orrialdean, azken-aurreko paragrafoan, "...tokiren batean..." dioen tokian, "...egunen batean..." jartzea eskatu du. Izan ere, apirilaren 28a jaieguna da Gasteizen. Zuzenketa hori onartu da. Era berean, azken ordukoetan, **"7.2. Euskaltzaindiaren intraneta.** M. L. Oñederrak galdetu du ea zertan den intranetarena. Euskaltzainburuak erantzun dio ari direla horretan." jasotzea falta dela esan du. Eginiko iruzkina onartu da Osoko bilkuran.

Euskaltzainburuak bestelako oharrik dagoen galdetuta, halakorik egon ez denez, 2016ko urriaren 28ko Osoko bilkurako bilera-agiria onartu da.

3. Erdi Aroko pertsona-izen ez-kristauak: musulmanak, juduak eta turko-mongolak (eranskina). Urrian eginiko proposamenak aurkeztu eta erabaki.

Aztergaia jorratu aurretik batzar-aretoa A. Mujika Exonomastika batzordearen idazkaria sartu da. Honek Patxi Zabaleta euskaltzainak urrian aurkezturiko oharak kontuan hartuz, Exonomastika batzordeak prestatutako txostena aurkeztu du.

Patxi Zabaletak sartzeko eskatu eta urriko Osoko bilkurak sartzeari onartutako pertsona-izenak bildu ditu araugaira Exonomastika batzordeak. Guztira, 9 pertsona-izen dira. Horrekin batera, *Ala/Allah* izena ere sartzeari proposatu du, pertsona-izena ez bada ere, oso erabilia baita (adibidez, *Jehova* eta *Jahveh* izenak ere sartu ziren Bibliako pertsona-izenen arauan, nahiz eta pertsona-izena ez diren).

Ontzat eman dira, eta onartu egin dira. Beraz, izen horiekin eta urrian onartutakoekin, onartuta gelditu da *Erdi Aroko pertsona ez-kristauen izenak* araugaia.

4. Erdal hitzak eta izen berezien baliokide diren adierazpenak deklinatzeko jarraibideak. Datuak aurkeztu eta erabaki.

Iraileko Osoko bilkuran, amaieran -h letra duten hitzak nola deklinatu behar diren gaiaren inguruan beren iritzia eman zuten zenbait euskaltzainek, eta ez zen lortu zalantza erabat argitzerik. Horiek horrela, Exonomastika batzordeak puntu hori berriro aztertzea eta aukerak ahal den xehekien ekartzea erabaki zuen, Osoko bilkurak hurrengo batean azken puntu hori ebatzi ahal izateko. Beraz, puntu hori ebatzi gabe gelditu zen, baina araugaiaren gainerako puntuak onartuak izan ziren.

Exonomastika batzordeak txosten bat aurkeztu du, gai hori bakarrik lantzen duena, eta bi aukerak esplizitatu eta adibidez hornitu ditu. Bi dira aukerak:

A) Kontsonantez amaitutako hitzak balira bezala deklinatzea (*Sarah-ek, Allah-ek; Sarah-en, Allah-en ...*).

B) Bokalez amaitutako hitzak balira bezala deklinatzea (*Sarah-k, Allah-k, Sarah-ren, Allah-ren ...*).

Txostenean, erabilera-datuak xehe-xehe deskribatu dira, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*, XX. Mendeko Euskararen Corpus Estatistikoan, *Ereduzko Prosa Gaur* literaturako corpusean, *Pentsamenduaren Klasikoak* corpusean, *Nola erran* frantsesa-euskara hiztegi elektronikoaren corpusean, *Lexikoaren Behatokia* corpusean eta Googlen bertan dauden adibideen berri emateko.

Iraileko Osoko bilkuraren ondoren, P. Zabaletak eta B. Oihartzabalek beren proposamena bidali zioten Exonomastika batzordeari. Bien proposamena, laburturik, hau da: “h” letraz amaitzen diren maileguzko izen bereziek aurreko letraren arabera hartzea hondarkia; hau da, B aukeraren alde.

Eztabaidatu ondoren, A eta B proposamenen artean bozkatu da. Emaita ondokoa izanik: A aukeraren alde 8 boto, B aukeraren alde 8 boto eta 6 boto zuri. Berriro errepikatu da bozketa eta emaitza bera izan da. Ondorioz, gaia bere horretan uztea eta abenduko Osoko bilkuran erabakitzeko uztea erabaki da.

5. Kimikako Oinarrizko Lexikoa: aurkezturiko proposamenari egindako oharren lanketa eta lantaldearen proposamen eguneratua. Aurkeztepena.

Aztergaia jorratu aurretik batzar-aretoa Antton Gurrutxaga Zientzia eta Teknika Biltzeko lantaldeko kidea sartu da. Honek, bere sasoian aurkezturiko Kimikako oi-

narrizko lexikoaren eta Euskaltzaindiaren Hiztegiaren alderaketa egiten duen txostena aurkeztu du. Desadostasunak dauden tokietan Euskaltzaindiaren Hiztegiak ezarritakoa onartu du lantaldeak. Euskaltzaindiaren Hiztegiarekin kontraesanean ez dauden eta jaso daitezkeen hitzak aurkeztu ditu, bai eta lantaldea bat etorri ez den kasuetan egiten dituen proposamen bikoitzak ere.

Aurkeztutako txostenari oharra egiteko epea 2017ko urtarrilaren 9an, astelehenean, amaituko da.

6. Euskaltzaindiaren 2017. urteko egutegia. Aurkezturiko iruzkinak aztertu eta erabaki.

Urteko egutegia onartu da, apirilaren 28ko Osoko bilkurako proposaturiko eguna izan ezik.

Xarles Videgain euskaltzainak zenbait proposamen egin du, jardunaldi zein beselako ospakizunetan batzordeek, lantaldeek edota egitasmoek kontuan hartzeko. Ana Toledo euskaltzainak, 2018. urtean argitara emateko asmoz, 2017ko udazkenean, Lehen Mundu Gerra gaia jorratu nahi dutela aditzera eman du. X. Videgainen bidetik, A. Urrutiak Aita Raimundo Olabide (Arabaren jardunaldiren bat antolatzeke) eta Jean Saroihandi kontuan har daitezkeela esan du.

Beñat Oihartzabalek Esteve Materra izan du hizpide. Frantziskotar hau, 1617an abade zen La Reoleko komentuan, eta 1623an Okzitaniako Tolosan. 1617an liburuxka bat atera zuen, Bordelen, lapurtera klasikoan idatzia, *Doctrina Christiana* izenburuarekin.

Egin diren proposamen guztiak jaso eta Zuzendaritzak batzordeen, lantaldeen, egitasmoen eta zerbitzuen esku lagako dituela esan du A. Urrutia euskaltzainburuak.

7. Zuzendaritzak Euskal Herriko Garapen Kontseiluari bidaliriko idatzia iruzkitu eta buruz informazioa eman.

A. Urrutiak hitza hartu eta informazioa eman du. Ipar Euskal Herriko egoera berriaren aurrean, Garapen Kontseiluak eginiko eskariari erantzunez, Zuzendaritzak idazki bat bidali du. X. Videgain buruorde eta Ipar Euskal Herriko ordezkariak txostenaren nondik norakoak azaldu ditu. Idatzian, Hego Euskal Herriko erakundeen aldetik Euskaltzaindiak duen aitormenaren ahalik hurbilena Ipar Euskal

Herrian dauden erakundeek ere ematea eskatzen da, bereziki urtarilaren hasieran sortuko den Euskal Elkargoak. Era berean, Akademia Ipar Euskal Herrian indartzeko ahaleginak sendotu behar direla eta bere presentzia areagotzearen garrantzia azpimarratu ditu. Inguruabar horretan kokatu ditu joan den larunbatean, azaroaren 19an, Euskal Konfederazioarekin lankidetzan, eta Sustapen batzordearen eskutik, Baionako Euskal Erakustokian eginiko XXI. Jagon jardunaldia eta bertan irakurritako idatzia.

Andres Iñigo euskaltzainak galdera egin du Euskaltzaindiak lortu behar duen ezagutzaz, batez ere euskarari dagozkionetan, erakunde aholku emaile ofiziala izateak daukan garrantzia (toponimian, arauak ematerakoan, hiztegitintzan eta abarretan). B. Oihartzabalek aditzera eman du urtariletik aurrera sortuko den egitura berriak eskumen partekatuak izango dituela. Ondorioz, aztertu egin beharko dira erakunde bakoitzarekin jorratu beharreko lankidetzabideak.

M. L. Oñederrak Zuzendaritzak igorritako dokumentua eskuratu daitekeen galdetu du. A. Urrutiak idatzia aditzera eman du eskuratzeko arazorik ez dagoela eta Idazkaritzari eskatuz gero, nahi duenak jasoko duela.

8. Esku artekoak.

8.1. 150. araua aldatzeko Onomastika batzordeak egiten duen proposamenaren aurkezpena. Patxi Salaberri Onomastika batzordeko buruak egin du aurkezpena. P. Salaberrik azaldu duenez, Arabako Foru Aldundiak Arabako herrien izenei buruzko txostena eskatu zion Euskaltzaindiari. Onomastika batzordeak hiletan jardun du eskaturiko lan hori egiten. Inguruabar horretan, Euskaltzaindiak emaniko "Arabako herri izendegia" izeneko 150. arauan jasotako zenbait herri izen (*Argantzun*, *Bilar*, *Inuraitz-Gauna*, *Trebiñu* -Eskualdea izendatzeko *Uda* izena ere erabil daiteke eta *Zanbrana*), harrezkero egin diren ikerketa eta bildutako informazio zein testigantzen arabera, ez dira zuzenak (*Argantzun*, *Elvillar*, *Inuraitz-Gauna*, *Trebiñu* -Uda okerreko interpretazioa da; izena *Ibita* baitzen- eta *Zambrana* -erdal toponimioa da-). Horregatik, bost herri izen aldatzeko proposamena aurkeztu du Onomastika batzordeak. Aldaketarako arrazoiak eta dokumentazioa ere jasotzen ditu txostenak.

Aurkeztutako txostenari oharra egiteko epea 2017ko urtarilaren 9an, astelehen, amaituko da.

8.2. Gaur banatuko diren liburuak. Erramun Osa idazkariordeak azaldu due-

nez, *Euskera* 2015, 1-2 (ikerketa zenbakia eta zenbaki arrunta) eta *Erlea-10* dira gaur banatuko diren liburuak.

8.3. Hurrengo bilkurak.

Abenduaren 16an, Bilbon, egoitzan, egingo da 2016. urteko azken Osoko bilkura.

Abenduaren 20an, Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean “Donostia eta Europako hizkuntzak perspektiba historikoan” izeneko jardunaldia Mikel Zalbide euskaltzainak zuzentzen duen Euskararen Historia Soziala egitasmoaren eta Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuaren eskutik egingo da. Egitaraua idazkariordeak banatuko du. Jardunaldia datorren astean, asteartean, aurkeztuko da Donostian.

9. Azken ordukoak.

9. 1. Luis Baraiazarra ohorezko euskaltzainari 2015. urteko Itzulpen Onenari Espainiako Sari Nazionalean gertatutakoa. Buruordeak galdetu du ea zer gertatu den L. Baraiazarraren sariarekin. E. Osak azaldu dio epaimahaiak saria L. Baraiazarrari eman eta ordu gutxira, euskara Espainian ez zela hizkuntza arrotza eta oinarriak ez zirela bete arrazoitzat hartuz, Epaimahaiak harturiko erabakia baliorik gabe uztea erabaki zuela Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak. Epaimahaiko kide izan den A. Urrutiak azaldu du Ministerioak Epaimahaiko kideei igorritako zerrendan, L. Baraiazarraren *Santa Teresaren Idazlan Guztiak* itzulpena zetorrela eta epaimahaiak, itzulpenaren kalitatea eta garrantzia kontuan hartuta, lehen bozketan ebatzi zuela L. Baraiazarrari ematea.

Era berean, azpimarratu du gaztelaniatik euskarara, galegora eta katalanera zein kontrako norabidean egiten diren itzulpen lanak kontuan hartzeko, indarrean dauden oinarriak aldatzeak daukan garrantzia. Zuzendaritza laster bidaliko zaio gutun bat Espainiako Gobernuko Hezkuntza, Kultura eta Kirol ministroari hori egin dezan eskatuz.

Eta beste aztergairik ez dela, 13:30ean Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
Euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
Idazkaria

Osoko bilkura

Bilbon, Egoitzan, 2016ko abenduaren 16an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Lakarra, Joseba,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Salaberri, Patxi,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi eta
Zabaleta, Patxi.

Galé, Patxi,
Osa, Erramun,
Mujika, Alfontso eta
Urkia, Miriam,
zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Sagrario Aleman, Aurelia Arkotxa, Jose Irazu “B. Atxaga”, Joan Mari Torreal-dai, Xarles Videgain eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Sagrario Alemanek ahala Andres Iñigori; Adolfo Arejitak ahala Xabier Kintanari (10:50etik aurrera); Aurelia Arkotxak ahala Jean-Baptiste Battittu Coyosi; Jose Irazu “B. Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Joan Mari Torrealdaik ahala Andoni Sagarnari; Xarles Videgainek ahala Jean-Baptiste Battittu Coyosi; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra, 2016ko abenduaren 16an, ostiralean, 10:00etan egin da Bilbon, egoitzan.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoan zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, abenduko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

A. Urrutiak adierazi du X. Kintana euskaltzaina eta Euskaltzaindiko idazkaria “Bilboko Ospetsu” izendatu duela Bilboko Udalak. Izendatze-ekitaldia 2016ko abenduaren 14an egin da Bilboko Udaletxeko Arabiar Aretoan.

Osoko bilkurak zorionak eman dizkio X. Kintanari jasotako ohoreagatik.

1. Osoko bilkurako (2016-11-25) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.

M. L. Oñederrak eskatu du, Barrengo bilkura bereziari buruzko bilera-agiriko lehenengo paragrafoa, testu honengatik ordezkatzeari: "Miren Lourdes Oñederrak eskatu du lehenengo orrialdean, Barne-erregelatan eguneratzeak edo aldaketak eginez esaldiaren ondoren, Miren Azkaratek adierazitako 'Duela hiru urte azaldu zuela arrangura bera Osoko bilkuran' esaldia jaso dadila". Eginiko zuzenketa onartu da Osoko bilkuran.

A. Urrutia euskaltzainak gogora ekarri ditu 2016ko urriaren 28ko Osoko bilkuran, M. Azkaratek esanikoak osatzeko gordetako eskubidea erabiliz, Donostian, 2013ko apirilaren 26an eginiko Osoko bilkuran esan eta jaso zirenak: "Barne-erregelen egokitzapenak atala dela eta, XVIII. Barne Jardunaldietan M. Azkaratek, P. Goenagak eta A. Urrutiak eginiko proposamenei J. L. Lizundiaren eta A. Urrutiaren iruzkinak eta oharra jaso dira Idazkaritzan. Horiek horrela, Zuzendaritzaren osara dela eta, M. Azkaratek gehitzeko proposatzen duen puntua (13.3) azaldu du (onartuz gero, orain arteko puntuaren hurrenkera berridatzi behar da)". Hona zer dioten: "Bi hilabeteko aurretiaz iragarriko da Osoko bilkuran hautaketa noiz izango den. Iragarri eta hurrengo hilabetean jakingo da nor diren hautagaiak eta zein programa duten hurrengo lau urteetarako. Euskaltzainburu izateko hautagai bat baino gehiago balego, bakoitzak adierazi beharko du nor diren Zuzendaritza osatzeko proposatzen dituen euskaltzainak".

M. Azkarateren proposamena oinarritzat harturik, J. L. Lizundiak bi zuzenketa egin ditu; batetik, Arautegiak 30. artikuluan dioena eta M. Azkaratek eginiko proposamena uztartzen saiatu da, karguak berritzeko ezarritako epeei dagokienez; bestetik, Zuzendaritza osatzeko bozketa dela eta, karguak banan-banan ez, taldean, bozkatzea jaso dadin eskatu du. A. Urrutiak esan du M. Azkaratek eginiko proposamenak ez direla bateragarriak goragoko maila duen Arautegiaren 28., 29., 30., 31. eta 32. xedapenekin. Era berean, sistema horren bitartez, hautagai guzti-guztiak lurralde jakin batekoak izatea litekeena dela esan du. Horiek horrela, halako aldaketak adostasun zabalez egin behar direla azpimarratu du. Halaber, gogora ekarri du, iaz halako prozesu bati ekiteko eginiko proposamena.

Horiek horrela, hurrengo batean Zuzendaritzak gaia aztertzea eta Osoko bilkura-
ra ekartzea hobetsi da, euskaltzainekin iritzi-truke zabala egin ondoren.

Horiek horrela, 2016ko urriaren 28ko Barrengo bilkura bereziko bilera-agiria onarturik gelditu da, bai eta 2016ko azaroaren 25ekoa ere.

1. H letraz amaituriko hitzen deklinabidea. Azaroko Osoko bilkuran izandako eztabaida. Erabakia hartu.

Aztergaia jorratu aurretik batzar-aretora Alfontso Mujika Exonomastika batzordearen idazkaria sartu da. Honek azaroko Osoko bilkuran amaieran -h letra duten hitzak deklinatzeari buruz azaldutako bi aukerak aurkeztu ditu:

A) Kontsonantez amaitutako hitzak balira bezala deklinatzea (Sarah-ek, Allah-ek; Sarah-en, Allah-en ...).

B) Bokalez amaitutako hitzak balira bezala deklinatzea (Sarah-k, Allah-k, Sarah-ren, Allah-ren ...).

Azaroko bilkuran adostasunik egon ez zenez, gaia botoetara eraman eta berdinke-ta gertatu baitzen, erabakia hartzea abenduko Osoko bilkurarako laga zen.

A. Mujikak laburbildu du zertan den gaia: nola deklinatu behar diren -h letraz amaitzen diren hitzak hizki horren aurretik bokal bat dagoenean. Inguruabar horretan, gogorarazi du Exonomastika batzordeak hitzari erreparatuta deklinatzea hobetsi duela bestelako kasuetan (Google-ren, Calais-en...). Ondorioz, kasu honetan ere berdin jokatzeko proposatu zuen. Bestalde, corpusetako datuek erakusten dute ezen, tradizioa urria bada ere, literaturan hizki hori kontuan hartu gabe deklinatu izan dela. Euskaltzaindiaren Hiztegia bi hitz daude -h letraz amaituak letra horren aurretik bokal bat dutenak, eta hori kontuan hartu gabe deklinatuta ageri dira biak.

Eztabaidan, A. Arejitak azaldu du -h letra kontuan hartuta deklinatuz gero, arriskua dagoela ahoskera bitxiak sustatzeko, nahiz eta idatzirako araua izan eta ez ahozkorako. M. L. Oñederrak aipatu du gerta daitekeela grafiak ahoskera baldintzatzea eta ahoskera desegokiak sustatzea. X. Kintanak gogora ekarri du amaierako -h horiek hizkuntza batzuetan mutuak direla eta beste batzuetan ez, eta, alde horretatik, koherentea dela deklinatzeko ere kontuan hartzea. J. Lakarrak adierazi du euskararen historian ez dela inoiz gertatu -h letra hitz baten amaieran ahoskatzea, eta ezin dela hori eskatu, nahiz eta hizkuntza batzuetan (arabiera) hala ahoskatu; horretan dela desberdina -h letra hitz baten amaieran gerta daitezkeen gainerako kontsonanteen aldean, ahoskatzeko ezintasunean. A. Iñigok adierazi du, -h kontuan hartu gabe deklinatzearen alde egiten bada, beharrezkoa iruditzen zaiola horren berri ohar baten bidez ematea, argi jakinarazi ahal izateko zergatik den -h-ren deklinabidea desberdina, gainerako kontsonanteenaren aldean.

Iritzi-trukearen ondoren, euskaltzainek A eta B aukerak botoetara eramatea era-

baki dute. Emaizta ondokoa izanik: A aukeraren alde botorik ez da egon, B aukeraren alde 12 eta 8 boto zuri egon dira.

Horrenbestez, hau erabaki da: -h letraz amaitzen diren hitzak deklinatzeko, letra hori kontuan ez hartzea eta horren aurreko letraren arabera (bokala edo kontsonantea) deklinatzea. Hau da: *Sarah-k*, *Sarah-ren*; *Allah-k eta abar*. Halaber, erabaki da Exonomastika batzordeak ohar bat idaztea erabaki horren zergatia azaltzeko, eta ohar hori Osoko bilkurara ekartzea, onartua izan dadin, eta araua osorik argitaratu ahal izan dadin.

Bestalde, erabakiaren ondorioz, 165. arauan (*Arabieraren alfabetoan idatzitako izenak euskarara aldatzeko transkripzio-sistema*) dagoen 5. oin-oharra "Hasperenduna da, eta ahoskatu egiten da. Beraz, deklinatzeko orduan, kontsonantez amaitutako hitzak bezala deklina daiteke («j» letraz amaitukoa balitz bezala). Adibidez, Palestinako (*Al Fatah* erakunde ezaguna (arabieraz, حرتف) honela deklina daiteke: *Fatah(-)ek*, *Fatah(-)eko*, *Fatah(-)en...*" egokitu egin beharko da.

3. Dinastien izenak. Aurkezpena.

Exonomastika batzordeak prestatu duen azken araugaia aurkeztu du A. Mujikak. Adierazi du 2014ko uztailan erabaki zituela Osoko bilkurak Antzinateko zenbait dinastiaren izenak eta dinastien izenak idazteko irizpideak, baina hori ez dela oraindik argitaratu gainerako dinastiekin batera, arauak gehiegi ez ugaltzearren, arau bakar batean kaleratu nahi delako. Oraingoan, bestelako dinastiak landu ditu batzordeak.

Horrenbestez, 2014an onartutako irizpideei beste bat gehitzea proposatzen da: etxe hitza erabiltzea dinastia adierazteko (*Valoisko etxea*, *Habsburgoko etxea*), hala erabiltzen baita Europako hizkuntza askotan eta hala erabili baita euskaraz ere, OEHren adibideetan ikus daitekeen bezala. Dinastia-zerrendari dagokionez, hiru sailetan banatuta aurkeztu da: Bizantziar Inperioko dinastiak (11 dinastia), Europako dinastiak (49 dinastia) eta islamaren eremuko dinastiak (29 dinastia). Nafarroako Erresumako dinastiak kanpoan utzi dira, Nafarroako Erresumako errege-erreginekin egin zen bezala, horiek Onomastika batzordeari baitagozkio.

Aurkeztutako txostenari oharra egiteko epea 2017ko urtarrilaren 23an, astelehen, amaituko da.

4. "Euskaltzaindiaren Hiztegia". Kontsultak egiteko moduen aurkezpena.

Miriam Urkia Hiztegi Batuko lantaldearen burua batzar-aretora sartu da, A. Sagarna Euskaltzaindiaren Hiztegiaren zuzendariarekin batera aurkezpenean parte hartzeko.

Bi-biek *Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta definizioak* aurkeztu dute bileran. Sarreran A. Sagarnak, 1981. urtetik gaur arteko Euskaltzaindiaren Hiztegitzaren ibilbidea azaldu eta gaur aurkeztu den hiztegirainoko bidea erakutsi du. Ondoren, M. Urkiak hiztegiaren ezaugarri nagusiak azaldu ditu. Bilaketa arruntaz gain, bilaketa aurreratuak eskaintzen dituen baliabideak adibideekin erakutsi ditu, bai eta iturriek eskaintzen duten informazio gehigarria azaldu ere. Izan ere, forma baten nondik-norakoak ikus daitezke *Hiztegi Batu Oinarridunean*, eta zuzenean joan daiteke esku arteko forma horrek Euskaltzaindiaren corpusetan dituen agerraldien bila, *Orotariko Euskal Hiztegia, XX. mendeko Euskararen Corpusa* edo *Lexikoaren Behatokia* corpusetara sarbide zuzena eskaintzen baita.

Euskaltzainek eskerrak eman dizkiete A. Sagarna eta M. Urkiari eman dituzten argibideengatik.

5. "Euskal Corpus Onomastikoa". Egindakoa eta aurrera begirako urratsak. Aurkezpena.

Patxi Galé, egitasmoan diharduen teknikaria, batzar-aretora sartu da, P. Salaberri Euskal Corpus Onomastikoa (ECO) egitasmoaren zuzendariarekin batera aurkezpenean parte hartzeko.

P. Salaberrik egitasmoaren sarrera egiteko hitza hartu du eta P. Galé proiektuaren sortzailea izan zela gogorarazi du. Adierazi duenaren arabera, ECOOn datu asko daude, sei berme mailaren arabera antolatutak. Hemendik elikatzen da *Euskal Onomastika Datutegia* (EODA), nahiz berme horiek aintzat hartuta dena ez den EODARA igarotzen. Gainera, hori egiteko, lege arazoa dugu batetik, eta hizkuntzarena bestetik: datu hutsak asko dira, baina baita honek edo hark idatzi dituenak ere, eta hauek ez dute beti fidagarritasun maila bera. Koldo Mitxelenak idatzi zituenak, adibidez, aski fidagarriak dira, baina beste batzuek erran dituztenak ez hainbeste.

Bere iritziz, hemen dago etorkizunean, datozen urteotan, Onomastika Batzordeak (OB) egin lezakeen lana. Pittin bat uler dadin, *Orotariko Euskal Hiztegiaren*

(OEH) eta *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* artean dagoen erlazio bera legoke: datuak batetik, eta datu horien tratamendua, hautatzea eta «oneratzea» bestetik. Horretarako, ordea, denbora eta jendea behar da, eta hori dirua da.

OBk, aste honetan egin duen bilkuran, heldu diren urteotan zer egin daitekeen ikusi du. Nahi gabe ere hartu behar dituen lanez gainera, aurtun Arabako herri izendegia egin du. Orain Iruñeko kale izendegia berrikusten ari da, eta bada lana. Bestalde, bere ustez, ECO elikatzen jarraitu behar du Euskaltzaindiak, datu asko izan arren, OBn eta Onomastika Zerbitzuan (OZ) gauzak behar bezala egiteko oinarria behar delako, eta hori gero eta gehiago ECON dago. Alegia, nonbaitetik norbaitek txostena, iritzia, eskatzen badu, geure datuetatik abia gaitzke, eta hola egiten dugu, baina normalena datu base on eta osatu batetik abiatzea da, ECOTik. Ondorioz, eta laburbilduz: a) ECO elikatzen jarraitu behar dugu, eta b) gauza gehiago gizarteratu daitezke, baina horretarako, lehenago, «tratamendua» behar dute.

Ondoren P. Galék egitasmoari buruzko xehetasunak eman ditu. Esan duenaren arabera, ECO informazio onomastikoa modu ordenatuan gordetzeko datutegia da, funtsean datu taula multzo batek eratutako egitura konplexu batean oinarrituta. Egitura hori pixka bat azaldu ondoren, ECO egitasmoaren historia laburbildu da, alegia, 1999an hasitako bideak 2005ean hartu zuela *egitasmo* maila eta orduan eman zitziola izen hori. Hasieran, OBren buru zen Andres Iñigo Ariztegi izan zen zuzendaria eta, 2013tik aurrera, P. Salaberrik hartu zuen eginbehar hori. ECOz, eta hartan egindako lanez, euskaltzainen aurrean egin diren aurkezpenen eta datutegia osatzen duten lan nagusien erreferentzia egin da.

Datutegian egin ohi diren lanak izaera desberdinekoak izaten dira, gehitzen diren materialak edota haiekin erdietsi nahi diren helburuak ere desberdinak izaten direlako. Inguruabar horretan, 2016ko abenduaren 8ra arte ECOk jasotzen dituen erregistro kopuruak eman dira aditzera, baita datu horietatik Euskaltzaindiak webgunearen bitartez plazaratzen dituen kopuruak ere (EODA):

Erregistroak	ECO	EOD	%
deiturak	11.531	9.612	83,36
izenak	4.028	3.180	78,95
lekuak	248.317	7.923	3,19

Iragazketa hori egiteko erabiltzen den sistema azaldu da, betiere gutxienez Onomastika batzordeak ontzat emandako izenak, deiturak nahiz toponimoak plazaratzeko, eta ez besterik ezer. Emandako kopuruek datutegiaren tamaina handia dela adierazten dute: adibidez, jasota dauden 1.704.050 era dokumentalak. Hala ere, askoz ere gehiago da falta dena. Batzordeak oinarritzotzat jotzen dituen material ugari dago oraindik datutegian gehitzeko zain, *Fuentes Documentales Medievales del País Vasco* bildumako 148 liburuki, esate baterako.

Egitasmoaren etorkizunera begira, ideia batzuk aurkeztu dira. Datutegiari ikusgarritasuna ematea egokia izanik ere, tentuz ibili beharra dago plazaratzen den informazioarekin. Alde batetik, plazaratutako datu horien zuzentasunak gutxieneko berme maila bat eduki behar du. Bestetik, egokiagoa da ECO egitasmoaren barruan egindako lanak plazaratzea, beste batzuek egin eta Euskaltzaindiak migratutako datu multzoak plazaratzea baino. Jabetza kontuak ez ezik, erantzukizuna ere badago tartean. Azken urteetan egindako lan batzuek harrera ona izan lezake ikertzaileen artean eta, oro har, gizartean: lekuen erregistroetatik kartografiara jauzi egiteko aukera, bilduma dokumentalen zerrendak... Azken iradokizun bezala, ECOren sortzeko helburu “handia” ere aipatu da. Azken finean, Onomastika alorrean Akademia batetik zer espero den galdetzea komeni da. Eta ECOn helburu urrun hori argia da: beste hizkuntza batzuetan egin direnen moduko “Euskal Hiztegi Onomastikoa”. XXI. mendeko baliabideak eta beste egitasmo batzuetan lortutako eskarmentua lagun, diseinuari ekin behar litzaioke lehenbailehen. Bukatzeko, ECO datutegian dauden taulak, metatze sistema, datuak, egin daitezkeen bilaketa batzuk eta abar zuzenean datu-basetik erakutsi dira.

Euskaltzainek eskerrak eman dizkiete P. Salaberri eta P. Galéri eman dituzten azalpen eta eskaini dituzten argibideengatik.

6. Esku artekoak.

6.1. Baionako Udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetza hitzarmena.

Jean-René Etchegaray Baionako auzapezak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak sinatu dute hitzarmena Baionan, 2016ko abenduaren 6an. Hitzarmenak 2016-2018 aldia hartzen du.

Zehatz-mehatz, hauek dira 2016. urtean hitzarmenak ahalbidetu dituen egitasmoak: Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren aurkezpena; *Erlea* literatura aldizkariaren aurkezpena; XXI. Jagon Jardunaldia; eta *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* aurkezpena (abenduaren 15ean, atzo, egin dena). Honela, Baionako Herriko Etxeak onartzen dio Akademiari euskararen araugintzan eta normalizazioan egiten duen lana, eta erakunde gisa “erreferentziazkoa” dela aitortzen du.

6.2. R. M. Azkue Sariak. Epaimahaikoak izendatzea. Zuzendaritzak, Literatura Ikerketa batzordea entzun ondoren, egiten duen proposamena, 2016ko abenduaren 13an eginiko bilkuran erabakitakoaren arabera:

A. maila:

- Igone Etxebarria.
- Manu Lopez Gaseni.
- Miren Billelabeitia.

B. Maila:

- Yolanda Arrieta.
- Amaia Jauregizar.
- Patxi Zubizarreta.

Zuzendaritzak eginiko proposamena berretsi du Osoko bilkurak.

6.3. Gaur banatuko den liburua. Juan Manuel Etxebarria euskaltzain urgazlearen eta Deustuko Unibertsitateko irakasle emerituaren *Gorbeia inguruko etno-ipuin eta esaundak II* (IKER-32), Deustuko Unibertsitatearen eta Euskaltzaindiaren lan-kidetza-hitzarmenaren inguruabarrean argitaratu dena.

6.4. Hurrengo bilkurak. Ondoko hauek izango dira hurrengo bilkurak:

- Abenduaren 19an, astelehenean, Bilbon, Sabino Arana Fundazioaren egoitzan, euskarak gazteen unibertsoan daukan tokia aztertzeko jardunaldia antolatu dute Sabino Arana Fundazioak eta Euskaltzaindiak. Bertan, Jone Miren Hernández EHUKo irakasleak Eusko Jaurlaritzako Euskararen

Aholku Batzordeak eginiko *Gu gazteok* ikerlanaren emaitzak aurkeztuko ditu. Irakaslearekin batera parte hartuko du Kike Amonarriz soziolinguista eta EiTBko aurkezleak.

- Abenduaren 20an, Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean *Donostia eta Europako hizkuntzak perspektiba soziohistorikotik* aztertzeke mintegia egingo da. Mintegia “Donostia 2016, Europako Kultur Hiriburua” proiektuaren barnean antolaturiko jardunaldia da. Egitaraua Euskaltzaindiaren webgunean dago. Interesa edukiz gero, izena ematea komeni da, besteak beste leku arazoak ekiditeko.
- Euskarazko Tesien Koldo Mitxelena V. Sariak banatzeko ekitaldia. 2017ko urtarrilaren 10ean egingo da Bilbon, Euskal Herriko Unibertsitatearen Bizkaia Aretoan. Idazkaritzak gonbita eskuratuko die euskaltzain guztiei.

7. Azken ordukoak.

7.1. Patxi Zabaleta euskaltzainaren eskaria. Osoko bilkuretako bilera-deiak bialtzen direnean, Idazkaritzak ekarpenak egiteko aldia irekia duten gaiak eta epeak gogoraraztea eskatu du. Hala egitea hobetsi da Osoko bilkuran.

Eta beste aztergaiarik ez dela, 13:40 direnean Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
Euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
Idazkaria

Euskaltzaindiaren *Arauak*

Euskaltzaindiaren Araugintza 2016an

Exonomastika batzordea

1. Osoko bilkuran 2016an eztabaidatutako arauak

2016an, pertsona-izenak lantzen jarraitu du Exonomastika batzordeak, eta onomastikarekin zerikusia duten deklinabideari buruzko gai batzuk ere landu ditu. Langintza horren ondorioz, zenbait aragai aurkeztu dizkio osoko bilkurari.

1.1. Exoantroponomia

1- Maiatzeko Osoko bilkuran Goi Erdi Aroko pertsona-izenak (araugaia) aurkeztu zen.

2- Iraileko Osoko bilkuran, *Erdi Aroko pertsona-izen ez-kristauak: musulmanak, juduak eta turko-mongolak* araugaia aurkeztu zen.

3- Iraileko Osoko bilkuran, *Goi Erdi Aroko pertsona-izenak (Europako mendebaldea) (Iberiar penintsulako musulmanak izan ezik)* araugaia onartu zen.

4- Urriko Osoko bilkuran, *Pertsona-izenen grafia egokitzea_irizpideak_Europako errege-erreginak* araugaia aurkeztu zen.

5- Azaroko Osoko bilkuran *Erdi Aroko pertsona-izen ez-kristauak: musulmanak, juduak eta turko-mongolak* araugaia onartu zen.

6- Abenduko Osoko bilkuran, *Dinastien izenak* araugaia aurkeztu zen.

1.2. Deklinabideari buruzko gaiak

1- Otsaileko Osoko bilkuran *Erdal hitzak eta izen berezien baliokide diren adierazpenak deklinatzeko jarraibideak* txostena/araugaia aurkeztu zen.

2- Ekaineko Osoko bilkuran *Erdal hitzak eta izen berezien baliokide diren adierazpenak deklinatzeko jarraibideak* txostenaren/araugaiaren bigarren bertsioa aurkeztu zen.

3- Iraileko Osoko bilkuran, *Erdal hitzak eta izen berezien baliokide diren adierazpenak deklinatzeko jarraibideak* araugaiaren lehen partea onartu zen.

4- Abenduko Osoko bilkuran, *Erdal hitzak eta izen berezien baliokide diren adierazpenak deklinatzeko jarraibideak* araugaiaren bigarren partea onartu zen, hurrengo osoko bilkuran onartzeko aurkeztu beharreko ohar bat sartzeko baldintzarekin.

2. 2016an argitaratutako arauak

Maiatzean, 179. araua argitaratu zen (*Bizantziar Inperioko pertsona-izenak*).

Mila urte iraun zuen Bizantziar Inperioak, K.o. IV. mendetik K.o. XV. mendera, eta munduko merkataritza-gune nagusietako bat izan zen. Eragin erabakigarria izan zuen Europako parte handi bateko eta Ekialde Ertaineko legeetan eta sistema politikoetan, eta hari esker gorde eta hedatu ziren mundu klasikoko eta beste kultura batzuetako zientziako eta literaturako obra ugari.

Bizantziar Inperioko izenak latinaren bidetik iritsi ziren, gehienbat, Europako mendebaldera. Beraz, Antzinateko eta Erdi Aroko izen horien euskarazko grafia erabakitzeko irizpideak Antzinateko Greziako eta Erromatar Inperioko izenetrako berak dira. Irizpide horiek 1997an eman zituen Euskaltzaindiak 76. arauan, eta 2014an berretsi zituen arau hori eguneratu eta emendatu zuenean. Ez dago, beraz, irizpide berririk.

Bizantziar Inperioko 59 pertsona-izen ematen ditu arauak, bi zerrendatan antolatutak. Lehen zerrendan, enperadoreak. Bigarren zerrendan, kultura, arte, erlijio, zuzenbide edo arlo militarreko zenbait pertsona nabarmenen izenak ageri dira.

Exonomastika batzordeak lantzen dituen lanetan ohi den bezala, zerrenda elea-niztun bat ematen da, izen bakoitza euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez nola idazten den erakusteko. Eta latinezko eta grekozko izenak ere ematen dira.

Txostenak

Onomastika

Caicedo Yuso arabar herrian dagoen lakuaren izenaz

GONZÁLEZ DE VIÑASPRE, Roberto
Euskaltzaindiko Onomastika batzordeko kidea

1.- Sarrera

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak jakinarazi dio Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari izendapena aldatuko zaiola Caicedo Yuso herrian dagoen lakuaren Kontserbazio Bereziko Eremuari. Zehazki, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren proposamena da, “Lago de Arreo-Caicedo de Yuso” izendapenaren ordeztasun gaitzat “Lago de Caicedo Yuso y Arreo” izatea aurrerantzean, eta euskaraz “Caicedo Yuso eta Arreoko lakua”.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kezka agertu du, eta gai horri buruzko txostena egiteko eskatu dio Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeari, 2016ko otsailaren 16an zuzendutako gutunean: “Dirudienez, bi eratara ezaguna da eta horrek nahasmena sortzen du erabiltzerakoan. Bi izendapenetatik zein den egokia argitzea beharrezkoa da, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailetik proposatutakoa ez baitaigu egokia iruditzen. Izan ere, juntagailuaren bidez lotutako izendapen bikoitzak bide arriskutsua irekitzen du”.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eskaerari erantzunez, txosten honetan jasoko dugu zein izan den lakuaren izenaren bilakaera historikoa, dokumentazio zaharretatik abiatuta, gaur egun arte. Horren ondorioz, aukera bat proposatuko dugu, heldulekua duena eta Arreo / Caicedo Yuso dikotomia gainditzeko balio dezakeena.

2.- Lagos herri hustua eta deitura

Lakuaren ondoan izen bereko herri bat izan zen. Lehen aldiz, *Lagus* formarekin agertzen da, 1025. urtean, Donemiliaga Kukulako kartularioan.¹ Geroago, 1257.

¹ Ubieto, Antonio, 1976, *Cartulario de San Millán de la Cogolla (759-1076)*.

urtean *Lagos* aipatzen da, Jeronimo Aznar apezpikuaren zerrendan.² Ez dakigu noiz arte iraun zuen zutik herriak, baina, gutxienez, XV. mendearen hasiera arte. Izan ere, 1420. urteko dokumentu batean biztanleak dituen herri gisa aipatzen da Lagos: “conçejo e omnes buenos de Bascuñuelas e Villoria e Arreo e Lagos e Villanbrosa”³.

Uste izatekoa da artean herria zela XV. mendearen bukaeran. Gesaltza Añanako 1489ko akta batean ageri da *Lagos*, eta ez toponimo soil gisa: “e desde lo alto fuimos hasta la parte de Lagos [...] cerca del mojon de Caicedo, a ojo de Lagos”⁴. Nolanahi ere, hustua zen Lagos herria XVI. mendearen erdirako. Horren erakusgarri da Martin Gil lizentziatuaren 1551eko bisita-liburuan “Sancta Maria de Lagos” ermita aipatzea, “en el dicho logar de Caicedo de Yuso”.⁵ Hortaz, desagertutako herriaren parrokia ermita soila bilakatua zen ordurako. Lakutik 500 metro ingurura, zutik darrai gaur egun *Nuestra Señora del Lago* izenarekin ezagun den eraikinak⁶; hau da, *Lagos* pluraleko formatik singularrera iraganik. Izendapen bera zeukan ermitak XIX. mendean, Pascual Madozen hiztegian ikusiko dugunez. Era berean, mende horren azken hamarkadan, Arabako Aldundiaren 1894ko apirilaren 24ko bilkura-aktan jasota dago Caicedo Yusoko abadeak egindako eskaria, *Nuestra Señora del Lago* zeritzan ermita konpontzeko.⁷

Lagos herria zenaren oihartzunik aurkitzen dugu Erdi Aroko onomastikan. Esaterako, Valpuestako kartulario gotikoan, “Nunnu filio de Nunu de Lagos” delakoa lekuko da salmenta batean (1121)⁸; eta, Santa María de Bujedoko kartularioan,

2 Rodríguez, Ildefonso, 1989, *Colección Diplomática Medieval de la Rioja*, IV. liburukia.

3 Felipe Pozuelo, 2007, *Fuentes Documentales Medievales del País Vasco*. Archivo Municipal de Salinas de Añana (1400-1517), 131. Eusko Ikaskuntza.

4 *Ibidem*.

5 *Libro de visita del licenciado Martín Gil*, 1998, Diócesis de Calahorra y La Calzada-Logroño.

6 Gerardo López de Guereñu, Álava Solar de Arte y de Fe, 1962, Gasteiz, 89-90 or.: “Al lado de la laguna de donde le viene la advocación, se levanta esta ermita, en la que no se celebra culto habitualmente, acudiendo el vecindario de Caicedo en la víspera de la Asunción; antaño lo hacían el día de San Isidro, ya que también allí se venera al Santo labrador [...] La historia nos confirma la ruina del antiguo pueblo de Lagos, de cuya parroquia, no cabe duda, será vivo recuerdo la actual ermita”.

7 “solicitando se le concedan del monte común de dicho pueblo [Caicedo Yuso] materiales de maderamen para la reposición de la ermita sita en jurisdicción del mismo titulado Nuestra Sra. del Lago que se halla deteriorada” (ATHA-DAH-ADL-013-036)

8 Saturnino Ruiz de Lóizaga, 1995, *Los Cartularios Gótico y Galicano de Santa María de Valpuesta* (1090-1140).

“Domingo de Lagos” fidatzaile da beste salmenta batean, 1168-1204. urteen bitartean⁹. Urte bertsuetan, 1175-1204 epealdian, dohaintza bateko fidatzaile agertzen da “M. de Lagos, filio de Pedro Velaz”.¹⁰ Kasu guztietan antroponimoari erantsi-tako Lagos toponimoak herriari egiten dio erreferentzia.

Herri-tradizioz iritsi da gaurdaino Lagos herriaren desagertzea eta lakuaren sorrera uztartu nahi dituen kondaira. Bertsio desberdinak ditu. José Íñigo Irigoyenek 1945. urtean hiru aldaera jaso zituen¹¹: San Miguelen jaioetako Valeriano Guinearena, Alcedoko abadea zen Florentino López de Armentiaarena eta Fontechako abade ohia zen Miguel de Nicolásena. Hiruretan “el lago” aipatzen da, lakuari izen espezifikorik erantsi gabe. Egia da, hala ere, egileak “la leyenda del Lago de Arreo o de Caicedo” izenburupean aurkezten dituela narratioak.

3.- Lakuaren lekukotasun historikoak: “el lago”

XX. mendera arte, lakua “el lago” izen soilarekin agertu izan da kartografian eta hiztegi geografikoetan. Ikus ditzagun zenbait etsenplu:

1766. Tomás López geografoarentzat informatzaile-lana egin zuen Espejo herriko Joseph Ortíz de Pinedo kapilauak. 1766ko uztaillean bidali zizkion gutunetako bitan aipatzen zuen aztergai darabilgun lakua. Lehenbizikoak uztailaren 7ko data du. Bertan, labur eta tonu hiperbolikoan, zera dio: Tomás Lópezi: “hai algunas cosas singulares en el país, dignas de historiarse: un lago que puede sufrir navíos de guerra”. Luze eta zabalxeago dihardu informatzaileak uztailaren 26ko idazkian:

El **lago** que esta sobre Caicedo Yuso tiene de circunferencia un buen quarto de legua, su profundidad es grande, sus aguas son como las del mar y corren siempre. Abunda de muchas anguilas y tencas, en las márgenes se cojen infinidad de sangrejuelas, todo el año esta cubierto de ánades grandes y pequeñas que crían en los carriciales de dichos márgenes. Ya dixe pueden caminar navíos de guerra en él. Sobre dicho **lago** a distancia de un tiro de vala hai otro como una hera de trillar, también es mui profundo y sobre él

⁹ Saturnino Ruiz de Lóizaga, 2000, *El libro becerro de Santa María de Bujedo de Candepajares* (1168-1240).

¹⁰ Saturnino Ruiz de Lóizaga, 2016, *El libro becerro de Santa María de Bujedo de Candepajares* (1168-1276), 2. liburukia.

¹¹ José Íñigo Irigoyen, *El Folklore Alavés*, 1949, Diputación Foral de Álava.

nace una fuente salada.¹²

Bide batez, ohartaraztekoa da testu horretan bi lakuren berri ematen duela informatzaileak: nagusia, gaur egun ere dagoena, eta bigarrena, txikiagoa, desagertu dena. Horrek esplikatzeko du zergatik den plurala *Lagos* jatorrizko izena eta zergatik hartu duen, XIX. menderako, *Lago* forma singularra.

1770. Tomás López geografoaren *Mapa de la M.N. y M. L. Provincia de Alava*. Ber-tan, lakua agertzen da marraztuta eta azpian “laguna” idatzita, huts-hutsik.

1802. *Diccionario Geográfico-Histórico de España*. Real Academia de la Historia, Madril:

Caicedo de Yuso. Tiene 2 **lagunas** de medio quarto de legua de largo y ancho, cuyo fondo por mas diligencias que se han hecho, jamas se ha podido descubrir: una y otra son abundantes de tencas y anguilas de gusto tan delicado, que exceden á todas las del país.

1845-1850. Pascual Madoz. *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España y sus posesiones de Ultramar*. V. liburukia, Madril:

Caicedo Yuso [...] en esta circunferencia existe una hondonada ú hoyo donde hay una ermita titulada Ntra. Sra. del Lago, porque está contigua á una gran **laguna** bastante profunda, en la cual se crían truchas, anguilas y tencas.

1848. Francisco Coelloren mapa, Pascual Madozen laguntzaz ohar historiko-estatistikoetan. Lakua marrazkia agertzen da mapan eta, ondoren, *N. S. del Lago* idatzita.

1880. Ricardo Becerro de Bengoa, *Descripciones de Álava*¹³:

12 Antonio Altarriba (koord.), 2000, *Doscientos años de geografía en Álava. Del cuestionario de Tomás López a la actualidad*, Gasteiz.

13 *Descripciones de Álava*. Libro inédito de Ricardo Becerro de Bengoa escrito el año de 1880. Prólogo e índices por Ángel de Apráiz, 1918, Publicación del Real Ateneo de Vitoria.

Se visita el curiosísimo Lago, abundante y profundo depósito de agua [...] El aspecto del **lago** es sombrío y triste. Asperos caminos conducen a él; rodeándole cerrados caminos, bosques y solitarios cañaverales y solo una ermita y casa de labor representan la vida de tan retirado lugar. La ermita y el **lago** tienen su necesaria leyenda. En aquellos escondidos pasos sobre el viejo camino había antiguamente una venta, en la venta un ventero muy ladrón y muy malo y á su servicio una humilde criada. Cierta noche se presentó á pedir hospitalidad una viajera pobre: era la Virgen. El posadero la despidió de mala manera y la señora al marchar suplicó a la criada que le acompañase. Apenas traspusieron un trecho del camino, brotaron de la tierra las escondidas aguas y la posada se hundió en los abismos convirtiéndose en oscuro **lago** el hondo asiento del valle.

Zera gaineratzen du Ricardo Becerro de Bengoak:

No hace muchos años los vecinos de Salinas construyeron un gran bote para distraerse surcando las aguas de la solitaria **laguna**, y si bien al principio se vió muy favorecida la afición náutica, que dio lugar á alegres expediciones y múltiples peripecias, la excesiva distancia, la poca novedad del espectáculo que pronto se hizo viejo y las constantes ocupaciones del vecindario, hicieron que la idea y el barco se abandonasen pronto.

1885. Ramón Adán de Yarza, *Descripción física y geológica de la provincia de Álava*, Madrid:

Lagunas. Solo merece este nombre la que existe tres kilómetros al sur de Salinas de Añana, cerca del pueblo de Villambrosa, la cual apenas cuenta 500 metros de longitud en su diámetro mayor. Los naturales de la comarca refieren varias consejas y tradiciones á propósito de esta **laguna**, y aseguran que su profundidad es tan grande que nunca ha llegado a medirse; en todo lo cual hay mucha exageración¹⁴. Varios arroyuelos, principalmente uno que desciende de las Colinas de Vitoria, alimentan esta **laguna** [...] Otro arroyo

¹⁴ Gaur egun jakina da lakuaren sakonera: “el punto más bajo medido respecto al nivel del agua del lago ha sido de -24,10 metros, localizado aproximadamente en el centro geométrico del lago” (cfr. L. M. Martínez-Torres; J. R. González-Tapia; R. Ramón-Lluch, “Batimetría y propuesta de cartografía geológica del lago de Arreo (Diapiro de Salinas de Añana, Álava)”, 1992, *Cuadernos de Sección. Historia* 20.

sirve para su desagüe y este desemboca en el Ebro junto á la Venta de Antepardo.

1899. Caicedo Yusoko alkateak baimentzen du lakuko ura isurtzeko diren ahoak ixtea, proba moduan:

He recibido una comunicacion en la que se manifiesta el deseo de cerrar las bocas de desagüe del **lago** como por ensayo acordado por la Diputacion de propietarios de sales de Salinas de Añana, y habiendola hecho saber a mis administrados, se a acordado concederles su deseo siempre que se allen pronto a susanar [sic] los perjuicios tanto á el pueblo como a los particulares que por tal motivo se ocasionen.¹⁵

Ahoak ixteko lana egin zuen beharginak urte berean jaso zuen horregatik zegokion dirusaria:

Yo el suscrito Guillermo Fernandez he recibido de [...] la Comunidad de Herederos de las salinas de esta villa de Añana la cantidad de cuatro pesetas y cincuenta centimos [...] por un dia de jornal [...] en cerrar las bocas de desagüe del **lago** con el fin de probar si la disminucion de mueras del manantial procedia de estar abiertas dichas bocas.¹⁶

1910 (circa). Vicente Vera en *Geografia General del País Vasco-Navarro* (Francisco Carreras y Candik zuzendua), III. liburukia:


Caicedo-Yuso. Es población muy abundante en aguas, existiendo en su término dos **lagunas** muy profundas, en las que se pescan anguilas.

1917. *Mapa de Álava*, Arabako Aldundiak editatua. Lakuaren marrazkia agertzen da mapan eta, ondoan, *N. S. del Lago* idatzita.

¹⁵ ATHA-DAH-FCHSA-005-004

¹⁶ ATHA-DAH-FCHSA-018-016

1932. Instituto Geográfico y Catastral. 1:50.000 137. mapa. Erantsitako irudian ikus daiteke mapa hori sortzeko 1928an egin zen minuta kartografikoa. Bertan honako toponimoak agertzen dira: *Nuestra Señora del Lago*, *Valdelagos*, *Camino del Lago* (Añanatik datorrena), *Río del Lago* (lakutik Caicedo Yusora doana) eta *Lago* (Caicedo Yuso eta lakuaren arteko gaina).



3. El lago de Arreo. Aurkitutako lekukotasunak

1935. *Pensamiento Alavés* egunkaria (Gasteiz, irailaren 5ekoa):

El Monasterio de Salinas Añana, una de las pocas Casas de la Orden de Malta en España [...] Muchas cosas más teníamos que haber visto en Salinas [...] y también el anfiteatro portentoso de las eras, su casa exbalneario, el lago de Arreo, y las aguas de Paul.

1940. *Pensamiento Alavés* egunkaria (Gasteiz, irailaren 5ekoa):

Una guía alavesa de 1889. Nuestros antepasados se preocuparon de divulgar las principales riquezas del país [...] Salinas de Añana – Gran industria de la obtención de la sal; convento de religiosas de San Juan de Acre; **lago de Arreo**.

1949. José Íñigo Irigoyenen *El Folklore Alavés* liburua eman zuen argitara Arabako Foru Aldundiak. Bertan, hala dakar kondaira baten izenburua: “Leyenda del lago de Arreo o de Caicedo”. Aldiz, kondairaren berri ematen dioten hiru informatzaileek “lago” besterik ez darabilte.

Guztiarekin ere, nabarmentzekoa da XX. mendean egin diren toponimia-bilketa nagusietan ez dela jaso Arreo edo Caicedo izenik lakua izendatzeko. Ez dago halakorik 1958-1983 epealdian¹⁷ Gerardo López de Guereñuk Arabako 20.000 toponimo inguru bildu eta *Anuario de Eusko Folklore* aldizkarian argitara eman zuen lanean. Bertan, Arreo eta Caicedo Yuso herri-izen moduan baino ez dira agertzen: “Arreo, pueblo del ayuntamiento de La Ribera” eta “Caicedo Yuso, pueblo”. Era berean, 1986an José Antonio González Salazarrek plazaratutako bilketa toponimikoan¹⁸ ez dago “El lago de Caicedo” edo “El lago de Arreo” modukorik. Bigarren bilduma horren garrantzizko ezaugarria da toponimoak eman dituzten informatzaileak bertako bizilagunak direla; hau da, lehen eskuko informazio bizia dela. González Salazarrek “El lago” izena jaso zuen Caicedo Yuson, eta “La Virgen del Lago” ere bai (92 eta 91 zenbakiekin adieraziak, hurrenez hurren).

1988. Itxura denez, XX. mendearen azken hamarkadetan lakuak ez zuen artean izen hegemonikorik. Urte horretakoa da Clara Isabel Ajamilek eta bestek idatzitako eta Arabako Foru Aldundiak argitara emandako *Salinas de Añana y alrededores: guía para una visita* izeneko liburua. Egileek zera diote *El lago* epigrafearen barruan:

Está situado en la jurisdicción de Caicedo de Yuso y recibe distintas denominaciones: Lago de Arreo, Lago de Caicedo, Laguna de la Hermandad de la Ribera, Lago de Turiso, Laguna de Añana, El Lagunillo o el Lago de Villambrosa.

¹⁷ Geroago, 1989. urtean, Henrike Knörrek prestatu eta plazaratu zuen batera bilduzko edizioa, Euskaltzaindiaren *Onomasticon Vasconiae* bilduman.

¹⁸ González Salazar, José Antonio, 1986, *Cuadernos de toponimia* 6. *Toponimia menor de Añana*.

1997. Euskarazko idazkietan dugu, Antonio Zavalaren Oñez eta jakinminez izene-ko liburuan, “Nuestra Señora del Lago” kapitulua (37-38 or.). Egileak “ur-putzu”a edo “putzu”a darabil, baina behin ere ez dio izen espezifikorik eransten¹⁹.

Izendapen-aniztasun eta zehaztasun falta horretan, badirudi XX. mendearen amaierako literatura zientifikoan **Lago de Arreo** izendapena nagusitzen joan dela, dauzkagun datuen argitan:

1992. L. M. Martínez-Torres, J. R. González-Tapia eta R. Ramón-Lluch, “Batimetría y propuesta de cartografía geológica del **lago de Arreo** (Diapiro de Salinas de Añana, Álava)”, *Cuadernos de Sección. Historia* 20.

1995. E. Rico et alli, “Batimetría y análisis morfométrico del **lago de Arreo** (N. España)”. *Limnetica*, 11 (1): 55-58

1996. C. Montes eta E. Rico, “Informe sobre el estado de conocimiento del **Lago de Arreo** y propuestas de control”. Txosten argitaragabea.

1996. Á. Eraso eta J. Aguayo, Energiaren Euskal Erakundearen *Mapa Hidrogeológico del País Vasco* deritzan lanak **El Lago de Arreo** izendapena dakar 277. orriko 3. irudian.

4.- El lago de Caicedo (Yuso) – Arreo / Arreo – Caicedo (Yuso). Aurkitutako lekukotasunak

Eskuratu ditugun datuek erakusten dute Caicedo (Yuso) erantsita duen izendapena berri-berria dela. Antza denez, 2000. urtearen inguruko testu administrati-boetan hasten da hedatzen, eta administrazio publikotik datorren ekimena dela dirudi. Hona izendapen horren zenbait aipamen:

¹⁹ “Ara joateko, Gasteiztik aruntz abiatu eta Gatzaga-Añana baño leen ezkerrera artu genduan. Biloriatik pasa eta Arreo errixkara iritxi. Arreo onek dozen erdi bat etxe izango ditu, eta malda batean dago. Urak egoaldera dijoaz, eta antxe, pare bat kilometrora, ur-putzu bat ageri da. Putzura iritxi baño leentxeago, ezkerrera, borda baten antzekoa ikusten da. Baiña Ama Birjiñaren ermita txiki eta umil bat da, inguruko jendeak Virgen del Lago izenarekin ezagutzen duana. Oraingo berri ez dakit, baiña Kaizedoko erria abutzuko Ama Birjiñaren bezperan etortzen omen zan garai batean oneraiño erromerian. Putzuraiño jetxi nintzan. Ur garbia, baiña kolore illunekoa bera. Bide ondoko ertzean, ur geldietan sortzen diran landareak. Arunzkoan, basoa eta mendi-malkarra, ura ikutzeraiño. Au ez da, noski, argazkietan azaltzen diran Suitzako ur-putzu ospetsuak bezin dotore eta ikusgarria. Baiña txoko paketsurik inork ezagutu nai badu, oneraiño etorri izana etzaio damutuko”.

1998. Arabako Foru Aldundiaren 305/1998 Foru-Agindua, urteko ehiza-egunak finkatzen dituenen: **“Lago de Arreo o Caicedo Yuso”**.

2001. E. Rico eta A. Chicote, “Estudio sobre el funcionamiento limnológico e hídrico del **Lago de Caicedo/Arreo**”. Fundación General Universidad Autónoma de Madrid. Txosten argitaragabea.

2002. CONSULTORA DE RECURSOS NATURALES S.L.. “Plan de gestión **Lago de Caicedo Yuso/Arreo**-Valle Salado de Salinas de Añana (Álava)”. Argitaragabea.

2002. “Resolución de 17 de octubre de 2002, de la Dirección General de Conservación de la Naturaleza, por la que se dispone la publicación del Acuerdo de Consejo de Ministros de 27 de septiembre de 2002, por el que se autoriza la inclusión en la lista del Convenio de Ramsar [...] de las siguientes zonas húmedas españolas: [...] **lago de Caicedo-Yuso**”

2002ko urriaz geroztik, Gesaltza Añanarekin batera, Nazioarteko Garrantzia duten Hezeguneen RAMSAR zerrendan dago, eta honako izendapena du 92/43/EEE Habitat Zuzentarauan: **“Lago de Arreo – Caicedo Yuso”** (kodea: ES 2110007).

2003. KIMAR. Consultores Ambientales S.L., “Proyecto de Restauración del **Lago de Caicedo Yuso/Arreo**”. Txosten argitaragabea.

2004. Euskal Autonomia Erkidegoko Hezegune Babestuen Katalogoan sartua (160/2004 Dekretua, uztailaren 27koa), nomenklatura honekin: **Lago de Arreo-Caicedo Yuso**.

2006. “Decisión de la Comisión Europea, de 19 de julio de 2006, por la que se adopta, de conformidad con la Directiva 92/43/CEE del Consejo, la lista de lugares de importancia comunitaria de la región biogeográfica mediterránea. ES21110007: **Arreo-Caicedo Yusoko Lakua / Lago de Arreo-Caicedo Yuso**”.

2014. Ingurumen eta Lurralde Politika Sailarentzat egindako Euskal Autonomia Erkidegoko Interes Geologikoa duten Lekuen Inbentarioan: **“El Lago de Caicedo-Yuso, también conocido como Lago de Arreo”**.

2015 Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 182 zk., irailaren 24koa. “Resolución de 14 de septiembre de 2015, del Director de Medio Natural y Planificación Ambiental, por la que se somete a información pública la designación como Zona Especial de Conservación (ZEC) el Lugar de Importancia Comunitaria (LIC) **Lago de Arreo-Caicedo de Yuso**”.

Hala ere, bi herrien izenak elkartzen dituen izendapen bikoitz hau ez da bakarra dokumentu tekniko-administratiboetan. Arreo izena ere ematen zaio lakuari, soil-soilik, Uraren Euskal Agentziaren zenbait txosten eta mapatan. Esaterako:

2004/2005. “Red de seguimiento de humedales interiores de la CAPV” izeneko txostenean, **Lago de Arreo** izendapena erabiltzen da.

2012. Euskal Autonomia Erkidegoaren mapa hidrologikoan, **Arreo** izena ematen zaio lakuari.

2013/2014. Txosten hau osatu dugunerako sarean jarritako azken bertsioan **Lago de Arreo** agertzen da (www.uragentzia.eus).

5. Ondorioak:

Caicedo Yuso eta Arreoko lakua / Lago de Caicedo Yuso y Arreo izendapen bikoitza ez da egokia. Txosten honetan azaltzen den bezala, ez dago funtsezko arrazoirik Arreo izenari eusteko, ezta Caicedo Yuso bultzatzeko ere. Biak tradizio nabarmen laburrekoak dira.

Izan ere, Lago de Arreo izendapena berandu samarrekoa da, XX. mendearen hirugarren hamarkada arte ez baitugu dokumentatuta aurkitu. Hau ez omen da bertako biztanleek tradizioz erabili duten izena. Jatorri exogenoa luke, kanpoko jendeak sortua, bisitarien begietara lakua askoz hurbilago dagoelako Arreo herri-gunetik Caicedo Yusotik baino.

Lago de Arreo-Caicedo (de) Yuso erako izendapena askoz berriagoa da. Gehienbat, XXI. mendearen hasieran zabaldua (nolabaiteko aurrekaria duen arren, 1945ean, J. I. Irigoyenen liburuan), eta itxuraz administrazio-esparrutik bultzatua. Honek baluke logika administratiboa, lakua Caicedo Yusoko kontzejuaren jurisdikzioan dagoelako, Lantaron udalerrian.

1. El Lago izendapen soila izan da luzaz tradiziokoa, baina gaur egun ez da aski generikoa erabiltzea behar administratiboetarako. Beharrezkoa da osagai bereizgarri bat eranstea, izen espezifiko bat. Arreo eta Caicedo Yuso izenen arteko lehia berria albo batera uzteko, irtenbide egoki eta bidezkoa da lakuak ondo-ondoan zuen herriaren izena berreskuratzea: **“Lagosko lakua / El lago de Lagos”**. Proposamen honek bere alde du Lagos

izenaren eta bere eratorrien lekukotasunak ugariak direla dokumentazio historikoan. Esaterako, Añana Gatzagako kontu-liburuetan: “E desde lo alto fuimos hasta la parte de Lagos” (1489), “cerca del mojon de Caicedo, a ojo de Lagos” (1489), “un requerimiento sobre el camino de Lagos” (1506), besteren artean. *Valdelagos* ere dokumentatzen da, gutxienez XVI. mendeaz geroztik. Gainera, bizi-bizirik dirau egun ere, tokiko toponimia txikian. Hortaz, tradizio historiko luzekoa da *Lagos* izena eta, aldi berean, gaurkotasun osokoa.

Adierazpenak eta hitzarmenak

“Euskal Herria izena” 139. arauaren gainean

Euskaltzaindiak 2004ko uztailaren 23an "Euskal Herria izena" titulua duen 139. araua onartu zuen eta, ondoren, argitara eman. Arau honek, gainerako guztiek bezala, azalpen testu bat darama aurretik.

2004. urteaz geroztik egindako zenbait ikerketa eta lanek aukera eman dute informazio gehigarria lortzeko, bai eta daturen bat zehatzago adierazteko ere. Horren ondorioz, Euskaltzaindiari bidezko iruditu zitzaion orduko azalpen testu hura egokitzea, ez araua bera. Hori dela eta, 2016ko urtarrilaren 29an Donostian egindako Osoko bilkuran onartu zuen 139. arauari dagokion azalpen testu eguneratua eta, horrekin batera, arauaren testu osoa argitara eman zuen, ohi bezala, euskaraz.

Aldi berean, hainbat herritar, elkarte zein erakunderen eskaerak kontuan hartuz, Euskaltzaindiak erabaki zuen bere webgunean gaztelaniaz eta frantsesez ere argitaratzea.

Izan duen oihartzuna ikusita, Euskaltzaindiari egoki iruditu zaio araua eta bere azalpen testu eguneratuaren euskarazko idatzaldia *Euskera* agerkarian argitaratzea eta, aldi berean, adieraztea arau horren gaztelaniazko eta frantsesezko itzulpenak Akademiaren webgunean kontsultagai daudela.

139

*Euskal Herria izena**

Aspaldiko mendeetatik hedatua izan da *Euskal Herria* izena, kultura ezaugarri aski jakinak dituen herrialdea adierazteko, politika eta administrazio mugen nahiz ezberdintasun historikoen gainetik erabilia.

Izen hori *euskara* + *herri* hitzetatik sortua da, hots, 'euskararen herria'. *Euskal* forma hori ohikoa da hitz elkartuetan, cf. *aizkora*, baina *aizkol apustu*; *gari*, baina *galburu*, etab.

Letra xehez ageri da maiz testuetan, adibideetan ikusiko denez, bai eta pluralean ere. Bi kasuetan garbi erakusten da jatorrizko esanahia: *euskal herria(k)*, hots, 'euskararen lurraldea(k)'.¹

Euskal Herriaren erabilera orokor honen lehen lekukotasun argitaratua Joanes Leizarragaren lanak jasotzen du. Lapurdiko apaiz higanot honek, 1571n plazaratu *Testamentu Berriaren* eta beste zenbait testuren itzultzaileak, honela zioen, irakurle guztiek aise ulertzeko moduko hizkera aurkitzeko zailtasunaz:

... bat bederac daqui heuscal herrian quasi etche batetic bercera-ere minçat-zeco manerán cer differentiá eta diuersitatea den.¹

* Arau honen azalpen testua, ez araua bera, eguneratu du Euskaltzaindiak Donostian, 2016ko urtarrilaren 29an egindako Osoko bilkuran.

¹ Pasarte hau "Heuscalduney" izenaz irakurleentzako hitzaurrean ageri da, Joana Nafarroako erreginari bidali gutun elebidunaren ondoan (euskaraz eta frantsesez). Ez du orrialde-zenbakirik. Bai, ordea, Euskaltzaindiak egindako facsimile edizioan, Bilbo 1990, Hugo Schuchardtek eta Theodor Linschmannek 1900ean Estrasburgon argitaratu *I. Leizarragas baskische Bücher von 1571* liburutik abiatua; hor 254. orrialdean aurkitzen da.

Eta izena, marra batekin, beste bi aldiz darabil Leizarragak *ABC edo christinoen instructionea...* liburuxkan, urte berekoan. Hitzaurrearen titulua honako hau da:

Heuscal-herrian gaztetassunaren iracasteco carguã dutenér eta goitico gu-ciér, I. Leizarraga Berascoizcoac laincoaren gratia desiratzen.

Testu barrenean, berriz, hau irakurtzen dugu:

Eta minçatzeco maneraz den beçembatean, Heuscal-herrian religionearen exercitioa den lekuco gendetara consideratione guehiago vkan dut, ecen ez bercetara.²

Mende horretan edo hurrengoaren hasiera-hasieran bada beste lekukotasunik, Joan Perez de Lazarraga arabarrak idatzitako eskuizkribuetako batean, hain zuzen ere. Bertan hirutan aurkitzen da *eusquel erria*:

beti çagie laudatu
çegaiti doçun eusquel erria
aynbat bentajaz dotadu. (18. or.)
çegayti eusquel errian dira
ederr guztioç dotadu. (18. or. atz.)
çeñetan ditut eçautu
eusquel erriau oy nola eben
erregue batec pobladu. (18. or. atz.)

Pedro Axular idazle nafarrak ere darabil izen hori, 1643ko *Gero* aszetika liburuan. Irakurleari zuzenduriko hitzaurrean, Leizarragak aipatutako mintzatzeko maneraz ari delarik, honela dio:

Badaquit halaber ecin heda naitequeyela euscarazco minçatce molde guztietara. Ceren anhitz moldez eta differentqui minçatcen baitira euscal herrian, Naffarroa garayan, Naffarroa beherean, Çuberoan, Lappurdin, Bizcayan, Guipuzcoan, Alaba-herrian eta bertce anhitz leccutan.³

Tartasek, orobat, erabiltzen du izena *Onsa hilceco bidia* (1666) liburuan. Hartaz ari dela, honako hau dio:

² Ibidem, 1.393 eta 1.394. orrialdeetan, hurrenez hurren.

³ *Guero*, Bordele 1643, 17. or. Ikus, halaber, Euskaltzaindiak 1988an Bilbon plazaraturiko facsimile edizioa.

ibilico da buria gora euscal herri orotan.⁴

Manuel Larramendi gipuzkoarrak 1745ean argitara emandako hiztegian honako hau dio:

Al Bascongado generalmente llamamos, *Euscalduna*, y a todo los paises en que se habla el Bascuence, *Euscalerria*. Ni con estos nombres se expresa mas un Dialecto que otro, ni una Provincia mas que otra, sino generalmente nuestra Lengua, y los paises en que se habla.⁵

Letra xehez idatzia dira adibide horiek oro. Ohitura horren beste adibide asko eman daitezke. Jose Paulo Ulibarriren (1775-1847) *Gutunliburua* eskuizkribuan, gu-txienez, 1823an datatutako bi gutunetan jasotzen du:

... etorri cen euscal errira.⁶

Eta egileak pluralean darabil bizpahiru aldiz izena.

... egun zariyetan sermoyac euskal erriyen eta uritan.⁷

Bada beste lekukotasunik ere XIX. mende honetan. *Euskal Herria* izena (grafia batzuekin), zazpi herrialdeak izendatzeko, behin eta berriz edireten da, adibidez, Laphitzen *Bi saindu hescualdunen bizia* (1867) liburuan. San Ignazioz hau idatzi zuen:

oinez abiatu zen Hescual herrirat.⁸

Ildo beretik Gratien Adema, "Zaldubi" (1828-1907) apaiz lapurtarraren "Gauden gu eskualdun" (1893) eta 1882an Donibane Lohizunen ospatutako euskal festetan aurrenekoz kantatu zen "Eskualdunak" bertsoetan tradiziozko zazpi probintziak azaltzen dira. Dakusagun, esaterako, bigarrenaren atal hau:

4 Juan de Tartas: *Onsa hilceco bidia*. Ortheze 1666. Facsimile edizioa, Julio Urquijoren ardurapean, *Revista Internacional de Estudios Vascos* 1, 1907, 27-30, 185-199. or.; 2, 1908, 569-581. or., eta 3, 1909, 561-636. or. Aipatu dugun adibidea hitzaurreari dagokio, "Gomendiosco lettra" deituari, aldizkari horretan, 1, 1907, 28. or.

5 *Diccionario trilingue del castellano, bascuence y latin*. Donostia 1745. Facsimile argitalpena, Txertoa, Donostia 1984. Pasarte hori 1. liburukiaren xxxij orrialdean dago.

6 *Gutunliburua*. Arabako Diputazioa, Gasteiz 1975, 16. or.

7 *Ibid.*, 9. or. (gogora bedi egun zari, eguzari 'jaia' dela).

8 Francisco Laphitz: *Bi saindu hescualdunen bizia: san Iñazio Loiolacoarena eta san Francisco Zabiere-coarena*. Baiona 1867. Adibidea 140. orrialdean aurkitzen da.

Lapurdi, Nabarpe 'ta Zubero,
Eskualherriak Frantzian;
Bizkai, Gipuzko, Alaba, Nabarro,
berdin dire Espainian.⁹

Are gehiago, denboraren joanean *Euskal Herria* izena gaztelaniara eta frantsesera hedatu zen. Estatu arteko mugaz alde bateko eta besteko erakunde eta agerkari batzuek izen hori izan dute, esaterako: *Sociedad Euskalerria* elkarteak, XIX. mendearen azken herenean Jaurerriko diputatu nagusi izandako Fidel de Sagarminagak Bilbon fundatuak, eta *Euskal-Erria* aldizkariak, Jose Manterolak 1880an Donostian sortuak. Orobat Ameriketan: Los Angelesko *Californiako Eskual Herria* astekariak, 1893-1898; *La Platako Eskual Herria* astekariak, Buenos Airesen 1898an argitaratuak, edo Baionako *Eskual Herria* astekariak, 1898an sortuak. Geroago ere ohitura hori ez da eten. Besteak beste, Philippe Veyrinek, *Les Basques* bere liburu ospetsuan¹⁰, *Eskual-Herri* darabil behin baino gehiagotan.

Euskal kantutegiak, halaber, ezin konta ahaleko aipamenak dakartza *Euskal Herria*-z. Besteak beste, Done Mikel Aralarkoaren herri kanta tradizionala dugu, errepika hau duena:

Miguel, Miguel, Miguel guria,
Zaizu, zaizu Euskal Herria.

Juan de Bera kaputxino nafarrak Oiartzunen predikatu zuen 1834an. Sermoia-
ren lehen bi orrialdeak euskaraz idatzi zituen, eta gainerako testua gaztelaniaz, eta
Frantzisko Xabierkoaz ari zelarik, honela zioen:

Jayo cela gure Españían, vskal Errian, Nafarruan.¹¹

⁹ Neurtitz hauek guztiok *Revista Internacional de Estudios Vascos* 3, 1909, 396 eta 399. orrialdeetan irakur daitezke. Ediziorik eskuragarriena, ordea, Alex Bengoetxearena dateke: *Kantikak eta neurtitzak*, Ediciones Mensajero-Gero, Donostia, 1991. Hemen aipaturiko pasarteok, 166 eta 177. orrialdeetan daude edizio horretan.

¹⁰ 1. argitaraldia, Baiona 1943. 2. argitaraldia, Paris 1975.

¹¹ Patxi Ondarra: "Polikarpo Aitak zituen euskal esku-idatzi zaharren aurkezpena". *Euskera* 26, 1981: 2, 640. or. Ikus orobat egile beraren "España, País Vasco, Navarra". *Diario de Navarra*, 2003ko otsailaren 2koa, 21. or.

Euskal Herria eskuarki erabili izan da, bestalde, ideologia eta pentsamolde alor guztietan. Hona hemen adibide batzuk, ediren litezkeen ugarien artetik jasoak:

Salvador Castilla Alzugaray (Iruñea 1819 - Donostia 1884), errepublikazaleak, 1878ko uztailaren 15ean hitzaldi bat egin zuen Iruñean, Asociación Euskara de Navarraren batzar batean, eta han bilduei Euskal-Erria maitatzen jarrai zezaten eskatu¹².

Vianako semea zen Francisco Navarro Villoslada eleberrigileak (1818-1895), tradizionalistak, "De lo prehistórico en las Provincias Vascongadas" idazlanean (1877) honela dio:

... pero ellos no se dan a sí propios ese apelativo, ni el de *vascongados*, ni otro más que el de *escualdunas* bajo cuya denominación comprenden a todo el que habla la lengua euscara, sea español o francés, llamando asimismo escualherria, literalmente tierra de *escualdunas*, a todas las provincias que hablan la lengua euscara y pueblan ambas vertientes de los Pirineos occidentales: navarros, guipuzcoanos, alaveses y vizcaínos, españoles; suletinos y laburdinos, franceses.¹³

Letra xehez Azkueren hiztegian bertan (1905-1906) ikus daiteke izena. Hiztegiaren sarrerak letra larriz ezarri zituen egileak, baina bigarren aldaera letra xehez aurkitzen dugu:

Eskualerri (B-I), eskualherri (L), país vasco, pays basque.¹⁴

Gaztelaniazko eta frantseseko ordainak ere letra xehez ageri dira adibide horretan; ohitura hori oso zabaldurik egon da.

Román Zubiaga buruzagi karlista bizkaitarrak, orduan kadete zen Santiago Palaciorekin Gernikako Batzar Etxerako bisitan zihoala, honetara esan zion:

12 Angel García-Sanz Marcotegui: "Los liberales navarros ante la irrupción del euskismo", Roldán Jimeno Arangurenen zuzendaritzapean agertu liburuan: *El euskera en tiempo de los éuskaros*. Nafarroako Gobernua-Nafarroako Ateneoa, Iruñea 2000, 145-218. or.; Salvador Castilla Alzugarayren aipua 152-153. orrialdeetan dator.

13 Carlos Mata Induráin: "Amaya da asiera: la actitud de Navarro Villoslada ante el vascuence", aurreko oharrean aipatu liburuan, 113-144. or. Pasarte hori 120. orrialdean dago.

14 *Diccionario vasco-español-francés*, Bilbo 1905-1906. Facsimile argitalpena, Euskaltzaindia, Bilbo 1984.

... las tribus más celosas de su independencia refugiáronse en las montañas de aquende y allende el Pirineo, constituyendo la Euskalerria, es decir, el país de euscaldunac, de los que hablan el idioma éuskaro ...¹⁵

Iruñeko alaba zen Dolores Baleztena (1895-1989) idazle karlista nafarrak *Euskalerria* izena maiz erabiltzen du, adibidez, euskal zibilizazioari buruz ari denean:

... la figura del bersolari, ese admirable bardo de la Euskalerria genuinamente popular, que con asombrosa agilidad de imaginación y habilidad en versificar, riñe torneos de ingenio discuriendo por los temas más dispares [...] Dignos discípulos del inmortal Iparraguirre, también voluntario de Carlos V, que con su voz arrebatadora, subyugaba auditorios de naciones extranjeras, cantando a la amacho maitia, al blanco querube de Euskalerria, a España, "lur oberikan ez da Europa Guziyan", la tierra mejor cual no hay otra en Europa ...¹⁶

Jesús Etayok 1921eko maiatzaren 17an *El Pensamiento Navarro*-n "Ante el cuarto centenario de la herida de Iñigo de Loyola" artikulua idatzi zuen. Besteak beste, honako hau irakur daiteke:

... como vascos, porque, a pesar de la gran desviación histórica padecida por nuestra raza, Ignacio era vasco y todos los vascos somos participantes de las glorias de Euskalerria ...¹⁷

Honen kontura egoki datorke *Oriamendi* ere aipatzea, karlisten himnoa, honela baito:

Gora Espainia eta Euskal Herria!
Ta bidezko errege.
Maite degu Euskal Herria,
Maite bere fuero zaharrak.

15 José Javier López Antón: *Escritores carlistas en la cultura vasca*, Pamiela, Iruñea 2000, 134. or. Santiago M. Palaciok Zubiagaren ahotik entzundakoa *El batallón de Guernica* bere liburuan bildu zuen, Editorial Tradicionalista, Bartzelona 1917, 80. or.

16 Dolores Baleztena Azcárate: *Saski naski de Leiza*. Nafarroako Foru Diputazioa, Iruñea 1976, 28. or. ("Temas de Cultura Popular" sailean 272. zenbakia du liburuxkak) .

17 José Javier López Antónek aipatua: *Escritores carlistas en la cultura vasca*, 191. or.

Erabilera guztiz ohiko horren ispilua José María Iribarrenen *Vocabulario navarro* (1952) deritzanean ere ediren daiteke. Honela dio:

Euskalerria: "Nombre que dan al País Vasco; es decir, a Vizcaya, Guipúzcoa, Alava y Navarra en España, y Laburdi, Benabarre y Zuberoa en el país vasco-francés."¹⁸

Ikusten ari garen kontzeptu hau gaztelaniaz eta frantsesez era batzuetara adierazi da: *Vasconia*, *País Vasco*, *País Vasco-Navarro*, *Vasconie*, *Pays Basque*. Azpimarratzekoa da *País Vasco* frantsesezko *Pays Basque*-ren oihartzuna dela eta XIX. mendean zehar hedatu zela. Lehenago *Basque* forma hutsa erabiltzen zen frantsesez, substantibo gisa; esaterako, Jean Baptiste Nolin-en mapa famatuan (Paris 1704) *Mer de Basque* ikus daiteke, eta horren azpian *Tarbellicus sinus* latinezko ordaina.

Aipatuez gainera, bada liburu usaineko izen bat: *Euskaria*, eta hortik datoz *euskar*o eta *euskarien* adjektiboak. Hiru izenok, begi bistakoa denez, hizkuntzaren izenetik datoz, hots, *euskara*-tik. Gogora ditzagun, besteak beste, *Asociación Euskara de Navarra*, 1877an fundatua, eta beronek hurrengo urtean sortu zuen *Revista Euskara*.

XIX. mendea amaitu baino lehentxeago Sabino Arana-Goirik (1865-1903) *Euskadi* izena sortu zuen, uste izanik *Euskal Herria* izenak ez zuela izaki politikorako balio. Horretarako, gorago aipatu dugun *Euskaria* eduki zuen gogoan, eta *-di* leku-atzizkia erantsi zion. Izen horrek —bere asmatzaileak aurrenik *s*-rekin idatzi (*Euskadi*) eta geroago *z*-rekin (*Euzkadi*) hobetsi zuenak— erabilera nabarmena izan du. Hala ere, haste-hastetik izen berri horrekin bat ez zetozen anitzen iritziak entzun ziren. Haien artetik Arturo Campión iruindar poligrafo eta historialaria nabarmendu zen. Gai horri buruz artikulua garratzak idatzi zituen, eta bereziki "Sobre el nuevo bautizo del País Basko" deritzana¹⁹. Halako egitasmo politiko batengatik *Euskal Herria* ordezkatzeko saio horrek gorabehera sonatu batzuk ekarri zituen aldean, esaterako, 1918an, Eusko Ikaskuntzaren Oñatiko Lehen Biltzarraren hitzaldi batean, Resurrección M^a Azkuek, hurrengo urtetik 1951n hil arte euskaltzainburua izango zenak, pairatu behar izan zuen zenbaiten protesta.

¹⁸ José María Iribarren: *Vocabulario navarro*. Nafarroako Diputazioa, Iruñea 1952. Adibidea, s.u., 229. or. Ikus 2. argitaraldia, Ricardo Ollaquindiak paratu eta garatua. Hezkuntza eta Kultura Departamentua, Príncipe de Viana Erakundea, Iruñea 1984, s.u., 241. or.

¹⁹ *Revista Internacional de Estudios Vascos* 1, 1907, 148-153. or.

Urteak aurrera joan ahala, *Euskal Herria* izenak, bere adiera neutroarekin, iraundu, *Euskadi*-ren lehiakidetza izan arren. Alferlana litzateke adibide gehiago hona ekartzea. Aski dateke Bonifacio Etxegarai jaunak, Epaitegi Goreneko idazkari eta euskaltzain osoak, *Espasa* entziklopediarako (1929) idatzi zuen *Vasconia* artikulua gogoratzea; Batzorde Eragileen (Diputazioen) *Proyecto de Estatuto Vasco-Navarro* delakoa (1932), euskaraz *Euskalerría* erdarazko *País Vasco-Navarro*-ren baliokidea erabiltzen duena, edo TVE-ren *Euskal Herria* programaz oroitzea, zein demokrazia-rako bidea hasi bezain laster eman zena (1976-1977).

Azpimarratzekoa da Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren (1979) 1. artikuluen testu nahasia, honela baitio: "Euskal Herria [...] Espainol Estatuaren barruan Komunitate Autonomo gisa eratzen da. Beronen izena Euskadi zein Euskal Herria izango da [...]"²⁰.

Eusko Kontseilu Nagusiaren garaian, Euskaltzaindiak, Baionako ordezkari izan 1979.eko urtarrilaren 26an egindako batzarrean, aho batez erabaki zuen lehen-dakariari gutun bat bidaltzea; erabaki hori "*Euskal Herri* hitza ez baztertzeaz" titularekin argitaratu zen *Euskera* aldizkarian²¹.

Horrez gainera, itzal handiko pentsalari batzuek, hala nola José Miguel de Azola saiakeragileak, artikulua horren testuarekin ados ez zeudela argi erakutsi zuten, bai eta *Euskal Herria* -agertan edo ezkutuan- saihesteko asmoaren aurka ere.

Euskaltzaindiak, politika alorretik landa eta sineste zein ideologia guztien gaitetik, otsailaren 26ko 573/1976 Errege Dekretuan finkaturiko xedeetako bati erantzunez, zeinetan Euskaltzaindiari hizkuntza jagoteko helburua onartzen zaion, nahitaezkoa dakusa *Euskal Herria* izenaren egokitasuna eta zehaztasuna berrestea. Izen hori guztiena da, eta horregatik ezin daiteke alderdikieriaz erabil, zoritxarrez inoiz gertatu eta orain ere gertatzen bada ere. Hori, jakina, herrialde bakoitzaren deitura bereziari eta izen politiko-administratiboei kalterik egin gabe.

Gorago adierazi guztiaren argitan, Euskaltzaindiak, zazpi probintzia edo herrialdeen osotasuna adierazteko, *Euskal Herria* izenaren egokitasuna, zuzentasuna eta zehaztasuna berresten du, eta izen hori ez dela izate politiko administratibo konkretu baten baliokide. Aldi berean, gogorarazi nahi du mendez mendeko tra-

20 Gaztelaniaz: "El Pueblo Vasco o Euskal-Herria [...] se constituye en Comunidad Autónoma dentro del Estado Español bajo la denominación de *Euskadi* o *País Vasco*. Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa, *Boletín Oficial del Estado*, 306. zk, 1979ko abenduaren 22koa.

21 Ikus testu osoa *Euskera* aldizkarian, 24, 1979: 1, 115-117. or.

dizio luzeari begirunea zor zaiola, eta inork eta ezerk ez du tradizio hori hausteko edo bere gogara aldatzeko eskubiderik.

Araua

Gauzak horrela direlarik, eta 2003ko uztailaren 18an Euskaltzaindiak, Donostian onarturiko adierazpenean oinarriturik, honako Araua plazaratzen du:

1. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa (Beherea eta Garaia) eta Zuberoa batera izendatzeko erabil bedi *Euskal Herria* izena.

2. Idazkerari dagokionez, bi hitzetan eta biak letra larriz.

3. Gogoratu behar da bukaerako *-a* hori artikulua dela. Hortaz, erabil bedi: *Euskal Herria*, *Euskal Herrian*, *Euskal Herriaren* ..., baina *Euskal Herriko*, *Euskal Herritik*, *Euskal Herrira*. Beraz, gaizki daude **Euskal Herriako*, **Euskal Herriatik*, **Euskal Herrin* edo **Euskal Herriren* bezalakoak.

Era berean, izen honek bere azken *-a* galtzen du ondoan beste determinatzailearen bat edo adjektibo bat daramanean. Adibidez: *Euskal Herri maitea*, *Euskal Herri osoan*, *gure Euskal Herri hau*, *zein Euskal Herri litzateke?* ... Hortaz, ez daude ongi **Euskal Herria maitea*, **Euskal Herria osoan*. **gure Euskal Herria hau* eta **zein Euskal Herria litzateke?*

Euskaltzaindiak Abadiñon egin batzarrean erabakia, 2004ko uztailaren 23an.

Euskaltzaindiak eta Euskal Konfederazioak adierazpen bateratua (Euskararen egoera Ipar Euskal Herrian)

"Frantziako Estatuko lurraldeetako hizkuntzen egoera kezkarria da, ez baita egiten lege, diru eta langile egokiz hornituriko hizkuntza politika publiko eraginkorrik.

Euskararen Erakunde Publikoaren sortzearekin batera, hizkuntza politika publikoa 2006an egituratzen hasi zen Ipar Euskal Herri mailan, herri mugimenduaren lana osatuz. Bizkitartean, orain arte euskararen salbatzeko bideratu baliabideak eta neurriak ahulegi izan dira; ondorioz, euskal hiztunen kopurua eta euskararen erabilera gero eta apalagoak dira, inkesta soziolinguistikoek agerian eman dituzten datuen arabera.

Egoera larri hau iraulezina ez bada ere, baitezpadakoa da hizkuntza politika berri eta ausarta gaurdanik egiten hastea eta, orobat, transmisioan, erabileran, motibazioan eta corpusean positiboki eragitea, edozein hizkuntza osoki berreskuratzeko prozesuak ezinbestekoak dituen alorretan. Hizkuntza politika eraginkor hori zutik ezartzeko, nahitaezkoa da erakunde publiko guztiak (herriak, eskualdeak, Euskal Elkargoa, departamendua, Estatua) en-gaiatzea eta arduraz jokatzeta.

Ipar Euskal Herrian erakunde aldaketa gertatuko da 2017ko urtarriletik goiti. Hortaz, Euskaltzaindiari eta Euskal Konfederazioari iruditzen zaie garai ezin ego-kiagoa dela hizkuntza politika berri hori garatzen hasteko.

Erakunde publiko bakoitzak ardurak bere gain hartu beharko baditu ere, Euskal Elkargoak euskara indarberritzeko hizkuntza politika horren bultzatzaile nagusia izan beharko du, euskararen eremuan lanean ari diren elkarte eta erakundeekin elkarlanean. Hala, bere eskumeneko alorretan eta gaietan ausart jokatu eta, oro-bat, beste erakundeak ber gauza egitera animatu beharko ditu.

Horretarako, funtsezkoak dira ondoko puntu hauek:

- Sortzen den mementotik beretik hasita, Elkargoaren estatutuetan euskararen hizkuntzaeskumena jasotzea.
- Korsikan, Britainian eta Ipar Katalunian egin bezala, Ipar Euskal Herrian ere euskarari nolabaiteko izaera ofiziala aitortzea
- Baliabide aski paratzea eta hizkuntza politikarako aurrekontu propioa bideratzea

Oinarrizko hiru erabaki horiek hartu ondoan, Euskal Elkargoa hizkuntza politika eraginkorra diseinatzen, lantzen eta garatzen hasten ahalko da, euskararen eremuko gizarte-eragileen iritzietan eta ekarpenetan oinarrituz eta gainerako erakundeekin elkarlan estuan arituz. Euskararen berreskurapena indartzeko asmoz, zenbait alorretan hauteman blokeatze-egoerak gainditu eta aitzinamendu berriak ematea ezinbestekoa da, hala nola, irakaskuntza arruntean, helduen irakaskuntzan, hedabideetan, aisialdian, ikasmaterialetan, alor sozioekonomikoan, bizi publikoan, euskararen erabileran eta hizkuntzaren kalitatean (horren barnean Euskaltzaindiari egin beharreko aitormena egonik).

Ezin dugu ukatu erronka eder bezain gaitza dela hau. Halarik ere, Euskaltzaindia eta Euskal Konfederazioa segur dira erronka hau gainditzeko modukoa dela, eta euskara galzoritik atera eta indarberritze-bidean jauzia egiteko parada dugula".

Baionako Euskal Erakustokian, 2016ko azaroaren 19an

Euskaltzaindiak 2016. urtean sinatutako hitzarmenak

Bilboko Udala

Apirilaren 5ean, Bilboko Udalak eta Euskaltzaindiak lankidetza-hitzarmena sinatu dute. Udalaren izenean, Juan Mari Aburto alkateak eta, Euskaltzaindiarenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak izenpetu dute. Biok adierazi dutenez, Bilbon euskara bultzatzea da xede nagusia.

Andres Urrutiarekin batera, Xabier Kintana idazkaria, Adolfo Arejita Iker sailburua eta Erramun Osa idazkariordea izan dira ekitaldian. Koldo Narbaiza Bilboko Udaleko Euskara zinegotzia ere bertan izan da.

Aspalditik elkarlanean ari dira bi erakundeok, 2008an izenpetu baitzen Udalaren eta Akademiaren arteko lehenbiziko hitzarmena.

Bilboko Udalak, Euskara eta Hezkuntza Sailaren bidez, Euskaltzaindiari 15.750 euroko urteko diru-laguntza eman dio, euskal literaturaren zuzeneko ikaskuntza eta ikaskuntza sakona bultzatzeko, Bilbon euskararen erabilera sustatzeko, eta hizkuntzaren arloko aholkularitza ziurtatzeko.

Sinatutako hitzarmenak jasotzen duenez, Udalak eta Euskaltzaindiak euskararen arloko kultura zabaltzeko jarduerak, ikastaroak, hitzaldiak edo erakusketak bultzatuko dituzte. Bestalde, Euskaltzaindiak beharrezko aholkularitza linguistikoa eskainiko die Udalaren zerbitzuei, bilbotarrei informazio egokia eman ahal izateko.

Elkarlanaren lehen emaitza laster ikusi da. Izan ere, maiatzean, Bilboko Udalaren eta Laboral Kutxaren laguntzarekin, Bilbon "Euskara ibiltaria" izeneko erakusketa antolatu du Euskaltzaindiak.

Gasteizko Udala

Maiatzaren 16an Gasteizko Udalak eta Euskaltzaindiak lankidetzaz hitzarmena beritu dute. Udalaren partetik Gorka Urtaran alkateak sinatu du, eta Euskaltzaindiaren partetik, Andres Urrutia euskaltzainburuak. Hitzarmen horrek zehazten dituen lan hauek burutu ditu Euskaltzaindiak 2016an:

1. Askartza, Bolibar, Uribarri Nagusia, Aberasturi, Andollu, Argandoña eta Villafranca herrietako erregistroak bildu eta fitxa berriak sortu.
2. Arratzua II datutegia sortu.
3. Askartza, Bolibar, Uribarri Nagusia, Aberasturi, Andollu, Argandoña eta Villafranca herrietako datuen analisia eta antolaketa (lehen itzulia).
4. Ahozko inkestak egingo dira Arratzua II-ko herri guztietan.
5. Aberasturi, Bolibar, Uribarri Nagusia eta Askartza herrietako deskribapenak egingo dira, hau da, herri bakoitzean dauden lekukotza guztietatik egokienak aukeratu eta behin-behineko testuak idatzi.

Hebreeraren Akademia

Hebrear Hizkuntzaren Akademiak (Ha'academia Lalashón Ha'ivrit) eta Euskaltzaindiak hitzarmena sinatu dute 2016an, beren arteko harremanak landu, elkarri informazioa eman eta agerkariak beren artean trukatzeko helburuarekin.

Sinatutako hitzarmenak bi akademien arteko lankidetzarako oinarriak eta tresnak ezarri nahi ditu, beren ardurako hizkuntzen gainean elkarrekiko azterketa eta proiektuak koordinatuki garatzeko. Besteren artean, elkarren intereseko argitalpenetan lankidetzaz bilatuko da. Kongresu, jardunaldi eta mintegiak elkarrekin antolatzeko aukera ere aurreikusten du hitzarmenak. Era berean, informazioa, liburuak, argitalpenak eta gainerako material interesgarriak trukatzeko dituzte elkarren artean.

Israelgo Estatua sortu bezain laster, 1953an, bertako Parlamentuak Akademia hori hebreara arautzeko erakunde nagusi izendatu zuen, eta, harrezkero, bera da hizkuntzaren ortografia, morfologia, gramatika eta hebreerazko hitzak beste hizkuntzetara letraldatzeko arauak ematen dituen; Israelgo Estatuan nahitaez bete beharrekoak dira arau horiek. Akademiak 23 kide dauzka, eta unibertsitateko irakasle, idazle, poeta, hebreista eta teknikari adituz osaturik dago. Egoitza Jerusalem du.

Independentzia lortu ondoren legeztatu zen arren, Hebreeraren Akademia lehenago sortua zen, 1890. urtean, Eliezer Ben Yehuda-ren eraginez. Hizkuntzalari horrek proposatu eta prestatu zuen, hain zuzen, hebreera modernoaren berpiztea, bi oinarri hauetan finkaturik: alde batetik, Bibliako eta azken bi mila urteotako hebreera idatziaren tradizioa, eta bestetik, aramera eta beste hizkuntza semitikoak, batez ere arabiera kontuan izanda. Hark proposaturiko hebreera batu hori, irakas-kuntzari eta Estatuaren laguntzari esker, gaurko israeldar guztien ohiko hizkuntza bilakatu da.

Aipaturiko hitzarmenaren testua euskaraz eta hebreeraz idatzirik dago. Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Moshe Bar-Asher Hebrear Hizkuntzaren Akademiako presidenteak sinatu dute.

Euskararen Erakunde Publikoa

Euskararen Erakunde Publikoak (EEP) eta Euskaltzaindiak 2016. urteko betebeharrak jasotzen dituen hitzarmena sinatu dute. Bi erakundeon arteko lankidetzaren lerro nagusiak berrestez gain, 2016an egin beharreko lanak zehazten ditu dokumentuak. Besteak beste, EEPk Jaurlaritzarekin batera antolatzen duen Proiektu Deialdian aurkezten diren lanen hizkuntza kalitatea zaindu, toponimoen grafia egokiari buruzko galderei erantzuna eman, aholkularitza zerbitzu bat eskaini, edo Euskal Corpus Onomastikoaren datu-basea osatzen jardun du Akademiak aurtien. Horrez gain, eta akordio berriari esker, *Piarres Larzabalen antzerkigintza 1950-1982* liburua argitaratuko da.

Aspaldikoa da Euskaltzaindia eta EEPren arteko lankidetza, erakunde bien arteko lehen hitzarmen-markoa 2008an izenpetu zen. Aspaldiko hitzarmen-marko hark bi erakundeek elkar aditurik egin beharreko lanen nondik norakoak zehazten zituen, eta lankidetzaren ardatzak eta erakunde bakoitzaren betebeharrak finkatzen. Segidan, 2014-2016 epealdirako lankidetza esparrua finkatzen zuen akordio-marko berria sinatu zuten erakundeek; xehetasunak, aldiz, urtero finkatzen dira, hitzarmen orokorrari lotutako gehigarri bat izenpetuz. Beraz, orain izenpetutakoa hitzarmen-marko horren eranskina da.

Euskararen Erakunde Publikoa (www.mintzaira.fr) edo EEP (frantsesez, Office Public de la Langue Basque, OPLB) Ipar Euskal Herrian euskararen inguruan lan egiteko botere publikoek 2004an sortu zuten lehen erakunde ofiziala da. Bere hel-

buru nagusiak bi dira: batetik, euskararen aldeko hizkuntza politika publikoa eta hitzartua asmatzea eta definitzea, eta, bestetik, horretarako behar diren finantza baliabideak bermatzea.

Baionako Udala

Baionako Udalak eta Akademiak lankidetza-hitzarmen historikoa izenpetu dute Baionako herriko etxean. Jean-René Etchegaray Baionako auzapezak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak sinatu dute dokumentua.

Zehatz-mehatz, hauek dira 2016. urtean hitzarmenak ahalbidetu dituen egitasmoak:

- *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren* aurkezpena; *Erlea* literatura aldizkariaren aurkezpena; XXI. Jagon Jardunaldia; eta *Euskaltzaindiaren Hiztegi* berriaren aurkezpena.
- Honela, Baionako Herriko Etxeak onartzen dio Akademiari euskararen araugintzan eta normalizazioan egiten duen lana, erakunde gisa "erreferentziazkoa" dela aitortzen duen heinean.

Akordioan jasotzen den legez, 2016an, Euskaltzaindiak ondoko lanak hartu ditu bere gain: Baionako Herriko Etxeari eta biztanleei laguntza eta aholku ematea, euskararen normalizazioan, garapenean eta gizarteratzean; Herriko Etxeak eskatzen dion hizkuntza aholkularitza ematea, bereziki toponimoen hizkuntza egokitasunari dagokionez; eta euskararen estatusari buruzko aholkularitza eta lanak egitea, bereziki jardunaldiak, bilkurak, aurkezpenak eta abar, euskararen aurrerapenerako xedea aintzat harturik.

EiTB

2016an, Maite Iturbe EiTBko zuzendari nagusiak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak 2020ra arteko lankidetza-hitzarmena sinatu dute, EiTBren Bilboko egoitzan.

Akordioaren bitartez, euskara eredu estandarra zabaltzen lagunduko du erakunde publikoak, bere plataforma eta hedabide guztietan; horrez gain, euskalkien aberastasuna bistaritzen eta balioan jartzen ere ahaleginduko da. Bestetik, EiTBren testu-masa erabiltzen jarraitzeko aukera ematen zaio Euskaltzaindiari.

EiTBren eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmen horretan jasotzen denez, EiTBko hedabideek kalitatezko euskara eredu estandarra zabaltzen eta finkatzen lagunduko dute ondorengo lau urteetan. Aldi berean, euskalkien aberastasuna bis-taratzen eta balioan jartzen ere ahaleginduko dira, hizkuntza erregistro egokiak erabiliz, saio bakoitzari eta komunikazio egoera bakoitzari dagokion eran. Aurretik egin izan den legez, irizpideak EiTBren estilo liburuak jasoko ditu.

Hori guztia aurrera eramateko, EiTBk Euskaltzaindiaren laguntza eta kolabora-zioa izango du (batik bat, Hizkuntza Kalitatearen Behatokitik eskainiko dio laguntza hori Akademiak). Gainera, EiTBren testu-masa erabiltzen jarraitzeko aukera ematen zaio Euskaltzaindiari, UZEI, Elhuyar eta IXA taldeekin batera garatzen dihar-duen Lexikoaren Behatokia osatu ahal izateko.

Halaber, eta urtean behin, Euskaltzaindiaren zuzendaritzak txostena helaraziko dio EiTBko zuzendaritzari, erakunde publikoaren hedabide bakoitzean erabiltzen den hizkuntza-ereduaren zuzentasunari eta egokitasunari buruz aholku emateko eta euskararen garapenean bidelagun izateko helburuarekin. Horrez gain, Akademiak erantzun zuzena emango dio EiTBren Euskara Zerbitzuari, eta EiTBren zuzendaritzak beharrezko ikusiz gero, hitzarmen horrek barruratzen dituen gaitetan trebakuntza ikastaroak, jardunaldiak edo informazioa emango dio Akademiak.

Azkenik, hitzarmen berriaren xedeak bideratzen eta erakunde bien arteko harre-manak egoki kudeatzen laguntzeko jarraipen-batzorde bat eratuko da; erakunde bietako kide bana izango du jarraipen-batzorde horrek. Gogoratu behar da 2003. urtetik datorrela EiTB eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetza, eta ordutik kalita-tezko euskara sustatu eta zabaltzearen alde egin dutela bi erakundeek.

Berriak

2016ko albisteen kronika

“Euskara biziberritzen jarraitzeko erronkak” jardunaldia

Otsailaren 12an, “Euskara biziberritzen jarraitzeko erronkak” jardunaldia egin da Euskaltzaindiaren egoitzan.

Jardunaldi horren bitartez, Euskaltzaindiak prozesu bati hasiera eman eta eztabaida aldia zabaldu nahi du. Iazko udazkenean, Patxi Saez soziolinguistak Euskaltzaindiari eskari zehatza egin zion: azken 50 urteotan indarrean dagoen euskararen paradigma aldatzeko prozesuan gidaritza har zezala. Bere ustez, azken 50 urteotan indarrean dagoen euskararen paradigma aldatu beharra dago. Euskararentzat dinamika berria sorraraztea beharrekotzat jotzen du eta Euskaltzaindia prozesu horren erdigunean kokatzen du.

Jardunaldiaren ostean, Euskaltzaindiko Sustapen batzordeak bilera egin eta emaitza aztertu du. Hurrengo urratsa honako hauxe izan da: eztabaidari jarraipena ematen dion prozesua Sustapen batzordeari proposatzeko, eta ondoren, Zuzendaritzak aztertzeko, Sustapen batzordeak aldirako lantalde bat eratzea.

2015 Azkue Literatura Sariak

Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa fundazioak Literatura sari hauek antolatzen dituzte, haur eta gazteei zuzenduak doazenak. Bi kategoriatan banatuak daude: A kategoria, 11 eta 14 urte bitarteko ikasleentzako; eta B kategoria, 15 eta 18 urte bitartekoentzako. Kategoria bakoitzean bi literatur genero saritzen dira: narrazioa eta olerkia.

Aurten 175 lan aurkeztu dira, iaz aurkeztutakoen bikoitza. Azkenengo lau urteetan lan gutxiago aurkeztu badira ere, 2016an joera zeharo aldatu da, duela sei-zazpi urteko kopurura iritsi delarik.

Matematikako, Fisikako eta Astronomiako oinarrizko lexiko teknikoak sarean jarri ditu Euskaltzaindiak

Euskaltzaindiak osatu dituen hiru lexiko teknikoak sarean jarri eta Donostiako Luis Villasante Ikerlanean, hainbat irakasle eta argitaldari bertan direla, aurkeztu ditu martxoaren 17an. Matematikaren, Fisikaren eta Astronomiaren arloetako oinarrizko lexikoak Euskaltzaindiaren webgunetik deskarga daitezke, PDF formatuan.

Andres Urrutia euskaltzainburuak, Andoni Sagarna Akademiako Hiztegiakintza arloko arduradunak, Inaki Irazabalbeitia Zientzia eta Teknika hiztegia biltzeko egitasmoko idazkariak eta Antton Gurrutxaga egitasmoko kideak azaldu dutenez, hogeita hamar urte baino gehiago iragan dira euskara arlo teknikoetan erabiltzen hasi zenetik eta ordutik hona begi-bistakoa da hizkuntzak izan duen garapena.

Euskaltzaindia Sarako XXXIII. Idazleen Biltzarrean

Martxoaren 28an, urtero Ipar Euskal Herriko idazleek egiten duten biltzarrean Euskaltzaindiak *Euskal Literaturaren Antologia I: Erdi Arotik Errenazimentura* liburua aurkeztu du.

Lana Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa batzordeak egin du Karlos Otegiren koordinaziopean. Aurkezpen ekitaldian Karlos Otegi bera mintzatu da eta berarekin batera izan dira: Jon Casenave Literatura Ikerketa batzordeko kidea; Mathieu Bergé Euskararen Erakunde Publikoaren presidentea eta Andres Urrutia euskaltzainburua.

Euskaltzaindia eta EHU lankidetzan, ikerketa bultzatzeko

Apirilaren 11n, ikerkuntza bultzatzea xede, Euskaltzaindiaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lehen mintegia egin da, Akademiaren egoitzan. Ekimena UPV/EHUko Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego programako doktoregaiei eta izen bereko masterreko ikasleei zuzendu zaie.

Mintegi hori UPV/EHUko Hizkuntzalaritza eta Euskal Filologia masterreko eta doktorego programako ikasleek beren praktikak eta ikerketak Euskaltzaindian egin ditzaten lehenengo pausua izan da. Izan ere, 2015eko urrian bi erakundeok lankidetzahitzarmen berria sinatu zuten. Hitzarmen horren ondorioz, Euskaltzaindiak

Hizkuntzalaritza eta Euskal Filologia masterreko eta doktorego programako ikasleak hartuko ditu, praktikak eta ikerketak egin ditzaten bere zentroetan, hots, Bilboko egoitzan, Donostiako Luis Villasante Euskararen Ikergunean eta gainerako ordezkarietan.

Hala bada, jardunaldian Adolfo Arejita Euskaltzaindiko Iker sailburuak eta Pruden Gartzia Azkue Biblioteka eta Artxiboko zuzendariak hitzaldi bana eman diete ikasleei, eta Akademiaren Iker egitasmoen zein funts bibliografiko eta artxibistikoaren nondik norakoak azaldu dizkiete.

Kantonamendu berrien euskal izenak

Onomastika batzordeak, EiTBk hala eskatuta, Iparraldea hartzen duten kantonamendu berrien euskal izendapenak finkatu ditu. Ezaguna denez, 2014an kantonamenduen berrantolaketa gauzatu zen Frantzian eta, horren ondorioz, Iparraldeko kantonamenduen kopurua 24tik 12ra jaitsi da, 14ra Jestaze eta Eskiula hartzen dutenak kontuan edukiz gero.

Aurreko deizioetan ez bezala, berri hauetan kantonamendua izendatzeko ez da beti bulego nagusia kokatuta dagoen herriaren izena erabili eta, esaterako, *Hendaye* zena gaur egun *Hendaye-Côte Basque-Sud* da. Izendapen berri horiek zailtasunak sortzen dituzte euskaratu nahi ditugunean, *Montagne Basque*-k eta *Côte Basque-Sud*-ek adibidez, Euskal Herria bere osoan hartzen badugu, baina era ofiziala errespetatu behar denez gero, ez dira izendapenak ez aldatu eta ez bakundu ere.

Euskaltzaindiak sei euskaltzain urgazle berri izendatu ditu

Apirilaren 29an, Iruñean egin den Osoko bilkuran, Euskaltzaindiak sei euskaltzain urgazle berri izendatu ditu. Hona hemen zerrenda, ordena alfabetikoan: Amaia Apalauza Olló, Xabier Erize Etxegarai, Maite Lakar Iraizoz, Patxi Petrirena Altzuguren, Rosa Ramos Alfaro eta Castillo Suarez Garcia.

Ettxepare eta Bordeleko Montaigne Unibertsitateak Haritschelhar katedra sortu dute

Ettxepare Euskal Institutuak eta Université Bordeaux Montaigne unibertsitateak hitzarmen bat sinatu berri dute Bordelen, euskal ikasketak bertan sustatzearren. Hélène Vélasco-Graciet unibertsitateko presidentek eta Mari Jose Olaziregi Institutuko Euskara Sustatu eta Hedatzeko zuzendariak eta unibertsitate alorreko arduradunak izenpetu duten akordioaren ondorioz, *Jean Haritschelhar Katedra* abian jarriko dute Bordeleko unibertsitate horretan, 2017. urtean.

Katedra berri honek Jean Haritschelharren ikerketa eremu izan ziren euskal ikasketak, bereziki literatura eta linguistika, eta iberiar ikasketak sustatzea du helburu, Haritschelharren beraren izpiritu izan ziren nazioarteko eta mugaz gaindiko harremanak bereziki zainduz.

Nafarroa Oinez: Euskaltzaindia Lodosan

Goizean, Lodosa eta Sartagudako alkateek harrera egingo diete Akademiako buru eta kideei eta ondoren, Lodosako Udaletxean egingo du Euskaltzaindiak zuzendaritza batzarra, bisita azkenerako utziz.

Urriaren 16an egin den *Nafarroa Oinez*en edizio berria dela eta, Lodosako ikastola bisitatu du Euskaltzaindiak ostiralean, irailak 23 dituela. Aurretik, Lodosa eta Sartagudako alkateek harrera egin diete euskaltzainburuari, Nafarroako euskaltzainei eta zuzendaritza batzordeko kideei, Lodosako Udaletxean bertan. Akademiak zuzendaritza batzarra egin du udaletxean, eta, horren ostean, Lodosako ikastola bisitatu dute, zuzendariak lagunduta.

Lodosan eta Vianan (Nafarroa) egin da aurtengo *Nafarroa Oinez*. Gainera, historikoa da aurtengo aldi hau, lehenengo aldiz bi ikastolen elkarlanari esker egin delako: Vianako Erentzun eta Lodosako Ibaialde ikastolenei esker.

Aurreneko aldiz, Euskaltzaindiak Nafarroako Parlamentuan egingo du Osoko bilkura

Bere historian lehenengo aldiz, Nafarroako Parlamentuaren egoitzan egin du Osoko bilkura Euskaltzaindiak. Irailaren 30ean izan da bilera, Parlamentuko 2. batzorde gelan; egun berean, harrera ofiziala egin dio Akademiari Parlamentuko mahaiak.

Aspaldikoa da Akademiak Nafarroako Parlamentuarekin duen hartu-eman, azken urteotan areagotu egin dena. Horren adibide garbia da iazko urtarrilean sinatutako lankidetzaz hitzarmena (besteak beste, parlamentu-lexikoaren bateratze-lana egiteko baliagarria izan dena). Hartu-eman sendo eta iraunkor horretan, beste pauso garrantzitsu bat da 30eko bilkura.

Apirilean, Iruñeko udalak hartu du Osoko bilkura, baina orain arte ez zen horrelakorik gertatu Nafarroako Parlamentuan.

Euskaltzaindiaren Hiztegia, bikoitza eta digitala

Hiztegiaren paperezko bertsioa salgai dago, eta Euskaltzaindiaren webgunean kontsultatzeko moduan ere bai (www.euskaltzaindia.eus). Kontsultak era arruntan edo aurreratuan egin daitezke.

Argitalpen hau Bilbao Bizkaia Kutzaren babesarekin egin da, 37.884 sarrera eta 6.944 azpisarrera dauzka, beraz, 44.828 forma eta 61.398 definizio (lehenengo edizioak 20.000 sarrera zeuzkan).

Hiztegiaren sareko baliabideetatik irten gabe Euskaltzaindiaren beste errekurtso lexikografiko batzuk ere kontsulta daitezke: Hiztegi Batu Oinarriduna, Orotariko Euskal Hiztegia, XX. mendeko corpusa eta Lexikoaren Behatokia.

Ipar Euskal Herrian euskara indarberritzea XXI. Jagon jardunaldia

Azaroaren 19an Baionako Euskal Museoan antolatu den Jagon jardunaldian, erakunde berriak ondorengo urteetan gainditu beharreko erronkak aztertu dira. 'Euskal Elkargoaren sortzea eta euskararen geroa' lemapean egin da aipatu mintegia.

Jende ugari hurbildu da goizeko zein arratsalde parteko hitzaldietara, Euskal Museoko gela nagusia euskaltzalez gainezka agertu delarik une oro.

Donostia eta Europako hizkuntzak perspektiba soziohistorikotik

Abenduaren 20an, Luis Villasante ikergunean egin den jardunaldian, hizkuntzen historia soziala lantzeko nazioarte mailan berritzailea den metodologia aurkeztu eta aplikatu da; bestetik, azken 250 urtean Donostiako bilakaera soziolinguistikoa zein izan den ere azaldu da. Andres Urrutia euskaltzainburua; Xabi Paya, Donostia 2016ko kultur programaren zuzendaria; eta Antonio Campos, Kutxa Fundazioko ordezkaria izan dira ekitaldian.

Euskaltzaindia Durangoko Azokan

Abenduaren 2tik 6ra, Euskaltzaindiak Durangoko Liburu eta Disko Azokan parte hartu du. Azokak aurten 51. edizioa bete du eta jakina denez, euskal kulturarentzako ezinbesteko zita da. Beste hainbat argitalpenekin batera Euskaltzaindiak bere azken lanak izan ditu salgai, horien artean, *Erlea* aldizkari literarioaren azken zenbakia eta Juan Manuel Etxebarria irakasleak idatzitako *Gorbeia inguruko etno-ipuin eta esaundak II*. Juan Manuel berea Akademiaren saltokian izan da aleak sinatzen eta eman beharreko azalpenak ematen.

Erromanisten Nazioarteko Kongresuan izan da Euskaltzaindia

Hiru urtetik behin egiten den Erromanisten Nazioarteko Kongresuan parte hartu du Akademiak, Julen Manterolaren eskutik. Harako, *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoarekin* (EHHE) loturiko txosten zabala prestatu eta aurkeztu du Manterolak.

XXVIII. aldia bete du aurten Erromanisten Nazioarteko Kongresuak, uztailaren 18tik 23ra bitartean antolatu denak, eta, Manterolaren hitzetan, honelako proiektu estrategikoak “halako plaza akademikoetan aurkeztea ezinbestekoa izango da etorkizunean”. Eta, zalantzarik gabe, hitzen historian sakonduko duen hiztegia egitasmo garrantzitsua da Euskaltzaindiarentzat.

2009ko irailean onartu zuen Akademiak Joseba Lakarrak aurkeztutako proiektua eta 2010ean abiatu zuen Julen Manterola eta Iñaki Seguiolarekin osatutako taldeak. Lehen fasean (2010-2012), beste hainbat tradiziotako lan paraleloak ezagutu, lanabesak eskuratu (testu eta era guztietako bibliografiaz jabetuaz) eta EHHEren eredua garatu zuen lantaldeak.

Orain amaitzen den bigarren fasean *EHHE-2000* landu da eta 2017an argitaratuko da lan horren emaitza, 200 familia eta 2.000 sarreratakoa, hain zuzen. Azken fase honetan, Gabriel Frailek eta Koro Seguiolak ere lagundu diote EHHEren lantaldeari.

Omenaldiak

2016an omenduak izan diren Euskaltzaindiko kideak

Aingeru Epaltzak irabazi du *Berriaren Bidaia* eta Mendi kroniken lehiaketa

Berria egunkariak antolatzen duen Bidaia eta Mendi Kroniken Lehiaketaren 2015eko edizioa Aingeru Epaltza idazle eta euskaltzain urgazle nafarrak irabazi du. Lan saritua Valluna mendira (Peru) egindako igoeraren kronika da eta *Bi belarrien mendian, altuera altueragoa denean* du izenburua.

Epaltzak irabazi duen saria Atlasera (Maroko) joateko bidaia da, Mendiak eta Herriak gidarien elkartearen eskutik.

Joan Mari Torrealdaik Manuel Lekuona saria jaso du

Martxoaren 12an Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean eginiko ekitaldian, Joan Mari Torrealdaik jaso du Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria.

Lagun, lankide eta senideak ondoan zituela, Iñaki Dorronsoro Eusko Ikaskuntzako lehendakariaren eta Markel Olano Gipuzkoako ahaldu nagusiaren eskutik jaso du saria.

Kepa Altonagak jaso du CAF-ELHUYAR Merezimendu saria

Kepa Altonaga zoologo, idazle eta euskaltzain urgazleak jaso du aurtengo CAF-Elhuyar Merezimendu Saria, "euskara normalizatzen eta zientzia gizarteratzen egindako lanagatik".

Aurtengo edizioaren leloa "Jarri txertoa kultura zientifikoaren alde" izan da. Altonagarekin batera, hauek izan dira sarituak: Xabier Artaetxebarria Artie-

da eta Antton Alberdi Estibaritz ikertzaileak eta Edu Lartanguren Urdangarin kazetaria. Enrique Hurtado Mendietak, berriz, *Txalaparta digitala eta interaktiboa* proiektua garatzeko beka jaso du.

Atea-Laboral kutxa saria eman diote Anjel Lertxundiri

Anjel Lertxundi idazle eta euskaltzain urgazleak Atea-Laboral Kutxa saria jaso du, ekainaren 2an, Bilboko Liburu Azokaren inaugurazio ekitaldian. Manuel Rivas idazle galiziarrari ere eman diote saria. Ekitaldian Juan Mari Aburto Bilboko alkatea, Jose Ramón Taranco Laboral Kutxaren Komunikazio zuzendaria, Asier Muniategi azoken koordinatzailea eta Toti Martinez de Lezea idazlea izan dira.

Orioko idazleak liburuek euren orrietan gordetzen dituzten munduak aldarrikatu ditu. Liburuek "galtzeko aukera ematen digute", dio, "baina ez galduta ibiltzeko, baizik eta gure burua berriro topatu ahal izateko".

Andres Urrutiak Bilboko Liburu Azokaren Urrezko Luma saria jaso du

Euskaltzainburuak berriki aurkeztu du Blas de Oteroren *Historias fingidas y verdaderas* lanaren euskarazko itzulpena, *Istoriok, alegiazkoak nahiz egiazkoak* izenarekin. Hain zuzen ere, Bilboko poeta omenduko du aurtengo Azokak, bere jaiotzaren mendeurrenean.

Aurten bete dira ehun urte Blas de Otero jaio zela. Hori dela eta, Bilboko poeta gogoan, Azokan hainbat ekitaldi egin dira; horietako bat "Ehun urte Blas de Oterorekin (1916-2016)" erakusketa izan da. Azokak iraun bitartean, Areatzan izan da ikusgai.

Azokak hil ondorengo Zilarrezko Luma eman zion atzo Blas de Oterori berari. Sabina de la Cruz haren alargunak hartu zuen saria. Peridis marrazkigileari beste Zilarrezko Luma eman zioten.

Emile Larre eta Teodoro Hernandorena omenduko dituzte Xalbador Egunean

Urriak 22 eta 23an egin den Xalbador Egunak, Urepeleko bertsolariaz gain, Emile Larre euskaltzaina eta Teodoro Hernandorena politikari eta kulturgilea izan

ditu gogoan, batik bat, euskaltzale biek “bertsolaritza eta euskal kulturaren alde eginiko lanagatik”.

Manuel Lekuona saria eman diote Jean-Louis Davanti

Euskaltzain, filologo eta idazleak irabazi du aurtengo Manuel Lekuona saria, urtero Eusko Ikaskuntzak banatzen duena. Epaimahaiak nabarmendu du Davantek euskararen eta euskal kulturaren eremuan egin duen ahalegin handia, "goraipatze-koa dena. Bat egiten du Manuel Lekuonak euskara eta euskal kultura indarberritzeko izan zituen kezkekin", esan dute, eta euskaltzaina belaunaldi oso baten erreferentea bilakatu dela gaineratu. Izan ere, "Zuberoako errealitatea argi islatzen du haren pertsonak eta bere lana Euskal Herri osoari eskaini izan dio beti, katea eten ez dadin lagunduz".

Eusko Ikaskuntzatik azpimarratu nahi izan dute Davantek Arantzazuko bilkuran eginiko ekarpena, 60. hamarkadan euskararen batasunaren zorua adosten saiatu zen Ipar Euskal Herriko azken lekukoa izaki. Halaber, ezaguna da pastoralgintzan egin duen ekarpen oparo eta zabala.

Irabazlearen hautaketan herriak eta epaimahai instituzionalak parte hartu dute. Honela, Eusko Ikaskuntzako bazkideen bozkak %30eko pisua izan du azken emaitzan; Euskal Komunitate Globalarenak %10ekoa; eta falta den %60 epaimahai instituzionalaren esku geratu da. Azken hau Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak, Euskaltzaindiak, Aranzadi Zientzia Elkarteak, Labayru Ikastegiak, Jose Miguel de Barandiaran Fundazioak, Euskal Kultur Erakundeak, Vianako Printzea Erakundeak eta Eusko Ikaskuntzak berak osatu dute.

Koldo Artola Kortajarena omendu du Nabarralde Fundazioak eta Iturralde Elkarteak

Nabarralde Fundazioak eta Iturralde Ikerketa eta Ekimen Elkarteak Koldo Artola Kortajarena hizkuntzalari, etnografo eta ohorezko euskaltzaina omendu dute. "Urte luzez euskararen berreskurapenean egindako lan aberatsagatik" egin diote gorazarearen donostiarrari.

Elkano kalean jaioa, zazpi senidetan gazteena da Artola Kortajarena. Ama Anoetakoa zuen eta aita donostiarra. Aitona (aitaren aita) pertsona ezaguna izan zen Donostian: Pepe Artola idazle eta antzezlea, hain zuzen. Eta baita birraitona ere (Peperen aita), Ramon Artola idazle euskaltzalea. Alabaina, Koldok ez zuen euskararik jaso etxean, Donostiako giroa oso erdalduna baitzen gerraostean. 21 urterekin hasi zen euskara ikasten, eta handik aurrera euskalkiak izan dira bere pasioetako bat.

Lanbidez aurrezki kutxa batean lanean aritu arren, nekaezin jardun du ahozko ondarea eta euskalkiak jasotzen, bereziki Nafarroan eta Iparraldean. Euskaraz mintzo ziren azken hiztunak elkarrizketatu zituen hainbat herri txikitik, besteak beste Izaban eta Uztarrozen. Eta *Euskal Herriko Atlas Etnolinguistikorako* hainbat eta hainbat inkesta egin zituen, Aranzadi elkartearekin. Lanean jarraitu du gerora ere, jasotakoa transkribatzen, eta 2014an '*Ziorditik Uztarrozeraino*' lan mardula plazaratu zuen, inguru hartako azken hiztunen testigantzekin. Ohorezko euskaltzaina da 2004tik.

Luis Baraiazarrari omenaldia Meñakan

Luis Baraiazarra Txertudi, Meñakabarrenan jaioa, 1940. urtean, Urezandigoikoa baserrian, ibilbide luzeko irakasle, itzultzaile eta euskaltzalea da. Meritu horiek guztiak kontuan hartuz, omenaldia egin diote karmeldarrari bere jaioterrian.

Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta, Meñakako Udalak, herritar guztien ize-nean, gorazarre egin nahi dio Baraiazarrari: udalbatzak onartuta, aurrerantzean herriko Udal liburutegiak bere izena eramango du.

Gogoratu behar da Espainiako Itzulpen Onenaren Sari Nazionala eman ziotela meñakarrari azaroan, ordu batzuk geroago kendu ziotena, Euskaltzaindiaren eta euskal gizarte osoaren harridurarako.

Xabier Kintana euskaltzaina, “Bilboko ospetsu”

2016an, Bizkaiko hiriburuko udalak bost lagun berri gehituko dizkio 'Ospetsuen' zerrendari: Jose Angel Iribar, 'El Txopo', Athleticetako atezain mitikoa, munduko onenetakoa; Sara Estévez, lehenengo kirol kazetari emakumezkoa; Jose Antonio

Garrido, enpresa ibilbide garrantzitsua egiteagatik; Begoña Rueda, ezgaitasunak dituzten pertsonen eskubideen alde borroka egiteagatik; eta Xabier Kintana euskaltzaina, euskararen erabilera sustatu eta erabiltzeko eskubideak zaintzeagatik.

Xabier Kintana Urtiaga Bilbon jaio zen, 1946ko urriaren 13an. Kintana euskaldun berria da. Eskolapioetan ikasten ari zela, euskaraz idatzitako lehen esaldi, hitz eta zenbakiak ikusi zituen. Ondoren, Euskaltzale Bazkunako gramatika erosi zuen eta ikasteari ekin zion. Berak inoiz esan duen legez, alde horretatik autodidakta izan zen guztiz.

Deustuko Unibertsitatean Filosofia-Letratan lizentziatu zen, helduen euskalduntze eta alfabetatzean lanean hasi aurretik. 1966an, hogeitasei urte besterik ez zituela, Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen. Gaur egun euskaltzain osoa da, 1993ko urriaren 29az geroztik (Eusebio Erkiaga zenaren ordezkari izendatu zuten), eta sarrera hitzaldia Bilbon egin zuen, 1994an "Bilbao euskararen bizitzan" gaitzat harturik Akademiako Idazkaria da 2002ko otsailetik, Exonomastika batzordeko buru eta Zientzia eta Teknika hiztegia biltzeko lantaldeko buru ere bai.